

ITZA

PAULIN SOLOZABAL

I TZA


EUSKERAZAINTZA'REN BABESPEAN

EUZKO JAURLARITZAK LAGUNDUTA



I.S.B.N. 84-604-8335-5
Dep. Legal BI-2.376-93

LANKOR ARGITALDARIA
BILBAO
1993



PAULIN SOLOZABAL'EN LIBURU BARRIA

Idazle ugaria dogu Paulin Solozabal. Amar liburu idatzi dauz, azkenen-
goa naikoa mardula, baiña oraingo au aundiagoa ta lodiagoa da.

ITZA ipiñi dautso Paulin'ek idazpru liburu oneri.

Itza da, izan be barrua agertzeko daukagun bide rik zabalena, eta Paulin'ek
liburu onetan bere barrua agertzen dau. Itza dogu, baita, besteen agerpenak
geuk artzeko bide rik zabalena. Ikusi dagigun Paulin'ek agertzen dauan barrua
eta bere eredua onartuz, agertu daigun geuk be barrua, bere antzera uga ri
idatziz.

Itza agoz eta luma-bidez agertu leike.

Ez dogu aitzu bear Paulin, abadea dala eta bere bizitza luzea abade-
lanean igaro dauala.

Abade-lan onetan Paulin'en guraria beti izan da Barri Ona zabaltzea
eta orretarako itzaldiak egitea. Arako Kataliñe Deunaren egunean, ikaski-
deen aurrean lenengoz egin eban itzaldiagaz asi eta arrezkero, makiña bat
ordu igaro dauz fededunen aurrean berba egiten, zelan edo alan katekesi-
lana egiten.

Orregaitik, eta bere abade-lanak eskatzen daualako, errez ule rtuko dogu
Paulin'ek zergaitik daukan arazo guztietan Jainkoagana jokerea. Ez dogu
esan itzak barrua agertzen dauala? Jokera orrek argi diñosku bere barruan
Jainko-zaletasuna dagoala.

Baiña luma-bidez be asko egin dau berba Paulin'ek.

Aitatu doguzan liburuak alde batera dirala, zenbat idaz-lan argitaratu
dauzan! Orrez gaiñera izen ba rik egiten diran lanak, itzulpenak esaterako.

Eta orain eskuetan daukazun liburu au be, irakurle, luma-bidez berak
agertzen dautzun **ITZA** dozu.

Orain arteko liburuak olerkiak izan dira, geien bat, baiña oraingo onetan
zatirik aundierna itz-lauz agertzen da.

Ba-dakigu Paulin'ek itz neurtuz zuzen eta argi idazten dauana. Itz lauz
be ondo idazten dauala ikusten dogu aldizka rietan. orain, liburu mardul
onetan barriro ikusi al iz ango dogu bere idazle-almena.

Aztertu dagigun pizka bat liburu au.

Sarreran dei bat dauka.

Liburu guztietan izaten dau bere garrantzia liburuaren sarrerak. Go-
goratu, esaterako, Orixe'ren **EUSKALDUNAK** liburuak sarrera ederra dauka,
musai deitzen jaken lekuan Espirituari dei egiñeaz.

Oraingoan Paulin'ek be sarrera ederra egiten dautsoe bere olerki eta itz-lauzko ekiñaldiai. Argiari egiten dautso dei, izarrai eskatzen dautse suzko biotza eta lurrari izkuntz zar urrezkoa.

Liburuaren lenengo zatia olerkiak dira.

Geienetan artzen dauzan gaiak lurra, izkuntza, bizia, zugatzek eta lorak dira, baiña sartzen da gizarte-arazoetara be, golearen arazoa ta langille-ugazaben arteko goraberak ez daukaz aiztuta.

Bigarren zatia luzeagoa da eta itz lauz dagoanez, beteago be bai. Bizitari ezkintzen dautso zati bat. Jainkoaren lankide izatea, maitasuna, anaitasuna dira jarraian datozen arloak. Konturatzeko gauzea da olerkariak bizia maite dauala eta gai ori agertzen dala bertoz naiz prosaz, ugarien.

Gero salbamenaren arazoari ekiten dautso idazleak: Israel eta bere erri-askatasuna, eta or barruan sartzen dau langilleen eta baserritarren askatasun-arazoa, eta gero zuzen-zuzen Kristo Salbatzaillaren gaia eskuratzen dau, erreñua eta erreñura sartzeko bideak agertuz.

Eta amaitzeko lenengo denporetako eleizearen jokabideak agertzen dira.

Orra or, irakurle euskalduna, liburu irakurgarri bat. Sinisteduna ba'zara poz aundia emongo dautzu, eta sinismenean otz aurkitzen ba'zara, bide onek barruan dakarren poza ta gozotasuna agertuko dautzuz.

OLAZAR'tar Martin'ek

PAULINERI BERTSO BI ZORTZIKO ANDIAN

Euskera asko maitatziarren
bertso ta olerki dotsuz egin,
gure izkuntza bultzatziarren
egiten dabil alegin.
Erdera nausi ikusikeran
biotzian dauko samin.
Euskal idazle ta olerkari
ona dogu gure Paulin.

Euskerak ditun arazoetaz
jendia ez da konturatzen,
baina apurka apurka doa
gure izkuntz polita iltzen.
Gure Paulinen alegiñak be,
jendiak ez dauz eskertzen.
Urte askotan segi dadilla
euskera ederrez idazten.

ASIER LEGARRETA

ZATOZ

Zeru goiak, ixuri
zuen argi gozoa
nire itzetara;
euskal olerki txortak
izan dagian gatza
zure argitara.

Zeru goiko izarrak
emon suzko biotza
euzko aditzari;
mendi ta zelai zear
maitasuna ezarriz
nire odolari.

Sortu ninduzun lurra,
ezin zaitut aldendu
gogo barrenetik;
Euzkoen izkuntz zarra,
urrezko izan dedin
olerki egiñik.

IZKU NTZ

Izkuntz zoragarria!
zer aduz jaio ziñan
euzko mendietan...?
Nortzuk ziran sorleak
ainbeste jakituriz
zure erraietan...?

Bakan... bakarra zara
jakintsuen eretxiz
mundu zabalean;
izarrak al ebiltzan
euzko seme egiñik
zure alorrean...?

Jakitura dauka
sormen eta egituran
beretzat egiña;
lilluraz zabaltzen dau
jakintsuen barnera
bere eder miña:.

IZADIA

Zer ziran gure mendiak
arbasoen aldi artan,
ota ta larrez jantzirik
arru ta aldatz gaiñetan...?

Zer edukan sasi latzak!
zer arkaitzaren zorrotzak...!
Zer eukan arkaitz zuloak,
euzkoen bizi-lekuak...?

Argia, indar, biotza
al ziran zuen gailena...
ojal artean sortzeko
izkuntzarik oberena...?

Izadian sartu nadin
basoko lore usaiñez,
izkuntzari emoteko
maitasun dana biotzez.

OTATZA

Gau itsua zirudian
arbasoen lantegiak
ota lorrez estalduta
lurraren egal guztiak.

Goseak dei ilbearrez,
sasiak, arro, goraka,
gizonik munduan ba-da,
gu menperatzeko otska.

Lenengo gizon larriak
esku utsik tresna bage,
arrizko atxur zuria
jakituriz sortzen dabe.

Izadi guztia aurrez...
nor, zer, zelan, nundik, asi...!!
Euzko seme indartsuak
laster, ari ortzak ausi.

LURRA EDERTZEN

Lau alde ta goi bizkarrak
zelai biurtzen doazi,
itxasoak alaiago
orroa adierazi.

Sugeak eta piztiak
uluaka iges doaz,
lengo egoitza babesa
larritasunez galduaz.

Baso-idiaren otsa...
ta sugearen txistua...
urriñetako otatzan
jo dabe etsai soiñua.

Gizona ba-doa goitzen.
Izarrak agiri dira
ortz oztiñean dizdizka
zelaietara begira.

SASI RI K EZ

Argia ta maitasuna
dabiltz buru-biotzetan,
giz argiak argitu dauz
sasi illunak zelaietan.

Ibai ertz, troka, mendiak
alkarri begira dagoz,
itza dario mendiak
eguzkizko argi gozoz.

Ur salto zuriak datoz
arkaitz artean zearka,
arri bolak, bilin bola,
erretenari aginka.

Ortzian gabaz izarrak
sasizko etsairik barik,
mendi orleian izketan
amets gozoak egiñik.

EDERTZEN

Euzkoak atxur ta aizkoraz
menperatu eben lurra,
agur sasien negarra
amiltegien ondora.

Mendiak orleitzen doaz
bizkarretan Iubarriak,
bizitza barria dator
zabalduz ate zuriak.

Otearen ordez datoz
argia eta grazia;
ta lurra maitekorrago
arnas sendoaz betia.

Eskerrak zuri, lugiña,
zure izerdi guztiak
landara ta lore barri
biurtzen ditu mendiak.

BIZI BARRIA

Arkaitz gaiñera eldu zan
lenengo euskal gizona,
danak agertuten dautse
Jaungoikoaren sormena.

Gizona doa apaintzen
euskaldunen lur santua,
mugaz-muga ederra da...
zorioneko lekua.

Ezti dario lurrari
biotzaren amesgarri;
erleak dabiltz xurgatzen
maitasuna loreari.

Alderdi danetan zear
aizea dabil egari,
bizi barria dakartso
euzkotarren erriari.

IGESKA

Izamen eder bat dager
indar barriz jantzita
euzko lur eder onetan
giza gogoak landuta.

Mendi garbitasunean
eiztaria dabil nausi,
txoriak egaz aidean
ta berak arrika ausi.

Gizonen jakituria
geroago ta gorago,
ta sasi baItzen bizia
geroago ta berago.

Argia zabaltzen doa
gizadiko sorkaldean,
ta sugeak irrintzika
igeska galdu gordean.

IZKUNTZ

Aitorren izkuntz bakana
mendietan agertu zan,
bere sustrai ta lorez
bardingabeko baratzen.

Jakiturizko usaiña
dario burutik bera,
gorputz ederrez jantzia
luzez eta zabalera.

Zuk, euzko baserritarra,
nundikan artu zenduzan
izkuntza ain jakintsuaren
itza ta jasa goguan...

Zer euken euzko mendiak,
ibai eta zelai landuak...!
zer euken gure arkaitzak
ta itxas urdiñezkuak...!!!

AIN EDER

Ain zoragarria al zan
euzkoen lutelestia...!
mendi bizkar ta zelaiak
al erioen ezta...?

Nork sortu eban ain eder
euzkoen buru argia...
nork emon eutsen zentzuna
ta zuzendu gizadia...?

Egiz, enda berezia...
izkuntza zoragarria,
zentzundun gizategia
ete zan zure bidia...?

Egin munduari argi...
izan zentzuna gidari...
geroak jakin dagian
zure egiaren barri.

GOI

Larros bat agertu zan
izadiaren erdian,
ederraren irudia
zabaltzen baratz guztian.

Errekondoan lizarra
itzal gozoaren ama,
keizpera doaz aittitte
ta maitena daun amama.

Mendiaren goi bizkarrak
balkoi zuria dirudi,
iruntz zidarra dizdizka
izar printzeari adi.

Aizez argi ta ederra
zabaldiren zabaldia,
bularra xurgatzen doa
ortziren urdin garbia.

Lur guztia, antziz, egon
zugatz baten oroiz,
begira iparraldera
amets gozoaren zoriz.

Atoz lur barruko giar...
zabaldu barne erraiak,
zuregan dagoz aziak
sustartu daizen erroak.

Udabarri goiz sorreran
albistea dator goitik,
gaur jaio da landarea
ama lurrek argiturik.

Amaren irudia da
aritz izen ederragaz,
eguzkiak agurtu dau
itxaropen gartsuagaz.

Mendi guztien artean
ez dago bera lakorik,
argi zabal ta ederra
lur oro beregandurik.

Arriak begira daukaz
indar dana eskeinirik,
zugatzak begira daukaz
itxaropenez beterik.

Loreak eskeintzen dautso
usain gozoena goizez,
egurdian eguzkiak
aberastuten dau urrez.

Gora ta gora dirautzu
aize garbizko Iurriñak,
zabaldu euzko lurrean
ugari, zure eskurrak.

GOSEA

Gizadiaren gosea,
giz-urdaillaren legea,
bizia sortu zanetik
deika dabil errugea.

Jesusek ikusten zitun
beraren jarraitzaileak,
gosez, estura larrian
errukizko eskaleak.

Zazpi ogi t'arraigin batzuk
daroaguz zorroetan,
jezarri beitez zelaian
al dan era onenetan.

Jan alean emon eutsen
danak urdaila aseturik,
zazpi otzarra luzeak
gaindikazkoz beteturik.

ODOL JARIODUN

Bide zear doa Jesus
gizonaz errukiturik...
laguntza da asmoa
on-argia zabaldurik.

Bidean zear doazi
jendetza talde aundia,
odol erioz andrea
osasun billa larria.

Soiñua ikutuz, litzake...
nire osasungarria,
sinismen garrez bizi da
gaisoaren arimia.

Ikutu dautso ta bertan...
osasundun da gorputza,
fedea osatu zaitu...
a zan Jaungoiko abotsa.

JAI KI ZAN

Alaba gaisoarentzat
osasuna nai dau aitak,
aritzaren indar dana
artu bear dau eskurrak.

Jesusen billa urten dau...
bizitza jaubea da-ta,
berak aundi izan arren
ezin osatu alaba.

Jesus eldu zan etxera,
negar il-kantu soñuak
uxatu zitun etxetik...
giz-alarau utsezkuak.

Umearengana doa...
eskutik oratu eutsan...
zutundu zaitetz neskato,
ta berez, pozik, jaiki zan.

ARDOA

Ardoaren indar baltzak
alaitzen ditu biotzak,
ardauzko indar gorriak
dantzatu ditu giz-oiñak.

Ardau baltzaren goxoa
deika dabil urdaillean...
gizona dantzatu nairik
motroillo baten gaiñean.

ivtatzaren ardo barriak
auztu ditu narru zarrak,
gizona zertan zabiltzaz
ardozerreten erraiak...?

Ardoaren indar danak,
gitxika, doazenian,
gizonentzat lagun dira
osasuren onian.

AINBESTE ON

Ontasuna ta egia
Kristogan bat egin ziran,
maitasunez igortzita
odol dana ustukeran.

Larria zan egoera,
gizadia il-zorian;
bakar, negarrez, aulduta
lur illunaren gaiñian.

Argia sortu zan dizdiz,
sorkaldeak zabaldurik,
itxaropenez atearak...
Jesus a dator gizonzurik.

Gogai barriak dakartsoz
negarrez egon lurrari;
lurrak ez dau ezagutu
ainbeste on miragarri.

JESUS TA IKASLEAK

Itxasoa bare egon,
dana urdiñez jantzia,
ertzik barik zeruraiño,
zabalez, arrigarria.

Atsedan toki zirudin
bakezko zidar uretan,
zerua biribil egon
eguzkizko dirdaietan.

Jesus jauna, lotan, datza
egoitza zoragarrian...
ta bat-batean ekaitza...
gizonak iI bearrean.

EKAITZA BARETU

Itxasoa orroaka
gau itzaltsu biurturik,
ikasleak Iaz-ikaraz
trumo ' otsez zoraturik.

Maisua bakezko lotan,
ekaitz bildurrik ez eukan,
oroz goitiko indarra
beren almenetan eban.

Ikasleak ¡al! dirautse...
gaizkatu gaizuz Maisua,
Jesusek, arduraz, erantzun
ez da dardaratzekua.

Itxasua baretu *zan*
Jesusen agindupera...
ekaitza zori biurtu
gizonen poztasunera.

ARRIGARRIA

Arrigarrizko trumoiak
ta suzko tximist argiak...
baretu zitun ur danak
Jainkozko indar biziak.

Maisuaren nortasuna
ezagutzen ez ebenak
sits arrituta eukazan
aren Jainkozko almenak.

Nor da giz arrigarri au...
ekaitzak menperatzen jakoz...
nundik daukaz indar orrek
almen indartsu jarioz...?

ITTO

Genesareteko intzirian
ontzi zuria kulunkan,
geldi doa izertzera
urak banatuz aidean.

Jesus eta ikasleak
kaira salto egikeran
izertza dardaratu zan
diabruaren izkeran.

Luzbelek arturiko bik,
gogor, zirautsen Jesusi,
zer egin nai dozu gugaz...?
itsatsi gaizuz txarriei...

Gizon biak astinduta,
txarri taldean sarturik,
ondamena eldu jaken,
laster, uretan itorik.

MIRARI OTSA

Zer ete da itsumena...
gizon osoa galduta,
iñora ezean daurki
bere burua ilduta.

Bidera urteten eutsen
Jesus Jainko Maisuari...
ikusi nai eta larri
izan zedin lagungarri.

Emon ete al neikizu
eskatzen dozun argia...?
itsuak, pozik dirautso...
maite dot zure egia...

Emon eutson ikusmena...
Eta a izan zan poza?!
Arin joan zan zabaltzen...
Jesusen mirari otsa...

ASKATASUN MIÑA

Gizon diabruzkoa zan...
txerrenek artuta eukan
alderdi guztietatik,
gizajoa gal-zorian.

Ezin bizi, ezin egon
samiñak eukan lotuta,
deabrua, bertan, nausi...
katei ugerrez josita.

Askatasuna nai dabe
katei baltzak urraturik,
ta Jesusengana doaz
sinismenez indarturik.

Zuek nai dozuen eran,
uxa bedi gogaiztoa,
pozez ta a i ntzaz beterik,
zabaldu eban agoa...

EXPETXEAN

Juan Bateatzaillea
Jaungoikozko Mezularia,
espetxian zigortuta
egoan giza-semia.

Zeru erreñua nai eban
gizonen lurrean jarri,
egiak kateitu eban
munduaren salbagarri.

Gizon bi bialdu zitun
Jesusengana galdezka:
Zu ete zara Mesias
lurreratzekoa dana...?

"Joani esaiozue...
entzun dozuen guztia;
Itsuak ikusten dabe
ta illak artzen bizia."

U RREZKO

Langille ta ugezaba
bion arteko kateia
urrezko izan bear dau...
au da Jainkoaren deia.

Gogoz ta zuzentasunez
alegindu langillea,
ez asarrez ta ez gogor,
bakez, landuz burdiñea.

Lantegiaren jaubea,
onez artu langillea,
aita bat dago danentzat,
zeru-lurren Egillea.

Guztiontzat sortu zitun
argi, itxaso ta lurra,
Aitaren seme guztiak
biotzez, sortuz agurra.

ARAG I

Burruka sortuta dago
on ta gaitzaren artean,
gogoak nai dau gorantza
gorputzak berantz lurrean.

Gorputzen egiñak dira...
aragikeri, izunkeri,
norberekerizko leia
ta Jainkozko izunkeri.

Aragia astuna da
ta beti norberekoia,
beretzat nai dau guztia
sorturik etsaikeria.

Aragia zekena da
ondasun pillatzaillea,
ezin dau ezerk asetu
moskor aberekeria.

BERANTZ

Gorputzaren gurariak
sarri, berantza doazi,
moskorrera, ondamura
pizti baltzaren irudi.

Asarreak, ondamuak
bere seme-alaba lez
goitik berantza darioz
giza-bizitza ausiez.

Norbere aldekeria
itsu itsuan jario,
ta laidoz estalduko dau
bere guzurren erio.

Ezin etsi gorputz lerak
beren griñen garretara,
ondamu ta Iasaikeriak
daroe zapalckerira.

EZIN IGON

Aragia, beian, dago,
zeru altuan loria,
bien arte uts aundia
errez, lortzeko bitxia.

°doten garramurea
zertan abil berantz adi?
burrukaz ezín asekor
giza gaiztoen irudi.

Gorantza ezin egaztu...
gaisoa indarririk bage,
lasaikeri zorgingoak
menpetu dau jaun ta jabe.

DEI ZOLIA

Gogoaren dei zolia
egari doa gorantza,
urrezko doaiz jantzia
zeru goiko baratzara.

Baratz ori jarri nai dau
lurreko lokatz artean,
zeru irudi barria
jarriaz, emen, lurrean.

Gogoa argiaz doa
bere aleak zabaltzen,
jakiturizko itzak daukaz
bide okerrak zuzentzen.

Aragia gaiso dago,
beti, narraska ta astun,
gogoa bizkor ta alai
biziaren arduradun.

MAITASU NA

Gogoaren doi eztia
maitasun izpitan dager,
alkartasunaren muiña
sortzen dau Jaunari esker.

Maitasuna gozoa da...
maitasuna ezilkorra...
maiteak poza dario
biziaren biotzera.

Maitasuna biguna da
gizonentzat errukior,
maitasuna ez da gogor
beti, parkatuten bizkor.

Maitea ez da aserretzen...
bere izkuntza gozoa
sort-erazten dabil
zoramenaren giroa.

MAITIA

Maitasuna eztizko da
erle gorrien antzera,
ibillaldi gozoetan
eztia dakar etxera.

Maitea beren izatez
bake usain gozozko da;
ona dan itza dario
arnas onak lagunduta.

Maitasuna ta bakea
izki gozotan dabilzaz;
lurra argitzen doazi
alkartasunaren gatzaz.

Maitasunak ez dau gura
piztien gogorkeririk;
maitasuna ta bakea
alkartu ziran sortzetik.

GOGOAREN

Gogoaren barne muiña
ulermen munduan datza,
jakituriz alkaturik
maitasunaren ardatza.

Gogoak ez dau nai
asarrearen biderik,
bata bestearen itzak
argitasunez arturik.

Gogo argizko atea
alkar ulertu naia da;
lagun on biren gogoak
egi bidez alkartuta.

Gizonak aiskideari,
tori dirautso argia,
anaitasun ezaugarritz
zabalduz giza bizia.

GOGO ARI N

Aragi eta gogoa
izaki baten zustraiak,
gizaki bat sortzen dagoz
astun eta arin direnak.

Gogoa ulerkorra da,
urko lagunaren miñak
samtzen dautso barrena
ja! giz ulertu eziñak...!

Egitekorik aundiena
alkartzea da lurrean,
gogoak nai dau zuzendu
bizia ontasunean.



EGADUN


Egadun dabil gogo
gizadi astun bidean,
eguzkia dabil landan
dizdizera ederrean.

Gogoak nai dau eztia
biotz barnean ezarri;
lagun arteko zoria
berez jako maitegarri.


Leialtasuna maite dau
gizon guztien gidari;
izarrak ortzian legez
izan dedin dizdizari.


Norbere jabetasuna
maite dau goi biziak;
urko - lagunei erantsiz
ontasunaren izpiak.











































— ~



BIZIA ALDI ON BAT DA; ONARTU EGIZU

Bizia esku artean daukagun gauzarik baliotsuena da. Gure inguruan, geuk asmetan dogun guztia, geure izate dana. Jakintsuak, ez-jakiñak ta bien bitartekoak arrituta dagoz biziaren zer edo kezka orregaz.

Bakoitzak bizi dau biziaren muiña gogotsu ta arrigarri. Bizia geure izate arrigarria da, iñork ez dau gitxizat artzen, bakoitzak bere baitan gozartuten dau.

Ez-jakiñak ta jakintsuek, beartiek eta eukitsuek, xumiek nai aundikiek, apalek eta arruek, guztiek gogoratzen dabe bizia norbere erara. Baiña bizia galdezka dago edozein gizaki adimendunari ikastegira, mendira, itxasora, solora, jolasera, nora zoaz, argiz jantziriko izaki edo giza-semea...? Biziak ba, beraren duiñeko bizilariak nai ditu.

Ederrak ederra maite dau ta lurrean, bitxirik bikaiñena bizia dan lez, gu bere izateaz baliatzea nai dau, lora ederra, alperrik, galdu ez dedin. Biziak nai dau, giza-jakituriaren bidez, lurra ta gizadia edertzea. Ona danak, bere izate ongarria zabaldu nai dau lurrean ta gizartean. Berezko legea da zuzentasun bidez, bizia ta egia, aurrera, ateratea ta lan-bidea sortu ta poza gizartean zabaltzea.

Giza jakituriak ba, zeregin aundi bat dauka, zertarako dan ikusirik, biziaren bitxi eder oneri begiratuz, duban, arturiko doai au munduan edertzea. Giza izatea, jaiotz ondoren, azi, edertu ta loratu egin bear dau persona bakoitzean ta lagun artean.

Gauza bidezkoa da, gizadia anaitzat arturik, norbere kideko guztiak, obeto ikusi nai izatea, negarra kentzea, gosea ibitutea. Or dago ba, biziaren sustraia, alkarkidetasuna lurreko onurak danen artean gozartutea.

BIZIA EDERTASUNA DA, MIRETSI EGIZU

Bizia edertasuna da, miretsi egizu. Nora nai begiraturik, izar zoragarri bat daukagu aurrean; soloak, zelaiak, arruak, mendiak, itxasuak, goi urdiña, izartegiak. Gure bagiz begiraturik, alkarren leikide direla dirudie, baiña euren baitan, ez dago bestien eder damurik.

Negu illun ta baltz ondoren, euriz, ondo aseturik dakusguz izadiaren bazter guztiek. Uxa begiek solo ta zelaietara ta begira udabarriko eguzkipean agertzen diran margo atsegingarriek. Zelai orlegi ez-bardiñak bedartza ugarietan... beiak eta ardiak, auntzak eta zaldiak, mauka-mauka, bedarra janez, biziaren bizia ta ederra xurgatzen dabiltz.

Alkartasun zoragarria...! Ta artzaiña ta artzaiñora, noiz eguzki urrepean, noiz zugatzaren itzalpean, abere talde maiteari begira. A zan zelaiaren garra, eguzkiaren urrea, abere gosedunaren jan bearra...! Gora gora, dator bizia, udabarriko zelaietan ta ederraren ederrak, dizdiz, dagi begietan.

Gorago doaz begiak mendiek artuanean. Ain dira ederrak, lerdenak, eta ameskorrak...! Egaz doakit gogo-aide zear ta arranoa ba-nintz gainik gain nenbilke, mendi ta arkaitzen ederra xurgatzen. Mendi gaiñetik dakusdaz arruak, zelaiak, ibaiak ta lur zabalak. Aibeste ederrez ezin aspertu naz, ta zorabio antzo, arriturik nauka zorakortasunak.

Mendi egaletik dakust Euskalerriko zelai nagusiena, baketsu ta zoragarri. Urdin ta bare dago euzko itxasoa arrantzura deika. Boga-boga mariñela, ta urten goizaldian arrantzura. Itxasoaren egalak arraiñez beterik dagoz, itxas ama oparoa da, lurtarrei bizia eskeiniz. Eguzkia dizdiz, dabil ur urdiñetako isla zurietan.

Itxasoa eder da baita bere, arraunlarien egunean. Izpazter guztia gizon eta anderez beterik, arraunlarien moldez urak artu daben ederra iruntzi bearrez. Barruan bizi dabe uraren urdira, txalupen liraintasune ta gazte zoragarrien trebetasune... Irriparrez dagoz itxaso urdin zabala ta itxas-ertz orlefa. Nork ez dauz arrituta ikusten itxasoa, arraiñek, txalupak, arraunlariak, izadi ta gizadiaren jai pozzgarri orretan...?

Egiz, ederretsi egizu biziaren edertasune.!!!!

BIZIA AMETS BAT DA, EGI BIURTU EGIZU

Egunero egunero, gogoan, erabilitako gauzak, arrats beran, amets biur-tzen dira. Bizia bera da amets guztien sustraia. Bizia zer da...? Zertarako bizi nai dot... ¿Biziaren izatea, ibilia, aztea, loratzea... ala emotea al da? Bizia, jakituria edota maitasuna al da lurreko arazoak zuzendu ta edertze-ko...? Entzumena, ikusmena, oroimena, sentimena, naimena al dira bizia...? Gauz eder asko artzen ditu, bere baitan, bizia berbeak.

Gizaki bakoitzak doai aundizko almenak daukaz ta danen artean itz zoragarri bat sortzen dabe-bizia. Baita be almen guzti orrek nortasunaren bidez personea osotzen dabe ta persona bakoitzak bere berarizko almenak ditu ta barne indar orrek, geldi egon eziñik, bultzaka dagoz, ametsa egi biurtu dedin.

Eder-zaleak olerkia maite dauta bere aragia, odola, argia, irudimena ta denporaren aldia olerkietan urtu bear ditu. Bere bizia olerkia da ta orren bidez gizadiari eskeini bear deutso izatea. Gizonak bera dana emon bear deutso gizadiari arturiko doaien eran.

Gogoaren almenak egi biurtu ta ori da biziaren grazia ta olerkirik bikai-ñena bizia da.

Beste amets bat. Izarretan argia ta berotasuna dagoz. Lur arrea gau illuna danean, jakiturizko boletan, izarrak dizdiz, argitasuna zabaltzen dabilte, euren zeregiña egiñez... Ametsezkoa dirudi goi urdin zoragarriak ta izar bola arek argi ta maitasuna, euren bizitz osoa zabaltzen dabe ontasunezko urdin aretan.

Giza-semeak ametsezko bere argia mundu arreako lokatz artean zabalduko dau. Miña ta negarra, osasun eta bizi biurtuko ditu. Bizia ametsa da, baiña jakituriaren bidez osasun ederrean biurten dau giza adimenak. Bizia, indarra, maitasuna, on egiñez, egi biurten dira. Gizaki guztien eskubidea da, almenak landu ta frutu onak emotea.

BIZIA AUPADA BAT DA, ARPEGI EMOIOZU

Bene benetan, bizia dei bat da. Begiratu sendira, mendira, ikastetxera, soloetara, itxasora, lagunartera, burdiñoletara ta danak daukazuz deika, euren aupadea estu ta indartsua da sarri askotan.

Lurrean sortu izan dan gauz eder ta oiñarrizkoenatariko bat sendia da. Bizia berezko izaerak, laguntasun-bearrak, odolak ta gurasoen seme-alabenganako ta seme-alaben gurasoenganako garramurak eskatzen dau alkarrekin bizi izatea. Gurasoen maitasun-leia euren semeengana doa, odola deika dago, gurasoen biziaren bizia bai dira.

Lengo aldi baten, aize aldi bat izan zan, komunismoaren izenean sendia austeak nai izan eban putskeriak. Sendia ausi ta giza seme-alabak estatuaren otsein ipintea nai zan... Gaur, berezko legearen aurka ta estatuaren aldeko morrontza ori nai ebenen bidea, ankaz gora, ta buruz bera, Impera joan da.

Aurretiko beste era bateko nauskeriak, sendia ausi ta estatua goratu nai izateko bide gaiztoari sorrera emon eutsan, baiña giza asmabide orrek ezin izan dautse geiagorik egin biziaren berezko legeari ta bejon deiola bizitzaren zuzentasunari.

Sendia, zure zeregiña aundia ta bakana da lurrean. Ori dala-ta, zure aupadeak, beti, deadar egingo dau gizartean ta zuk ezarriko deutzazu gatza biziari bere oiñarrizko sor lekuan.

Beste bizitzaren aupada bat mendia da. Izan bere, nork ez dau nai mendira joatea, aize osasuntsuaz bizia indartzera...? Mendiaren egala lirain dago egun-sentian itxasaldetik urrezko bola baten argia sortzen danean, ta arrats-beran, eguzkia, geldi geldika, ditzizari, itxasora doanean. Mendian bizia deika dago ta opaka... ederraren ederrez, ator ator dirausku ta lurraren mamiñez, gizontasunez landu ba-nagizu, antzik sendo ta lerdenenak ta fruturik gozoenak emongo deutzudaz. Izan bere, gure arbasoak, ondo nekatuta, atxurrez landu zituen Euzkadiko lurraldeak, zugatzez ondo, jorituek.

Biziaren aupada eder bat ikastetxea be ba-dogu. Giza semeak lurra landu bear eban biotz eta adimenaren bidez. Almen eder bi onek ordu onian artu zituan gizonak, gizadiaren bizia argitu ta zuzentasunez arteztuteko. Bizia, gaztetasuna, indarra dira zugatz sendoaren sustraiak, baiña gazte leiñargia, jakituriaren sustraia, jakintsuen argia ta oar-ikasiaz artzera doa. Ortarako sortu bai ditue gizon ikasiak jakinkisun ikastegiak. Oldartu ta arpegi emoiuzu, zure barnean dozun argi txinta orri, eguzki urre biurtu dedin gizadiaren bizi barrirako.

Argitik eta biotzetik sortu bear da lur barria ta bizi ohea, gizadi ederrago bat giza zentzundunez alkartasunean sortu dedin, emen, lurrean. Buru ta biotzdun gizonaren zorra da argitasun ta biotzez, gizadiko txirotasuna ta negarra ibitu ta anaien arteko bazkun bakezkoa sortu ta gozartzea.

BIZIA EGINBEAR BAT DA, BETETU EGIZU

Ona, berez, eginkorra da, argia beren izatez ditziratzaillea. Emen, daukagu, giza-semea, zer izan bear dabenaren irudi garbal, eragikorra. Burudun gi bere barnean daroa erantzukizunaren zentzuna. Berez, gorputzak azi ta zabaldu egin bear dau ta gogoak argitu, zurtu ta erantzunpendun biurtu.

Giza adimenak bere aurrean daukaz lurra, itxasoa ta aidea. Iru puntu onek bear-bearrezkoak ditu bere bizitzarako. Ta ain zuzen bere, bere sorreran lur ori menperatu ta giza-seme-alaba legez bizitoki egoki biurtu bear ditu.

Lenengo arazoa da ba, giza-semearen argi almena. Kruzelu gaiñean, ondo erabiltea, norbere erruz, amiltegiara ez jausteko ta bizia menperatzeko.

Giza-semeak ba-dau beste almen zoragarrizko bat, naimena deritxona. Bizia orniduta etorri zan gizadira; baiña almen bikain onek lo-zorroan egozen gizonarengan. Ta lanak eskatzen daben eran biotza gerturik ez ba-dago, ergelkeri ta zorakeri aundiak egiteko, arriskuan, dago giza-semea. Lanak eta aurrerapideak ondo eroan al izateko, buruak biotzaren laguntasun beroa ta neurrizkoa bear ditu.

Burua ta biotza, ondo, gerturik dagozanean, lurreko arazoei ekin bear jake. Biziak esaten dau, gizona ta bere almenak ez direla alperkerirako; biziak eskatzen dau lurra, itxasoa ta aizea menperatu bear direla osasuna indartzeko... Bizi al izateko, biziak eskatzen ditu buru argitasun eratua, biotz sendotasun neurtua, ta eraren baten, euskal giroan esateko, atxurra eskuan.

Giza semea almen ederrez orniturik, alperrik, etzan lurrera etorri... Aita baten seme-alaba legez, lege bardiñen barruan, bardintasun geiagoren bidez anaitasuna sortu bear da. Au da zeruaren deia, au da lurraren karrazia, bizia egi biurtzea gizadiaren onean. Uxa arrokeriak, uxa aundikeriak, uxa ezpata ta arma iltzailleak, ta betor bakezko bizia.

BIZIA JOKOA DA, JOKATU EGIZU

Jokoa ez da errenta, antxiña, esan eben, Aitorren seme euskaldunak. Aitor gizon argia zan, batez bere zentzunduna. Euskal mendi, arru ta zelaiak, euri ta edurrez busti ta inadartu ta eguzkiagaz igurtzirik, edertasunaren senean apainduta geratu ziran. Ta euzko gizonak lurraren edertasun orretatik artzen eben zurtasunaren argia ta zentzunaren indar berezia.

Ori dala-ta, Aitor ta bere erritarrak zuzentza bidean, ondo, orniduak ziran. Egia zan euren bizitz ardatza ta ederra euren atsegiña. Era onetan sortu al izan eben erri jator ta zentzun aundikoa. Geroz, egokiera eder orrek, geroago ta obeto, lantzen zituan euzko gizadiaren buru, biotz, egite ta inguru guztiak.

Bizi giro onen ondoren dator euskaldunaren gizatasuna ta bizitzeari zor izan ta emon bear jakon erantzunez arduratzea. "Jokoa ez errenta". Ondasunak galdu-mendian erabiltea, ez da bidezkoa, ez da zuzena. Ainbeste milloiti lagun, gosez ilten dagozanean, jokoan diruak ondatzea ez da zillegi. Gizonak ez dauka ondasunak ondatzeko eskubiderik.

Baiña, sendia, aurrera ateratzeko, burruka ein bear da mendian, zelaian, itxasoan, ikastetxeetan, miñetan... Lenengo jokoa mendian daukagu. Gure lurraren gaillurrak deika daukaguz, otamendi izena kendu ta aritzmendi izena artu nairik. Ortarako atxurra ta lana bear dira. Nagikeriari uko egiñik, buruz eta besoz jokatu bear da mendien magalak garbitu ta urratzen. Emen, dago gure mendi ederren jokoa... garbitu, edertu ta eurei egokien jatorkezan zugatz landarak jarri, Euzkadiren bizia bizitu ta aupatzeko.

Giza bizitzak eskatzen daberen eran ba-dira beste inguru eder batzuk atxurrez ta aizkoraz edertu bearrekoak. Antxinatean, gure arbasoak, gogoz eta gogor, jokatu eben mendi bizkar eta zelaiak lantzen. Or dago ba jokoa, biziko ba-gara, lur zear ta magalak lantzen jokatu bear da. Amari gozoak, sagar, madari, mertxika, mailluki, gizonaren lan ta lurraren amatasunetik datoz. Lur ta gizonaren arteko lan jokotik dator baratzaren amari edertasuna.

Euriak ala legortea, ala euri ta eguzki arteko lur giro eder bat, zer izango dan aurtengo udabarri ta udan, lugiñak ez daki; ori dala-ta, lurra bere langilleen zain, begira dago; eiztaria erbiaren zain baiño zurrago.

Landu gabeko lubarriak, arantzasz beteriko sasiak izango ditue euren kateitzat, lor eta miseriaz betiak... Dana dago esaten dana dago eskatzen... jo atxurraz mutillak, taloa ta esnea izateko ta ezti sortzeko lurlean.

Gure bizitz ataletan bat zabal zabala da itxasoa. Gizadiaren onerako sortua dan ezker, gizonaren eskuek or, jokatu bear dabe buru eta biotz, biziaren bear izanei erantzuten. Ainbeste ur eder, ainbeste arrain bizigarri gure egarri eta goseak asetzeko irasiak dira. Egiz, deika dago glza-barneko eskabidea itxasora begira... Ea gizonak, or, dago zuen altxorra, urtegi orren erraiak arrain janariz beterik.

Ea gizonak, iragan itxasoak izontzi aundietan ta zabaldu sareak uretara. Semeak eta erria begira dagoz itxasotik datorren arrain barriari. Bir-iak eskatzen dau, jokatu egin bear dala itxasaldi edefle an, eguzkia, zatia -zabal, dagonean ta itxasald ez ain ederretan euria danean. Nundik nora ete dabil arrain bandea...! Arrantz aroa, berez, gogorra da, baiña biziak diño: jokatu egiok itxasoari bere pasadea...

Alan bear ta, lur onetan sortu ta zabaldu zan euzkotarra. Erri onek oinpean daukaz ondasun arrigarriak euzkotarren bizirako, lurraren sorreran, ondasun abia lur erraien barrenetan geratu zan, ixilik eta indartsu. Gizon jakituriak ta langille e.rimeak jokatu bear dabe lur barruko arri-burniei euren bizi gatza ateraten. Gogoia ernai dago, eskuek aske ta erriaren bizi egarriak, aurrera, diño... burdiñaren bila bidetik.

Lurraren ondasun orrek menderatu egin bear dira euzkotarren aurre-rapiderako. Jokatu egizu, gizona, dirausku biziak. Nire erreietan dagon guztia, zuentzat da. Billatu egizue, ez zaiteze ikaratu, ez atzeratu, koldarrentzat ez dago ezer.

Lan arlo guztiak aundi ta eder dira, baiña gure artean bat bearrezkoe-na... Burua argitu barik, nora joan giñaike illuntasunean...? Lurrak eguzkia bear dau euriaren ondoren... arkaitzak ura dario lurrari gozotasunean, zugatzak udabarrian, orri, dardar, dakar izadi jakintsuaren ardurapian... ta bizitzako arazo guztiak zuzentzeko, gizonaren jakituria bear.

Gizonak, nun aurkituko ete dau zuzenbiderako argi ta arazoen egi-bidezko jakituria...? Ikastetxeak ta ikaslekuak bear ditu gizonak. Or, jokatu bear dau giza-semeak buru argitzen, gar-azur barruen dagon zulo, erti ta inguruek jokabide zuzenez eroaten. Danetan, arduratsuena gure bizitzan, burua arteztu ta biotza ezitea da, lurraren mamiña arnari onak emotera ekarteko.

Bide ortatik jokatu egizu gizona, bizitza ederrago bat lortu al izan da-gizun giza-semeen anaitasun alkartasunean.

BIZIA EDERRA DA, ZAINDU EGIZU

Lurreko izadi guztia, edertasunez, zoragarria da. Mendiak, errekak, arkaitzak, gallurrak, ezin esan-beste edergallu ditu, ta guztien, erdi erdian, izadiaren jaun antzo adimendun gizon eta andrak, sorturiko guztiaren zuzendari.

Eginkizun aundia lenengo arbasoak, biziaren sorreran artu eben ardu-rea... "Menperatu egizue lurra". Ta agindu bikain ori, urrezko katei baten antzera, iñungo ta iñoizko urratzerik barik, guregan oso osoan, eldu da. Odoletik datorren ondorena da, ta oroz goitik, jainkozko agindu baten itzalpean.

Gizona bere jakituriari eder eretxirik, arrotu egiten da ainbesteko edertasunaren aurrean. Egiz, gizontasunik ba da, giza ta semea poztu egin bear dau, ta adorez eskuek laneratu, ta orrek sortu bear ditu giza-buru argi ta biotzaren adore bere-bizikuek.

Mendiak gora doaz artzain eta artzaiñora ardiak zaintzera. Eguzkia, urrez, eriotan dago, zabaldua ameskor, aizea garbi ta zerua urdin... Txomin eta Patxi eder miñez zoraturik dagoz izadiaren aurrean. Txomiñek, poz arren, ler bearrez, Patxiri dirautso: Au dok zorakortasuna...! Lurrean ba ete dok onegaz bardintzeko ingururik...?

Patxik izadiari begira, zugatzak erne-miñetan dakus ta mendi egalak bedarrez orlegi... ta ardiak, an, aurrerago, mauka mauka, pozez, bedarrari ekiñez... Mendiaren ederrez zoratuta Txomiño dirautso...

Munduan ez jagok onelako tokirik... Egiz biotzak ez jok, iñun aurkitzen onango atsedenek, ta begiz ezin dok asetu gizona ederraren ederrez. Arbasoen eskua agiri dok, ondorengoei esaten: atxurtu ta zaindu gure bizi iturri diran mendi mamintsuek. Besetxe, erri ta urietan dagozen ol bitxizko kutxak. Ortxe, izan juen euren sorrera abia. Ume, mutil ta neskatil ta andre ta gizon, noz nai, joiezak, zankoak bizkorturik, aize osasuntsuaz bizia indartzera.

Mendiak danentzat dituk eder... ardi, auntz, aker, bei ta goi egalari diran txori bizkorrentzat. Berezko doia jaukek mendi gain aspertu eziñiak. Norkeriak, alde batera itzi, ta mendiak dana opaka, jaukek... goi urdiña, zabaldua, aize garbia ta itudimenak sortu (eikezan amets zoragarrienak.

Ta mendiak baiño gorago agiri dituk, izadia ta gizadia arritzen dituen arkaitzak lurraren ezkon-senar antzera. Izadiaren nagusi dituk ta gizadiaren amets. Giza-semeak, an, jabiltzak munduaren gune gozartu ta izadiaren gangorra, adiskidetasunez, menderatu nairik. Udako orduetan urrezko maindiraz dager, dizdiz, printzetan ta neguan edur txapel zuriaz zidar dizdizetan.

Ederra dario aitzarte zoragarriari ta aitz artetik aitz artera bera ur jausiak datoz saltari giza begien amesgarri. Urak egin ditu olako bear ederrak ta aizeak ta eguzkiak apaindu.

Mendiak, arkaitzak ta urak, guztiak zelai ta soloetara begira dagoz irriparre panpotsetan. Urak umeltzen ditu lurrak ta eguzkiak arnas-barritu ta bizia sorterazi. Ta udabarrian, soloa, zelaia ta lur bizkerra ibaiaren inguruetan, lorez jantzi dira. Emen, dator biziaren itxaropena ta gizadiaren poza... Ederrez ta janariz lurra beteko da. Izadia asi da berbetan gizadiagaz, bere gogo ona, ederra ta amari barriak eskeiniagaz.

Bosteko eun emongo deutzudaz dirautso lurrak gizonari. Neguan zaindu nagizu lar eta ota aire etsaietatik. Alperkeriak ez zagizala nagitu ta zure lurraldeak, bertan bera, itzirik ondatu.

Arto, gari, sagar, madari, mais, mertxike ta, azalora, porru, bear dozun guztia emongo deutzut ta zure biziari poz barriak esarriko deutzodaz.

Gizonak, gogoz, entzun ta onartu eutson dela ama lurrari. Ta udabarrian agertu zan lanaren ondorena garitzan, artotzan, sagardi ta mastietan soiñeko orlegi ta loraz jantzirik.

Itxaropena on egiñaren ezta da.

BIZIA ONDASUNA DA, ZAINDU EGIZU

Ondasun guztien buru bizia da. Zortzi - amar urteko umeak irakatsi au agertu eustan. "Eun milloa ala bizia, zer dozu naiago? "Bizia" "Bizirik euki ezik, zertarako dira eun milloa" Erantzue-bizkorra ta zurra. Berez, barruko eskabidez ume arek ikusten eban biziaren balioak ez daukala ezertzik ta ez amairik...

Bizia, zegaz bardinduko zaitut? Arriagaz? Burdiñagaz? Olagaz? Gauz guzti onek, lurraren sorreran, giza-seme alabentzat sort-araziak dira. Ordu ezkerero, etxerik ospetsuenak arriz oiñarrituta dagoz ta bizilekurik aundienak arrizko ormaz eregita. Ta arri ta edertasun oro, giza bizitza zaindu ta gordetako dira. Arriaren serbitsua, ain eder dalarik, gizona otseindu ta aipatzen dau.

Gizonak bere bizia jagoteko, gauzarik ederrenak aukeratu ditu. Arriak zaintzen dau etxea ta giza bizitza euri, edur ta aize benebalen etsaikerietatik. Bizitza, gizadiaren altxorrik gorenena dan ezkerero, arriak bere indarrez ta edertasunez zaindu egin bear dau.

Arriaren leiakide da aritzaren enborra. Lurraren mama goxoa xurgatu dau ta ama lurrek bere eder guztia ezarri deutso alaba zugatzari. Aritzak, arteak, intxaurrak, gozatsu, aurkitzen dira lurraren babesean, euren enborrak sendotuz, mendi egalak alaitu ta itxaropenez poztuten.

Ta giza semea, arduraz, ta pozez, aurkitzen da zugadiaren indarra ikusirik. Bizilekua edertu bear dau etxearen ertz, goiburu, leio ta ateak egurrez barrizturik, aurrean dagozen zelai, mendi ta arkaitzak eskatzen daben eran, ta batez bere, bizia bear daben gisara. Ola eta ederra alkaturik dabiltz etxe barruek apaintzen ta osasunerako bizitzea, obeto, tajutzen.

Ta onen bion artean, ba-da beste material edo gai bat zugatza baiño sendoagoa ta arria baiño gogorragoa: burdiña. Gai onek ba-dau bere zeregiña etxe ta lantegietan; bere gogortasunez eutsi bear deutse bizileku ta lantegiei. Jakituriz gordeta dago, arri antzo, lur barruetan eta jakituriz gizonak lurretik atera ta sutan orraztuko dau bizitzaren onerako. Izan ere, bizitza gauza guztien errege da, ta berez, diran guztiak dira, giza seme guztien onerako egiñak.

Egilleak lur barrua ondasunez beterik itzi eban ta lur azala aberastasun bidean. Gizonari emon eutsozan bizia, osasuna, jakituria ta indarra bere onerako landu egizan emaitz eder onek. Gizadiaren ontasan ta jakiturizko biziak, ondo, merezi dau lurraren ondasun guztia, baiña gizona, zuk landuko dozu lurra, zuk billatuko dituzu lur barruko aberaskiak, lurreko bizia opa-roagoa izan dedin seme alaba guztien artean.

Biziak alderdi bi ditu, bata lez bestea guztiz bearrezkoak, ona landu ta txarrik ez egin. Gure almen guztiak, bizia barriztu ta sendotzeko sortuak

dira. Ezezkorako bide guztiak ukatu egin bear ditugu, gizonen edertasunaren duin ez dira-ta.

Mendiak eta zugatzak bizien serbitsurako eratuak dira. Iraslea ain zan biotz zabal ta oneko...! Giza-semeak bizirako bear zituan lengai guztiak begi aurrean jarri eutsazan, zurtasunez, ondo, erabili ta gizadiaren onerako izan zeitezen. Egillea, berak sorturiko giza-semeari bagira dago, pentsamentu ta gurari zuzenak ta argitasunik ederrenak emonaz.

Gizonaren aldetiko jokabidea bere soiñari ta gogoari dagokion erakoa izan bear dau. Giza izakia, gorputzez, adigarria ba-da, gogoz edo bere barne izatez askoz bikaiñago sortua da. Gorputzez izango dau lur ilun ta ederraren antza; baiña gogoz, egille berberaren argitasuna ta maitasuna agertzen ditu. Lurra ederra dalarik, gogoa, askoz bikaiñagoa; lurra ilkorra da, baiña gogoa illezkorra.

Izaki bi onek, lurrean agiri dan edergallurik nagusiena osotzen dabe jakituria ta maitasundun Jainkozko irudia. Egokia ta zuzena da beraz, bakoi-tzak bere duintasun leiñargia ta nortasun zerutarra, arduraz ta zuzenbidez, edertuz, izaki berezi oni beren elburua lortzea.

Gure bizi gosearen aurka doazi jan-edan larregiak, gudak, moskorke-riak, jokoak, zapaltzeak, gorrotoak, lapurretak, alperkeriak, ikusi-eziñak...

Gorputzak ume-arotik asi gaztarotik igaro ta zartzaraiñoko guztian ja-naria bear dau... Ume-aroan azi, gaztaroan edertu ta zartzaroan, poliki poliki, bere indar negurtuei eutsi eragiteko. Baiña janari ta edari larregiekin gorputz indarrak zapustu ta illerazi egiten dira, itxura galdu moteldu. Bizia, lureko asmakizunik ederrena izanik, ez dau iñola, merezi taju orretan erabilterik.

Guda gure biziaren etsairik aundiena ta gaiztoena da. Ta gizonak gizoni ezarten deutesen giza lapurra da guda. Aundikeria ta nauskeria dabiltzaz gizadia odoltzen ta erri xumeari, berez, zor jakon ta kendu eziña dan bizia auts biurtzen. Biziak jaubea dauka lurrean ta zeruan. Iltea, iñundik iñora, ez da zillegi. Ondasun bardigabea da, gizonak gizonari nai norberak norbere buruari kentzeko. Biziaren ondasuna ezin leiteke ezegaz bardindu.

Zaindu bearrekoa da beraz, biziaren guna aberastasunez betea.

BIZIA MAITASUNA DA, GOZARTU EGIZU

Bizia norbera ta norbere ingurua da, dana ederrez ta laguntzaillez beterik. Bitxi ain aundiak lagun ongillek bear ditu bere inguruan. Jaun ta gauza orren artean osotukoda, maitasuna darion bizitza; izatearen ta onaren ederra, or, aurkitzen diran ezkerro, burua argiz ta biotza onaren leiez, or, doazi ederraren billa, maitasuna gozartuaz. Izan ere, bizia, berez, da maitekor.

Guazen mendirik mendi arkaitz gallurraren puntara. Ametsez doa gure izate guztia biderik bide, zelairik zelai, ur salto bikaiñenak ikusi ta gozartuaz. Adimena izadiaren barri artu ta ikasten doa ta biotzak maite dau lurraren ederra. Zorabiotan doazela dirudie gorputzak eta gogoak, ta zenbat eta bizkorrago ibili ta gorago igoteko ioranez, aragi zuloak argiz eta aizez, gorputzaren astuntasuna arindu ta poztuten doaz. Gorputza ezilkortzen doala dirudi.

Geldi geldika, baiña ziur, gorantz doa mutil lerdena beren makilla sendoaz. Biotza ta birikiak, ernai, doaz atxartean zear zankoak, sendo ta gogotsu, dituelarik. Aurrez aur, aitzartean ur salto indartsua alderdi guztietatik eder eguzkiaren dizdizeraz ta aitzarteko ebagiaz. Begien armada ezin asetu ederraren gosez. Aitzarte, arru ta lurraldea zoramenetan egoan izadi guztia.

Gaztea eldu da arkaitz gallurrera. Zerua, goian, urdin, zabal ta sakon ta bean, lur guztia bere menpean dauka. Begiak birloratu antzo daukaz batera ta bestera begira, mendiko jauna dirudi. Aitorren antzera. Goitik begiraturik, zer eta dan ederrena, ezin dau ziurtu; itxaso urdin zabal, mendidi Hieda arrigarriak, lau alde zabalak, solo ta zelai orleiak biotza ostu egiten dautse euren apain ikusgarriaz.

Aldatz erpiñaren nekea menperaturik, zoriontsu aurkitzen da aitzaren gaiñean, baiña biotzak iruntzi egin nai leukez, aurrean dakusan itxaso, mendi, zelai zugadi ta aurrez, goraka, daukezan arkaitz zuri guztiak. Bizia, maitasuna, ederra ta biotza alkartu dira, danak alkarri begira, ikusten ta maitatzen. Egiz, bizia maitasuna da ta biotzak zabaldu dautsoz ateak zabalab zabal, arkaitzari, itxasoari, lurrari, ibaiari, esanez, izadi, maite zaitut.

Arkaitz gaiñetik begira dago uraren zabalera, ra, batzuetan zangar, ta beste batzuetan bare dakus itxaso ederra. Munduaren bizia dirudi urtegi ain eder zabalak. Alderdi guztietatik ederra dario urtza ostiñari, mueta guztietako arraiñak opatuz. Adar joten ta turuta otsez datoz arrantzaliak kaiera. Itxasoa, benetan, oparoa izan da ta izaontziak arraiñez beterik, alaitasunez datoz itxas ertzer. Adar otsa, soiñua, abestiak, arrain biziak, saltoka, agiri dira ontzi barrenian.

Arrantzalien aldetik bizia ta maitasuna bat egin dira itxasoaren baibenetan, arrain ostin ta arrain zuriz sareak beteturik. Itxaso ertzean andreen poza ta umeen zaratea, arrantzutik datorren biziari itxaroten dagoz. Andik

datoz gizona, aita, arraiña, bizi-bidea, ta gaur, jai aundi bat ospatu da aldepe-goiko baserrian.

Egiz, egun ontako sendiaren alkartasuna bizia da tabiziaren muiña maitasuna. Itxasoa ta baserria, ura ta lurra, guraso ta ume jostalariak alkartu dira sendiko pozaren babespean. Aitak dakars itxasoko barriak, batzuk alaiak, beste batzuk larriak, danetariko jazoerak agertze dira itxasoaren babesean. Umeak ostera, aitari dirautsez aldi onetan egindako ikasteak, jolasak ta umeen arteko artu-emon guztiak.

Mendi egalean ta itxas aurrean dagon aldepe-goikoren bizitza, maitasunez, bete da apari gozoaren mai inguruan. Anderrek bertsoak, Ikerrek abestiak, Mirenek lora txorta zuria ezkeiniz, dana alaitasuna ta irriparre ezta. Ille batzuetako itxasoko bizia ta lurreko aitaren uts-unea maitasun biurtu dira... Biziaren guna, izan bere, onginaiezko alkartasuna onartzea da.

A zan mendi egaleko giroa apaldu ondoren.! Anderrek zabaltzen ditu leioak ta aize barriak datoz arnasa eztitan. Itxasoa urdin urdin, ta bare agiri da amai gabeko zelaidi baten antzera, ta goi ortzean, izarrak ñir-ñir, urrea zabaltzen dagoz ur zabaletara. Aita,! zu, ibili zaran itxasoak olajoak al dira...?

Aitak onela, diñotso semeari. Seme, toki guztietan dagoz mendi ta arkaitz ta itxaso zoragarriak, baiña gure biotzak, ementxe, aurkitzen dau edertasun guztien guna, maitasunez, igurtzirik. Gau onetan gozartu daiguzan Jauné goikoak emoten desukzan bizitzaren edertasuna ta sendiaren maitasuna.

Ta semeak aitari, barriro, dirautso: Aita, itxaso eder au ta zero ortz zoragarri ori itzita, urriñetako urarteetara zoaz barriro...? Umeaeren biotza ta bizia barruan dituelarik, erantzun maitekorra damotso... Seme, zuen biziak ta maitasunak naroe urriñetako uretara janari billa. Baiña, gaur, poztu gaitezen geure etxeko giro samur ontan. Bizia, edonun, da eder, baiña eztiñsuen aitarene ta amarene ta seme-alaben kabi kutunean. Egiz, bizia gozagarria da.

BIZIA ESKUTAPENA DA, ARGIRATU EGIZU

Giza jakituriak ba-dauka naiko zer egin ta baita bere naiko burukomin, gizadiaren bizia ta izadiaren izaera ezagutzen. Giza jakitunak biziaren sorreran artu eban zoragarritzko agindu au, "menperatu egizue lurra." Emen dago, benetan, biziaren eskutua. Bizi egin bear ta eskuek utsik ta lurra sasiak opaka:... Ez zan edozelako egoera. Alan be, giza semeak ez ziran kikilduta geratu, berezko dei orri erantzunez.

Lagunak, lurra, itxasoa, goi ortzia, aurrean, eukezan, euren edertasun gutzia opaturik. Baiña inguru onek naita ederrak izan, ixilik egozen, sasi ta arantzara makurrago. Nok, emen, nun, zer, zelan nundik asi, ba-euken buruko miñil aski. Gure izkuntz eta endakoak asi ziran lanerako tresnak sortzen, inguruan eukezan gauza gogor ta baliotsuenak arakaturik. Ta ikusten zituen gauzen artean, arria zan gairik beiñena, ta gogoz, bota eutsen eskue lan tresna eder orri, euren lagungarri izateko.

Adimena asi zan bearrean ta lenengo bere amari bikaiñiak atxurra, aizkora, aitzo ta atxurkilla izango ziran. Onen bitartez asi zan, lenengo zeregin aundiak egiñez, sasiak garbitzen, zelaiak sortzen, lurrak aroltzen, zoizko etxeak egiten ta biziari arpegi barria emoten.

Eguzkia sorkaldean agertukeran, baserritarrak soloan ebiltzan, geroago ta poz geiagogaz, solo, zelai ta lubarrietako frutuak ugaritzen ta gozaten ikusirik. Txoriak arrika ta piztiak makillaz edurra egin ondoren, lurmen gaiñean jausten ziran Jakituria aurrera ta ortuariak bere aurrera, joiezan gozotasunian. Ta gizon zurrak, olan, zuzpertz ta indartzen ziran biziaren zirkilluak, obeto, ezagutu ta lurra menperatuz.

Aldirik gogorrenak ba-joiezan iges, mendi ta zelai eta soloei atepak zabalduz. Baso idiak ta pizti-tzarrak ba-doaz igeska sasietan zear, gizonari bldurra arturik, ta solo eder zabalak datoz bizitzaren eskutua argitzen. Ardiak eta beiak agiri dira zelaiak alaitzen, ta artzaiña bedar lekuetan zear dabil bildots jaio-barrioak, lepoan arturik, txistu otsean kantari.

Egunak egunari argi egiten deutso ta gizona, aurrera, joian lanerako tresna barriak sortzen ta beiak bustarturik, lurrak astintzen. Bizibidea aberastuten doa, ardiz mendiak zurituta ta bei zuri ta gorriak landarik landa doazi biziaren eskutua argitueraziz.

Aurrerapideak eskabide barriak dakarz, adimena geroago ta zabalago bizitz eskutuari geiago egiten doa. Lengo leza zuloetatik urten, ta nunnai, bizilekuak agertzen asi dira.

Bizitza ta.-ri barri bat dütor ol, arri ta lur nasteko bizi-tokiak sarturik. Leza illunen orde, eguzkia sartzen da etxera leio txiki politetatik. Arnasa barria lubarri landu-barrietatik artzen dabe ta bizia asi da indartzen, zabalten ;a luzatzen. Urrats aundiak emoten doazi lugintzako arazoetan, lana

sendo egiñik goizetik gabera, baiña guztia doa pozez beterik, biziaren aurrerapidea, argi, agertzen dalarik.

Sasi ta otadiak menperatuz, mendi goiak ta arkaitz gallurak agertu ziran, eguzkiak argituta izadi guztiari bizia ta jakituria eskeintzen ta bizitza ederragoa asi zan lurraren gaiñean. Goizian goiztik doa artzaiña erne ontziak artuta, artzaiñora aurretik, jolasean lez, laguntzen doakiolarik, artaldea bazkatzera, gaztaiak egiteko esnea batzera, bildotsak, arduraz, zaintzera ta bizi-moduari bide barriak sortuz, illuna kendu ta argi egitera.

Gizonaren gogoa bultzaka egoan lanaren bidean; urrats barriak eskatzen eutsozan, aurrean, ekusan lurraldeak. Arrizko atxurraz asi zan lurrak zetuten ta lana ta izerdia, ugari, izan ba-ziran be, arnariak emoten esanekoa ta oparoa izan jakon ta gizonen lan ta izerdi guztiak, gogoz eta ondo, onartu eutsozan izadiak. Egoki alkartuta dabiltzaz gizona ta izadia, egunetik egunera bizikera atsegiñagoa egiñik.

Bizia aberastuten doa, lurrari ondasun barriak sortueraziz. Emendik datoz pentsabide barriak, gauzen ugaritasunak, bata-besteagazko artu-emoé nak, zuk niri ta nik zuri gauzak trukean salduta, gizarte barri baten giroa sortu da. Bide barriak artzen doa gizadia, gizarte artu-emonak geroago ta beartsuago ta ugariagoak izango dira ta biziaren eskutua garantzen ta argitzen doa.

Arto solo luzeak ta gari solo zabalak lurra apaintzen asi dira ta bedar mueta bereziak, bizi bizi, dagers zelai ta aldapetan. Lengo lardi ta sasiak janarien sor-leku egiñik, arbasoen baratzak dirudie. Gizonaren adimenak biziaren eskutua ametsezko loradi, ie, biurtu dau. Lendabizian, larradiko berezko lore frutuak ziran janari, gero gizonak bere jakituriz ta gurariz sortzen zituan abere, arto, gari, ibaietako txitxardiña ta itxasoetako lebatz, bisigu ta gaiñerako arrain bizi biziak.

Gizona geroago ta erneago joian urratsik urrats aurreratzen, eskutu-zulo guztiak bere naietara jarriaz. Mendi, solo ta arri artetik burdiñara joko dau. Lurrak emon ditun iru gai eder onek, izan bere, illezkorren ondorengoak dira, baiña gizonak bere edertizko, olezko, arrizko ta burdiñazko lanak illezkor biurtuta itzi ditu.

Oraindiñoik ba-da beste eginkizun bat, beren eskututik atara ta giza-diaren argi ta ongille izan bear dabena. Jakitunak, zuzentasunak eta gizontasunak egin leikeen egitekorik sakon ta ongarriena, gizona argitu ta zuzentzea da. Almen eder bi ditu giza-semeak, adimena ta naimena ta gizartearen jokoa ta aurrerapidea almen bi orren pentsuan dagoz. Zeregin bikaiña, benetan, eginbear au, aurrera, eroan ta gizarteari zuzenbide egoki bat emotea...

Illuntasunak argia bear dau gidari, baiña bere lagun ta bultzalari ezin daiteke okerbidezko naimen bat izan. Antxiña, illunak ez eban nai izan argia artzerik, ezta okerrak biotza zuzentzerik. Ortik datoz ondoren norberekoiak,

ikusi eziñak, gorrotoak, zapaltzeak, lapurretak, lasaikeri nabarmenak, erio-
tzak, negarrak, min emotea...

Egia zer dan ezagutzea da lenengo bearra ta norberekeriak, ondo, iñausi, biziaren eskutua, zuzentasunaz, ikusi al izateko, baiña biotz bultzaillea be bide bardiñetik joan bear dau. Biotza ezitzeak gizonari, sarri, bildurra emoten dautso, ta olako lanik ez dau entzun bere egin nai. Zabalkeriz ta zabarkeriz norbere gogoetara ibili nai dabe, baiña gizonak burua argiz ta biotza zuzentasunez arteztu bear ditu.

Giza bizia, aurrera, eroan al izateko, gizona, osoan, on-eratu bear da. Personearen almenak landu ta leundu egin bear dira. Bestelan, pistolea, odola ta negarra ez dira paltako gizarte naigabetuan. Gure biziak ez al dauz merezi egia, zuzentasuna ta bakea...? Gauza egokia da, koldarkeria ta ustelkeria alde batera itzirik, zuzen ta eder danari arpegi emotea.

BIZIA NAIGABEA DA, GOITU EGIZU

Illuntasun aundiak ditu biziak. Asarre dan leoi baten antzera, noznai ta nunnai, agertzen dira etsaiak gure bizitzaren aurka, norbera iruntzi nairik. Etsai orren zeregin nausi ta bakarra orixe da, giza-semearen bizia zirikatuta ta gogaitu ta al ba-leu zauritu eta il. Bere poz guztia ortan dago, okerrak egin ta gaiztakerietan gozartu. Gizajoak zer egiten daben ba-leki, zorakeri orrek baiño bakea naiago izango leuke, baiña buruko zorakeri orrek ta biotzeko griña gaiztoak menperatuta dauken ezkerro, ba-diardu beren erokerietan.

Gurasoak ba-lekie noz eta ze baldintzetan datorren euren etxera, seme-alabarik zurrenak eskuratzen aleginduko litzakez, baiña aitaren ta amaren egitez sortu dan izakia, gurasoen jakituriaz goitik dago gaur artean. Eguna ta ordua eltzen diranean, ba-dator aur barria, ta geldi geldika, agertuko da umearen jokerea.

Eskolara garaia eldu da. Goizian goiz jaiki, zorroa artuta egunero, leia; joango da mutilla ikastera. Urte bat eta bi igaro dira ta aurrerantza aundirik ezin egin. Bere lagunak ikusten ditu maisuaren aurrean zur, izketan gogoz ta erantzuten azkar ta bere miña lotuta aurkitzen dau; burua, illun, dauka, bere baitan ez dau asmetan zer esanik, bestien antzera nai leukez ikas-gaiak artu eta ezin...

Berezko almena bear ta onen ezera alegiñak alperrik. Bere lagunak, aurrera, doazela, argi, ikusten dau ta min sentitzen dau barruan. Eskolan eta etxean ekingo dautso lanari, orduak eta orduak liburura adi, alegiñak alegin ta dana alperrik... Azkenez, naigabea sentitzen dau bere barnean. Ni, zergaitik ete naz besteak baiño buru illun ta gogorrago... lana egiten dot al dodan guztia, ta zergaitik izan bear dau nire buruak ain biurria ta argitasunaren etsaia...?

Aita ta ama begira ta norbere semearen kezkek eta esturak entzuten, biotza erdibitzen jake. Ezin dabe onartu euren maitasun semearen naigabea, ta aitak semeari, onan, dirauto: seme, ez bildurtu biziaren aurrean... biziaren argia zugandik urrindu ba-da, irudimenaren indarra zugan dago. Zuk menperatuko dituzu gure mendietako aritz lerdenak, zuk sortuko dituzu euskal etxeetako olezko bitxirik ederrenak, zuk aintzaz beteko dituzu euzko etxalde zoragarriak.

Gure euskal baserrietako ormetan agertzen diran marrazkiak aupatuko dabe zure olezko esku lan miregarria. Giza doaiak ez dira bardiñak. Argitasuna eguzkiaren antzera, aurretik, ba-doa bere, eguzkipean azten diran zugatz lerdenetatik sortzen diran olezko erti lanak gure biziaren ardatz eta zoramen dira. Gizona ez da kikildu bear, liburuetarako jaio ez ba-da; ola, arria ta burdiña daukaz, euren gai ederrez gizadia otseindu ta mundua arritzeko.

Mutilla indarbarritu ta poztu zan. Bizia geroago ta ederrago doa bearentzat eskuarteko lan bikaiñen artean. Mendietako aritz lerden ta pago zuri sendoak amets biurtzen jakoz. Bizia, itxaropena, edertasuna, antxe, ikusten ditu bere irudimen gartsuan. Gai onek mendian eder direlarik, mutilaren aroztegian ametsak egi biurtzen dira ta enborrak urrezko erti landu.

Ikastetxeko ezñiak, kezkek ta naigabeak, ainbeste mintzen eben gogoa, aizeak laiñoak legez urrindu ta orizgarbi eder baten lez jezarien doa mutilaren barne gogoa. Eskua, begia, irudimena, iru izar dirudie aritz enbor baten inguruan. Ez dago ordurik, ez dago nekerik, oro eder da erii lanaren mai gaiñean. Udabarriko egun loratsuan, goizian argiaz batera asiko da lan tresnak mairatzen, ertiaren ederra, berez, dauka deika.

Antxiñako naigabea poz biurtu jako aritz aurrean bere burua ikusirik. Gaztetxo aldiko buru-illuntasuna ez jako, iñoz, astuko, baiña aren ondorenak esku langille biurturik, gizontasuna sortu dautso. Ikasteko ez nintzan gauza, ez neukan almenik, baiña gizonak ez dau kikildu bear ta norberekeriz ta buru arinkeriz astoratuta geratu bear bere esku lanen aurrean.

Bizia laburra dan ezkeroz, zur jokatzea, gauza bidezkoa da, ta orrek, oroz goitik, norberari laguntzen dautso. Personeak, bera dan giñoan, bizi bear dau; goikeriak alperrikoak dira, iñork ez bai-ditu besteen arropuskeriak onarizen. Gizontasunik ederrena da, bakoitzak bere almenak, diran bestean, onartu ta lanari ekitea.

Gizonak lana egin bear dau ta bere bizitzari erantzun egoki ta zuzen bat emon bear dautso. Au eskatzen dabe buru, biotz ta gizontasunak. Buruak gauzak errezoitu ta argitu bear ditu, berak ariu daben argitasun ta eran-tzupenaren eran, ta oriik datorkio gizonari bere nortasun bere-bizikoa. Ta buruaren lagun jatorra biotza da. Izan bere, eguzkiak ernerazi ta azten dituan lez aziak eta landarak, biotzak ba-dau bere zeregiña.

Egite on guztiak, ta batez bere, giza bizitzak berotasuna bear dau. Otza ezezkorra da, naigabetsua ta biziaren etsai minkorra. Emen lurrean daukagun jokabideak, indar bultzaille gogotsua eskatzen dau, lurra jota, geratu ez dedin. Biotza, esnatu zaite, suspertu zure indarrak, emon jatzun zeregiñak betetu barik, lotsatuta, gizonaren kaltean, lur jota, geratu ez daiten. Buru ta biotza jaiki ta lagundu gizonari, sorizez ariu daben eginkizuna betetu ta naigabea menperatzen.

BIZIA ERESIA DA, ABESTU EGIZU

Izadira ta gizadira begiratzuz, gizonaren barne bizia lilluratuta geratzen da. Izan bere, jakituriak, maitasunak, ertiak euren zoramena darie alderdi guztietatik... Egille Jakintsuak egin zituan gauzak, jakituriaren ta maitasunaren zirrara, nunnaitik, zabaltzen dabe. Ortxe agertzen dira esku altsua, begi argia ta biotz maitasuna. Jakitunak jakituria, olerkariak olerkia, ertilariak ertia, musikalariak abestia, indartsuak arri jasoten trebetasuna darie...

Era askotako almenak euren eratako gaitasuna agertzen dabe. Izadia ta gizadia, ta oroz goitik, euron Egillea begira ta entzuten dagoz. Ori dalata, gizonak eta gauzak, arrotu zuen egoak eta biotzak eta betetu zuei dagokizuen zeregiña, Giza argia, zorrotzu zure izpiak, askatu miña, artu idazkortza eta kanta egian, zuzentasunari ta gizontasunari. Gizadia osoa begira dago, beartsuak eta zapalduak il-zorian, zure egi ta argitasunaren zain. Ez lotsatu, ez bildurtu, ekin zer bakoitzari dagokion arloan.

Gorantza aditurik, goi urdiña argiz beterik dago. Zabaldi zoragarri artan izar urreak zein baiño zein ederrago, dizdiz, dagoz. Abetu zuen Egilleari edermiñez, argitu lurra, poztu gizadia, azaldu lurbira osoari zuen artean dozuen zoramen bizia. Emon gau illunari grazia, bidaztiei argia; mendi, baso, arru ta arkaitzei bakearen ditzira. Izarrak, abestu urregorritzko itzetan zuek sortu zaituen jakitunari. Artu dozuen argi guztiagaz ez dozue ikusten, baiña zueri begira, entzuten daukazue izar koroaren goi aldean.

Egiz, abesbatza sortu zan ta gau guztian ez zan ixildu abestuten itxasoari itxasoarenak, mendian mendiarenak, basoari basoarenak, baratzean baratzearenak, basetxeari basetxearen soiñu atsegingarrienak ta gizonari belarriak entzun ta biotzak amestu leikezan abesti samurrenak.

Ta eguneko izar garaitu eziñak, kanta egiezue ur zabalei, aitz gallurrari, zeru urdiñari, lorezko baratzari, ta mendi orleiei. Danak begira daukuz, zure eresia entzun nairik. Argitu mendi tontor osteak, lur zabalen erraiak narotu ta sagastietako lore zuriak apaindu. Pozaren iturria zaran eguzki argia, abestu egiezu zure babespean dituzun izadi polit eta gizadi kutunari.

Entzun nairik dagoz, zure ditzira urrezkoak gozartu nai ditue. Eguzki xarmangarria, poztu egizuz izadiaren bazterrak, ibai, solo, muru eta mendi; abestu egiozue urrezko abots eta dirdaiz, biziaren guriñaz orbiztu daitezen.

Euri eta intza, biok zarie biotz oparo ta ongilleak. Gizadi eta izadia zuen abotsa entzun naian dagoz, batzuetan, itxasora begira, ta beste batzuetan, odeietara adi. Zuen abestiak jalki egizuez trumoi eta tximisten artean; pozgarriak dira intzaren ezoa ta euriaren bustia lurraren babesean. Kanta zuen soiñuan, bizia eskeiñiz lurrari ta gizadiari, zuen oiva barik, ez dira ezer, lurra kiskaldu egingo litzake ta gizadia

Intzak, abestu goizaldian ta zidartu lurra eguzkiaren sorreran, irripar egin dagien frutu ederre ll itxaropenean. Euriak, bota, parra parra, gurin gozoa; zugatzak, landarak, bedarrak, lur dana itxaroten daukazu-ta, Alle-iuia!! Zure abotsak indartu ta poztu bear ditu lurraren erraiak ta gizadiaren bizia... Zure laguntzaz indartuta, pozez ta gogoz, lan egin dagien gizonak. Guztiak, batera, goratu dagiezan, ain gauz ederrak sortu zituen esku altsuak. Oroz goitik, jakituria berarena da ta zurea abestia.

Otzak kikildu egiten dau, su ta beroak bizkortu. Ori dala-ta, izadiak eta gizadiak su eta beroagaz diardue berbetan. Otzaren gogorkeria ezin dabe jasan basurde ta basauntzak, origaitik leizetara doazi otzaren aurkako babesaren billa. Otzak il egin eban baratzen lorea. Otzak ez dau errukirik, txoriak negarrez jarten dituanean, otzak ez dauka biotzik ardiak mendiaren magalean, dardaraz ta gosez, ilten dituanean. Otza da biziaren eriotza.

Su eta beroa biziaren ametsa zare udabarri eta neguan. Zuen graziak indartzen dau lurra ta giza-semearen bizia zartzaroan. Urtearen edozein arotan abestu egiozue lotead, iturriari, gizonari. Abestu, oroz goitik, be-roaren sorleari, izanen egilleari. Zu barik ezin bizi da giza-semea; lagundu egiozu gizonari mendi, gallur ta arruetan, zure maitasun beroaz poztu egizu gizadia, otzak eta nekeak il ez dagian.

Gau illun, otz eta dardarati ondoren, zuri zuri, agertu dira ibar, baso eta mendiak. Abots zurien abestia, argi argi, agiri da. Zabaldi guztia bat egin dala dirudi muiño ta rnendizka lauturik. Ortzia dago lur gaiñera begira ta lurra, arro, zuri zuri, jantzirik zerura adi. Bear zana zan. Lurraren etsaiak, nunnaitik, agertzen asita egozen. Kokoak eta arrak landara eta zugatzetan, zorigaiztoko aiñanez, kalte negargarriak egiten ebiltzan.

Edurrak, abestu izadiari, somorroak baztertu ta zelai, baso ta mendiak urez aseturik, zabaldu ateak bizi barriari... Edurra, bizia zara ta emon zure indarra, egarri dan lurrari, ogia ta ardaua sortu dagiozan lureko errege dan gizadiak. Edurra, eresia zarata, zure abots zoli zuriagaz abestu egiozu zeru ta lurrari. Bizia, zure laguntzaz ugaritu dedilla, bizia edertu dedilla. Edurra, abestu maitasunari.

BIZIA BURRUKA DA, ONARTU EGIZU

Negarrez agertu zan jaio barria, bizitzako negar ta burruka guztien ezaugarri. Egun aundia zan gurasoentzat zorionez, baiña semeak otz asmetan dau amaren sabel-jauregitik lur azalera agertukeran. Zentzunik eza dirudi, gurasoen poza batetik ta urrearen negarra bestetik, baiña danak alkarrekin konpontzekoak dira, gizonaren aunditasuna, ortxe, agertu bear dau ba, biziak, berez, dakarren nekeak onartu ta izerdiaren bitartez bizia ondu, urteak luzatu ta poza ezarri bizitzeari.

Lenengo bizitz sailla neketsua ba-da be, ametsez beterikoa da. ortik datorko ume aroan berezko zorgindura antzeko edertasuna. Adimen guztiak ez datoz, bardin, orniduta; batzuk argi dizdizetan jaioten dira, beste batzuk neguko illunpearen antzera ta adimen laburrekoak giñanok, ba-gaunkan naiko zeregin a eta o bata-besteagandik banatzen zortzi illabeteren buruan. Saku zarra buruan artuta, euria zanean, joaten giñan eskolara, ta ez zan gogorrena, sakuaren zuloetatik iges egiten euskun, artu ezinik genbiltzan izki maltzurrik ta aurreko egunean bezain illun gengozan biaramon goizean.

Baiña baserriko mutila, lurragaz burruka egiten eben semea, ez saku zarrak, ez euriak, ez buruaren illuntasunak ez eben bildurtzen. Alan zala eta, jantzi abarka zarrak, sopittekin adabatutakoak, ta ez egoan atzerarik, naita ur prezkoa abarka zuloetatik anketara sartu, trinki ta tranka, an giñioezan, barriro be, a, e, i, o, u, ikasi ondoren izkitegiaren gaiñerako letrak ikasten.

Geroago ta zaillagoak ziran izkiak ta zenbakiak, ta adimena barriz, ezin suspertu bere orma zar illunetatik. Lau ankakoak baiño zerbait azkarrago, baiña ezin etsi burua argitzeari. A zan benetako burruka onartua, zerbait egin nai norbere izatea munduaren onerako izan zedin.

Gazte aroa eldu da. Odeiz beterik dago ingurua, ez bakarrik ortzian ta mendi gallur ta arruetan, gazte artean bere lan giroa, kinkan, dago. Ta ez da burrukarik errezena, bizi egin bear ta lanik ezin aurkitu. Etorkizunaren ingurua laiñotuta, illun baltz agertzen da. Jorratu batera nai jorratu bestera, noz arte egongo ete dira atek itxita...?

Euri ta edurraren ondoren eguzkia agertzen da, ta lurrak gauz bi orrek bearrezko ditu; bizitz laiño ondoren agertuko dira argia, lana ta maitasuna, bizikera barri baten asikera pozgarri legez. Gazteak ez dau kikildu ta atzerarik egin bear; bizia, berez, dauka, aurrera, bultzaka. Onartu, berez, gaiztasunak ta menperatu bakez, aldien joan etorrian, datozen oker ta naiez guztiak.

Erritarrak, agintzailleak, arduradunak, zabaldu atek biziari... ta zuk, gazte, gertatu zure burua jakituriz ta zentzunez ta biotza gizontazunez armen indarrez.

Lana izateko ?idea ez da aundikeria, ez arrokeria, ez tirokeria, anai-tasunak ekarri bear deusku artu-emonen giroa, gizarteko uste ona ta ziburra ta lanaren itxaropena.

Norberekoikeriz lurra lantzea ez da zillegi. Aita baten semeak eskubide bardintsuek dakarrez lurrera, biziak eskatzen dituan eskubide ta eginkizunekin osoturik. Menperatu bearrekoak dira ba aundikeriaren goikeria, alperkeriaren txarkeria ta gizonak sortzen ditun azpi-joko guztiak. Egiari arpegi emotea, gauzarik gatxenetakoa da ta ain zuzen be, ortxe, dago biziaren sustraia.

Era ontako munduaren aurrean aurkitzen zara gaztea. Zuzengaberiak ez dakar aurrerapiderik, ez gosea ibituterik, ez sendi barriaren etorkizunik. Guzti orreri arpegi emon bear deusazu gizontasunaren egitez, kikildu barik, gaiztakeriari bildurra sartu ta zuzentasunari bideak zabalduz.

Gora-bera guzti onen ondoren, gurasoen lan ta nekeak datoz. Bizitza bere goi-burura eldu da, guraso arduradun izanik. Orain, ez dago bakarrik, ardurak ugaritu dira, giza bizitzak eskatzen daben eran. Len, bat zan eran, orain, bost dira. Bost bider bizia kezagarriago, ta egizko giza-semearentzat buruko miñak ta ardurak ugaritu dira sendian.

Lana gauza aundia da; zintzotasunez jokatu ezkerro, geldi geldika, gizonaren bizia urtu egiten dau. Ta bizi al izango ba-da, solo lanean arduratzen ta lar artean atxur ta kodaiñari oratu, ta zarta zarta, ekin egin bear jako. Egunerik egunera doaz lanak ugaritzen ta etxe bizikerea gogorrago ta neketsuago biurtzen. Gaisoak ikutu deutso semearen biziari, osasuna makaltzen doa ta osagilleak ez dauka mutiltxoaren barri onik, ez itxaropenik.

Au da neke guztien lorra ta burua. Larradi ta mendiko nekeetan bizia gaztetea ezer ez ba-litz legez, semea il-zorian dago. Mundura agertu ta beste barik, aurrera, egin bear dau bere elburua lortzen, sortzetik dakarren aziaren eran. Baiña eriotza be, ixillean, bere triskantzak egiten ebillen. Aurreko anaiaren eriotza, bizi bizirik, egoalarik, bigarren mutilla aingeruzko sasoian, ba-daroa Jaun Egillek bere zorientasunera. Txominek agurtu dau lurra ume aroan, zorioneko da beti betirako, baiña bere gurasoak, ondo, negurtuak dira euren kristau sinismenean. Zorionekoak era orretan negurtu ta bakez bizia, aurrera, daroenak.

BIZIA ZORIGAITZA DA, MENPERATU EGIZU

Aita on utsa danak, ezin eikean zorigaiztoko bizia sortu, ta giza- seme alabak, berez, dogu geure bizitzan, bata bestearen arteko kurutzeta, trabea, zoritxarra sortzea. Aita batek esaten ei eban: umeei nai dabena egiten itzi bear jake: ta mutiilek bat aparte moskortiak urten ei eutsoen. Beti txingarra baiño gorriago, beti edaten, ta beti, txingar arpegiagaz, gogoaren indarra galduta ta gorputza mirriztuta. Nai dana egiteak dakarren ondamedia.

Naikeriaren griñak ez dauke personearen errukirik ta ondatu artean ez dautse itziko bakean. Ta aita begira esanez: Nik atara juat artaldea..." Lenengo zoritxarra izan leiteke, zelan izan bear dan, zer egin bear dan bizitzan ez ikastea. Persona eran baiño pizti eraz bizi izatea atsegiñago sarri askotan Berantz deika dagozen griñak be, euren indarra dauke, ta ez gitxitan, euren eskubideak eskatzeko.

Samingarria da, baiña bizitzan ba-dira era askotalo jazoera laz-garriak. Ona ta txarra zer diran bereiztuteko argi almenik ez, nai dabena egiten itzi ezkerero, norberarentzat obeagoak izango direlakoan, ume errukarri batzuk ateraten ditue gizadiaren aurrean. Zoritxarra gurasoentzat, gizartearentzat, ta azkenez, ezbearrik aundiena euren umientzat.

Gurasoak zer asmetan dau upie lako moskorragaz, norbere semea, nonnai, lurra jota ikusiagaz... Berbarik ezin egin, ibili ezin, zentzuna galduta ta dana norbere erruz danean... aita batek zer egin leike, poz ustelagaz biotza itsuturik, negarrik egin ezin dabenean...?

Jazoera onek auzokoei berba egiten deutse. Zentzundun gurasoentzat, egiz, biotz barruraino doa, seme, erdi illik, antzo, baztarren lotsagarri, bitza dariola kalean agertzea... Jokera onek, gure gizarte ta sendien bizia ez dau edertuko. Ta zoritxarrez, goian ta beian, gizartean sartzen doa, umien gurariak edozein bear ez diran gauzetan sartzea.

Umien zoritxarra gurasoei deika dago. Esnatu zaiteze dirautse ta seme-alaben maiñak ez zagiezela atsipetu. Ume maiñatsuek ez goserik, ez egarririk, ez miñik ez dau sentitzen; bere barruan, beti zorakerizko gurari bat darabille, eurak zer dan, ona, ikusten ez dabena. Baiña, oroz goitik, nai dabena da, nagusi urtetea. Ta ain zuzen bere, orixe da menperatu bear dan griña, gizontasuna izan dedin gizonetan ta gizontasunaren bidez gizarte zuzen ta atsegiñagoa sortu.

Alan bere, mundua miñetan, negarrez dago; alderdi guztietatik agiri dira estenak zirika abere antzo. Auzoetako piztiak basoetan aurkitukeran, burrukea ziurra da; lenengo begiradea, bigarren sama biurkera ta irugarren adarkadea ta su, bata bestearen aurka, il edo bizi, odolak zoratu arte.

Amaika bider ikusi izan ditugu bei burrukak, ta iñun aurkitu ezkerero etxekoa ez dana, nai ta nai ez, indarrak negurtu bear. Zergaitik dan, ez dakit, baiña pistiak pistikeri ori egin barik, ezin egon.

Personea be errezozi edo adimendun pisti bat da. Ta pisti izateak, antza, adimenak baiño indar geiago dauka sarri askotan, ta ortik datoz ondoren lotsagarrienak. Gizona era askotan ikusi izan da baztertuta, zapalduta, ta orren ondoren, gosez, lotsatuta, giza bizitzan mailla ezbaridiñak izan bear ba-lebe legez.

Lenengo zuzengabekeria izango litzake Aita baten seme legez ez eza-gutzea, giza bizitzaren sort-iturria bat bera, bakarrik, izanik. Jokabide gaizto onek alderdi bi euki leikez: lenengo ta bein, gizonaren alperkeria, lanik egin nai ez ta orren ondoren datorren atzerapidea, bai giza adimen ezikeran ta bai solo, mendi ta lantegietako gora-beretan.

Zuzengabekeriaren beste sustrai miragarri bat, sarri, agertu da munduan, ta bere izena ez da edozelakoa, min asko emon ta negar saminiñezkoak *eragin* dituan nauskeria. Besteak gitxiagotzat edo ezer eztiat artuta arroke-rian itxutu ta indartzen joan dira giza bakar legez, sarri askotan, ta giza talde legez ez gitxitan.

Ori dala-ta, gizadia ez dabil Egilleak nai leuken eran. Personearen nortasuna nai dau, jakituriz, ezikuntzaz ta personeak, berez, daukan nora-bidean, ondo, zuzenduta. Personeak ez dauka ba, bere bidetik urten ezkerro, ez bakerik ta ez pozik. Ta bide ori galdu ezkerro, gorrotoa, burrukea ta ondamentia ondoren berezkoak dira. Ta nora goaz argia, zentzuna ta gizontasuna, bertan bera, itzita...?

Zuzengabekeria gure izatearen aurka dago; zuzengakeriaren eskubide-rik iñork ez dauka. Zuzengabekeria masuagaz jo ta eratxi egin bear da. Baiña zuzengabekeri guztien buru guda da. Gosearen ondoren onek egin ditu lurreko triskantzarik aundienak. Gudaren asmoak, aldien aldietan, ikusi danez, aundikeria ta arrokeria ezpata puntetan ibili dira. Entzutea nai ta baita bere, norberak lez pentsetan ez dabena zapaltzea, ta ondoren, lur ta itxaso zabalen jabe izatea.

Iñork alkartu ete leiz aundikeria, arrokeria, gosea, eriotza, odola, guda baten oiñean...? Ta zer esan, iñoren lurrak artzea ta ortarako, ainbeste lagun iltea, norbere griña gaiztoak asetzearren...! Illak itz egiten dabe... Gudarik ez geiago... Aundikeriak, lapurretak ta arrokeriak sustraiz betiko deseztu ta lana sortzeko ardurea artu, munduko giza-seme anaien artean lana, anaitasuna ta bakea loratu daitezcan.

Ona emen, odol artean il ziranen deadarra.

Ez nintzan ta ez nenkian, gaua zan guztía niretzat; argí bageko illuna. Betiraunean bat egoan nire barri ekiana. Ta Bera ixilik, egoan lurbira osoan, bizia zabalduen. Giza- seme-alabak bialdu zituan lurrera ta areen pentsuan egoan milloiak lagunuen bizia. Senar-emazte bik nai izan da, eldu nintzan lurrera, onen pentsuan egoan nire biziren etorrera. Egille nagusia bat da, ta lagur. guztiak Aren otsein ta lagun dira bizitza guztian.

Jazokun bat da nire bizia; Egille on batek ta Aren morroi-mirabe bik baietza emon eben ta ondoren eguzkia ikusi neban ta lagun bi aurkitu nituan ni maitatzen: aita ta ama. Au da gizakumearen mundura elduera. Zorionekoa ala zelan izango dan, norberak erantzun bear. Ortarako artu ditugu argié tasuna, naimena ta zentzuna, iru almen aundi dira, gure bizitzaren zoria lortuteko. Gizona, beraz, ez dator utsik amaren sabeletik.

Lenengo ikusi bear dana, au da; Nora etorri nintzan? Munduak egal asko ditu ta nire zori edo ustegabea Bizkaira eltzea izan zan, Gure Euskalerriak mueta, era askotako inguruak ditu ta eutariko baten mendi arte ta errekondoan izan zan nire jaiotza, beti, arpegia garbituta ibilteko tokian. Gurasoak, anai-arrebak ta abereak izan nitun nire etxe lagun onenak. Ta onen urrengo auzokoak, beti, aida ta o entzuten solo batetik bestera.

Bakezkoak izan bear eban lanak ta bakezkoa alkarren arteko bizitzea. Ori zan gizontasunak, ta batez bere, kristautasunak eskatzen eban bizikerea. Egilleak ez eban sortu gizadia alkarren artean burrukan egin ta odoletan ilteko. Itzez eta egitez maitasuna aldarrikatu eban; gaizki egilleari on egiozu, txarto esaka dabillena bedeinkatu egizu, matrail baten joten zaintuenari, bestea eskeini egiozu... ori zan Jainkoaren Semeak lurrera ekarri eban jakituria ta maitasuna.

Euzko baserriak danentzat ez ziran naiko. Lau, bost, sei seme-alaba sendi bakoitzean ta bat bakarrik bear kanpotik etorrenagaz alkartzeko ta beste guztiak nora bialdu, edota eurekin zer egin... Ez zan edozelako burukomiña ez guraso ta ez seme-alabentzat... Bizia ain ederra dalarik, nun aurkitu bizibidea! Amaika mutil zar ba-zan bazterretan... kanpaia otska ibilten zan, ingurukoei aditzen emonaz, batean errekaldekoa, bestean mendibeltzukoa, urrengoan zulueta mutli zarraren illobiratzera deika...

Bizi guztia, lanean, urratuta iñoren menpean. Nik ez nekien, nun, egozen guztiak, baiña gure izkuntzak ez eukan soiñu ederra sail orretan. Zerbait izateko jaio ta taju artan bizi bearra! Bizitzan berezko legeak eskatzen eutsen bizi-bidea ezin lortu, ta ori, olan, izan bear dabenik, barruek ezin etsi, lurrak astindu ta seme barrien poza ikusteko jaio zanak. Amaika bizitza urkulduta joan ziren gure basetxietatik.

Personea be errezozi edo adimendun pisti bat da. Ta pisti izateak, antza, adimenak baiño indar geiago dauka sarri askotan, ta ortik datoz ondoren lotsagarrienak. Gizona era askotan ikusi izan da baztertuta, zapalduta, ta orren ondoren, gosez, lotsatuta, giza bizitzan mailla ezbardñiak izan bear ba-lebe legez.

Lenengo zuzengabekeria izango litzake Aita baten seme legez ez eza-gutzea, giza bizitzaren sort-iturria bat bera, bakarrik, izanik. Jokabide gaizto onek alderdi bi euki leikez: lenengo ta bein, gizonaren alperkeria, lanik egin nai ez ta orren ondoren datorren atzerapidea, bai giza adimen ezikeran ta bai solo, mendi ta lantegietako gora-beretan.

Zuzengabekeriaren beste sustrai miragarri bat, sarri, agertu da muné duan, ta bere izena ez da edozelakoa, min asko emon ta negar samíñezkoak eragin dituan auskeria. Besteak gitxiagotzat edo ezer eztat artuta arrokerian itxutu ta indartzen joan dira giza bakar legez, sarri askotan, ta giza talde legez ez gitxitan.

Ori dala-ta, gizadia ez dabil Egilleak nai leuken eran. Personearen nortasuna nai dau, jakituriz, ezikuntzaz ta personeak, berez, daukan nora-bidean, ondo, zuzenduta. Personeak ez dauka ba, bere bidetik urten ezker, ez bakerik ta ez pozik. Ta bide ori galdu ezker, gorrotoa, burrukea ta ondamentia ondoren berezkoak dira. Ta nora goaz argia, zentzuna ta gizontasuna, bertan bera, itzita...?

Zuzengabekeria gure izatearen aurka dago; zuzengakeriaren eskubiderik iñork ez dauka. Zuzengabekeria masuagaz jo ta eratxi egin bear da. Baiña zuzengabekeri guztien buru guda da. Gosearen ondoren onek egin ditu lurreko triskantzarik aundienak. Gudaren asmoak, aldien aldietan, ikusi danez, aundikeria ta arrokeria ezpata puntetan ibili dira. Entzutea nai ta baita bere, norberak lez pentsetan ez dabena zapaltzea, ta ondoren, lur ta itxaso zabalén jabe izatea.

Iñork alkartu ete leiz aundikeria, arrokeria, gosea, eriotza, odola, guda baten oiñean...? Ta zer esan, iñoren lurrak artzea ta ortarako, ainbeste lagun iltea, norbere griña gaiztoak asetzearren...! Illak itz egiten dabe... Gudarik ez geiago... Aundikeriak, lapurretak ta arrokeriak sustraiz betiko deseztu ta lana sortzeko ardurea artu, munduko gizaéseme anaien artean lana, anaitasuna ta bakea loratu daitezán.

Ona emen, odol artean il ziranen deadarra.

Ez nintzan ta ez nenkian, gaua zan guztia niretzat; argi bageko illuna. Betiraunean bat egoan nire barri ekiana. Ta Bera ixilik, egoan lurbira osoan, bizia zabalduetea. Giza-seme-alabak bialdu zituan iurrera ta areen pentsuan egoan milloiak lagunene bizia. Senar-emazte bik nai izan da, eldu nintzan lurrera, onen pentsuan egoan nire biziren etorrera. Egille nagusia bat da, ta lagun guztiak Aren otsein ta lagun dira bizitza guztian.

Jazokun bat da nire bizia; Egille on batek ta Aren morroi-mirabe bik baietza emon eben ta ondoren eguzkia ikusi neban ta lagun bi aurkitu nituan ni maitatzen: aita ta ama. Au da gizakumearen mundura elduera. Zorionekoa ala zelan izango dan, norberak erantzun bear. Ortarako artu ditugu argitasuna. naimena ta zentzuna, iru almen aundi dira, gure bizitzaren zoria lortuteko. Gizona, beraz, ez dator utsik amaren saheletik.

Lenengo ikusi bear dana, au da; Nora etorri nintzan? Munduak egal asko ditu ta *nire* zori edo ustegabea Bizkaira eltzea izan zan, Gure Euskalerriak mueta, era askotako inguruak ditu ta eutariko baten mendi arte ta errekondoan izan zan nire jaiotza, beti, arpegia garbituta ibilteko tokian. Gurasoak, anai-arrebak ta abereak izan nitun nire etxe lagun onenak. Ta onen urrengo auzokoak, beti, aida ta o entzuten solo batetik bestera.

Bakezkoak izan bear eban lanak ta bakezkoa alkarren arteko bizitzea. Ori zan gizontasunak, ta batez bere, kristautasunak eskatzen eban bizikerea. Egilleak ez eban sortu gizadia alkarren artean burrukan egin ta odoletan ilteko. Itzez eta egitez maitasuna aldarrikatu eban; gaizki egilleari on egiozu, txarto esaka dabillena bedeinkatu egizu, matrail baten jotene zaintuenari, bestea eskeini egiozu... ori zan Jainkoaren Semeak lurrera ekarri eban jakituria ta maitasuna.

Euzko baserriak danentzat ez ziran naiko. Lau, bost, sei seme-alaba sendi bakoitzean ta bat bakarrik bear kanpotik etorrenagaz alkartzeko ta beste guztiak nora bialdu, edota eurekin zer egin... Ez zan edozelako buruko-miña ez guraso ta ez seme-alabentzat... Bizia ain ederra dalarik, nun aurkitu bizibidea! Amaika mutil zar ba-zan bazterretan... kanpaia otska ibilten zan, ingurukoei aditzen emonaz, batean errekaldekoa, bestean mendibeltzukoa, urrengoan zuluetao mutil zarraren illobiratzera deika...

Bizi guztia, lanean, urratuta iñoren menpean. Nik ez nekien, nun, egozen guztiak, baiña gure izkuntzak ez eukan soiñu ederra sail orretan. Zer bait izateko jaiio ta taju artan bizi bearra! Bizitzan berezko legeak eskatzen eutsen bizi-bidea ezin lortu, ta ori, olan, izan bear dabenik, barruek ezin etsi, lurrak astindu ta seme barrien poza ikusteko jaiio zanak. Amaika bizitza urkulduta joan ziren gure basetxietatik.

Gure baserrietara begiratzuz, euzkoen izkuntza arrigarriak arrituta nauka. Jakituri aundiak dagoz munduan pisi, kimi, osasun, izar arazoetan eta abar... baiña guztien oiñarri izkuntza jarriko neuke, gizonak abotsa bear dau ta, bere barneko argitasun, olde, jakituri, amets guztiak eratu ta urkoari agertzeko. Orain millak urteetara atzerantz ba-goaz Auñamendi alde onetan gizategi bat sortu ta eratu zan.

Berezkoa zan, ta alan bearrez, euzko gizadia sortu eben azur itxuraz, odolez ta izkuntzaz alkarkidetasunez beterikoa. Mendiak, arkaitzak, zelaiak ta itxasoak lagundu eutsen euren izakera eratzen. Arkaitz sendoak, itxas indartsuak ta lur mamintsuak Egillearen laguntzaz erri zentzundun bat sortu bear eben, biotzez sendoa ta buruz argi-bidezkoa.

Zentzundunak zentzunezko gauzak sortu bear-ta, izkuntza arrigarri bat eratu eben euren era-berekoa. jakituriz beterik dagoz itzak lur, goi argi ta itxaso jokabidez, ondo, eratu ta apainduta; aditzean sartuko zituen bizitzako jokabide ta zertzelada guztiak, ta era orretan agertuko zan lurra ezagutu daben izkuntza gailenetakoa.

Gaurko euzkotarra, zabaldu egizuz begi orrek ta ikus egizu arbasoek emon eutzuen alkar ulertzeko itz-bidea. Munduko izkuntzalari aundiak seigarren maillan jarri dauskue gure izkuntza. Lurreko izkuntza guztien jakituria, edertasuna, apainduria, alkarkidetasuna aztertu ondoren, euskera, gorengo tokian, seigarren maillan, bera bakarrik, jarri dauskue ain puntu goresgarrian.

Gaur, noz arte egon bear ete dau euzkotarrak loak arturik...! Gure lur, mendi, itxaso, arkaitz ta gizadiaren edertasunari uko egin bear ete deusagu...! Gauza onak, bertan bera, itzi ta arbasoei, euri ta euren gurasoei uko egitea ez da bidezkoa; euskaldunarentzat ez da zillegi, gurasoen jakituria, itza, egia saltzea... Ori dagienak, egin dau berea, aita ta ama saldu ditu ta bera, bardin, salduko dabe, ondoren datozen umeak.

Euzko baratzen larros bat dago; usaiñez atsegiña, orriz zoragarria, margoz dirdaitsua... Zenbaten saltzen dozu, ala, zeuretzat nai dozu? Orixe da zure izkuntza, euskera, baratza erdiko lora bardingabea.

Erri zurrak bere nortasuna agertu bear dau bizitzako arazo aundietan. Nundik dator, norantza noa, nork sortu nau, zer egin bear dot... Onak dira adimendunaren egin bear aundiak; egiz, jakinbearrekoak. Gizaldien gizaldietan, bide ortatik joan da euskaldun jende parte nagusia. Berrogei, irurogei edo larrogetabost urteko bizia ezer ez da, barruan daroagun bizi egarri ain sakona asetuteko.

Beste alde batetik, personearen izaera ain duiñak, argiz eta maitasunez osotuak, beste elburu illezkor bat eskatzen dau. Lur zaleak diño: lurra, dirua, aragia naikoa ditut bizia gozartuteko. Nik ez dot beste ezer bear; nire goitik iñor ez dago; au da zentzun bakoaren ametsa, gogoa, jokabidea.

Lengo aldietan euzkotar askok lurrez goitik jarri eben euren elburua... "Gurutza bat dogu geure goiburu." Emen dago giza-barnearen eskabidea, poztu ta asetu leiken Jaun ta Jabea. Gizadiaren Jabe orrek ezin dau iñor ikusi kateipean, espetxean, zapalduta, gosez ilten. Munduko gizarte auziak, arduraz, beterik dauka ta gizonei dei egiten deutse, gizonen arteko nekea, miña ta negarra gizartetik kendu dagien.

Au da gizartetik uxatu nai daben gaitza ta anaitasunari dei egiten deutso beartsuari lagunduz, bizitzako arazoak argitu, kateiak urratu ta gosedunari zuzentasunezko iana ta ogia emonez bizi-bidea zuzentzeko. Onek dira sinismenak eskatzen dituan lanak, pozak eta itxaropenak. Ta euskaldunak on eretxi eutson jokabide oneri lengo aldietan. Or dagoz euzko gizonak, euren legeak, euskaldunen fedea, erri bat bere izatasunean indartu nairik, zorioneko izan dedin katei barik, gose barik bere lurraren gaiñean. Zuzentasuna, egia, lanbidea, anaitasuna dira sinismenaren ale eder, frutu zuzenak.

Munduari ezerk on egin bear ba-deutso, onek dira gizadiaren ongille benetakoak: zuzentasuna, maitasuna, laguntzea, bata bestearen lur eta eskubideak egi-bidez ikusi ta lotsaz artu guztion Egillea dogun Aitaren izenean. Aita barik eta lotsa barik ezin giñaike bizi. Mundiko jarduerak, arrikadak, ilteak, ondo, agertzen dabe baieztapen onen egia. Anaiasuna bear dogu, aita batengandik sortzen dan maitasunaz ta egiaren indarragaz. Emendik agertuko da lurrean, gizarteak bear daben egizko bakea.

Alanbearrez edo jakituriz, munduan-gizataldeak sortu izan dira aldien joan-etorrian. Batzuk aundiagoak, beste batzuk txikiagoak, baiña beti bere, aundiak aundi izanik, ez dabe, ondo, agertu euren jendez geiago izatea. Sarri, larregietan, gosekillak izan dira, beste jende talde batzuk euren azpian artu naikoak ta zoritxarrez artzailleak. Aundizalekeri ori, bai persona legez ta bai erri legez, bear dan eran ez da izan epaitua gizonen artean. Gizona bildur izan da otsoaren aurka jokatzten ta otsoak bere lorrinkeriak egin ta erri txikiak, sarri, odoldu ditu ta bere ondasunak xurgatu.

Erri guzti onen artean euzko jendetza Aiñumendi alde ontan agertu zan. Bere izekera berezia sortzea lortu eban, gorputz tankeran, odolez, izkuntzaz, giza tajuz, gizontasunez... Iñork bear ba dau, zuk merezidu dozu erri edo enda-egokiera bat izatea. Zagozan lekuan argi egiten dozu, zure semeak ortzian izarrak legez, argi egiten dabe edozein tokitan lurraren gaiñean.

Zure asmoak, iñoz, ez dira izan ondamuzkoak, ez zapaltzailleak. Zeure gizatasunek agintzen eutzun eran, zuzentasuna, egia ta bakea izan dituzu gidari, ta millaak urteetan, menperatzaillea agertu arte, zeure buruaren jaube izan zara, lurrak landuz, askatasun garbian. Lanak ez zaitu, iñoz, bildurtu, ta lurrean, itxasoan ta burni-miñetan zure gogoan, ondo, itsatsita itzi dozu. Zure izena, or, dago lur, mendi, itxaso ta burni-miñetan urre-gorritzko izkiekin siñaturik.

Emen, agertzen da euzko izatearen dardarea. Gure arbasoak ezerean arrokeri ustel barik saiatu ziran biziari arpegi emoten, seme-alabak azten ta eziten euretariko asko ta asko munduaren argi ta gatz izan zeitezen. Aitorren seme-alabak ibili dira munduari argi-indarra emoten, zuzentasunaren bidez, bizi bideak atondu ta konpontzeko anaitasun giroan. Au da gaur bere, euzkotarrak bere barruan daroan arnasa ta on egin naiaren gogoa ta bidea.

BIZIA GOZAMENA DA, IRABAZI EGIZU

Esatera onen mamia oso ederra da. Entzunaz bakarrik, ba-dirudi bere barnean daroala gure izatearen sustrai guztia. Izan bere, gure azurrek, gure odolak ta aragiak apurtzeagaz ta miñagaz zapuztuta legez geratzen dira. Odoi gaisotuagaz, aragi minduagaz ta azur apurtuagaz, nora ezean, geratzen da gizon auldua. Austua ta larda, ezer egin ezinik, ez dau ezertarako aimenik, ezin dau ezer egin, baztertuta geratzen da.

Era orretan jarraitu ezkeru, berez, jatorku ez gorputzak ta ez gogoak nai ez daben auleria. Ta makalaldiari izten ba-jako beren erpeak lurean sartzen, sustraiak, errez ta ugari, zabaldu ta sakonduko ditu ta zugatzik sendoena be, laster, menperatuko dau... Ta zer esan giza semeari buruz...? Izadiaren jaun eta jabe izateko sortua dana, auldu ta gaisotzen ba-da; ai! gure gorputz gaisoa, negarrez izango da, gizadia ta biziaren etsaiak, gogoz, abestuko ditu illetak.

Baia berez, ez gara ortarako jaiok. Aita biotz zabal ta buru argiak, semeak bizitz ontara ekarkeran, zorionik onenak nai ditu bere seme ta bizi zati dan biziarentzat, barne legeak eskatzen daben eran ta gure Egille Aitarik onenak lureko seme-alaba guztientzat, argi ta aginduz adierazo eukun, "zeure burua lez urko laguna maite egizu." Onak ez dau nai txarkeririk, onak bere maitasuna zabaldu nai dau, urko laguna poztu ta al dan era onenean zoriondu.

Goi-maitasuna ez da aserrekoa, ez norberekoa; dana emon nai dau, dana poztu nai dau, lagundu egin gura dau, ezbearrak gizartetik kendu nai ditu; bere izatez errukiorra da, urkoaren pozagaz poztu egiten da, aurre-rapideagaz alaitu ta anaiaren zoriontasunean zoriontsu aurkitzen da. Zapal-duta ezin dau iñor ikusi, anaiaren gosea bere gose biurtzen jako; au da Jainkozko legea, guztion Aitak lurean ikusi nai dabena.

Bizia gozamina da, irabazi egizu. Bizitzak alderdi asko ditu ta guztien artean osotzen dabe giza-bizia. Pertsoeen doaiak bere ezbaridiñak dira ta danak alkar arturik osotzen dabe loraz beteriko baratza baten antzeko giza baratza. Izadiak jarri deuskuz irudi bikaiñak ikuspegi zoragarrietan. Mendiak, arkaitz zorrotzak naiz arkaitz ebagiak, dindilizka dagozela dirudienak, atxarteko ur-salto arrigarriak, mendietako arizti orlegiak, zelaietako bedar ezo usaintsuak eguzkiaren beroa artzen, aldapa leuneko iturri ur gardenak, eguzki isletan dizdiz.

Ta margolariaren gogoa, an, doa ikusten, asmetan, gozartuten, izadiak daukan ederra bere almen bidez mendiak, arkaitzak, iturriak, irudimenez argitarako irudi barriak ingietan ezarten. Margolari almena ta arkaitzaren ederra bat egin dirata, aldapako iturriaren ederra gozartu dau ta bere izateagaz bat eginik, izadi edertasuna ezilkortuta itzi nai dau gizadiaren aurrean. Margolaria, egiz, merezidu dozu izadiaren ederra gozartutea.

Itxaso urdin zabala, ta bertan, itxas gizonak arrain arrapetan, zoragarria da egunsentian. Soiñu otsian urten dabe izontziak goizaldeko argi izpieran. Itxasoa zabal ta urdin dauko, begiak artu alean. Gizonak egiña ez da, ez aizez ornidua, ez oiñeztarriz sortua. Ainbeste edertasun ta ainbeste aberas-tasun ta ainbeste ondasun gizonen almenen goitik dagoz. Ta azalez ain eder dalarik eguzki printzapean, zer ete da itxas barrua arraiñez beterik...?

Bota zareak uretara diño ontziéburuak. Zure esanera botako ditugu zareak itxasora erantzuten deutse arrantzaleak. Bat, bi, iru ta sareak sartu dira uretara. Eguna ederra da ta arrain zuria ederragoa izango dala dirudi; ontzi inguru guztian, dizdiz, agiri dira arraiñak. Betor gugana zuen erreñua diño buruzagiak, ta, opaka, sartzen dira sareetan arrain guri guriak. Gizonen poza ta arrain ugaritasuna alkartu dira itxas urdin gaiñean.

Gizonak gizonari danak poza emoten deutse alkarren ta tresna guztiak batu ta izontzia asi da soiñutan, itxasoa agurtuz etxera bidean.

Ta an, mendi egalean dago euzko olerkaria anaiei begira, langilleen poza oartu dau ta lenengo bertso apaldia, itxasoa sortu ebanarentzako doa...

Ontasuna dariozu
itxaso jaun ta jabea,
zure indarrak sortu dau
arrain bitxi bildumea.

Bigarren agurra zun,
arrain arrantzailleari,
sinistu deutzuzulako
itxasoaren jaubeari.

Oro da eder, urdin ta zabal, ura ta ortzia, baiña eder artean eder arrainketa zorionekoa. Arrantzalea, bizia zoramena da, irabazi egizu.

Bizia gozamina da, irabazi egizu. udabarri itxaroa, ongi etorri, gure mendi, zelai, solo ta ibarretara. Aspaldidanik zuri begira gengozan, alderdi guztietatik oi u bardiña entzuten; betor gugana udabarri erreñua. Ta mendi gaiñean entzuten zan udabarriaren kanpai otra. Argia, aizea, giroa guztiz aldatu dira, mendi tontorretik asi, ibarrak zear igaro ta itxaso urdiñeraiño.

Eguneroko eguzkiaren urrezko printzaz, ta nozik bein, egiten dituan euri aberatsekin, izadia erne-miñetan, bizi bizi, agiri da. Zelaiek bedarrez orle-gitzen doaz, janaria ganaduentzat lugiñari eskeiniz; mendi, arru, troka, zelai inguru danak bizi barritu dira. Ta onen artean, ibai, erreka ta iturriak, arri-billezko zaratetan, lur ta lagunuen egarriak aseturik, zidar isletan itxasora doaz.

Eguzkia, euria ta lurra alkartu dira maitasunezko giroan ta dana edertzen doa begiak artu-alean. Zugatzak, ontasun oneri eskerrak emon nairik, lorez

jantzi dira, ezkontzako jantzi zuriz batzuetan ta jantzi gorritz beste zugatz batzuetan. Ederraren ikuspegia agiri da zelai ta mendi magaletan. Bizia bada lurrean, bizia ba-da eguzki printzetan, ta bizi almen bi orrek alkaturik, izadia jantzi da ederrez, lorez ta emaitzez. Benetan, maitegarri biurtu da lur guztia.

Neguko abi illunetatik txoriak unen dabe izadiaren aurrera. Ta lurraren ederra ikusi ta poza artukeran, egundoko eresbatza sortu da. Lurrak bere bizia zabaltzen dau, loreak bere usain gozoa, errekak euren biurrizko zidar zaratea, zelaia euren maitasun ezta, ta larrabizkerretan dagozen landarak, ingurua apaintzen dabe. Ederra dario danetik lurrari ta zugatz adar puntan txoriak asi dira eresietan. Bakoitzak bere erara, doiñuak, ando, artu ta zaindurik, danen artean sortu dabe eres-batz entzungarria.

Izadiak ez ekian noraiñokoa zen gizonaren poza, lur erraiak lantzen ikustea ta txoriak zugatz puntetan aize ta lurra alaituten entzutea. Danen artean ametsa baiño ederrago dan zorion bizia era tu dabe: lana, aizea, argia, abestia, zorionez, alkartu dira, gozamen eder bat sorterazten. Udabarria ta izadia, biak bat eginda, bizia, eder ta itxaropena eskeintzen dagoz bizien bizirako.

Ta zuek, andre naiz gizon, jakituriz, jokatu egizue bizitzaren alorretan, zaindu zuen osasuna, argitu burua, sendatu biotza, osasuna edertu, ta ondoren, gozartu biziak daukan gozamena. Egiz ta zuzentasunez bizi izatea eskatzen dau gizontasunak, ta gero, gozamenaren gozamenean bizi.

Bizia gozamena da, irabazi egizu. Itza, jakituria, olerkia, eresia, margo-ertia, elertia bizitzaren mueta zoragarriak dira. Itzaren gai sortu ginduzen Egilleak ta gizakiak, egoki, erantzun deutse, izatez, artu eban itzerako sormenari. Berezko legea da ba, personeak abots bidez alkar ulertzea. Pistiak ez dabe ortarako almenik artu, gizonaren otseintzarako sortuak direnez, ixilik, esana egin bear dabe. Zorionez, era orretan, antolatua izan da mundua, bestelan, pistiak adarka gizona zapalduko eben.

Euzko lurralde onetan bere, emengo euzkotarrak euren tankerako izkuntza sortu eben. itzak urrezkoak ditu euskerak, aditza urre-apaiña ta itz ta aditzaren arteko artu-emon ta esan-naia ikatz-urenezkoak. Nundik nora ainbeste pilosopi edo jakintza atera eben Aitorren seme-alaba arek auren arteko lana, jakituria ta maitasuna agertzeko. Arrokeri barik sortu eben izkuntz lorarik ederrenetarikoa munduaren aurrean. Lurralde bitxi onek ba-dauka zerbait gizontasuna, edertasuna ta jakituria bere ondorengoei ain bikain ezarteko.

Gozamenaren gozamena da euskaldunen izkuntza zar, sendo ta garbia. Arbasoengandik artu ditugun izkuntza, sinismena, jakituria, lan-zaletasuna, onaren aldeko alegiña, egiz, betirako marraztuta itzi bearrekoak dira. Euskaldun gizoztea, zabaldu biotzaren ateak, arbasoengandik artu ditugun edertasun ta onoiemenak, beti ta beti, ezaugarritu dagien euzkoen aberria.

Gure erriaren duin izan bear gara ta gozartu sortzetik datorkiguzan ain bitxi bereziak.

Itzaren inguruan ba-ditugu beste ederti batzuk... Gure lantokia itxasoa baiño zabalagoa da. Gure mendi, itxaso ta zelaiak ertiz beterik dagoz ta eurek dauken ederra eskeintzen deutse euzko seme-alabei... itxasoak bere zabalera, luze, urdin asper gabea ta olerkaria, ara, doa adimena bizkortu, biotza berotu ta irudimena suspertuz, bizi mamiñaren ederra artzen. Ta itxasoa bera, ain eder dalarik, ta ur gain bikain aren gaiñean dabiltzan izontzi ta gizonak, olerkariak maiteago ditu.

Itxasoak itz egin deutso, anaitasunaren itza ta ederra sartu deutsoz biotzean muiño barneraíño. Zoriontsu aurkitzen da alderdi guztieatik ur urdin urdiña besterik ikusten ez dabelarik. Begiratu batera nai betera, ta zeru urdiña ta ur urdiña atsedenezko bakean alkartuta bizi ditu bere izate guztion. Goi ortzia, geldi geldi, dago orba-bageko irudi baten antzera. Urak eguzki printzetan zidar isletan ikusi ditu alderdi danetatik ederraren dizdizera dariela. Arrituta aurkitzen da, gurentasun guzti orren egille ta jabea nor izan ete leitekean, bere artean galdezka.

Giza jakituria ez da orrembestera eltzen. Jakitunak itxas legeak ikasi egin ditu ta izontzi zoragarrienak sortu. Geroz, boga boga, ur urdin gaiñean zear ibili dira gizadia otseintzen. Jakituria, uren indarra, itxasoaren edertasuna artu ta gordetzeitu olerkariak, munduari egiaren mamiña ta ederraren poza eskeintzeko. Etxean sartudo da, ixilik, bakardaeen, ta ikusi dabenaren itxas biziaren gozamina gozartuko dau ta ondoren, beren itzez gozartuten emongo deutse irakurleei.

Olerkariak itxasoaren guna, ederrez, apainduta, emoten deutso munduari, eder gosez bizi dan giza gogoari. Ta orain, zerua, itxasoa, edertasuna, bakea ta olerkaria bat egin dira euren egillearen jakiturizko babespe indartsuan.

Tallugillea, zizelaria, eder-zale direnentzat, bene benetan, itz gozagariak. Egiz, nork ez ditu maite zugastaren enborra ta beren adar liraiñak...! Mendiak emoten ditun alerik ederrenak zugatzak dira. Euria ta eguzkia arengana doaz bizia indartzera, ta zugatza besoak zabalik, gozatsu, aurkitzen da euri ta eguzkiari ongi etorria ta esker beroenak emoten. Bakardadea izango da mendian nagusi, ta antxe, lur-giro sendoan, urteak igaroko ditue, sendotzen doazen pago, lizar, gastain ta aritzak.

Baso ta mendien edertasuna geroago ta biziago agertzen doa zugastiaren indarrez. Denporea ta giroa lagun on izan ditu beso zabalik dagoan lurrak. Lurra, egiz, izaki apala da, ta berak bear dituan laguntzak artu ezkeru, esker onez, beti, gertu dago bere seme-alaba landarei bizia sendotzeko. Benetan, gozamina darie mendi egalak aritz lerdenen edertasunez. Atsegiña da euzko mendietara eltzea, ta an, tontor gaiñean, eguzkia ta aize osasuntsua artuaz, birikiak zabaltzen dira, begiak zurtu, biotza poztu ta adimena argitu ta gizatasuna, oso osoan, indar-barritzen dira euzko izadiaren edertasunaz.

Gozamena, ortxe, dago gizonaren serbitsuan, alderdi guztietatik on egin nairik, ertilariaren billa. Ertia ta ona, opaka, dagoz. Guztiz Altsuaren jakituria, indarra ta maitasuna agertzen dabelarik, gizadiari bizia ta edertasuna eskeintzen.

Taillugillea, begira begira, dago zugatz enbor sendoari arizti erdian. Bere ertiaren almena, zorabiotan, jarri jako ta baso jabeari itz egin ta ba-daroaz aritz lerdan ederrak ta gastain senda gogorak bere lantegira. Barruan edermiña bizi bizirik dauka ta ertiaren izpiak zorroztu deutso gogo. Une ontatik aurrera ezin geldirik egon leiteke, ta a zan lanaren ekiñaldia, egunak egunari dei egiten eutson lanera ta ertizko egintzak, aterik hitxienak, kutxarrik ederrenak ta guda baten, suzko ilketaz austuaren erriaren irudia, eskurik jakintsuenaz doa eratzen.

Esku almentsu aren lana ikusten doa jendea. Ikusmira aren aurrean arrituta dagoz, euren ongi eretxia agertzen, goratasunak emoten, miñez ezin agerturik ainbeste edertasunen agerkari izugarria. Egiz, bizia zoramena da ta zizelariak bere ertizko eskuaz irabazi dau ederraren gozamena.

Bizia gozamena da, irabazi egizu. Jakituria, alkar laguntza, gorengo maillako egintza jatorrak dha. Biziaren sustraia, ortxe, oiñarrituta dago. Jakituri barik, iñora, ezin joan leiteke; ez-jakiña bizitzako ostoporik aundiena da; gau illunaren antzera, noz leia zuloan jausiko. Mendietako aritz, pagadi ta gastaiñadiak euri eder ugarien ondoren, eguzkiaren dizdizera ta berotasuna bear ditue. Indarraren billa dabil lurra ta eguzkiaren printzak dauke bizitasun orren sustraia. Izar gorriak beregan daroaz orriaren berdea, enborraren sendotasuna ta biziaren muiña.

Geroz, mendi, arru ta zelaiak, solo ta ibarrak bizi-miñetan dagoz, geroago ta ederrago, izadia alkar maitatzen ba-lego antzera. Mendietako zugatzak, orleietan dizdiz, zelai, solo ta baratzetara begira, inguru guztiak alaitzen. Ta txoriak abar artean abi barriak sortzen ta abestiz eta kantuz, urretxiñoletan, zugatzen puntetan. urregorritzkoa baiño ederrago dirudi euzko basetxe, mendi ta zelai alderdi guztiak... O, izadiaren ederra !euriz ta argiz apaindurik gizadiaren omenean.

Esku nagusia, ixilik, dago alderdi guztietatik adi, ta ederra deritxo. Zureztat da gizona, eguzkiaren menpean dagozen itxaso lur guztia; menperatu egizuz, goldatu ta atxurtu. Maitasunezko abotsa entzun dau ta sortaldetik sarkalderaiño jakituria darie mendi gaillurrak ta lore zurizko ibarrak. Gizona, or, dabil lanean ta beragaz batean, ikusten ez dan Egillearen esku indartsua, giza neke ta izerdiak bizi eder biurtzen.

Dana da jakituria, dana urre borondate ona! Lurrak frutua sortu al izateko almena dauka, egilleak emonda; landareak lorea sortu leike, benetan, gauza bitxia, ta lore ortatik dator alea ta bizia. Gizona begira dago, arrimenez, beterik, esku altsuaren jakituria ta indarra ikusten dituelarik.

Gizonak edertasun ori irabazi egin bear dau Gizadiarentzat sortua da ta gizona jarri eban almenez osoturik, frutua emon erasoteko. Landu egizu ba lurra; irabazi zure izerdiagaz lurraren bizia ta ondoren gozartu.

BIZIA BIZIA DA, ZAINDU EGIZU

Bizia zer dan ikusi al izateko, norbera izan bear dau gizontsua, zuzena ta apala. Biotz anker ta buru illunagaz ba-dabil, ezer ezin lei bere senean ikusi ta onartu. Biotz takar, oker ta kaskarrak ez dau maite egirik, ez dauka gurari onik iñorentzat. On-damua dauka barnean ta beste guztiak zirtzil eta kaskarrak dira beretzat. Baldintza onetako personearentzat ez dago iñor zuzen ta gizontsurik. Begi okerrak ta gaiztoak ez dautse izten zuzena ta ederra dana lagun urkoagan ikusten.

Orain goazen geure arira. Bizia berezko bitxi bat da. Ez izatetik izatera eltzea bardin bageko jazoera da; argidun izakia arrituta izten dabena. Eza, utsa iruditu egizu, ta gero, otz batean, izaki argidun bat, personea deritxona, zeure aurrean daukazu. Baiña nork sortu dau izaki ain bikaina? Personeak, azalez, ikusten dau ta ondo ta eder deritxo, bere irudia soin, buru, arpegi, esku, begi...

Esku, begi, belarri ta batez bere, buru ortan dagozen lege jakingarriak, giza jakituriaren goitik dagoz. Egille jakintsu bat agertzen dabe giza-semeaé ren buru, biotz, errai ta gaiñerako gorputz satiak, ta zer esan onez goitik daukezan maitasun ta argitasunari begiratu ezker...? Ez dago jakitunik gizonetan ain izaki bikaiñik sortu leikenik. Giza almen guztien goitik dago ainbesteko edertasuna.

Eskutuan dagon Egillea, itxaso, lur ta personen bikaintasunak agertzen dabe. Jakituri ta indar aundia agertzen dabe urtegi ta Lurraldeak. Ta zer esan onen erraietan dagozen ondasunei buruz? Gizadi guztia alikatuteko aiña janari, edari ta gaiñerako ondasunez beterik dagoz lur ta ertzak. Emen, bear direnak dira lana ta zuzentasuna, bear dan era onean lur ta uraren ondasunak banatzeko gizadi guztiaren artean, goserik izan ez dedin iñungo bizitzetan.

Aurrean daukaguz ba, jakituriz ondutako gizadia ta ondasun ta aberastasunez apaindutako itxaso eta lurra, ta onen artean sortzen dabe gizarte zoragarria, giza bizitza gozoa; ainbeste maite dan bizi giroa. Ta ez dau gizonak sortu, orretarako gai ez da-ta. Gizonak artu ta gozartu egiten dau. bizia da gizadiak artu daben gauzarik ederrena. Ori dala-ta, giza zentzunduna, beti, dago esker-miñetan, bere Egillea goratzen.

Bizia da doairik aundierna. Gauz eder asko ditugu gure inguruetan, goizetik eta gabera gure lagungarri direnak. Txirrindolak, pelotak, berezibillak, egazkiñak, lanerako tresnak, liburuak ederrak dira eta bearrezkoak, eurak barik, gaur, gure ingurua, larri, izango litzake. Baiña orrek ez dira bizia, biziaren laguntzailleak baiño. Laguntzailleak ain eder direlarik, zelakoa ete da bizia...!

Zelakoa ete da biziaren zer, zera, zerkia... Orrei erantzun al ba-neuskio, nire jakituria lurretik at egongo litzake. Biziaren zera zer dan jakitea, nire

almenak baiño gorago dago. Nik, emen, lurrean agiri diran gauzak edo zerak ezagutzen ditut, esaterako, lurra, arria, landarea, umea... Onen danen artean umearena da bizirik bikaiñena. Umea ta gauzak ezin bardindu leitekez biziaren gora-beran.

Umearen bizia askoz bikaiñagoa da beste izaki guztiena baiño. Tailla-gilleak sortu dabean arlanduzko irudia, atsegiña da bere antzera, lerdentasun ta esan-naia gaitik, baiña berbetan eta barreka asi dan mutiltxoa, ezin arri otz ta sardiña preskuagaz bardindu. Umearen grazia ez da gizonak egiña; gizonak egiña ba-litz, irriparre orren gozotasuna, zertan datzan, esaten jakingo leuke, baiña gizonak egiña ez dan ezkeroz, aren barri mamiñik ezin emon.

Bizia, or, dabil barreka. Azten ta azten doa mutiltxoa, gorputzez, gogoz zabalitzen ta buruz argitzen. Bizitz eraketa onek oiñarri sendo baten inguruan dabilta ta au da bizia. Guk, berez, ainbeste aite dogun, ain grazi oneko eskutu itzaltsua. Beez agertzen jaku alderdi guztietatik, biziaren izatea bakana dala, ez daukala bardiñik, ta guk artu dogun ondasunik aundiena, orox goitik, bizia dala, berak damozkun poztasunagaz.

Alan-bearrez, giza seme zurra, alegiñez, dabil bizia zaintzen azurrek apurtukeran, buruko-miñetan, esteak zulatukeran... Izan bere, ain bitxi bardingabeak dana merezidu dau. Ta gure izateak bizia ezagutu ondoren, ain bitxi bardin gabeak dei egiten deutso, bera dana gozartzera ta ezin dau, ezelan bere, bertan bera, itzi. Gauza guztiak euren duintasunaren eran dei egiten dabe, ta biziak, bitxirik ederrenak, dei egiten deusku indar bardin bageaz.

Bizia doai bakarra dan ezkeroz, bere deia be, arriskuan, dagonean, ots bakarra da, esanez, estu nago, zaindu nagizue... Ta nork ez egin alegiñak, ain bitxi ederra gozartuten jarraitzeko...? Maltzurkeri gaiztoetatik zaindu nagizue dirautso biziak giza-semari. Biziak dana merezidu dau ta bera gozartuten jarraitzeko, alegin guztiak dira eder.

Itxasoa urdin ta zabal dago, amets askoren abia. Urrindik asmetan dot bere deia nire bizitz barreanean. Ator, ator, aize osasuntsuaz, krezalagaz ta eguzki printzekin bizia indartzera. Dana duban, oro dakust irriparez, ongi-naiez beterik. Ara eldu ta ametsa dirudi inguru guztiak. Itxasoa, bare bare. dago eguzkiaren menpean zidar dizdizetan, ederrak ez dauka amairik begi, buru ta asetu ezifnik ta giza-gogoak asmaketarik eztitsuenan bakez ta pozez dirdaitsu, sentitseiteu birikiak eta biotza.

Itxaso erdian errege antzo, ura zoramena! dana arraiñez beterik. Bizi billa joan da arrantzalea ta esker ta eskuma, saltoka jabilkioz millinoiak arrain papar zuri ta lepo baltz. Ugaritu zaitez, entzun eben ta agindua, pozez, artu eben itxas barruan, jauregi eder bat sorturik: Gizona ezin bizi urpean, edertasun orren erraietan, arraiñak baiño gitxiago da uraren barruan, nafta ura bear bizi izateko.

Emen daukaguz aberastasun aundi bi: ura ta arraiña. "Gizon bat ardu gabe, erdi illik dago," gizon bat urik bage ezin da bizi lurrean. Gizona ardua edanda, moskortzen da," gizona ura edanda, bizi-barritu egiten da. Ona, munduko aberastasun aundi bi, ura eta arraiña. Jakituriz eratu zituan Sorleak munduko urtegi nagusiak ta bizitz arnasaz apaindu. Egiz, esan giñaike, bizi oparao dago itxasoan.

Bizia bizia da, eskutu aundi bat ta biziaren laguntzaille errimeak dira itxaso urdin zabalak.

Oi urtegi, itxaso maitea:
giza bizitz iturria;
zabaldu zure bizitz ateak,
indartu giz-anaidia...

Mendiak daukadaz aurrekaldean, nor geiagoka antzean. Txikienak basoak dira altz adarrez ta gurbiztiz inguratuak; ondoren dagoz gora-goraka, mendiak, ta an, urriñago arkaitz sendoak. Au da izadiaren ederra! Nor ez da esnatzen, nor ez da lilluratzten ederrez ta lurak darion gar maitasunez...!! Bizia dario basoak... bedarra, orri orlegia, lora zuria danetatik dagers...

Basoaren erdira eldu nintzan ikus miñez. A zan biziaren bizia alderdi guztietatik: bedarra lau aldietan, sasia, kerixak, intxaurrek, altzak errekondu ta ibai ertzetan... dana zan ondasuna, ta danen artean beiak ta txal gazteak bedarrez gosea kendu ta gorputzak sendotu ta loditzen. Ganaduak, pozik, ebiltzan eguzki tarte ta abarren kerizpe gozoetan; gozoa zan bedarra, gozoa basoko giroa eguzkiaren printzapean.

Gorago igon yoranez, ba noa mendi egala zearkatuz burdi bide atsegingarritik zearka. Gorago ta ederrago, gorago ta atsegiñago, begiak artu-alean edertasuna ta biotzak gozartu-alean zorakortasuna. An egozen tinko, arbasoak jarri zituen pagadi sendoak ta aritz lerdenak, orain, euren umeen umeentzat bizigarri esker onekoak. Begiratu batera nai bestera ta ederrak ez eukan amairik.

Oi lur, ene lur maitea, zer daukazu erraietako mamin orretan...? Zure sendi, pagadi, lizardi, urkidi, arizti, ta or emen, tantoka euzko gorozti illezkorak apaintzen ditue mendi gain ta magal osasuntsuek. Urrundik ikusten dot mendia, ta an, dago euzko basetxea, euskaldunen oiñarria. Osasuna ta bizia darizue euzko mendiak, gizadiari janaria emonez. Taillugilleak zuen bitartez egin ditue irudi aintzagarriak gizonen poz, arrimen ta edertasun atsedena-rako.

Mendien edertasuna ez da amaitzen ta aren guenian asten dira agertzen, lurak dituan arizti arrigarri ta arri eta zoragarrienak. Gogoia adi dago aitzetara, ta arkaitzak erronkari, eupaka, nor gaiagoka, eguzkiaren azpian ezer ba-dago eurekin negurtzekorik, otska... Arranoak ori entzunik, artzulotik urten ta

egazari emoten deutso gorago igonez, ta zeru-goi artatik dirautse...! Ia arkaitzak gai gai ba-zarie... arin aringa bat egin daigun amai-gabeko zelai urdin ontan.

Baiña arkaitzak eperdia astun ta ezin urten lurraren babesetik. Ta egazti egalariak aitz guztien goitik dantzan ebiltzan mendi ta arkaitzak alaitzen, arranoaren inguruan, eguzkiaren printzapean. Baso, mendi, arkaitz, gaillur, egazari ta arranoaren artean biziaren eres-batza agertzen dabe. Bizia bizia da diño, Kalkutako Terese amak... ta guztia gizadiaren onerako sortua izanik; giza semea, landu egizu izadi eder ori ta me.rezidu dagizula, zure lanaren bitartez, izadiaren aberastasuna bizi izatea.



Bizia arrigarria da. Amai gabeko jakituriak lur arre au ondasunez beterik itzi eban bere erraietan. Zidarra, urrea, arrobia, burdiña lurpean gorde zituan ta gizonari emon eutsozan argitasuna, bizia ta indarra agindu bizikor bategaz batera: "menperatu egizu Iurra." Ordu ezkerero, gizona ba-dabil, bere almenak onartuz, biziaren billa munduaren egale tan.


Euzko mendi erraietan aberastasun ugariak gorde zituan. Ba-ekian, ementxe, giza-seme zintzo ta langilleak izango z'ela, Egilleak emondako almenei, ondo, erantzuten, aleginduko zirenak. Euskaldun langille zintzoak ba-daki norengandik artu dituan bere nortasuna, adorea ta ondasunak. Ta baita ba-daki zertarako artu dituan; ori dela-ta, eskar oneko giza-seme legez, biziaren arloari erantzun barik, ez dau nai geldi egoterik...


Izan bere, doillorkeri txatxarra litzake, ainbeste ondasun arturik, persona ta lur aberastasunetan ezer egin barik, alperkeriz, lo egotea. Benetan, ondasun aundiak atera izan deutsoz euskaldunak euren burdiña miñei. Ainbat, erritik kanporako, eldu izan dira gure miña aldietara, ta euretatik ez gitxi, zenbat aberastu izan dira gure lurreen onuraz. !!!Gure miñak bizi laguntzaille onak izan ziran lengo aldietan; aurrerantzian bizi emoilie izango al dira euskaldunen jokabide trebearen bidez.

Lurreko zer guztien, oroz goitik, agertu zan gure bizia. Ta bizitza, aurrera. eroateko, borondate ona ta lur ondasunak artu genduzan. Geuri dagokigu ba, ain atsegiña dan bizitza zaintzea. Gure aurrerapidea, onetan datza, gure argitasun ta almen guztiekin lurrari frutua emon-erazotea. Iñor ez da eginbear ortatik baztertzen. Bakoitzak zaindu bear dau bizitzaren itur-bidea. Bitxi ain ederrak dana merezidu dau. Lenengo bizia onartu bere edertasun guztiagaz, bigarren, landu gogorik onenaz, ta irugarren bizi biziaren mamiña.



ORAIN "LANKIDE" DATOR...







































LANIÚDE LENENGO ZATIA

Gure bizia ez da edozeiñek, edozelan, sortua. Gauza aundi ta jakintsuak, sorlea be jakintsua ta gizonen jakituriz goitikoak eskatzen dau, giza-adimenak ez ditu ezagutzen ba, biziaren izamen inguru ta zertzeladak. Bizia, beraz, Jaungoikoak sortua da. Gizadi jakintsuak ba, sort-iturri bat dauka egille bakarragan. Ta aita jakintsua ta bakarra izanik, onen ondorengo guztiak neba-arreba dira.

Aitak anaitasunean bizi izateko sortu zituan bere seme-alabak adimenez ta naimenez apaindurik. Izan bere, onek dira Jaungoikoaren seme-alaben ezaugarri berebizikuek; argitasuna ta maitasuna. Ta almen eder bi onen bidez geure nortasuna ta elburua ikusi ta ezagutu bear ditugu; adimenaren zeregiña, eguzkia mendi tontor, bizkar, arru ta bazter guztietara eltzen dan lez, gizonaren asmo, eginbear, buru, biotz ta zertzelada guztietara eltzea da ta *gizarteko* artu -emonetan kokatu.

Jaungoikoaren jakituri ta maitasuna, lenengo, giza-semearen alde, argi, agertzen da liburu santuan. Gizona, bakarrik, ez dago ondo. Bere antzeko lagun bat bear dau. Munduko giza-seme- ta alaben istori be ikusten egoan, biziaren sorreran Egillea; bakardadea larria da. Ori ez dau nai iñorentzat guztion Aitak.

Gizonak abere artean ez eban aurkitu beraren erako lagunik. Izan bere, ainbeste millak eta millak urteen ondoren, ez dago alde makala errezoidun gizon eta abereen artean. Batzuk dira jaunak ta beste batzuk dira areen serbisureako egiñak. Gizonak ba-ditu iru almen: gogoramena, adimena ta naimena, abere guztien goitik jarten dituenak ta almen guzti onen sustrai eta jar-leku arimea da.

Egilleak gizonari beronen antz irudiko laguna emon eutson. Ta Adanek ori ikusikeran, atsegiñez, esan eban: "Au bai dala nire azurren azur ta mamiñen mamin". Benetan, Jaungoikoaren izaki bat zan ta Adanen bizi-bidea osotuta geratu zan.

Aurrerantzian lagun bi izango dira bat egiñik, alkarrak laguntzen. Ori dala-ta, Liburu Santuak diñoanez, giza-semeak bere aita ta ama itzi ta emazte barriagaz alkartuko da ta biak bat izango dira ta une onetan, anaitasun legea munduan sortzen da. Biziaren sorreran bertan, sorleak jarri dau zeru-lurra ezagutu daben emaitz zoragarriena, lagun bi on egiten, laguntzen ta maitatzen. Eriotzara arte bat eginik, bizi izateko agindua artuko dabe.

Agindu au baiña ez da arengan kokatu eta amaitzen. Adan eta Eba ziren agindu au sortzeko bidea, ta munduak dirauan arte, maitasunezko alkarte onek be iraun bear dau, lureko bizia amaitu arte. Asarrea, apurtzea

ta banatzea ez dira Jaungoikoak. Orrek munduko gizaki kaskarren kontuek dira, biziaren jaube direla, oker, uste izanik.

Biziaren sorreran, bertan, asi zan kabi bat egiñik, alkarri laguntzen bizi izatea, ta ori geroko bizitza guztiaren irudi bat besterik ez da. Jaungoikoak alkartu dabena, gizonak ez dagiala banatu dirausku Liburu Santuak.

Adan Jaungoikoaren irudira egiña da argiz, askatasunez ta maitasunez ta une onetan, Adan asten da bere emaztea maitatzen askatasunez, buruz ta biotzez naimenaren aginduz. Alkartasun ta maitasun aginduz, berak bere gogoz, ontzat, artu ditu ta era onetan osotzen dau bere nortasuna. Izan be, almen eder ta jakintsu onek egi biurtu barik, gizonak ez dauka nortasunik, pisti burrukalari bat lez geratzen da gizadiaren aurrean. Jakituriz ta maitasunez bizi dan orduan, agertzen da giza semearen nortasuna.

Ordu onetan asten de Adan askatasunean bizi izaten, bere almenen eran bizi danean. Ortxe dago ba, osotasuna, norbere almenen eran, bizi izatean.

Eklestastiko liburuak diño: "Jaungoikoak gizona lurretik sortu ta bere irudira eratu eban. Ta aren izatetik laguntzaille bat eratu eutson." Ta euretariako bakoitzari urko-lagunarenganako maitasun agindua emon eutsen. EKLO 17,5 ta I2.

Jaungoikoa maitasuna da ta bere izatearen bizia emon eutson lenengo senar-emazte arei, munduan bere antzera bizi eitezen.

Gure ta Jaungoikoaren arteko punturik nagusiena auxe da: Jaungoikoa maitasuna da ta gu be antzera baten, maitasuna gara. I Jon.4. Au da gure poztasuna ta au izan bear dau gizaki zuzenaren bizia.

Alkar maitatzen dogunean ta geroago ta geiago maitatzeko gai garalako, Jaungoikoaren irudi gara. Ta maitasun legean ez da ordu bat edo besterako bakarrik. Izatez gara, beti, alkar maitatzen bizi bearrekoak. Aita, Seme ta Espiritu Santua maitasun bidez bat egiñik bitzen gabiltzazanean, Jaungoikoaren irudi gara gizartean. Au da, egiz, biziaren legea betetutea.

Geroago ta Jaungoikoaren antz geiago izateko, zer egin bear dogu? Zelan alkar maitatu bear gara...?

Giza semeak zindotasun ta egiteen bidez agertu bear dau bere Jaungoiarenganako antzera. Giza-seme-alabak Egillearengandik, zuzenean, artu eben, aita izateko agindua: "ugaritu zaitzeze esan eutsenean ta lurra menperatu."

Aita izateak almena ta eskubidea emon eutsezan lenengo andra ta gizon arei. Jaungoikoak bere antz irudira sortu zituan. Gizon eta emekume sortu zituan. Bedeinkatu ta esan eutsen: Azi ta ugaritu zaitzeze ta lurra betetu egizue." Sor. i, 27-28.

Au da agindu zoragarria... Ta ordu ezkeru, lurra betetu da lagunez, agindua betetuagaz. Bigarren agindua oso ederra da: Menperatu egizue lurra." Orretan dabil gizadiaren zuzendaritza. Menperatze onak ba-ditu bere zeregin ardurak bereziak. Norentzako nai ete ditu sorleak lurraren frutuak ta lur lantzearen ondasunak... Aita batek ezin ba-dau semea, gaizki, ikusi, aitarik onenak zer nai ete dau gizadiko bere seme-alaba guztientzat...

Ugaritu zaitez agindukerak, seme-alabak mundura ekarteko agindua izan zan. Baiña Jaungoikoak ez zituan nai edozelako seme-alabak, pistien antzerakoak, beraren irudikoak baiño. Jakituriz ta maitasunez jokatuko daben andrazko ta gizonezkoak nai ditu, lurraren menperatze ta aurrerapidea maitasun girokoa izan dedin.

Aita ta ama era askotara izan daitezke... aita-ama arduratsuek, erdi-zkakuek, ganora-bakuek... Egileak eskatuten dabena da, umeak geroago ta zurrago, ta biotzez, geroago ta maitekorrako izan daitezela sorlearen antza artuez. Gurasoen eginkizun nagusiena, seme-alabak geroago ta notin gizonkiagoak izatera eldu erazotea da. Alkartasuna ta maitasuna bear ditu erri semeak, giza batzar egokiagoa izan dedin gizartean.

Giza-semeak, emen, Jaungoikoagandik, zuzenean, artzen dabe eginkizun eder bat munduaren onerako, lurra janariak emon dagizan, biziera egokiago bat izan dedin ta gizadia alkartasunean, Aita baten seme legez, anaikor, bizi daitezten. Giza-seme-alabak artu dituen bizi, adimena ta naimena, bizi landu ta edertzeko dira. Jaungoikoak talentu ezbaridiñak banatu ditu gizonen artean.

Ta andreak nai gizonak artu dituen talentuekin, bakoitzak norbere erara lan egin bearra dogu lurrari frutua emon-erazoteko. Lagun bakoitza bere talentuek, ondo, ta zuzentasunez, erabiltera eltzen danean, gizadia, askoz, zoriotsuagoa izango da. Ta lurtarrak, sortez, artu daben elburu on bat, orixe da, ta orren bitartez bakearen iturria dan, anaitasuna sortu.

Lurraren Sorleak, gitxi batzuentzat, bakarrik, ez zituan sortu ainbeste eratako ondasunak. Egileak nai dabena da, seme-alaba guztiak jakituri mailla on batera eltzea, ta jakituri orren bidez, erantzunez, danak lan egitea ta era orretan, gizarte anaikor bat sortzea.

Lanerako almenez osotu eban gizona ta aurrean, jarri eutson lantegi arloa-lurra. Gizonaren almenak ez dira, alperrik, lan egin barik, geldi, egoteko. Personeak, egunetik egunera, argitzen, lantzen ta aurrerapidea lurrean sortzen, joan bear dau, gizadia geroago ta poz geiagogaz bizi dedin. Egileak lantokia aurkitu eutson gizonari, ta orain, giza-semeak osotu bear dabe, bizi emongo daben lan arlo nagusi ori.

Lengo giza-semeak, ordukoagaz, ezin eitekezan geldi egon ta gaurkoak gaurkoagaz be ez. Gure arbasoak, geldi, egon izan ba-litaz, abere antzera biziko giñan, baiña arek lan egin eben ta gaurko aurrerapide on batera eldu

da gizadia. Gaurko gizadia be bere argitasunekin baliatuz, aurreraniz egin bearrean aurkitzen da, jendea erreztasun ta poz geiagogaz bizi al izan dedin.

Orain arte lortu danagaz, etsita, ezin geratu giñaike. Giza almenak aundiak dira ta euren garra deika daukagu biziaren onerako; lurra menperatu egin bear da, mundu guztiko seme-alabak lana egin, ta obeto, bizi daitezen. Egokia ez da, lurrak berak gu menperatzea; gure almenak oroz goitik, dagoz ta guk lurra zuzendu bear dogu, guztien onerako.

Arrigarri da, baiña Egilleak gizonaren eskuetan itzi eban emengo biziaren goraberea. Arazo oni erantzun bearra daukagu ba, lurrean lana, ogia ta aurrerapidea izan daitezen gízadiaren on ta aurrerapíderako. Auxe da berezko deia.

MAITASUNA

Maitasuna... ona emen, zeru ta lurretako itzik jakintsuena, nagusiena ta bearrezkoena. Jakituria gauzen sustraia billatzea da ta onek euren artean daben zer-ikusia ikasi ta gizartean batasuna sortu bear dau alkar maitatzeko duin diran giza-semeen artean. Maitasun barik dirua ez da ezer; maitasun barik edertasuna ez da ezer; maitasun barik bizia larria da... Maitasunak alkartzen ditu lagunak, sendiak, erriak eta mundua. Maitasuna itzik jakintsuena, nagusiena ta bearrezkoena da.

Jaungoikoak lurra sortukeran, ainbeste ondasun itzi zituan lurraren babesean, lurreko biztanleak gozartu egiezan. Bere gizadi barriarenganako maitasuna, ortxe, eder-gaillu orretan ezarrita itzi eban. Gu bere antzeko egin ginduzen maitasunerako, argiz ta naimenez apaindurik. Jaungoikoa da gauzen sorlea ta aita, ta gizadia itzi eban berak sorturiko gauza guztien jaun ta jabe. Danen aita bera zan ta bere eskubideak ta bere jabetasunak emon ta gizona itzi eban lurragaz jabeturik. Beraz, gizona lurraren aita da ta sorturiko gauza guztien jaubea.

Egilleak, munduaren sorkeran, gizona lurraren jaube egiñik, gauzak eratzeko, edertzeko ta sortzeko almena, era berean, emon eutsezan. Geroztik, giza-semea mundua, osoan, barriztuten doa... arri, arri-burdin, zidar ta urre-gaiak bitxi eder biurturik. Gizonak, bere baitan, daroa, gauza barriak sortzeko jakiturizko indar aundi ori.

Baiña gauza guzti onek sortu, barriztu ta landuteko, maitasuna bear da. Origaitik diñogu, egiz, gizona maitasuna dala bere Egillearen antzera; Aitak bere seme-elabak, ondo, orniduta jarri zituan asmo on barik, ez eutsezan emon gizonari; bizitzarako artu zituan, lurra menperatzeko ta gizadiaren zabalkunderako. Ori dala-ta, lanerako tresna barriak ta bizikera egokiagoak sortzen alegindu bear eban. Gizonak Jaungoikoaren antzeko zala agertu bear eban adimen ta maitasunagaz.

Alkar arteko lan onek, era berean, gizadiaren anaitasuna agertu bear eban. Ez, atzera, ta bai alkar poztu geure izatearen sena dan ezkeroz. Ortan, agertu bear dogu Aita baten seme-alaba garala alkarkidetasunien, bata-besteari lagunduz sustrai bateko zugatz adarren gisara. Ta anaitasunezko lan onek munduari arpegi itxura ta bizi barria emon bear deutsoz mendi, zelai, solo, itxaso, lantegi, miña, ikastetxe, jolas-bide ta bizikera guztiak barrituz. Gizonaren indar zoragarriazkiek ori eskatzen dabe. Ta guk, gizontasunez, ori sinistu egin bear dogu, giza bizitzak, aurrera, egin al izan dagian ta Egillearen asmoak, porrot, egin ez dagien.

Jaungoikoak asmorik onenaz bere antzeko ta ongitasunez beterik sortu ginduzan. Izan bere, on utsak, ona egin bear, baiña gizonaren aldetik norkeria, laster, agertu zan, beretxua egin barik geldi, egon eziñik. Baiña, orduan be, egilleak ez eban, bertan bera, itzi... Nor... eta bere Semea bialdu ebal ludira,

gizadiari argi egitera, gizadiari esku emon ta gogo barri bat eskeintzera. Gizonaren itxura galdua eder-barrizera, ta indar barriak emotera. Gizona, nor dan ta norako dan ikusi dagian, poztu nai eban.

Egiz, gizonak ez zituan onerako lera guztiak galdu ta maitasunak bere barruan jarraitzen eban; atea beraz, zabalik eukazan Jesusen Barri Ona onartu al izateko... giro orretan sartu zan Jesus gizadiaren naste-arteko bizitz giroan mundu barri bat egiten.

MAITASUNEZKO SORRERA

Munduko jokerari begiraturik, gauza arrigarria da, gu, maitasunerako sortuak izatea, baiña Jaungoikoak ez ginduzen beartuta kateiagaz lotuta itzi bere naietara. Onena zer zan guretzat, argi ta garbi, ekusan; alan be, beste doai eder bat be, batera batera, emon euskun, ta au da gizonaren askatasuna, bere adimen ta naimenaren ondorio legez. Munduak egurra ta zapaltzea emoteitu, Jaungoikoak ostera maitasuna ta askatasuna, ta geure eskuetan itzi, doai eder onek onartzea.

Ta gizonak askatasunaren izenian, ezetza emon eutson. Adanek agintauspen edo desobedientzi bat egin eutson Egilleari, ona ta txarra zer dan jakin nai daben jainko-izunen antzera. Sor, 3,5. Ezer gitxi izan ta norbere burua Jainkotzat artu ta norberak jarri nai onaren ta txarraren bideak, Sorlea baztertu ta aren aginduak ezer-eztzat itzirik. Norbere nagusitasunaren eretxia eukan gizonak sortzetik, ta arrezkero be, bizi bizi, dabil gizartean arrokeria, aundi naia ta ingurukuek zapaldu naia ta zapaltzea. Aitaren guraria ori ez zan, baiña seme-alabak ez eben nai Sorlearen ardurarik nai izan ta aren adiskidetasunian bizi.

Berez dator, emen, aita baztertzearen ondoren lez, lurreko anaiak ikusi eziña, gorrotoa, baztertzea naiz iltea. Jaungoiko maitasun barik, gizonak ezin eban onik egin. Adanek be desobedientzie egikeran, bere emazteagazko adiskidetasune, ez baiian, jarten dau. Zuk emon zeunstan emazteak atzipetu nau. Gauza mingarria da, gizonak emaztea ta emazteak gizona atzipetutea, baiña Jaungoikaren maitasuna galtzen danean, errez, galtzen da ezkontidea-renganako maitasuna ta itza.

Ondoren, lera gaizto au semiengana doa. Zer ikusi, axe ikasi ta eredu txarrak indarra nausi. Adanen seme Kainek bere anai Abel ilten dau ondamuz. Mundua txarkerizko eriotzaz odolduta dago, arrokeriak ta nauskeriak badabe ortarako indarra. "Alkar maite egizue" da aitaren deadarra ta onginaizko agindua. Bere anaiaren barri jakiterik be ez dau nai. Ori da munduan, sarri, jazoten dana, mintzea, zapaltzea, ikusi eziña.

Ta azkenean be, lurra gogorkeriz beteta dago. Gizonaren onerako sorturiko almenak, nauskeriak ta gaiztakeriak menperatu ditue; gizona itxura gabea, larri, dago, bere izatea lorpe zoritxarrean galduta. Gizonak bere burua menperatu dau Jaungoikoa baztertuz ta gaiztakerira joanez. Aundikeriak dirautso, jo mutillak bide orretatik ta ez bildurrik izan, zuen goitik iñor ez daukazue-ta. Ta ondoren datoz egitekorik negargarrienak, lapurretak milla eratarra, ezkontza-austeak, gudak, erri austeak ta erreteak.

Munduko nauskeriak, arrokeriak, ikusi-eziñak, alkar artu eziñak badabe euren tajuko irudi bat Testamentu Zarrean Babelgo dorrearen goraberan, alkar ulertu-eziñik geratu ziranean. Gaur, antzera, dabil gizadia:

Jaungoikoaren berbia onartu eziñik dabil. Alkar maite egizue, ezin dau ulertu, danon artean landu, danon artean banatu, bakoitzari berea emon, iñorenik ez artu... Jesusen irakatsi ori gizonak ezin dau edota ez dau bereganatzerik nai...

Ta batzuk pillo aundiek egiten doazenian, beste asko ta asko, gosez, dabiltzaz biderik bide oifietakoek urratuta bideak zear eskean. Ta orrez gaiñera beartsuaren izerdiz doaz dirutsa aundi orrek geroago ta piullo sendoaguek egiten. Au ez da Jesusen maitasun legea. Maitasunak bata-bestea, obeto, ikusi nai dau. Lagundu egin nai dau.

Jakituriz ta maitasunez beteriko Jaungoikoaren asmoak apurtute, lurperatute geratu ziran. Baiña zer dauka gizonak bere Egillea ezagutu ta onartu nai ez izateko...! Ba-dator eta ba-doa, ta bitartean, ez al dozu begiratu, nora etorri zaran ta nora zoazen... zertarako sortua izan zaran... Zeuk ez zenkiela etorri ziñan, baiña adimenez apaindurik eldu ziñan ezkerro, zeure buruan zeunkan argi txintie, zure bizitzaren gora-bera guztiek jakin al izateko.

Askok, zergaitik ez dabe jakin nai izan euren Egillearen barri...? Norberekoikeriak itxutu zituan gizonak ta ez eutson parkatu norkeriak, giza-semeak bere menpean artu arte. Ura zan poza aundikeriarena...! Bere biziaren barri jakin ez, ta goiek artute, aizearen antzera, nora doan ez dakiela egin ta amaitzen dau bizia.

Jaungoikoaren asmuek apurtute geratu ziren ta ondamera gizonaren gain eldu zen. Arrokerie, aundikerie, basati landara orrek nagusitu ziren gizartean ta gizadiko lora eder izan bear leuken anaitasune galdu zen zoritxarpean ta ondoren, munduak okerbidea artu eban.

Nauskeria, gogotsu, ebillen munduan, ta iñoiz ez deutso izten bere arloari, al dan eran zapaldu arte. Anaitasuna joan zan ba lurtarren artean ta norberekeriak alegiñik aundienak egingo ditu ingurukuek zapaltzen. Uztarri txarra gizonen gain eldu dana, ta gaiñera, artoa ta okerra. Personen baiño, pisti zakarren griña geiago dirudi.

Au da ezbearra... bakerako jaiok izan ta gizonak berak asarrea, ikusi eziña ta zapaltzea sortu, ta ortan gaiñera, puztu egiten da ta arrokeri ta nauskeriek ez dautse ez maitasunik, ez anairik urko-lagunagan ikusten izten.

Biziaren sorreran, bertan, sortu ziren arrokeri nauskeri ta zapaltzeak zer ondoren ekarri leizkigue, gaur? Zer esan leike gaiztakeri oker orrek, jakituri aldrebestu bategaz buztartu ezkerro...? Zer egiten dabe, gaur, bertan, sendi, erri ta lantokietan...? Anaitasun deadarrak alderdi batetik ta zapaltze biorrak bestetik exagutzen ditugu gure gizartean.

Ta alderdi batetik, alkartasun deadarra ta maitasun deia entzuten bada, bestetik, ulertu eziñako gorroto ta zapaltzea ikusten dira ta norbere nauskeria edertu eziñik ibiliko dira. Auxe da mundu kaskar baten jokabidea.

ANAITASUN BIDEA

Munduaren burubideak, griñak, jokabideak ta naikeriak ikusirik, gizadiak ezikuntza bat bear dau. Baiña ezikuntza au artu al izateko, egokiera onik ba-ete dago gizadiaren buru ta naimenean? Gizona ez ete dauke, larregi, zapalduta nauskeriak ta atseginkeriak...? Gizona gertu ete dago, bere baitan, txarrerako daroan bular-oskola urratu ta munduak bear daben bide nagusia artu ta gizadiari bere arazoak konpontzen lagundu al izateko?

Munduan millak eta millak urteetan miseri ta jaunkerietan bizi izanik, aundikien azpian naikotuta egoan ta jokabide galgarri orrek bere ondamena ekarri eban. Itxuraz, gizartekoiagoa zan, arpegi ohea ebala uste eben aldi aretako giza-seme askok, baiña beren barruan eroian bera ilgo eban gaiso ar ilkorra.

Sasoi baten esan zeitekean, munduko arazoan argibidea eldu zala gizartera. Ta gora komunismoa ta gora Errusia otska, barrua zabaldu ta naikotu eziñik ebillen jendea. Emen, agertzen da gizonen almena, ikuspegia ta gizarteari on egin nai izatea noraiñokoa dan.

Orain irurogei - irurotamabost urte aldiko deadarrak lurpera joan ete dira... ta bien bitartean zenbat gose, neke ta eriotz... Gizona, noz, zurtuko ete da egiaren alde... Gizonak, noz, itziko ete ditu bere griña gaiztoak alde batera, guzurra bota zokora ta egiagaz jokatu aurrerantzean...!

ANAITASUNAREN IKASPENA

Jaungoikoak berak sorturiko gizadia, iñoz, iñoz, ez eban itzi bertan bera. Sorleak bere barruan daroa, berak sortu ta bizia emon dautsonarenganako maitasuna, arriak, burdiñak ia ikatz-arriak baiño gogor ta sendoagoa. Bibliak dirauskunez, arako uriolde nagusiaren ondoren, Noe ta onen lagunei, onan, berba egin eutsen: "Ugaritu zaiteze ta menperatu egizue lurra." "Lurreko abere guztiak ízutu egingo jatzuez. Lur guztia gizonaren menpean jarri eban. Orrez gaiñera esan eutson:" Zeruko egaztiak, lurreko narrastiak eta itsasoko arraiñak zuen menpean dagoz. Bizia daben ta igitzen diran guztiak, janaritzat izango dozuez: zuei emoten deutzuedaz baita bedarkiak be. Azi ta ugaritu zaiteze ba, ibili lurrean ta nagusi izan zaiteze bertan." "Neure alkartasuna egiten dot nik zuekin eta geroko zuen ondorengoekin."

Egillea, Noe ta onegaz batera uriola aldian bizitzaz ta osasunez, ondo, geratu zirenegaz, lagun izan zan. Ta euren pozgarriritzat... geiago ez ebala alako ondamendirik lurrera botako, esan eutsen.

Aldiak joan, aldiak etorri, urte asko geroago, Jaungoikoa Abraanen lagun agertu zan... Asiera. 12,2. "Erri aundi egin ta bedeinkatu egingo zaitut. Aundi egingo dot zure izena eta bedeinkapenezko izena izango da zurea." "Zure ondorengoetan lurreko erriak bedeinkatuek izango dira." As. 22,13.

Jaungoikoak Abraanen seme Isaaki ta onen illoba Israeli itz bardiña emoten deutse. Asi.28.13-15.

Jaungoikoaren eskua agertu bear eban gizonaren alde ta ori dala-ta, Israaelen semeak, goseak beartuta Ejitora joan bear izan eben... Lenengo aldiak, sarri, izan oi dira atsegingarriak edozein lurretan; Israeldarrak be, lenengoan, aurrerapidea, ogia, poza asmau zituen euren bizitza barrian, baiña urtien gora-beran, eza ta gorriak ikustera eldu ziran.

Zoritxarpean jausi zan erri onegaz, Egillea errukitu egin zan. Aita on batek, izan bere, ezin dau semea ondapenean ikusi, Aitarik onenak zer sentidu ete eban bere erria zapalduta ikusirik...? Jakituri aundiz ta maitasun onegaz anaitasunezko erri bat sortzea erabagi eban. Notiñaren almenak bereziak dira buruz ta naimenez ta Egille berberaren irudia, ortxe, agertzen da. Jaungoikoak bere irudira sortu zituan giza-seme-alabak, zapalduta bizi izateko ez zituan sortu. "Bere gogo da, Jesusen bidez agertu euskunez, aundia izan nai dabena, besteen serbitzaille izan dedilla.

Jaungoikoak askatasunerako egin ginduzan, ta Israael zapalduta ta minduta egoan erri bat aukeratu eban, munduari maitasunean bizi izaten irakasteko: beartsuengandik asita, gizadia erabarritu nai dau. Izan bere, Israelek zapalduta ta orrez gaiñera, irainduta, aurrean, erabilten ebezan alper batzuk bai liran lez. IE1/I,13-14. Era guztietara, txarto, erabiltzen ebezan lanez, burlez ta makillaka egurrez. Urt

Gaiztakeriaren sarnea, izan bere, gizonak bere barruan daroa ta eji-toarrak, munduak emon oi daben aundikeri ta nauskeri ustean, ez egozen konforme Isrraeldarrak zapalduta eukiteagaz; orrez gaiñera mindu egin nai izan zituen iraiñaren bidez. Era guztietako esku bear gogorrek agintzen eutsezan, lanak, eurek agindutako ordu barruetan egin bear zituelarik. Alderdi guztietatik lotuta eukezan lanez ta orduz. Egin ezindako beste lan goizetik gabera, ta erantzun ezik, goitik bera euken egurra.

Alan bere, Isrraelgo erria Geroago ta ugariago egiten joian. Nekepean, baiña azten, zoritxarpean, baiña ugaritzen, leporaiño urketute bearrez, baiña erria aundi egiten... Jesusen lurreko erreñuaren irudia zan ta azi egin bear eban lurrean frutu edota ona emonez. Jaungoikoaren eskua agertu bear eban Isrrael erriak gaiztasunez ta iraiñetan, aurrera, egiñaz. Urt, 1, 12.

Isrraeldarren ugaritzea ikusirik eta erri indartsu bat egin bear eballa konturaturik, Ejitoar egintariak, bene benetan, bildurtu ziran. Egiñalak egin ditugu lanaren bidez, gogorkeriz, estutzen, zapaltzen ta zigortzen... Ta gure aren aurkako alegin guztiak alperrekoak dira; gu zapaldu ta baztertu bear gaitue. Zigor barriak billatu bear ditugu. Len, lanaren zigorrak jarten eutsezan, baiña orain, Isrraeldar seme jaio barrien billa doaz.

Emagin edo ume jaiotzan ibiltan ziran andrei, agindu au emon eutsen... Isrraeldar umeen jaiotz ordua eltzen danean, mutilla ba-da, il egizue, ta neskatilea ba-da, bizirik itzi... Emagiñak Jaungoikoaren bildur ziran, ta ez ziran ausartzen umerik ilten... Ejitoar agintariak au ikusirik, emagiñei kontuak eskatzen asi ziran... Baiña andra arek, zur, jokatu eben... agintariei erantzunez: Ejitoarrak lakoak ez dira Isrraeldarrak... Onek andra errimeak dira ta emagiñak laguntzera eldu orduko, umea ekarten dabe. Jaungoikoak andra onen jokabidea bedeinkatu egin eban ta Isrrael erria ugari egin zan, ta baita bere, emagiñei ondorengoak emon eutsezan, euren bizitzea poz aundiz beterik. Faraon ta bere lagunak au ez eben, ondo, ikusten ta gitxiago onartzen. Len, larri, ba-egozan, orain, larriago ikusten eben euren burua.

Faraondarrak, egun baten, euren aginpidea, gal-zorian, aurkitu zeitekeala-ta, erri guztiari agindu au emon eutsen. Isrraeldarren artean mutillik jaioten dala ikusten ba-dozue, mutil ori Nilo baira bota egizue... Gogorkeriz, ankerkeriz ta eriotzaz nai eben ejitoarrak Isrrael erria austu ta birrindu. Ta iñoz, itxaropen pizkat sortzen zanean erri onetan, laster, lan geiagogaz estutuko zituen ezertarako astirik izan ez egien.

Taju tamalgarri onetan bizi izan ziran Isrraeldarrak erbestepian. Baiña ez zan obeagoa Isrraeldarrak euren artean asarretuta, burrukan, ibiltea. Bein baten, Moisesek Ejitoar bat ikusi eban Isrraeldar bat jotan ta era txarrean tratetan, ta anai baten ezbeurrak guztiz minduta, Ejitoarra il egin eban. Urrengo egunean, bere anai Isrraeldar bi ikusi zituan burrukan... zergaitik jotan dozu zeure anai... Ta isrraeldarrak, arin, erantzun eutson... Nork jarri zaitu zu nire epaille...?

Atzo, Ejitoarra il zenduan lez, ni be iltea nai al dozu...? Samingarria da baiña, beti, gizon kaskar, erbestepian egonda be, Isrraeladarrak euren artean alkarrekin aserreko agertzen ziran. Kanpotik etorkioen kurutzea txikia ba-litzan lez, euren artean be guda sortu bear.

Zapaltzailleak, ondo, menperatuta eukan Isrraelgo erria; geiago ezin izan zeitekean ta miseriak, anai bizitzarik egiten izten ez eutson jende taldea, erri ori aukeratu eban Jaungoikoak, munduan anai bizitza egiten asteko Isrraeldik unen bear eban argiak, zuzentasunak, egiak eta bakeak. Ortarako gertatu bear eban Jaungoikoaren erriak.

Ejitoarra il ondoren, Moises bildurrez beterik geratu zan. Faraon aren billa asi zan, Moisesí eriotza legea ezarteko, baiña Moisesek Madíango lurraldeetara iges egin al izan eban.

Emen, jazoerak geroago ta gogorrago doaz Isrraeldarrentzat. Aren negar ta samintasunak zeruko ateetan dei egiten eben. Jaungoikoak nai dau, zuzentasunean, bere erriak jokatzea. Egillea bere aldetik gertu dago erri minduari laguntzeko. Ta erbestean dagon bere aukeratuari, dei egingo deutso: Nire erria, geiago eziñean, deika dago Faraonen samintasunpian. Zoaz askatzera. Jopukeritik nire erria atera dagizun, nik bialtzen zaitut.

Moisesek bere gogape edo kontzientzia deika dauka Jaungoikoaren esanera. Baiña bildur da. Alperrikkoa dala uste dau arazo orretan sartzea. Etsi etsian, errezoi bateren billa dabil, eginbear ori bertan bera, izteko... Itz egiten ez dakiala... 4,10:6,12. Ni es naz gauza ortarako. Beste bat tre-beagoa ta almindun egokiago bat bialtzeko eskatzen deutso. Bene benetan, Moises bildur da, bere anaiak ez dautsela entzungo, ta arean gitxiago, Faraondar etsaiak.

Orrez gaiñera, Isrraeldar jopuen zaindari bat il ebala-ta, ertzaiña alderdi guztietatik billa ebilkion, ilketaren kontuak eskatzeko Faraonen aginduz. Urt.2,15. Arazo guzti au egin al izateko, nor naz ni iñoan... Naita ortarako gogoia bizkortu-arren ta norbere bizia il-zorian jarteko gertu egon, alper alperrik, izango litzakela uste dau. Isrraeldarrak ez dautse sinistuko ta jaramonik be ez dautse egingo, Jaungoikoa ez jako agertu-ta. Urt.4,1.

Ejitoarren alderdira ba-goaz, onek su-goritan egozen, euzen anaia il eban ezkerro. Ta Moisesek, ondo, ekian, aren gorrotoa ilkorra zala, ta jende aren artean sartzea alperrikkoa izango zala, ikusten eban bere baitan. Gizon bat otso artera, erdi erdira, joatea lez zan beretzat. Alan bere, "zeuk nai dozuna, bialdu egizu" eskatzen eutson jaungoikoari. Urt.4,13.

Moisesek, al daben giñoan, atzerantz egiten dau; baiña kezka aundi bat asmetan dau bere barruan. Bildurra dauka batetik, geiago eziñean, ta bestetik Jaungoikoaren deia. Bildurrak ezetz dirautso, ez dozu lortuko asmo aundi ori... Jaungoikoaren agindua, askoz, indartsuagoa da ta orain, ezin da geiago ausartu, ezetz esaten.

Ta Jaungoikoak dirautso: "joan egin bear dozu. Neuk bialtzen zaitut." Urt.3,11. Ez bildur izan. Zugaz neu egongo naz." Ta orrez gaiñera, garaitzaren ezaugarri lez esan eutson: Isrrael askatuten dozuenean, mendi onen gaiñean, gurtuko dozue zuen Jaungoikoa. Urt.3,I2.

Isrraelen alkartasuna, iñundik iñora, ez eben nai Faraon ta bere lagunek. Urt.3,19. Au da gizonak dauken, erriak zapaltzeko garramura; iñoren kontura aundia izan nai, zapalduei beara eragin, norbera, ondo, bizi, besteei errua bota, norbere gaiztakeriak zuritzeko... munduko jokabidea, argi, agertzen da emen. Ta burubide maltzur ta oker onek zuzentzen ez diran bitartean, bakerik ez da izango gizadian.

Baiña Jaungoikoaren gogo ta indarra, oroz, goitik, dagoz. Erriaren nekeak, negarrak ta samiñak min emoten dautse. Bere gogoa da, lotsagarritzko joputza aretatik, bere erri maitea alkartasunera ateratea, ta anaitasunezko erri bat sortzea. Gogorrean izan ezik, ez dautse itziko urteten, buru-biotz gogorkeria gaitik; baiña zigortu egingo dot Ejipto, ta orduan, itziko dautzue urteten.

Jaungoikoaren indarra ta argitasuna ba-doaz Isrraeldar ta Moisesen artean sartzen. Gizon onek zabaldu dautsoz belarriak Egillearen berbeari; lengo bildurrak iges egin dabe gizon onen biotzetik. Benetan, gogor, egin jakon burrukaldi ori menperatzea. Baiña zerutar eskua ikusi ondoren, erabagia osoa izan zan; aurrerantzian, zan guztia eskeiniko eutson Isrraelgo erriaren askatasunari.

MOISES BARRIRO, EJIPTORA DOA

Era-barrituta doa gizon au Ejiptora. Bere begiekin ikusten dau erriaren egoerea. Berak maite eban anaidia, egoera larrian, miserian aurkizten dau. Biotzak zarta egiten dautso, baiña ezin leike edozetan asi, lenagoko aldian lez gizona ilten. Erri baten askatasuna, gauza balio aundikoa da ta astuna. Oraingoan, buruz, artu dau anaien bizikera ezta ta mingarria.

Aaronek agertu eutson Israeli, Jaunak Moisesi agerturiko erriarenganako ardurea. Erriak pozik ta abegi onez, ikusi ta onartu eban Jaungoikoaren eurenaganako ardurea ta lur gaiñera makurtu ta auzpeztu egin ziran. Emen, dakusgunez, erria asi da Jaunagana begirutzen. Arazoa aundia ta interesgarria da, edu artako zapalketatik erri bat askatasunera ateratea... Laureun urteko zapalketak sustrai sendo ta gogorrek eukezan ta zapaltzaillearen nauskeriak urte orreen bitartez katei gogorrek sortu zituan ta ez egozen, iñundik iñora, askatasuna emotera.

Moisesek eginbear astuna eukan ba bere ardurapean, baiña Jaungoikoak eskeiñitako laguntzaren bidez, erria askatzeko erabagia artu eban. Aaron izango zan lenengo aurkitu eban lankidea. Gizon au, guztiz, izlari trebea zan ta biok joan ziren Israeldarrengana. Moisesek esandako Jaunaren aginduz, Aaronek, argi ta egoki, azaldu eutsen erriari, ta erriak Jaunaren askatasun gogoa ta ortarako laguntza ikusi ebenean, sinistu egin eben ta makurtuz auzpeztu egin ziran lurraren gaiñean.

Moises ta bere lenengo lankideak ez euken arazo makala erri zapaldu baten aurrean. Ainbeste urtean gorriak ikusten ta euren arpegian asmetan, bizi izan ziran ta orren inguruan askatasun itza entzutea, ez zan bada-ezpadako soiñua. Alan da guzti be, Moises ta bere lagunek Jaungoikoaren esanak betetuten, gogoz, jardun eben. Erria argitu, poztu ta indar-barritu egin bear eben.

Ta gizonen lana dala-ta, Israeldarren artean itxaropena sortzen asi zan. Len, bildurrez, beterik egozen gizonak, orbiztuten asi dira, Jaungoikoaren askatasun gogoa euren barruetan eme da, ta ortarako, antolabideak euren artean, zelan egin, arduratzen doaz. Erriaren giroa aurrerapidean esnatzen doa.

Moises ta Aaron ba doaz Faraonengana, ta era onetan, itz egiten deutse: Jaun agurgarria, eskari txiki bat egitera gatoz: iru eguneko beta bear dogu, leku berezi baten, alkar-arteko gogaeta egiteko ta askatasuna eurentzat nai daben Jaungoikoari, opari bat eskeintzeko. Baiña labea ez egoan opallearako gertu... Faraon asarre da, arpegi baltza ta bizer zorrotza agertzen dautsez eskabidea ukatuaz.

Orrez gaiñera, asarre gogorra agertzen dautse Aaron eta Moisesi esanez: zer dabiltezeu inguruak nastetan ta erria bere lantetatik banatzen... Urt.5,4-

5. Faraon pamauak ez ekian ta jakiterik bare nai ez, gizon bi onek noren aginduz ebiltzezan Isrraelgo erriaren askatasun billa... Geroago zer etorkion gaiñera, jakin izan ba-leu, ziurki, pozik, onartuko eutsen eskabidea, baiña norberekoizko esjakiñak, sarri, ondatu oi dau gizonaren aundikeria.

Alan bere, aurrera, doa berenak egiten. Irain bat legez artzen dau Aaronen ta Moisesen eskabidea. Bere ustez, ez arma ta ez indarrrik ez daben gizon arek, ausarkeri koittadue agertu eutsen bere indarraren aurrean, erregearentzat ez egoan ha, ezpatagaz bardintzeko nagusitasunik, ez aginpiderik.

Ta aurrerantzian, era ontako asmoak kentzeko uste osoaz, len baiño gogorrago artu zituan Isrraeldarrak ta langille-zaiñei agindu garratzak emon eutsezan alperkerietan ta bere ustez asmo usteletan ibili ez zeitezen denporea ondatzen ta erriaren aurrerapidea galtzen. Era orretan, ez arnasarik artzeko ta ez txantxetako astirik ez eben izango. Onek ziran erregearen gizon asmoak, lan gogorren bidez Jainkoaren erria zapaldu ta bera ezpataz nagusitu. Ai gizajoa, ez ekian, laster, zerk itxaroten eutsen!!

Edonungo ustiatzaille, esplotatzailleak lez, Ejiptoarrak be euren jopuek baztertzen, ondo, ekin ta gogor jokatu eben. Lanik egin nai ez daben jende modua dira ta asmetakoa asmau dabe: Jaungoikoari oparia eskeintzea lanik ez egitearren... Gizon onei lana geitu egin bear jake, alperkerian egon ez daitezen. Urt.5,II-19.

Gogorkeri onek direla-ta, erria makaltzen ta itxaropena galtzen doa. Ta euren zapaltzailleari errua ezartea ez jake gogoratzen. Bildurrez ikaratu ditue ta errua Moisesi ta aren nagusikideei ezarten dautse. "Zuen erruagatik, Faraon ta aren ministruek ezin ikusi gaitue." Zuek ipiñi dautsazue ezpata eskuan, gu ilteko." 5,20-21 Gaiztasun, esturasun ta zapaltze onek direla-ta, argia artzen asi zan erria, bere nagusi agintzailleen aurka jarten da.

Moises, larri, aurkitzen da era txarrean, deuseztuta, ezertarako indar barik, ta Jaungoikoarengana doa bere barruko kexak agertzen, bestelan lertu egin bear dau. "Zertarako bialdu nozu dirautso Jaunari. Begira, zure aginduz zure erria jagoten asi nintzanetik, iñoizkorik txartoen dago Isrrael. Ta zuk Jauna, erri onen askatasun alde ez al dozu ezer egin bear...? Urt.5,20-23. Benetan, aiena gogorrak bota zitun Moisesek bere Egillearen aurrean. Zer ete zan bere barruko egoera, Jaungoikoaren esana bete ezin ta erria auts eginda, saminduta ikusirik...?

Gizonaren samintasunezko negarrak, beti entzuten zituan Aitak, Moisesen samiñezko negarra ta egoera larria ikusi ta onartu ditu ta adoretu egiten dau gizona. Barrero, bere laguntza osoa eskeintzen dautso. Len eskeiñitako agintzari guztiak barriztuten dautsoz. Urt.6,1-7. Baiña Moisesi ez dautso agertzen, isrraeldarren alde bear dan beste egin dabenik ta ezta, laster, askatuko dabenik. Aparteko laguntzarik ez dautse eskeintzen, euren eginbearra, bertan bera, itzi ez dagien. Bestela, lan egiteko agintzen dautse, ta bera be, barrero, eurekin egongo dala agertzen dautso gogo guztiagaz.

Egoera ontan, erriak sinistutea, gauza zaila zan. Ainbeste neke ta zapaltzekin guztiz bildurtuta egoan. Urt.6,9. Aurrerantzian, zeregin aundi ta zaila eukan Moisesek erriagaz. Lurra jota egoan jendea, goratzea ez zan gauza erreza. Makaltasun aretatik atera bear eban ta biotz-barritu pozagaz.

Egiteen bidez indar-barritu bearko dau aulduta egoan jendetza minberatua. Geldi geldika, bildurra kendu ta Jaungoikoaren laguntza ustez pozturik, aurrera, egin askatasuna lortu arte. Ta olantxe, taka taka, obeto, antolatuko dira, egoera ebea lortuz.

ASKATASUNA LORTZEKO-BURRUKA GOGORRA

Egitura zapaltzailleetatik askatasunera eltzea, ez da gauza erreza. Baiña Israeldarrak, al eben eran, gora goraka jaikiko ziren, naita etsaia agiñeta-raiño armas beterik egon. Gizonetik gizonera guda, guztiz, ezbarðiña agertzen zan. Alan bere, Israel gora goraka, jaikiko zan. Moisesek emondako argitasunak ta sinismenaren indarrak, aldez alde, igaroko zituan.

Ejiptoarrak, ondo, gertuta egozen bai gizonez ta bai armaz. Gizonetik gizonera begiraturaz, ez euken ezeren ta ez iñoren bildur izanik. Adorerik badauke, datozela; emen, lurperatuko ditugu-ta. Gizon zantzo gogorra da, ta itxura baten, bildurgarria.

Urteera liburuak zazpitik amaikara arteko azalburuetan Ejiptoko izurrien barri emoten deusku. Ain luzaro, iraun eben ezbear onetan nastatu ez gaitezen, kontu aundia euki bear dogu. Itzez itz ez ditugu artu bear. Bibliaker izrakatsi nai deuskun jakitea da, emen, garrantzitsua.

Jaungoikoa otseindu ta anaitasunean bizi izatea da, emengo, irakatsia. Egitura zapaltzailleak ez direla giza-bidezko jokabideak. Jokabide orretatik urten ta anaitasun giroan sartu bear dala bizitzan darakusku. Ori da sinistu ta ontzat artu bear dana. Bizi-modua, anaikiro, antolatzea, gero, etorriko da. Lenengo zeregin aundia da Ejiptotik urtetea, joputsa, bertan bera, itzita.

Ejiptok jasan bear dituan izurrien gora-beran, jarraian, tarteka, esaten diran "errepika" batzuk dagoz. Bibliaker irakatsi nai deuskunaren pentsamentu nagusienak lez dira.

Jaungoikoak nai dau, bere erriak Ejiptoren zapaltzetik urten dagiala. Ta askatasunean, Jaungoikoa gozartua izan declina anaien lurrean.

Munduko gizonak, euren giza zapaltzeko asmoetan, okerkeriz, on egiten dabiltezelala uste izanik, Jaungoikoaren asmoen aurka jarten dira ta euren onurak gaitik atizo erria aske izatea, iñundik iñora, ez dabe nai. Eskubideak zenbat eta geiago eskatu, biotza ainbat eta ankerrago ta kaska gogorrago jarten jake.

Jaungoikoaren gogo bere aurka jarki ezindakoa da, ta burruka gogor ta luze baten ondoren izan da be, askatasun ordua eltzen da.

Ejipton jazorikoak ikaragarriak ziran; nekez ikusten dira era aretakoak. Ta arek, itsututa, arro, ebiltzezan munduaren aurrean.

Ejiptoko izurrien azalari, lar, ez dautsagu begiratu bear. Zapalduta dagon erriaren zoritxarrari begiratu. Gaiztakeriz zapalduta dagon erri bat kontuan artu ta zor jakon askatasuna lortu dagian antolatzea, ori da gauzarik edere-rena. Ori, nekez, ikusten da. Ta egizko egikizuna ori da.

Ejiptoren gain jausi ziran lenengo izurriak, zerbait ikaratzeko lez artu geinkez. Estura askatzailleak lez dira. Ta Faraonen ministroak eskua bigundu

egiten dabe. Erriak bigundu ta atsipetuteko, zapaltzailleak erabilten daben bidea da. Ta olan, len baiño erabagi gogorragoak artu leikez euren asmo baltzetan.

Indartsuak, euren asmoetan, ez dabe, errez, izten. Edozein erritar askatasun asmo, odoletan, deuseztuteko, gertu dagoz. Euren arrokerizko poza, or, dago... zapaldu ta norbera, aundikiro, bizi. Erri umilde baten gurari bidezkoa ikasteko ez dira gauza.

Israeldarrak, gogoz, jokatu eben askatasun biñña. Baiña, alperrik, ezer ezin eben lortu. Ta ori dala-ta, gogorkerira beartuta aurkitzen ziran. Ziur ez dakigu zelan izan zan, baiña odola ixuri zan. Ejiptoar gazte talde aundia il zan. Urt.12,27.

Erriaren berarizko eskubideak zauritu, zapaldu ta erriaren onaren aurka ankerkeriak egiten ebiltzezanen aurka, iraultzazko matxiñadea sortu zan.

VI PAULO. Erriaren eskubideak. 31.

Zapalduen egoera larritik sortu zan gogoa, ta Faraonen zapalketa gogorkeritik jaio zan, il edo biziko burrukari gagokioz. Isrraldarren jokatibidearen erru Faraonen legezko zapalketa izan da. Ta egoera larri onen sortukeran, Jaungoikoa, ixilik, ez zan egon bere erriaren aurrean.

PAZKOA BEARTZUEN ITXAROPENA

Urt.12,1 tik 15-21.

Azkenian be, burrukaldi au eldu zan bere azkenera, itxas gorriaz batera. Urt. 14.

Burruka azkenera eltzen dago ta Israeldar asko bildurrez beterik aurkitzen dira. Guda egin baiño naiago dabe Ejiptoarren buztarribean bizi. Ain zan larria bizikera a, beti, eriotzaren pentsuan. Garaitzan ez euken usterik. Urt.14,11-12.

Baiña, Moises buruzagi, aintzindariak poztu ta indartu eban bere erria. Ez izkillu ta ez diru indarrik ez euken, baia Jaungoikoa beartsuen alde ikusten dau ta ortik artzen dau poza ta adorea. Urt.14,13-18.

Zapalduen itxaropena Jaungoikoa da. Ori dala-ta, erriari emon dako garaitzaren ondoren, Jaungoikoaren laguntza eskertuz, abestiz goratzen dabe. Urt.15,1...

Jopu bizikera larritik urten ta anai arteko bizitza giroan sartzeari, Israeldarrak Pazko izena jarri eutsen. Pazkoa Jaunaren igarotea da: Faraonen menpetik askatu, ta gero ondoren, beti, euren askatzen jarraituko dabena Jaungoikoa, goratu nai dabe. Jaunaren erriaren bizitzako asiera pozgarria da Pazkoa. Illebete au izango dozue urteko illerik aundiarena. Urt.12,2.

Burrukaldi gogor ta luzeak izan dira ta eurotan Jaungoikoa izan da laguntzaille, ta laguntasun orren irudia da Pazko aparria. Jopukeri guztien ta anaitasunaren aurkako burruken askatasuna aditzen emoten dau Pazkoak. Ta orrez gaiñera, beartsuen itxaropena da Pazkoa...

ANAITASUNARI BURUZKO LEGEAK

Urt.19 tik 24 ra.

Aldi barri bat dator. Zapalketa denporea amaitu da, ta Jaungoikoak adiskide egiunea aurkeztuten deutso bere erriari. Israeldarrak, pozik, dagoz ta baietza emoten deutse Jaungoikoaren berbeari, ta jaunak laguntza eskeintzen deutse, berari emondako baietza betetu al izan dagien. Urt.19,3-6.

Jaungoikoak dirautso: "Ni zuen Jaungoikoa izango naz." "Ta zuek nire erria izango zaree."

Ta eurak ontzat artzen dabe, esanez: "Jaunak esandako guztia egingo dogu." Urt.19,8.

Baiña Jaungoikoak agintzak ta eginberrak ez ditu ikusi nai, edozelan, aidean. Ori dala-ta, zer betetu bear daben, argibidez, agertzen dautse... Era laburrean, "amar aginduak", gaur esaten dogun legez, emon eutsezan Jaungoikoagaz artu-emonak ta gizadiagazko eginberrak betetuz, munduan egia ta bakea izan daitezcan. Urt.20,1-17.

Jaungoikoa da gauza guztien ardatza. Urt.20,1-17.

Ejiptoko morrontzatik, joputza larri aretatik atera zinduezadan Jaungoikoa naz ni." Urt.20,2. Munduan iñork egin ezin daben egitea, eurekaitik egin ebala, Jaungoikoak, garbi, ikusi eben Israeldarrak.

Jaungoikoa, benetan, erriaren aurrean izenik aundienaz agertzen da: Israel erriaren askatzaille. Len da orain, aldien joan etorrian, askatasun billa dabiltezanen laguntzaille agertzen da Jaungoikoa. Jopuak azpian ta zapaltzailleak, masuka, goitik bera, orrek erri bat ezin osotu leike. Era ortako jokabidea ez da gizonari dagokiona.

Lenengo agindua anaitasunaren oiñarria da: Berak atera zituen zapalkuntza lotsagarrietik. Egiz eta zuzentasunez esan leike orduan: "Nire aurrean jainko-izunik ez dozue izango." Urt.20,3.

Israelgo erriaren jagolea Jaungoiko berbera zanez, erri onen ardatza sinismena izan bear dau ta Jauna bere anaitasunaren oiñarria ta emendik sortu bear eban batasuna. Ez egoan beste biderik, erri onek bere burua zaindu al izateko.

Jaungoikoa alde batera iztea, gure bideak galtzea da. Ta orren orde zainko-izunak geure nagusitzat artu ezkeru, jopukeri ta txarkeri guztien asiera da, eguzkia kendu ezkeru, illuntasuna besterik ez dago. Ez ezerk, ez iñork Jaungoiko ordezkotza artzeko eskubiderik ez dauko. Iñork, egiz, ezin leike, bera egin ez dabena, bere Egilletzat artu. Jokabide ori guztia da ta guzur gainean erririk ezin leike eregi, ondamentian sartu nai ez ba-da beintzat.

Jaungoikoa gauza guztien ardatza da. "Bakarra." Alan agertu eutsen Jaunak Ebertarrei, Faraonen zapalketatik atera ondoren. Ta sorturiko gauza guztien artean, norbera jaun-egilletzat jarri nai dabenak, biziaren sorrera, jarraipena ta izate guztia okertu egiten dabe.

Jarraian datozen aglndu biak, lenengoaren ondoren uts utsa besterik ez dira. Gure naikeriz jaunko-izun ustelak ez ditugu sortu ta gurtu bear. Urt.24,4-6. Egizko aita ez dana, aita sortzailletzat artzea, egiaren saltzaillea izatea da, eta au ez da gizon gizonaren jokabidea, gure adimenaren aurka doa ta biotz legea zapuztuten dau.

Zorginkerizko zerbait ba-litz legez, norbere gurarietara, Jaungoikoaren izena ezin daiteke erabili. Ara emen, Jaungoikoak zer agindu eban... "Ez egizu alperrik, agotan artu zure Jainko Jaunaren izena; Jaunak ez dau zigortu barik itziko bere izena, alperrik, darabilena." Urt.20,7.

Jai egunak jai egin bear ditugu; Jaungoikoa geure bizitzako oiñarria izan dedin. Aginpidez emon deusku agindua, bere gureganako jaubetasuna gaitik ta baita maitasunez bere astegunez lanaren bidez ta jai egunez, atsedenaren ta otoiaren bidez beragaz batera bizi izateko.

Ikusi dogunez, lenengo iru aginduak gure Jaungoikoarenganako artu-emonen zuzenbidea dira. Benetan, gauza egokia ta zuzena semeak bere Aita onartu, maitatu ta gurtzea.

Beste zazpi aginduak lagun bakoitzari begira jarrita dagoz, baiña beti, alkartasun bizitzara begira dagoz.

Gizona zapalduta bizi izateko sortua ez da, bere zentzun ta almenak agertzen dabenez. Jainko erria askatasunean bizi izateko sortua da. Israeldarrak itxas gorria igaro ondoren, agindutako lurrera eldu baiño len, euren gaiztasunak ta tentaldiak izan zituen bai egarriz ta bai gosez. Ordu larri aretan, atzera. Ejiptora begira be jarten ziran, lengo lanetara begira.

Emen agertzen da Jainko erriaren gaiztakerizko lera ta argaltasuna, ta or, dago persona areen barruko burruka. Jauna begira egoan, erria zuzenbidetik eroan nairik. Norberekeri, zekenkeri, sexukeri, gorroto ta ondamupeko era guztietako jokuperia debekatzen dau. Era orretan, bakarrik, anaitasunean bizi daiteke ta leialtasunez Jaungoikoa otseindu.

Jokabide au zuzena ta berezia da. Txarkeriz beterik dagoan gizartearen beste ertza: gaiztakeriaren aurka zuzentasuna, giza barrenak eskatzen dabenez.

Beste gauz eder bat gaiztakeriak baztertu ta zuzentasunak nai dabena, sendia da. Bizia, ondo eroan al izateko, sendiaren osotasuna bear bearrekoa da; apurtziak ostera, negarra ta burruka dakar, geure bizi legearen barrenan dago ba, sendiaren alkartasuna.

Bizitzaren beste oiñarri on batzuk onek dira: Bestien bizitzeaganako dedu edo lotsa izango dozu, norbere ezkontza nai besteena deduz artuko dozu... bestien jaubetza txikiarenganako dedua izango dozu... Urko-lagunaren entzutearenganako lotsa izango dozu. ez ezertariko, ez iñungo lapurketarik ez dozu egingo...

Urteera deritxon liburuan amar aginduen ondoren, gizarteak bizi izateko bear daben lege bilduma bat dator. Izan bere, gizatasunez, gizadiaren bizitza edertu egiten da zuzentasunean. Ontzu, askaturiko Isrrael erriari, anaikiro bizi izateko bide egokia agertzen dautso. Isrraeli emondako irakatsi onek, gizaki guztientzat dira argi ta zuzendari; Jaungoiko erriarentzat emon bai-bazan agindu ta irakatsi, munduak dirauan artean.

Bizitzarenganako lotsea irakatsi eutsen. Urt.21,12-32. Bata bestearenganako ondasun arteko lotsea... Urt.21.23 tik 22,15. Jaungoikoak bere umeak ez zituan nai, bertan bera, lotsatuta, itzita, ikusi nai. Ezkontzako itza emonda ez dagoan neskea lilluraturik, aregaz etzuten dan gizonezkoak, ezkontza saria ari ordaindu eta neska a emaztetzat artuko dau. Baiña, neskearen aitak emaztetzat emon nai ez ba-deutso, lilluratzaileak neska-saritzat oi dana emongo deutso."

Baiña Jaungoikoak emon zitun irakatsi jakintsu ta ongille onek, geien geien, beartsuei laguntzeko izan ziran. Urt. 22,20 tik 23-13. Baiña eten barik, beartsuen alde laguntza eskatzen dau... Munduan ez dago erruki bardiñik... Berak, ondo, ikus bai dau gogoaren esturea ta gorputzaren gose-miña. Diruz lagun egin beartsuei irabazirik barik, eskatzen dau Egileak... Jaungoikoak nai daben lez bizi izateko, diru oiñarria zor bat da munduan.

Egille baten seme-alaba izanik, persona guztiak alkar artu bear dabe, guzurrez, gizadiaren bizia apurtu nai ez ba-da. Lege ontatik etsairik be ez da banatzen, aita baten semeen artean, Jaungoikoak ez dau gorrotorik onartzen. "Zeure burua lez, urko-laguna maite egizu." Abadenal9,34.

SAIL BARRIA

EGIUNE BAT ODOLEZ ZILLATUTA

Jaungoikoak Moisesi dei egin ta onan, berba egin eutson: "Zu, Aaron, Nadab Abiu eta Israelgo irurogei ta amar zarrak Jaungoikoagana igon ta urrundik auzpeztu zakioze. Moisez, bakarrik, urreratuko da Jaunagana; besteak ez jakoz urreratuko ta erria ez beite igo."

Moisesek igon eban mendi gaillurrera eta Jaungoikoagandik arturik itz eta lege guztiak, erriari jakiñerazo eutsozan. Erriaren erantzuna jatorra izan zan. Jaungoikoaren asmoa betetuteko berbea emon eban. Jaungoikoak erriagaz leiala izango zala, berbea emon eutsen. Alderdi biak ba, Jaungoikoak eta erriak alkar arteko egiunea egin eban. Ta aldi aretan oiturea zan legez, alderdi biak egiunea, aundikiro, izenpetu eban.

Egiunea egiten ebenen artean, odol pizkat botateko oiturea egon Isrraeldarren artean. Jaungoikoak eta bere erriak, era orretan, euren bien arteko egiunea sillatu eban.

Urteera liburuan diñoanez ogetalagarren sail ta laugarren atalean, gazte batzuei emon eutsen zezen batzuk ilteko eginbearra ta mutil arek, azkar, betetu eban eureri emoniko agindua. Ta gero, Jaungoikoaren irudia zan aldara gaiñean, Moisesek zezen odol erdia ixuri eban. Ta beste erdiagaz erria zipriztidu eban, esanez: "esanda egoan lez, au da Jaungoikoak zuekin egingako alkartasunaren odola." Urt.24,8.

Egiune au egin ondoren, jaungoikoaren erria legebideratuta geratu zan. Odola biziaren asiera dan lez, egiune egille biak, Jaungoikoak eta erriak, bizitzaren oiñarri bakarra izango dabe maitasuna. Emen ikusten da Jaungoiko ta erriaren artean dagon maitasuna. Egilleak ezin dau itzi, bertan bera, berak sorturiko erria ta dei egiten dautso, ta semeak be gogo onez aitari dirautso, zeure esana egiteko, gertu gagoz.

Aldi luze bat geroago, alkartasun egiune barria Kristok bere odolagaz sillatu eban. Odol berbera Jaungoiko ta gizonen gain ixuria ízango da. Era berean, gizonen seme ta Jaungoikoaren seme danaren odola izango da. Persona beratan, Jaungoiko ta gizona agertuko dira. Jazoera onek ain dira aundiak, ain arrigarriak, egite onen barruan dagon maitasuna gozartuteko, Egillearen laguntza bear dogu.

Jaungoikoak, argiro, esan eutsan Isrrael bere erriari, neu izango naz zuen laguntzaille. Arrezkero, izadi guztiari, bardin, dirausku... ta berak emondako bizitza, indar ta argitasunagaz, aurrera, goaz Jaungoikoaren uri santura.

ASKATASUNA, AGIRIAN, IPIÑITA

Faraonen menpetik ta egitura zapaltzailleetatik askatu ziran ta maitasun egiunea Jaungoikoaren aurrean egin eben. Baiña gizon ta bere asmoetan jarraitzen eban guztia, ez egon oraindiño osotuta. Gitxi gora-bera, bakoitzak bere antzera ta naietara jarraitzen eban, norberekoi bildurti ta jaingo-izun zale. Jaungoikoaren agintzariak ezin zituen, ezelan bere, onartu. Giza griñak geiago egiten eutsen ta euren goi-indarrak illunduta ta makalduta geratzen jakezan.

Baietz, esan arren be, "guk zure esana egingo dogu"... txerrenen edo besteren baten indarrak geiago egiten eutsen. Gosealdiak eldukeran, batzuk, euren elburua galduta, nora ezean, geratu ziran. Ta bereala, atzerantz begiratuten eben, euren anaiak gogaituta izten zituelarik, Moisesen ta Aaronen aurka Isrraledarrak auxe esaten eutsen: "Obe genduan, jaunaren eskuz Ejiptoko lurraldean il ba-gintzaz, lapiko bete okelaren aurrean jarten gintzazanean. Erri guztia, emen, gosez ilteko ekarri gaituzue basamortu ontara."!!!

Ejiptoko okela-azur lapikoaren gose-miña sentitzen eben euren gorputzetan. Jopuen bakea naiago eben, anaitasuna lortzeko egin bear zan burukaren arriskua baiño. Betiko soiñua... au zan Isrraldar gizajo areen kantua.

Moisesek eurengandik alde ta Sinai mendian egun batzuk igaro orduko, garaitzaren uste osoa galtzen eben. Gidariak eurengandik alde orduko, Jaungoikoagaz egindako anaitasun egiunea amaitu zala uste eben. Jaungoikaren esan guztia egingo dogu gaur... ta biar edo etzi, zer itz emon ebenik be ez: dana astuta, egin bear eben bideari aurpegi emoteko ausarditasun barik.

Moisesek luzatu egin eban menditik jatsitea, ta orduan, Aaroni eskatu eutsen: "Egiguzu jaingo bat, gure aurrean joan daiten; izan be, ez dakigu, Ejiptotik atera ginduzan Moises orri, zer jaso jakon." Aaronek erantzun eutsen: "Zuen emazte, seme ta alabei urrezko belarritakoak kendu ta ekarri egidazuez." Alan egin eben: Guztiak euren belarritakoak kendu ta Aaroni ekarri eutsezan. Ta onek sutara bota ondoren, urrezko txal batek urten eban. Arek, orduan, auxe esan eben: Auxe da Isrrael, zure Jaungoikoa, Ejiptoko lurraldetik atera zaituana.

Aaronek ikusirik, aldara bat egin eban txalaren aurrean, ta auxe iragarri eban. "Biar jaunaren jaia da. "Biaramonian goizian goiz jaikirik, erre-opariak eta bake opariak eskeiñi ebezan, ta bazkari aundi bat egiñik, dantzarako, gogotsu, jaiki ziran. Itzik egin ez ta ezer eskatzen ez daben Jaungoikoa nai eben. Olan, euren nai izateak, errezago egingo zituen. Ta anaitasunezko lurrera eltzeko, bide luzean egin bear ziran, buru ukatzeagaz gogaitu egin ziran. Janari ta urik eza gaitik, gora goraka, jaiki ziran, ta Moises berbera Isrraldarren buru-gogorkeriagaz gogaitu egiten da. Erriaren zuzendariak eurak

be eragote ta matxiotan dabiltzaz. Ta orrez gaiñera, erritar batzuk Moisesen aurka jaiki ziran. Zn.16,1 tetik aurrera.

Baiña, oroz goitik, erritar jendearen artean, Jaungoikoaren agintzariak sinisten ez dituen bildurri asko dagoz.

Eurek baiño gogorragoa zan etsaiagazko burrukan sortzen ziran gaiztasunen aurrean, bildurriak, atzerantz, egiteko eskatzen dabe. Ta Ejipto edo jopu errira, atzera, biurtzeko, jendea, gora gora, ipiñi dabe... Zn. 14. Ta onetariko jendeari Jaungoikoak ez eutsen emongo, agindutako lurrera sartzeko erarik.

Erriaren jokera onek agertzen dabenez, oraindik ez egozen, agindutako lurrean sortzeko eran gertaturik. Jopu bizitza larrian oituta egozen gizon areen biotza aldatu egin bear zan. Onbideak ta onbidearen nekeak bildurru egiten zituen, ta aginduriko lurraren aurrean, oiez-lako agintza emon eutsen; basamortura sartzean, zintzo, jokutzen ibili ziran guztiak. Zn.14,21-25.

Ainbeste urtean arturiko jopu oituretatik urteteko, berrogei urteko irakatsi sakonak bear ko ditue. Naita joputza mingarria izan, laureun urteren buruan zapalketa orrek zerbait ezarrira itzi eutsen ta ortik urtetea be, ez zan berezko lana. Aitaren lurrean sartu al izateko, areen semeak, bakarrik, egongo dira gertaturik. Zn.14,26-38.

Basamortuan berrogei urte bizi izateak, antxiña, jopuen bidez eratuta egoan erri onek, egin bear izan zituan antolatze, lege zuzentza ta il edo biziko alegiñak, gogoan artu eragin nai deuskuz.

JAUNGOIKOAK ISRAEL JOPU EGOTERIK EZ EBAN NAI

Ainbeste zapalkuntza egoan lurrean, ezbardintasunak kendu ta anaitasunez bizi al izateko, Moisesek emon zituan legeak aztertutea, gauza egokia ta ardura aundikoa da. Anaiaen artean alkar onartu ta ez-bardintasunak kentzea izango litzake gauza egokia ta elburu bidezkoa.

Benetan, iñoren izerdien xurgari ta ondasunen bereganatzaille iñork ez leuke izan bear; ta zori-txarrez, munduko giza-anaia saminduta dauka norberekerizko jokabide onek.

Lenengo ta bein, lur baratzearen gora-beran, Moises ardura aundiz ibili zan. Jaungoikoak Moisesi itz egin ta esan eutson: Gizonei, diran aiñean, erentzi bezela, lurra banatuko dautsazue. Geiago diranei parte aundiagoa ta gitxiago diranei parte txikiagoa. Zenso edo zenbatzaren eran. Bakoitzak bere erentzi edo ondarea artuko dau, baiña banatzea sozkeraz egingo dozu. Znb,26,52-55.

Lurra banandu ondoren, lurren banaketa au, gauza bidezko, zuzen ta santutzat artu bear litzake. Auxe da, benetan, jaungoikoaren guraria giza seme guztien alde, bera bai-da guztien aita. "Zure Jaun Jaungoikoak emoniko lurretan, arbasoak jarri zituen mugarriei, ikuturik ez dautsezue egingo. Dt,19,14. Urko-lagunaren mugarriak aldatzen dituana, zorigaiztokoa izango da." Dt.27,17.

Zuzentasun onerako, lurrik saldu ezin al izatea, garrantzi aundiko gauzea da.

Lurra neurea da-ta, lurra betirako ezin leitekez saldu. Ab,25,23.

Baserritar batek edozein esturaldi dalta-ta, dirua bear ba-dau, lurra saldu leike, baiña ez betirako. Urte batzuetarako, errentan, emon leike bakarrik. Ab,25,23-28.

Berrogetamar urtetik berrogetamarrera, urte santua, Jubileu urtea jarrita egoan. Urte orretan ondasun banaketa barria egiten zan. Erositako lur guztiak, lengo ugezabarengana, ezer ordaindu barik, atzera biurtzen ziran. Ab,25,8-17.

Urte santuaz gaiñera, zazpi urtetik zazpi urtera Larunbat urtea ospatzen zan. Ta orduan zor guztiak parkatu bear ziran. Ta olan, ondasunak gitxi batzuen eskuetan ezin pillatu eikezan, geientzuenen galtze ziurragaz. Dt.15,2-4.

Jaungoikoak ez dau askatasunik kentzen, ta gizonak bere norberekeri maltzurra dala-ta, beti, ez zituan, ondo, betetu bere Egileak emoniko lege onek. Jaungoikoak ba ekian, gizonen artean beartsuak, beti, izango zirela lurrean. Dt.15,11.

Jaungoikoak beartsuak, oroz goitik, maite ditu. Aitak ezin ikusi ditu ba, semerik maiteen ta beartsuenak Gal-zorian. Ori gaitik dabil deika ondasundunei, aginpidedunei, gizadiko jakintsuei ta edozein beste laguneri, lurreko gose ta samiña urrindu daitezen munduko bere semeen gizartetik.

Negarrezko erbeste onetan beartsuak, beti, izango dira. Ori dala-ta, zure inguruan bizi diranekin esku zabala izan zaite. Dt.I5,I1.

Jaungoikoa, eten barik, dabil, gizadiaren begiak itzartu ta biotza errukitu-erazo nairik. Bere asmoa besterik ez da, gizonaren samiña kentzea baiño. Berak izadia sortu eban ta lur ta itxaso orren ondasunetatik, danak, egoki, bizi izatea nai dau. Zure anaia txirotuten ba-da, ta laguntza eskatzen ba-deutzu, zeure etxean artu egizu. Jaungoikoaren bildurra izan egizu ta zeugaz bizi dedilla anaia. Ab.25,35-36.

Lege Zarreko agindu onek, gero, lege barrian Jesusen aginduekin indar barritu ta sendotuta dagoz. Jesus berberak esan euskun eran. "Ni testamentu zarra kentzen ez nator, osotzen baiño."

Iru urtetik iru urtera usta ta laboreko euneko amar beartsuei emon bear eutsezan. Dt.I4,27-28; 26,II-I3. Munduan ez dago ez erri ta ez laterririk beartsuen alde olako laguntzarik emon dabenik. Jaungoikoa ba, bere erri-gaz, beti, izan da errukiorra ta ezin dau zentzun bageko zapaltzerik ikusi lurrean. Ta orrez goitik, munduko errialde batzuen urritasuna, gosea ta iltea ikusirik, deika dago erri aberatsen ateetara. Miseri, gose ta ezbearra deika dagoz Jaungoikoaren aurrean.

Zure alorrean garia ebagikera, azaoren bat astuta izten ba-dozu, aren billa ez joan, arrotzarentzat itzi egizu. Onako irudi ederren bidez Jaungoikoak dei egiten deusku; gero, on egiñaren orde, betiko bizirako sari aundi bat eskeiñirik. Dt.24,I7-I9.

Olio ondoa batukera, ondar-batzen, ez zaitez ibili. Arrotzarentzat, alargunarentzat ta ume-zurtzarentzat itzi egizu. Izan egizu gogoan Ejipton jopu izan ziñela, origaitik lege ori bete dagizula, agintzen dautzu gaur.

Jaungoikoak biotz samurtasuna beste era batzuetara be agertu eban. "Zuen lurretako garia batu dagizuenean, ez ebagi garia soloko ertzetaraiño, ezta ebagitean geratzen diran ondarrak batu be. Zure maastian be ez dituzu maats ondarrak batuko; jausitako igaliak be, ez dozuz zure baratzetatik jasoko; itzi egizuz beartsu ta arrotzentzat. Ab.I9,9-I0; 23,22.

Baiña munduan ba-dira alper, lanik egin nai ez dabenak be. Baiña berezkoa dan lez, arau onek ez zituan alperren alderako emon. Emen, aitatu diran ondasun laguntzak antolamen bat bear dabe; bear dan zuzenbidetik joan daitezen batzuegana, iñor baztertuta, bertan bera, geratu ez dedin.

Alperrentzat liburu santuak irakatsi egokia emon dau. "Noz arte egongo zara lotan nagi ori...? Noz jagiko zara zure loalditik? Une bat lotan, une

bat erdi-lotan, une bat etzunda, besoak lotuta, eta bidazti bat lez etorriko jatzu bear gorria eta lapurra lez bear izana. "Esak.6,9-II. Ospina aginentzat eta kea begientzat, orixe da nagia. Esak,10,26. Liburu santuak diran legez agertzen ditu alperren ezaugarriak ta onek ez dauke langille zintzoaren izerdia xurgatzeko eskubiderik.

KAPITALISMU EDO DOMU BALTZUAREN GALERAZPENA

Jende zearen bizia, beti, da estua, ta batzuetan, dirua, aurrezaz, eskatu bearrean aurkitzen ziran. Anairen bat edu ortara eltzen zanean, Jaunaren legea zintzoa ta gogorra zan. Dirudunak, kontzientziaren ardurapean, beartsuari lagundu egin bear dautso, ezertariko onurarik eskatu barik. Emen, garbi, agertzen da beartsuen aldez noraiñokoa dan Jaungoikoaren begiramenena. Ta berak alderdi biak, ondo, ikusten dituan ezkerero, legearen jokabidea bientzat da mesedegarria ta anaitasuna sortzeko bide egokia.

"Zure anairen bat bearrizenera eltzen ba-da, zure biotza ez egizu gogortu, eskua ez egizu itxi aren aurrean. Bestera, zabaldu egiozu eskua ta bere eza konpontzeko bear daben saria, laguntza emoiouzu." Dt.15,7-8.

"Zugaz bizi dan aire erriko bateri, dirua aurreratzen ba-deutsazu, aregaz lukurrerua etzara izango. Irabazirik ez egiozu eskatu." Urt.22,24. "Zure anaiari ez diru, ez janari, ez beste ezer, irabazitan, ez deutsazu aurreratuko." Dt.23,20. Ikusi baita be...Ab.25,36-38.

Beartsu bat, azkeneraiño, eldu danean, bere erropak saldu bearreraíño, egun beratan, eguzkia sartu baiño len, atzera biurtu bear jakoz. Urt.22,25-26. Dt.24,10-13;24,17.

Larunbat urtea zazpi urtetik zazpi urtera izaten zan. Ta urte au parkamen urtea zan. Aurretiko zorrak ezin zeitekezan luzatu urte onen azketetik aurrera. "Lagun urkoari dirua prestau edo baitura bat egin dautsonak, parkatu egingo deutso baitura orren zorra; ezdautso zorrik, esturaz, eskatuko bere lagun-urkoari edo anaiari; urte au Jaunaren parkamen-urtea da-ta. Arrotza, bai, zorra biurtzera beartu al izango dozu." Dt.15.2-4. Era orretan iñor ez litzake zorpean geratuko, iñungo lagun edota bankuen menpean.

Ta orrez gaiñera, beste agindu on bat agertzen da emen, aurrezaz emoten dan dirue, ez dedilla izan, irabazbide loi baten sorrera.

"Langílleari lan saria emotea zor berezia da. Zure alorrean lan egiten daben langílleari, eguzkia sartu baiño len, eguneroko lan saria emongo deutsazu. Beartsua dalako, bizi izateko lan saria bear dau, Jaunaren aurrean zure aurka dei egin ta oben aundi onen astuntasuna zure gain jausi ez dakizun." Dt.24,14-15. Ab.19,13.

Berezkoa danez, emen, aitatu diran arau guztiak, itzetik itzera, betetu bear direla, ezin esan lei. Baiña Jaungoikoaren gogoia danez, arau onen argitasunez ta gogoaz bizi ta lan egin bear dogu. Batetik giza biziak eskatzen dau anaitasun geiago munduan, ta bestetik, gure bizia ez da amaitzen... bere lurreko egite guztiakin batera doa betiko bizitzara. Ta egite onen erara izango da ango poza, atsegiña ta bakea...

Jende askok uste izan lei, gure aldiko pentsamentua ez dala ori. Ori atzerapen aundia dala gaur egunerako. Ainbeste goratze, ainbeste lapurreta, ainbeste zabarkeri dagon aldi ta inguru onetan, atzeratute dagozela jokabide orrek dirudie... Dirutze aundiak esku gitxitan pillatuta egon bear dabela diMie munduan aurrerapiderako... Diruak lan eragin bear dau... Ez da pentsamentu makala!!!

Baiña diruari lan eragiteak zer esan nai dau...? Beartsuekin baliatzea...? Gosezko lanekin aberastutea...? Bear izenean dagozanekin baliatutea...? Era onetan gizonaz baliatzea debekatuta dago Biblian. Gizonak bere izerdiz lan eginda bizi bear dau, Jaungoikoak, alan aginduta dagoan lez. Besteen bearraz baliatzea, anaitasunaren aurka doa.

Gure aldian, Jainkotiar irakatsi onek, sarri, beartsuen onerako izan bearrean, batzuen poltzak sendotzeko izaten dira. Ez da nola-naiko eskubidea ondasunak pillatzea. Jabetasun eskubidea ondasun txikien aldekoa da. Au da eleiz maisuen irakatsia. Ikus egizu, esaterako, Populorun Progresio... VI Paulo Aita Santuaren idazkian. 22 ta 23 orri aldietan.

Jaungoikoak bere seme guztientzat lurra sortu eban, ta menperatu egizue, ez batzuen onean, guztien mesedegarritzat baiño. Aita batek ezin ditu semeak, goses, ilten ikusi, ta gitxiago, beste batzuen nauskeriz. Gure ardura aundia bear dau lurrak, guztientzako janaria emon dagian, ortarako sortua da-ta, ta ainbeste anai, gosez, gal-zorian dagozen bitartean, norkerizko aundikeririk ez dau nai Egilleak.

Olan jarraitzen ba-dogu zapaltzen, indartsuen "justiziak" eriotzara arte jarraituko deusku negar eragiten. Aurrerantzian, lur, irabazi ta ondasun orrei santuak ezin deitu izango deusague. Munduak ondradutzat daukazenak, Jaungoikoak lapurtzat daukaz sarri askotan.

ANAITASUNAREN AURKAKO SALDUKERI BALTZAK...

Epailarien liburuan ikusten denez, agindutako lurren antolatzea zaila izan zan, ta astero astero, egin zan gizonaren indar negurtuen eran.

Alaitasunez gogoratzen dogu, naita gaiztasunez izan; Isrraeldarrak lenengo gizaldiak, anaitasunean, igaro zituen.

Baiña arek be, gizonak gizon ta sinisgabien antzera euren bizia antolatzeko zirria ezin kendu eben. Geldi geldika, euren bizitzako sinisgabien jokera itzi ta zuzentasunezko bide barriak onartzen asi ziran, munduan anaitasuna ber-eraikitzeko.

Jaungoikoa, aldi luzetan, Isrraelgo Jaun bakarra izan zan, ta denpora onek bere ezaugarria, ondo, ezarrita eroan eban anaitasunean... Ta euren artean bizikera ederragoa izan zan anaitasuna nagusi zalarik. Ongille gogo barri bat sortu zan, zorionez, euren artean. Ta arrisku ta bear-izanak sortukeran, gidari barriak agertzen ziran arazoan zuzenbiderako. Aren eginbear nagusia, erriaren onerako, anai arteko alkartasuna lortzea zan. Gero, ondoren onak, berez, agertuko ziran.

Baiña Samuelen semeak ez eutsen aitaren bideari jarraitu: irabaziari begira, eskupekoak artzen zituen, eta okertu egin eben zuzenbidea." Samuel 8,3. Gizonaren lera, beti, zoritxarrez, berantza edo gaiztakerizkoa izan da. Iñoren diruz baliatzearen arazoak konpontzeko, beste laterri batzuen antzera, erregea buru zala, jaurlaritza gogor bat sortu nai izan eben. Samuel 8,5. Isrraelego zar guztiak batuta Samueli auxe esan eutsen... Begira, zu, onezkero zartu egin zara, ta zure semeak ez dautse zuzenbideari jarraitzen. jarri egiguzu ba, errege bat, gu ebatzi gagizan, erri guztietan egiten denez. Euren norberekerietan sarturik, bestien antzeko erri bat etziranik, ez ziran konturatu. Erri berezia zan, izan bere, Isrrael, Jaungoikoaren erri autatua, ta euren askatasun deia alde batera itzi eben.

Jaungoikoak erri onen bidez nai eban mundua argitu ta zuzentasunaren bidez betiko askatasunera eroan. Baiña Jaungoikoaren bitartez ta anaienganako maitasunez euren bizitzako arazoak zuzendu bearrean, salbamena erregearen indarrean jarri eben. Ori dala-ta, Bibliak diño, bere erriaren guraria ez jakola atsegin izan. Samuel I,6,8; 10,10-12. Jaungoikoak baiña, aren erabakia ontzat artu ta errege bat jarrea laketu edo itzi eutsen.

Baiña gogoan izan... erabagi onen barri, aurrezaz, emon eutsen." Erregea zuen semeekin baliatuko da guda gurdi ta tresnak erabilteko ta bere zaldizko jagole izan daitezen. Euren artetik aterako ditu mutillak lurra lantzeko, gariak ebateko ta gudarako arma ta gurdiak sortzeko." Ta zuen alabak bere sukaldari, ogigille ta usain gozoen lurruntzaille beretzat egingo ditu:"

Ta munduko kontu polit legez, mastirik onenak, sagardi jorienak, armad leku onenak kenduko dautzuez ta beren aldezkoei emongo dautsez. Ta onez

gaiñera, gari ta matsen euneko amarregaz bera geldituko da, bere inguruko laguntzaillleei emoteko.

Ta zuen jende ta abererik onenak artu ta bere onerako erabiliko ditu. Ara emen, Samuelen berbak. "Ona emen, errege izango jatzuenaren eskubi-deak. Zuen semeak artu eta bere burdi ta zaldietarako izentatu eta bere burdi-aurrean joateko, erabiliko ditu; batzuk milla gizonen burutzat, eta beste batzuk berrogei ta amarren burutzat erabiliko ditu; batzuk lurrak lantzen eta solo-arnariak ebagiten eta beste batzuk guda iskilluak eta burdi tresnak egiten. Zuen alabak usaingarrigilletzat, sukaldaritzat eta ogigintzat eroango ditue. Zuen landak, maastiak eta oliondorik onenak artu ta bere serbitzariei emongo dautsez. Zuen soloetako ta maastietako amarrenak artu ta bere semeei ta serbitzariei emongo dautsez. Zuen morro-neskameak eta zuen idi ta astorik ederrenak artu ta bere etxaguntzan erabilteko eroango ditu.

Erriak, sarri, oi dan lez, berenetan itsututa, errezoi ta argitasun onek entzuterik ez eban nai. Euren gaiñetik, gizona, nagusi eukitea nai eben, Jaungoikoa, bakarrik, buru euki bearrean. Jaramon egin eta emoiozue errege bat" erantzun eutsen Jaunak. Orduan, "doala bakotxa bere errira," esan eutson Samuelek.

Esan da izan: Jokera onegaz, laster, damutu bearko dabe. "Orduan, zuek zuentzat aukeratutako erregearen aurka, deadarrez asiko zare; baiña Jaungoikoak ez dautzue erantzungo." Samuelen lenengoa } 8,18. Errege bat aukeratu ta arengan euren ustea jartea, oben aundia izan zala ezagutu bearko dabe. "Gari ebagitea da orain, ezta? Begira ba, Jaunari dei egingo deusat, trumoi ta euri jasa bialdu dagizan. Orrelaxe ezagutu ta ikusiko dozue, zuentzat errege bat eskatuaz, Jaunaren aurrean egin dozuen gaiztakeri aundia." Samuelek dei egin eutson Jaunari, eta Jaunak egun artantxe trumoiak eta euri jasa bialdu ebazan."

Erriak berean danai, obenetik ez dau urteten ta pekatuen salbamena itxaroten jarraitzen dau. Giza senean edo zentzunean ezin dira sartu. Baiña orduan gaur legez, euren uste ta bideetatik ez eben lortu bardinatasuna ta anaitasuna, galtzea baiño besterik.

Euren asmo ta usteak, bertan bera, ondatzen, laster, asi ziran. Jaungoikoak iragarritakoa betetuten, beingoan asi zan; batzuk, geldi geldika, guztia eurenganutzen joan ziran. Erriko jenderik geiena kale gorrian geratu zan. Aren lenagoko bizi zentzuna, tamalez, aldatu zan... bata besteari on egitera ez egozan, naita ezean, indartsuak otseindu bearrean egon baiño. Indartsuenen legea, aberatsenen legea, ondasun sail aundiennen legea, goiko makilla legea agintzen asi zan, Jaungoikoak aginduriko anai legearen ordez. Munduko jokabidea, lengoa ta gerokoa, beti, negarrezko legea.

Isrraeldarrak beste errien antzeko biurto ziran; zapalkuntza ta negarra naiago, Jaungoikoak eskeintzen daben zuzentasunezko anaitasuna baiño.

BASERRITAR ZUZENAREN SALAKUNTZAK

Ondamendi onen inguruan guztia ez zan izan galtzea. Jaungoikoaren semeak, igarleak, indartsu jaiki ziran zuzenbidea agertzen. Euren Jaungoikoaren izenean, arpegira botaten dautse euren salakuntza-etoikeria.

Bakez eta ondasun aurrerapenetan bizi arren, aldi aretan, Igarleak, garbi, ikusi ta miñez sentitzen dau, Israel ez egoala Jaungoikoak nai daben anaitasun bidean.

Naita batzuk, ondo, bizi, baserritar geienak ez-bear gorrian aurkitzen ziran. Aundien arrokeria baserritarrentzako iraiña zan.

Jo egingo dot negu-etxea, baita uda etxea be; marfillezko etxeak ondatu egingo dira, jauregi aundiak ezereztu egingo dira. Jaunak esana. Amos,3,15.

Zoritzarrekoak uste osoa Sion'en dabenak, eta sinistea Samariako mendietan, errien azikiñak irabazi eta Israelgo etxera daroezenak." Am.6,1. Jaungoikoaren gogoia ez dago asmo onekin batera, ta salatu egiten ditu... marfillezko ogeetan etzunda, luze ta nagi zuen ogeetan, artaldeko bildotsak ta kortako txalak jaten dozuez." Am.6,4 ta jolasetan, bardin, ikusten ditu nasaitasun guztiagaz "arpa soiñuaz batera, kantu marmarrean diarduzue. Dabidek lez soiñu barriak asmetan dozuez. Am.6,5. Ardaugozoa edaten dozue, zuen usaingarririk bikaiñenez Ieuntzen dozuez, eta ez dozue miñik artzen Joseren ondamendiaz."

Amos igarleak diñoanez aundikeria ta jan salokeria aldi artako pekatu ta oituak ziran aundiki artean.

Amos igarleak ikusten dabenez, batzuen aurrerapidea ta aundikeria baserritar zapalduen ez eukitik ta miseritik datoz. Batzuen pillatze ta goikeriak dakar erriaren ondamena. "Pobreak zapaldu ta erriko beartsuei odola ateraten dautsezuenok, entzun: Zuek diñozue: Jai eguna, noz, igaroko ete da, gure ariak saltzeko gañen aotzeraiño:!! Negurriak gitxinduko ditugu, salneurriak goratuko, Pisuak, azpikeriz, erabiliko ditugu. Diruaren bidez miserian direnekaz, jaubetuko gara. Zapatil edo oski batzuen bidez beartsuak jopu legez erosiko ditugu." Am. 8,4-6.

Aundikiak eta aberatsak zuzentasuna diruaren truke saltzen dabe. Jaungoiko maitasuna alde batera izten doaz ta euren biotza lurrari ezarten dause. Emengo nauskeria atsegin jake ta beartsuegatzko artu-emonak lurperatzen doaz.

Mingarria dana da, aundikeriak bere ustelkeria eleizkizun aundiak egin ta estaldu nai izatea. Ustela izan ta zintzo lez agertu nai izan, munduko miseriarren kontua, sarri, abiatu ta bide orretatik.

Jaungoikoak Amosen aoz diño: Zuen eleizkizunak iguindu egiten nabe ta gorrotogarriak dira, ta origaitik aizatu egiten ditut. Zuen ekintza usaiña

ez jat atsegin. Opari ta emeitzak aurkeztu dagitzasuzenean, ez ditut onartuko. Kendu nire aurretik zuen kantuen zaratotsa, ez dot entzun nai zuen zitara-soiñurik. Ixuri dedilla ura lez zintzotasuna, beti doan erreka lez izan dedilla zuzentasuna. Am 5.21-24.

Alkartasuna egin zan ezkerero, Jaungoikoa gurtzea bide batetik, ta anaitasunez ta zuzentasunez jokatzera beste bide batetik, ezin joan eitekezan. Banandu ezindako gauza bi dira. Gaiztakeri onek arrokeriz ta zapalketaz beterik ikusten zituan Jaungoikoak ta ezin zituan, ezelen be, onartu. Am 8,7-8.

Au da gizoztearen kaskarkeria! Ainbeste mesede artu bizitz askatasuna ta zabaltasuna ta giza biziari dagokiozan mesedeak artu ondoren, ezin mesede egillearen eskua ezagutu ta bizi emoilleari jarraitu! Era ortako gizarteak, luzaroan, ezin iraun leike. Ta Jaungoikoak, munduan eredu izateko aukeratu eban Isrraelek gitxiago.

Ondamendia aundia izango da, baiña ez osoa. Jende talde beartsu batek, barrero, Jaungoikoaren berbea entzungo dau. Igarlearen berbak, beti legez, norberekerizko biotzak ez ditu ulertzen.

Jaunak autaturiko erria, beratu da ondamendiraiño. Zelan emagalduta zara, Sion, uri zintzoa, zuzentasunez beterik zengozen ori? Leen, zintzotasuna bizi zan an, eta orain giza-iltzailleak. Zure zidarra zaborreri biurtu da, eta zure arda utsal lez naastu. Zure nagusiak biurriak dira, lapurren lagunak, guztiak eskupekoak nai ditue eta gari-gose dira; ez dabe umezurtzaren eskubiderik zaintzen. "Is.

Lengo bizikerea alde batera itzirik, biotza ezikaitz eta saltzaille biurtu jake. Egiak ez dautse ezer esaten ta nigandik banandu ta joan dira, diño Jaunak. Ta au benetan larria: euren gaiztakeriak zoriontasuna aienatu dabe.

Izan bere, nire errian gaiztoak dagoz txori eiztariak lez, sareak jarten dituenak, aren etxeak lapurrez ta iruzurrez beterik dagoz, txoriak betetako otzarak lez, eta orrelaxe egiten dira aundi ta loditzen...

Jaungoikoak erri baten galbide ta ondamendia ikusirik, era ontan, minduta berba egiten dau. Alargunaren alde, zuzenbidez, ez dabe jokatu; auzitan ez dabe umezurtzaren eskubiderik zaintzen eta beartsuari buruz, ez dabe erabagi zuzenik emoten.

Alan bere, Jaunak gizadia berea dau ta ezin dau, bertan bera, itzi. Ta erriaren jokabide orretzaz ez ete dot konturik artuko...? diño Jaunak. Arrigari ta iguingarriak jazoten dira lurraldean. Igarle paltsoak guzurra iragarten dabe ta nire erriari, entzutea atsegin, jake. Ta gero, zer egingo dozu azkenean...? Jer.5,26-31.

Jaunaren eskua ez da laburra salbatzeko; ezta belarria entzuteko gorra; Jaungoikoagandik banandu zaituen esia zeuen pekatuek dira. Aren arpegia

zuekandik alden du dituenak, zuen obenak dira. Zuen eskuek odolaz loituta dagoz-ta, eta zuen atzamarrak erruz zikinduta; zuen ezpanei guzurra darie eta zuen miñak maltzurkeria itz egiten dau. Zuen artean ez da iñor zuzentasunaren alde deadar egin dagianik, ezta egiaren arauz auzi-epaia emon dagianik. Is. 59,1-8.

Zer egin neikio maastiari, egin ez neutsanik...? diño Jaunak. Maatsa itxaron neban, zergaitik emon deust ba, sasi maatsa? Jaunaren maastia Isrraelgo erria da. Nik zuzentasuna itxaroten neban euren gandik ta odola besterik ez dot ikusten. Zintzotasuna itxaroten neban, baiña garrazi otsak baiño ez dira." Is 5,4-8.

Ene erri, zer egin dautzut nik zuri? diño Jaunak. Zertan iraindu zaitut? Erantzun egidazu. Ejiptoko joputza etxetik, zergaitik atera zindudazan...

Jaunaren abotsa deardarka erriari: Osangugarria da zure izenari bildur izatea. Entzun leiñu ta uriko batzar orrek! Gaiztoaren etxean oraindiño aberastasun bidegabeak dagoz, negurri guzurrezko ta urriak.

Zuzentzat artuko ete ditut pisu zuzengabeak eta guzurrezko pisuetako zorroak...?

Gauz onen bidez, aberatsak zuzengabekerizko ondasunez asetu dira. Euren agoan min guzurtia dauke. Mikeas. 6,2-13.

Patiñetik ura sortzen danez, alantxe, sortzen da gaiztakeria andik; an, ez da indarkeria ta auzikeria ta auzi-bearra baiño entzuten.

Beti, nire aurrean zartadak eta zauriak. Izan be, txiki ta aundi, guztiak norberaren ona billatuten diardue eta igarle eta abadeak iruzur egiten.

Nire erriaren auste, -be jota egotea,- arin osatu nai dabe... Bakea, bakea esanez, baiña ez da bakerik. Jer. 6,7-14.

Jaungoikoak bizitza ta lan ardura orrek mundu larriari agertu dautsoz, benetan, justizia-zuzentasuna nai dabelako lan arloetan ta irabazietan. Ta emon bere, iñork emon ezin leikiozan erantzupen onek ardurearen menpean. Ta alan bere, ez Isrraelek aldi aretan eta ez gaurko munduak bere... ezin ditu ontzat artu irakatsi ongarrri onek, ta onen bitartez munduagazko ardurea ta onen eragillea.

JAUNGOKIKOAK USTIATZAILLE TA ODOL- XURGATZAILLEEI EZ DAUTSE ENTZUTEN...



Jaun areek Jaungoikoagaz, ondo, egozela uste eben. Otoi asko egin, Eleizara, sarri, joan ta opariak, ugari, eskeintzen zituelako, ereduzko gizon erlejosoak zirela uste eben. Baiña igarleak, Jaungoikoaren izenean, agirian, agertuta izten zituen.


Niri zer, diño Jaunak, zuen opari guzurtiak gaitik? Igoindu egiten nabe, zuen emaitzak ez jataz atsegin. Nire aurrean agertzen zarenean, ¿eleizaren lotsagarri, era ortako emaitzak ekarteko, nork agintzen dautzue? Gauz ez diran emaitzak ekarten, ez egizue jarraitu... Zuen jai aundiak gorrotogarri jataz. Barruan gaiztakeria daroan jairik ezin dot, geiago, jasan. Zuen ibilaldiak iguingarri jakoz nire arimari; gorroto ditut. Aspaldian aspertuta nauke.



Garbitu. Garbiagotu zaiteze. Kendu nire aurretik zuen egitada gaiztoak. Jainko-ízunaren abade batek, agintari nagusiaren aurrean, Amos, era onetan, salatzen dau: "Amosek Isrraelgo erriaren aurrean, zure aurkako burruka sortu dau." Lurrak ezin ditu iruntzi aren berba guztiak. Am.7,10. Au da, politika edo erriketa giroan sartzen dala-ta, salatzen dabe. Ta ori daala-ta, lurralde artatik bota egiten dabe. Am.7,12. Orduan, Amasiasek Amosi auxe esan eutsan: "Zoaz, ikusle; iges egizu Judako lurraldera; jan egizu, an, zure ogia eta egizuz, an, iragarriak."


Aundikeriak, sarritan, ez dau nai egirik, arrokeria nastekerietan dabil, nundik nora, bere maltzurkeriak, aurrera, atera ederraren itxuraz. Erriaren alde egiten dan lan ona, sarritan, era orretan ordaintzen da.


Jaungoikoaren izenean berba egiten deusenean, erriaren aurka, azpi jokoan, dabillentzat artzen dabe ta euren artetik botateko alegin guztiak egiten ditue. Urte asko geroago, Jesus berberagaz, bardin, egin eben.














































BEARTSUAN USTIATZEA -EXPLOTAR-; alkartasunaren AURKAKO SALDUKERI OKERRENA DA

Amosen bidetik joan ziren beste igarle guztiak.

Esku artean darabilguzan gai onek zerbait aztertuko ditugu. Ain egokiak diranez, euren argiaz argi egiten dabe.

"Jauna bere erriko buruen aurka, auzitan, jarriko da. Nire lurrak jan ditue ba. Beartsuei ostutako gauzaz, zuen etxeak beterik dagoz. Nire erria zapaltzen dozue ta beartsuek jo ta jo zabiltzez. Is.3,14715.

Len zintzo ta zuzena izan dan ema, zelan ondatu ta galdu da emagaldu baten antzera. Len, zuzena zana, orain, iltzailleen etxe biurtu da.

Itzi egizue gaiztakeria. Ikasi on egiten. Billatu zuzentasuna. Emon bereak zapalduari. Zuzena izan umezurtzagaz. Jarri, auzian alargunaren alde. Guzti au egin ondoren, zatoze, ta orduan bai, alkar, ondo, artuko dogu. Naita zure obenak ikatza langoak izan, edurra lez zuri geratuko litzakez. Is. 1.11-18.

Jende arek, arriturik, Jaungoikoari galdetzen dautse...

Barau, zergaitik egiten dogu, jaramonik ez dozu egiten da? Guk gure buruak beeratu ta zu konturatu be ez...?

JAUNGOIKOAREN ERANTZUNA

Begira, barau egiten dozen egunean, zeuen irabazia billatzen dozue ta zeuen serbitzariak estutu egiten dozuez...

Au da nik nai dodan baraua diño Jaunak:
bidegabeko kateaik eten, ezkontza zapalkorrak ausi,
menpean dagozenak askatu, bustarri guztiak kendu,
gose danari zure ogitik emon; beartsu aterpe-gabekoak
zeure etxean artu, billotsik dagozenak jantzi,
zure anaiari ez-ikusirik ez egin, abegi onez artu.

Orduan egunsentia lez egingo dozu argi,
berealaxe etorriko jatzu osasunbidea.

Orduan, dei egingo dautsazu Jaunari ta erantzun egingo dautzu
zuk dei egin eta "emen nago" esango dautzu.

Buztarri, zigor-kifiu ta irain itzak
zugandik, urrin, jaurti dagizuzanean,
gose danari zeure ogia zatitu,
eta beartsuaren urdailla ase dagizunean,
zure argiak, illunetan, argi egingo dau. Is.58,3-10.

Entzun Isrrael, erriko printzeak eta buru-zagiak: Zuei ez al dagokizue, zuzentasuna zer dan ikastea? Alan be, ondo, gorroto txarra dozue. Erriari narrua kentzen dautse ta azur gaiñeko aragia urratuta izten dautse. Nire erriaren aragia jaten dabe. Ta azala erauzi, kendu egiten dautse. Azurrek apurtzen dautsez ta lapikoan sartzen dan aragiaren antzera satitzen.

Au egin ondoren, Jaungoikoarengana datoz otoi egiten. Baiña Jaungoikoak ez dautsela jaramonik egingo, ziur, jakiñean egon beitez. Mik.3,2-4.

Mikeas igarleak, era onetan, itz egiten eutsen Isrraelgo erriari. Jaungoikoak bere erri aukeratua gaiztakeritik itzartu ta zurtutea nai eban, bere ondamena ikusirik, baiña gizona, beti, berekoi ta ezin onerako esnatu.

Jende aren arpegi bikoiztasunak igarleei barrua, sakon, mindu eutsen. Jendea, erri aukeratua zala-ta, eleizkizunak egiten zituala-ta, geiagoko barik, pozik eta lasai aurkitzen zan. Alkartasunerako deituak zirenak, ez zuzentasun argirik, ez anaitasun biderik billatuten, ez ziran, iñoz, aleginduten. Giza irudia, izan bere, sarri, izan da munduan larria.

Azalkerizko erlijio siniskera au, ezer ta iguingarrien jako Jaungoikoari. Alde batetik azal-itxurazko erlejio jokabidea, ta aren aurkako joera bestetik, era ontako arpegi biko jokabide maltzurrik, Jaungoikoak ezin dau ez ikusi ta ez onartu. Jaungoikoak ba, bereganako maitasuna ta gizonenganako maitasuna, beti, bat egiñik ikusten ditu.

Aldi artako Jaungoikoaren errenkurea, gaurko aldi ontan be, Jaungoikoaren errenkurea izaten darrai: "Erri au, aoz, urreratzen jat ta ezpanezt gurtzen nau. Baiña bere biotza nigandik oso urrin dago" Is.29,13.

ONDAMENDIAREN ZIOAK

Babilonian atzerriratuta egon zirenak, ango egonaren egonez, konturatu ziren, an, zergaitik aurkitzen ziren. Euren asmo galgarrien bidez, edu artara zergaitik eldu ziren.

Baruk igarleak galdera bardiña egiten eban: "Israael, zein da zu atzerrian zaukazan zioa? Jakituriaren iturria, bertan bera, itzi barik, Jaungoikoaren bidetik ibili ba-ziñe, ziur, bake iraunkorrean biziko ziñan.

Jakitura, non, dagon; sendotasuna, non, dagon; adimena, non, dagon ikasi egizu; bizitza luzea, non, dagon jakin dagizun. Baruk 3.10-14.

Jaungoikoak bere erriaren ondamendiari buruz, Jeremiasen aoz azalpen bat emon dau: "Nire erriak ostera, bere aintza, ezetarako ez danaren ordezt aldatu dau...

Arritu zaiteze zeruok onetaz! Ikaratu ta izutu zaiteze! ¡Jaungoikoaren goi berbea! Izan be, dongakeri bi egin ditu nire erriak: ni, ur biziaren iturria nazan au, bertan bera, itzi ninduan eta urtegiak, urik euki ezin daikeen urtegi arrakalatua egin zituen...

Eta nundik nora datorkien guzti ori, Jaungoikoa, bertan bera, iztetik baiño...? Ikusi ta ikasi egizu, txarra ta garratza dala zure Jainko Jauna, bertan bera, itzi ta Ari lotsarik ez izatea. Jr.2.11-19.

Emen, argi, agertu dira Israaelen ondamendiaren zio biak: Jaungoikoa baztertzea ta euren salbamen urtea jartea.

ARAGIZKO BIZIAREN ESKEINTZA

Atzerriko bizitza gogorra da. Ondamendira zerk eroan zituan konturatu ziran. Ur bizien iturria, bertan bera, itzi eben. Egizko Jaungoikoaren sinismena galdu egin eben. Euren aundi ustezko erlejiotasuna utsik egoan, norberekeriak atsipetuta. Ta onako jokabidetatik, berez, datorren lez, anaitasuna galdu ta pikutara joan zan.

Gora-bera onen artean, berez berez, etsi ta biozkatuta geratzen ziran. "Baiña Jaungoikoak bere erria, barriro, poztu egiten dau eta batzuekin ez da artuten. Is 49,13. "Jaungoikoa eurekin astu ta bertan bera, itzi zituela uste eben. "Is.49,14. Baiña olan ez da. "Ama batek bularreko umea astu ete lei, bere erraiteko semeaz errukitu barik? diño Jaunak... Ama astuten ha da be, ni zugaz ez naz astuko. Begira, xixelagaz encgan markauta zaroada." Is.49,15-16.

Atzerrian Jaungoikoa bere erriagaz dago. Ezin itzi ta eurekin batera joanda. Ta arrokeri ta norberekericitatik osaturik, anaitasunezko erria, barriro, eurekin sortuko dabela, berbea emon dautse.

Baiña orain, bidea ezbarðiña izango da. Lege onak eta asmo onak eukitea, ez dala naikoa, Isrraeldarrak euren oar-ikasiak dakie. Legeak beteten ez dituenen aurka, zigor aundien semakuntza be ez da naikoa. Emen, egin bear dana da: gizona bera aldatu.

Lengo oar-ikasiak bearrezkoak ziran. Ejiptoren egitura zapaltzailleetatik urten bearra egoan ta Moisesen agintzalditik ibili. Baiña orain, oinkada bat geiago emoten doa. Gizonen biotzak aldatzea, bearrezkoa zan. Anaitasunezko gizartetik gizon barri batek urten bear dau berezko legea danez.

Ori dala-ta, atzerrian dagozen bitartean, eskeintza barri bat egiten deutse: Biotz jatorra emongo deutset ta arengan espiritu barri bat ixuriko dot; arrizko biotza kendu ta aragizko biotza emongo dautset, nire iegeei jarraitu ta nire aginduak bete dagiezan: neure erri izango dira ta Ni areen Jaungoiko. Ezk.11,19-20.

"Begira, egunak ba-datoz, diño Jaunak, eta Isrraelgo etxeagaz ta Judako etxcagaz atkartasun barri bat egingo dot, Ejiptotik aterateko, eskutik artu zituanean, areen gurasoekin egin neban Alkartasuna lakoa ez; orduan, ausi egin eben nire Alkartasuna. Ni areen Jauna nintzanarren, diño Jaunak. Auxe izango da Isrraelgo etxeagaz egingo dodan Alkartasuna, egun areen ondoren, diño Jaunak: Nire legea barruan sartuko dautset eta biotzean ezarri: Neu izango naz areen Jainko eta areek neurre erri.: Jr.1,31.

Ezekielenean, jcremiasenean ta Pozkarioen liburuan, sarri, aurkitzen ditugu agintza onek. Is.

ASKATZAILLE BARRIARI ITXAROTEN

Aldia, noz, elduko ete da? Uts egite asko izan dira, baiña Jaungoikoaren eskeintza barri onek Moises barri baten etorreran, itxaropena sortzen dau Israeldarren biotzetan. Arrizko biotza aragizko biurtzean, atdatuko dautsen Askatzaille barria izango da.

Askatzaille barri au zelakoa izango ete da?

Mesias, ain leiatsu, itxaroa; zelakoa izango dan, igarleak, geldi galdika, agertzen doaz.

Askatzaille barria Dabiden jatorrikoa izango da. 2.Samuel.7.11-15. Ta aren antzera Belenen jaioko da. Mk.5,1.

Izen ezbarदिनाक deituko dautsez: Isaiasek diño: Jaungoiko berberak adiskidetasunezko ezaugarri bat emongo dautzue: "Neskatiñ batek sortu ta semea izango dau. Ta Emanuel izena jarriko dautsazue." Au da, Jaungoikoa gurekin. Is.7,14.

Jeremiasek ostera, Mesias deituko dautso: "Jaungoikoa gure zuzentasuna." Jr.23.6. Kristoren bizitzaren laburpen bat lez dira izen bi onek: Jaungoikoa gurekin ta gure zuzentasuna.

Gabriet aingeruak ume onen jaiotza iragarkeran, Jesus deituko dautso. Lk.1.31. ta Gaizkillea esan nai dau. Jaungoikoa gurekin, gure zuzentasuna, gure Gaizkatzaillea da. Guztiak gauz bera esan nai dabe.

"Illunpean ebillen erriak, argi aundi bat ikusi dau: eriotz gerizpean bizi zirenak, ditzira batek argitu ditu... Geitu egin dautsazue poza, aunditu alaitasuna... Ume bat jaio jaku-ta, seme bat emon jaku, aginpidea sorbaldan daroa eta aren izena Onularia, Trebea, Jaungoiko indartsua, Aita Betikoa, Bake Erregea izango da. Aundi da aren aginpidea eta bakeak ez dau azkenik izango Dabiden aulkian eta aren erreñuan. Zintzotasunez ta zuzentasunez sendotu ta indartuko dau Erreñua." Is.9,6. ta 11,19.

Beartsuen aldezea izango da Moisesen agindua: Auspeztu daitezela errege guztiak aren aurrean eta otseindu dagiela erri guztiak; deadarka ziarduan beartsua, berak aterako dau onik eta, baita laguntzaillerik ez daukan errukarria be; bera izango jako erruki beartsu ta eskekoari, berak zainduko dau beartsuen bizi, berak aterako ditu indarkerietatik areen biziak, areen odola areen aurrean baliotsua izango da. Salm.71,12-14.

Jaunaren Otseña, Mesias zelakoa izango dan, obeto, agertzen da... Is,42,1-7; 49,1-13; 50,4,9; 52,13-53,12.

Ona emen, nik eusten deutsadan nire morroia, gogoko jatan aukeratua. Onen gain ipiñiko dot nire Espiritua eta berak emongo deutse legea erriei. Ez dau deadarrik egingo, ez dau itz latzik esango, ez dau bere berbotsik

plazetan jasoko; ez dau kaiñabera brintzaturik ausiko, ezta kea darion argizaririk be amatauko.

Zintzo zintzo, azalduko dau legea lurrean ezarri arte, nekatu ta aspertu bagerik, ta ugarteak Aren irakaspenaren zai dagoz. Olantxe, egin eta zabaldu zituanak, lurra ta ango frutuak eratzen dituanak, lurrean bizi diranei arnasa, ta an dabiitzanei bitizza arnasa emoten deutesnak...

"Nik Jaun onek, zuzenbidez dei egin ta eskutik oratu deutzut. Neuk oratu ta nire erriarentzat alkartasun izateko, ta atzerritarren argitzat jarri zaitut, itsuen begiak edegiteko, lotuak giltzapetik askatzeko ta illunpean dagozenak, leza sakonetik aterateko."

Aurrerago beste irakatsi bardin bat agertzen da:

"Jainko Jaunaren Espiritua dago niregan, jaunak igurtzi nau-ta: jausie barri ona iragartera, biotz minduak osatzera, lotuei ta giltzapean dagozanei askatasuna iragartera bialdu nau. Jaunagandiko erospen urtea ta gure jaun-goikoaren asperkunde eguna iragartera... Is.61,1-2.

Jesusek urte asko geroago, berba onek berari zuzenduta dagozela esango dau. Lk,4,18-19.

Askatasun au txirotasun bidetik joango da. Askatzailleak artzain itxura izango dau. Is. 34, 23-31. Zak.9,9.

Ez dauka itxurarik, ez soin-patxadarik... ez dauka ezer gure begien daigarririk. Gizonak iguingarritzat bota ta baztertuta dirudi. Miñez beteriko gizona, nekea zer dan dakiana... Ori bai... Baztertuta ta aintzakotzat artzen ez dana. Is. 53,2-3.

Onek adierazten dabenez, Kristo beartsu bezela agertuko da; beartsuen ezbearrak eroatea zer dan dakiana. Errege aundi, aginpide ta indarrean, Israeiek ez dau bere itxaropenik izango. "Asto gaiñean jarri zan Jesus, beartsu bat lez eukiko dabe" Zk.9,9.

Baiña oindiño geiago dago. Moises beartsu onek gure gaiso aidiak berc gain artu ta gure nekeak be leporatu zituan... gure pekatuak gaitik izan da aiderik alde zulatua. Aren gaiñean jausi zan, guri bakea emoten deuskun zigorra; aren zaurik osatu gaitue.

Gu guztiok ardiak lez, bidea galduta ibili giñan; bakoitza bere bidetik joan zan eta Jaunak aren gaiñean jarri zituan gu guztion dongakeriak. Ardia arategira bezela, eriotzara croan eben. Bere erriaren pekatuak gaitik erioztara croan eben. Is.53,4-8.

Au da Israeli aginduriko Mesias. Igarleak, geldi geldika, aren irudia agertzen joan ziran. Bere aldia eldukeran, arek erriaren biotza aldatuko dau, Jaungoikoak nai daben antzera, anai legez bizi izateko duin izan daitezen.

ISRRAELEN ONDARRAK

Mesias beartsu ta minduari buruzko iragarkizunak, guztiak ez zituan ulertu. Jesusen etorreran ikusten danez, jakintsu ta indartsuak beste zerbait itxaroten eben. Norberekerizaleak ta arroak igarlearen berba onek, iñoiz, ez zituen ulertu.

Biotzak aldatu ta anaitasunezko erreñu barri bat sortzen datorren Mesias dala, aldra txiki batek, bakarrik, sinistu al izango dau.

Ta Isrrael aldra au, gudako ondamendi ostean, bizirik geratu zirenekin, osotu da. Babiloniako menpeko edo atxilotuekin. Ez.12,16. Atzerri aldiko ustarpean edo zapaltzen aldian danak etziran leialak izan. Zigorra onartu ta Jaungoikoa ezaguzen ikasi ebenak Isrraelgo "ondarra" eratu ta osotu eben... Ezk. 6,8é10.

Atxilotu edo etsaipekoak, berrogetamar urteren ondoren, askatuak izan ziran. Baiña Jaungoikoaren agindua itxaroten ebenak, bakarrik, Isrrael, euren aberrira, biurtu ziran. Ta an, ondapena, lertzea ta zoritxarra, bakarrik, aurkitu zituen. Elburu ta sinismen bageko atzerritarren eskuetan dagoz, areen antxiñako lurraldeak. Anaitasunezko bizitza, zail, egiten da. Jende beartsu aldra txiki batek, bakarrik, Jaungoikoaren agintzariak sinisten jarraitzen dau.

Aldra txikiari dagokion erako izakera ta pentsakera sortzen doa Jesus, etorri aurreko azkenengo gizaldietan. "Jaunaren beartsuak" dira, anavindarra, au da, edozein eratako miseripean dagozenak, ta euren ustea Jaungoikoan daukenak, ta arengandik askatasuna itxaroten dabenak. Erlejiotzko jokabide onen adibideak salmo edo abestietan daukaguz. 9.11,21; 23:36: 61:71:73 ta 145 ena. Zapaldu guztiak indarra, antxe, aurkituko dabe.

Jarraibide ontakoak asko ziran. Jende zintzoa, txarkeri gabekoa ta langille apalak. Itun Zarrak euretzaz barbarik egiten ez daben jende ixilla.

Egikera ontako eredu ederrak dira Ana ta Samuelen ama. Amos, Sofonías, Jeremías, Job, ta ainbeste ezezagun Kristoren aldira artean.

Ta azkenengo aldetan, igiera ontakoak dira Isabel ta aren senar Zakarías, euren seme Jaun Bateatzaillea, Simeon ta Ana, Belengo artzaiñak ta batez bere, Maria ta Jose. Luk,1,2.

"Jaungoikoaren beartsuen" igiera onek Moisesen etorrera aldia gertuten dau. Lagun onetan Sofoniasen iragarkizuna betetuten da: "Egun aretan, ez dozu lotsarik izango, egin zeustazan egitadeak gaitik. Izan be, kendu egingo ditut zure barrutik zure ezpada arroak eta ez zara, barriro, arrotuko nire mendi santuan. Zure barruan erri apala ta beartsua itziko dot ta bere ustea jaunaren izenean jarriko dau. Isrraelgo ondarrak ez dabe gaiztakeririk egingo, ez guzurrik esango, areen agotan ez da miin maltzurrik izango; lanean jateko ta atseeden artzeko aukerea izango dabe eta ez ditu iñork izutuko.

Mesias agindua, etorriko dala esana, heregan ustea daukan erri beartsu ta apalean jaioko da. Ango jendea legez, bera be zintzo ta apala izango da. Zk.9,9 zapaldu bat geiago. Is.53,4. Zapalduak azkatzera bialdua. Is.61,1.

Kristok erri aren sustraitik dakar bizitza: "Judaren etxean geratu daiten gaiñerakoak, heetik sustarrak botako ditu eta goian frutua ekarriko dau."

Orduan, beartsuen pozak gaiñezka egingo dau, Jauna euren, erdi erdian, egongo da-ta. Sf. 3,14-20.

Kristoren etorreran, a izango da zoramenaren zoramena. ; ¡Andra Mariak, Belengo artzaiñak ta Kristoren maitasunezko Barri ona artzen daben bo rondate onekoak gozartuko dabena.!!

LAUGARREN ZATIA KRISTOGAN ANAI-ARREBA

Maria, Nazaret, erri txiki bateko alabea zan. isrraelgo azkatasuna, ixillean, itxaroten eban. "Jaunaren beartsuen" aldrea aretakoa, ain zuzen bere. Itun Zar guztia beartsuen gertakizun aldia izan zan, jaungoikoari arrera bidezko bat egiteko. Itxuraz, txikia zan neskatilla orregan hetetuko zan, luzaroan, antxiñatik itxaroten zana.

Ixiltean, iñork ez ekiata, Jaungoikoak, bere ama izateko baimena eskatzen deutso. Mairak, liburu santuak, ondo, ezagutzen zituan, ta beriala konturatu zan, antxiñatik itxaroten zan Mesiasen ama izan bear ebal. Luk. 1,28-37. Ta pobre ta zintzo legez, zerutar eskabidea, apalki, onartu eban: "Jaunaren mirabe utsa naz, egin bedi nigan zure borondatea." Luk.

Egunak geroago, "beartsuen abestian" Luk. 1,46-55, auxe agertzen da. Jaunaren beartzuen gogozaletasuna ezagutu eta gogo aregaz bizi zala, agertzen dau. Jaungoikoak antxiña, ainbeste bider erriari egindako agintzariak betetu dira, ta ori dala-ta, pozezko abestiak darioz. Ejipton lez, Jaungoikoak, orain be," bere beso indarra erabili eban ta arroen asmoak deuseztu zituanr Indartsuak beratu zituan ta apalak goratu. Gose zirenak asetu zituan ta aberatsak esku utsez itzi." Luk. 1,51-53.

Moisesen aginpideari buruz berba egiten ebal ziruadian, erri autatuan, anaian bardintasuna lortzeko. Aren "beartsuen abestian" gizarteko ezbardintasunak bardintzeko gogo agertzen da, anai legez bizi al izateko.

Mariaren senide zan Zakarias ta onen seme zan Jon Bateatzaillea, emakumeengandik jaitakoen artean gizonik aundiena, Jesusen etorrerako harriekin, asko, poztuten zan. Ta berak Espiritu Santuz beterik, iragarri eban aurretiaz esanez: Bedeinkatua Isrraelen Jaungoiko Jauna, bere erria ikusi ta erosi dabelako; bere morroi Dahiden etxean osasun indar bat sortu deusku, aspalditik bere igarle santuen agoz agindu izan eban; gure arerio ta gorrotatzaille guztiakandik onik aterako ginduzela; gure gurasoak erruki izanik eta bere alkartasun santua gogoraturik, baita gure aita Abraani zin berbaz egin eutsan agintzari au he beteko euskula: gure arerioen eskuetatik askatuta, bera otseinduko genduala bildur bagarik, santutasun eta zuzentasunez, bere aurrean, gure egun guztietan... Eta zuri, umetxo orri, izena Jaungoikoaren igarle emongo deutzue; Jaunaren aurretik joango zara ta Aren bideak atontzeko, curen pekatuen parkamen bidez, gure Jaungoikoaren errukizko erraiei eskerrak, goitik egingo deusku ikustaldi bat Argi batek: illunetan ta eriotz-gerizpetan jezarrita dagozanei argi egiteko ta gure oinkadak bakearen bidetik zuzentzeko. "Luk.1,67-79.

Zakariasek diñoanez, Jaungoikoa antxiñako aginduak betetera dator. Salbatzaille indartsu bat emoten deusku, etsaien eskuetatik askatuta, bildu-

rr k barik, santutasunez ta zuzentasunez, gure egun guztietan otseindu daigun." Luk.1,74-75.

Mesiasen etorrera goi-goietako izketaldi baten antzerakoa da: Bakezko bidetik gure oiñak ibili daitezten, illunaldi ta eriotz itzalpean bizi direnei, argi egiten datorren, eguzki barria da." Luk.1,77-79.

GIZAKUNDEA: JAUNGOIKOA GURETARIKO BAT EGINDA AGERTZEN DA

Jaungoika gizondu zan ta gure artean bizi izan zan. Jn.1,14. Jesus, andikiro, bere Jaungoikotasunean ez zan agertu. "Bera zan guztia estaldu egin eban ta txiki cgin zan. Jopu egin zan, guztian gure antzeko bihurturik, guretariko bat ba-litz legez." Fil.2,6-7.

Kristok, argi ta garbi, bere anaien antzekoa izatea nai izan cbanr Eber. 2,17.

Gure begiak, sarri, lurrean sartuta dagozan ezkerro, Jesusen munduan sartzeko era au ulertzea, gauza zailla da. Bere aldiko ta geroko aldietako lur-zalekeri ta aundikeriak ez dabe ulertu.

Gizadia bere barruan zaurituta egoan; norberekieretan. Mesias giza-makaltasun aundienera makurtu zan. Beartsu izatea, jazarpena ta eriotz gogorra zer diran, iñork baiño obeto dakiz. Ta era orretan, bere neke, *eroapen* ta samintasunetan oiñarriturik, gizona barriztu nai dau ta Jainko bizitza berbera emon. Au da, ain zuzen bere, Jaungoikoak autaturiko bidea, gure arri biotza anai biotzean aldatu nai izatea.

"Israelgo beartsuak" itxaroten ebenez, Jesus euretariko biurtzea da, euren neke ta ezbearretan partekide egifiik.

Aberats izanik, txiro gugaitik egin zan, bere txirotasunaz gu aberastuteko. 11 Kor.8,9. Anaien txirotasunean partekide izateak, Jesusek munduari emon nai deutson zoriontasunean indar aundia dauko.

Txiro izan ta danak miserira erastea, emen, ez da esan nai. Oroz goitik, danen elkartasun maitasuna billatzea da, emengo arloa; guztiok bata-besteari lagunduz ta era berezian beartsuei on egifnez, lurrean gizarte egokiago bat sortzeko Egillearen guraria dan legez.

Ta anaitasunezko maitasuna, aurrera, ba-doa, gaiñcrako guztia, berez berez, etorriko da.

Beartsuekin arduratu ta bizitza, zuzentasunez, aurrera, eroanez, lurreko bizia, aurrera, atera hear da.

Mesias bere erriaren ezhearretan sartzen da. Alkartasun amets bat, bakarrik, ete da? Ez... Bere ondoren gizadi barri bat sortu nai dau. Beartsuen neke, min ta oivak dei egiten dabe zeruetan, guztion Aitaren aurrean, ta Aitak ezin dau scmerik, gal-zorian, ikusi lurrean. Anaitasun geiago nai dau gizarteko bere seme-alaben artean.

Jesus azkenengo miserian jaio zan txabola uts eta zar batean, aska bat izan zan bere egon-lekua, "ostatuan arentzat lekuri ez egon ta. Lk, 2,7. Gizonen norbekeria zala-ta, jaiotzan bertan, bere aragian, pobrea baztertuta ikusi eban.

Jesusen sendia langille sendia zan. Jesusek bere eskuetan, laster, ezagutu eban lanaren gogortasuna. Baserriko arotz lanean, edozertara ikasi dau lanean, silta nai mai egiten, baserri aTeak nai teillatu konpontzen, baita ur pozuek egiten. Arotz baserritar bateri lanak eskatzen eutson guztia egin hear ehan tresna barriak egiten nai etxe zarrak konpontzen. Mt. 13,55. Mark. 6,3. Edozertarako gertu egoan sendi nai erriaren otseintzarako.

Baserritar batek Kristoren eskuak ikusi nai ba-ditu, bere eskuetara begiratu bei. Lan, izerdiz, euriz ta eguzkiz, ondo, makurtuta daukez. Aren etxea, gure haseritarren lengo etxe zarreen antzekoa zan. Ta aren jantzia, adabazaiñez josita egoan gure baserritarren antzera.

Baserritar batek Jesusen ama ezagutu nai ha-dau, beren amari begiratu begio ta an, ikusiko dau Mairaren irudiar Bakez egindako lanaren apaltasun ezaugarria, begi arpegi ta soin guztiak agertuko dan.

Jesusen bizitza ta nekeak ezagutu nai ba-ditugu, geuk bere aren antzera jokatu bear dogu lanean. Jesus uri aundiko lanetan ez zan ibili, erri txiki bateko arazoetan baiño. Ta ezagutzeko, gure baserritarren lepoko min, neke ta atsekabeak artu bear ditugu. Egunsentian ezer barik aurkitzea zer zan ba-ekian, ta lanera joan bear zan. Ta orrez gaiñera, goseak dardara eragingo eutson gaurko edozein gizoneri legez.

Baiña Jesusegan lanak beste zentzun sakon ta eder bat bere izan eban. Bere bizikeraz ta jakituriz guri argi egitera etorri zan. Bere gogo guztiaz lan egin ta eriotza artu eban ta zoragarrizko berbiztueraz, nor zan markatuta itzi eban gure-siñisgarritzat.

Jesusek baserria maite eban, baiña baserritarrak geiago... Jesusek lana maite eban, baiña langilleak geiago... Egizko amets bat eukan barruan, bere biziagaz bizia emon gizadi guztiari.

OGETAMAR URTEREN INGURUAN BARRI ONA ZABALTZEN ASI ZAN

Emen datoz lurreko -min ta arazo barriak. Ikasi gabeko ez-jakintzat dauke. Ta ez goikoak ta ez bekoak, ez aundikiak ta ez beartsuak ez dautse jaramonik egiten. Mt. 13,54-55. Destañez, gitxi eritxiz, albo batera botaten dabe... langille seme bat dala esanez. Jon.6,42. Baserritar batek bere kontura oldoztu, ausnartu eta ezer egin bear leukenik, ez dabe uste... Baiña Jesus ez zan ori bakarrik, zeru ta lurreen jakituri guztia beregan eukan Egillea zan, gizon izatearen itxureagaz, ondo, estalduta. Berez, dana zan apala.

Jesus ba-dabil erri batetik bestera, lotarako burua, nun, ezarri *ez* daukala. Lk. 9,58. Bideetako jaon-etorrietan, ondo, asmau zituan nekea ta egarria. Jon.4.6-7. Ta erriaren goseak ardura aundia emon eutson Mt. 15,33. Aberrriaren etorkizuna illun ikusten eban. Lk.19,41. Jerusalemenera urreratu zanean, onan, berba egin eban. "Zuk be ezagutu ba-zengi, egun onetan, bakerako deia! BAIña zure begientzat estalduta dago."

Ta bizkatzaren azkenean, danak baztertzen dabe aundikiak, agintariak ta erriak. Iñork ezin eban ulertu Jesusen bizitza, ta alderdi guztietatik etorkiozan iraiñak, espetxea, baztertuta iztea, epaia ta eriotza gaizkillerik aundiena bai-litzan antzera. "Berak artu zituan gure ondezak ta gure gaisoak eroan." Mt.8.17. Benetan giza aultasunera menperatua izan zan...

Beratu egin zan, guztiok batera, gora igon izan al daigun. Aurrerantzian, au izango da askatasunaren kristau bidea; lana ta apaltasuna, batera, joan bear dabe mundua askatzen; ez aundikeriak ta ez iñungo norberekeri ta arrokeriak ez dabe gizonaren ta errien bizia askatuko...

ANAITASUNAREN AURKAKO ITZALDIAK

Apostolutza lana sortzera dna Jesus. Baiña gizon onen alkartasuna sortu aurretik, ondo, asmatuko eban bere eginbearra zelan lortu eikean beste edozein giza-semek egin oi daben antzera. Lana aundia zan ta buru-austeak be, alan, izan bear eben.

Ebanjelioak ezpai onek diabruaren ziltzaidi legez agertzen ditu. Au izan bere, beti, dabii zur ta etsaikor, nundik nora, gizonaren bide zuzenak ondatuko. Bere arlo berezia, izan bere, orixe da, al dala, giza bizia ondatzea. Eginbearraren zertzeladak ezagutzea, bidezkoa da ba, bestelan, iñoiz ez giñake bear dan eiburura elduko. Guztiok mundu zuzen bat egin nai dogu, baiña gure ardurea da, zuzentasunezko bidea aukeratu ta elburu on batera eltzea.

Bera on egin nairik ta etsaiak aurka ikusirik, sarri, izan eikean arazoa, bertan bera, izteko gogoa... "Arri oni esan egiozu, ogi biurtu daitela..." Satanasek esan eutsan. Lk. 4,3. Beartsu izenaz, zer irabazten eban? Ainbeste neke zergaitik igaro...? Zergaitik bizi izan bearti, lurak ainbeste ondasun bere babesean, gorderik, eukazalarik...? Lana, obeto, banatzea bear zan, bizitza egokiago bat gizartean gozartuteko.

Orrez goitik, bizitza beartsu ta zapaldua ez etorren, ondo, Jesusen zuzentasunezko asmoen ondoan. jesusek gizona ezin eban ikusi zapalduta, ta ori dala-ta, gizadia askatasunera daroan jakituria zabaltzen, arduratsu, ebillan. Baiña Isrraeldar aberats ta buru-zagiak Jesusen aurka, gogotsu, ebiltzezan euren asmo gaiztoak lotsatuta izten zituelako.

Arrezkero, Jesusek bere ikasleei, argi ta garbi, esan eutsen: "Lege batzarreko abadeburu ta idazlarien aldetik, asko, jasan bearko ebala, ta baita eriotza be." Pedro ez egoan alderdi orretatik,... Jesus, zuri olakorik ez jatzu jazoko esan eutsanean." Baiña Jesusek dana jasan eban gizadiaren askatasuna gaitik.

Era orretan berba egitea, ziltzaldia zala, Jesusek, argi, ikusi eban. "Alde zakidaz emendik Satanaz ori.!! Niretzat eragozpide zara, zure burutapenak ez dira Jaungoikoaren hurutapenak, gizonenak hablo." Mt. 16,22. Gizona ez da ogi utsez bizi.

Aginpidearen ziltzaldia asmatu eban. Iñoz, bere zuzentasunezko lanbidean oker edo uts eginda ete ebillen uste izan eban, ta beste indar-bide egokiago bat artzea, obeto, izango ete zan...

Deabruaren asmoetara makurtuten ba-zan, munduko elpideak aren eskuetan egongo ziran. "Erreiñu guzti onen al-izate ta aintza emongo deutzudaz, makurtu ta gurtzen ba-nozu."

Baiña Jesusek jardunaldi aren inguruan Satanaz ebillela, argi, ikusirik, indartsuen iruzurretan ez zan jausi. Gaiztasunak gaiztasun ez zan makurtu ta munduko aundikeririk ez eban gurtu... Munduko gizonen zalekerietatik at, bere burua, beti, zaindu eban.

"Zure Jaun eta Jaungoikoa gurtuko dozu ta Bera bakarrik otscinduko dozu." Lk. 4,8. Anaitasunaren oiñarria Jaungoiko berbera bakarrik, izango da. Jauna, bera, bakarrik da. Mt.23,10. Erria bera be bide orretatik ebilkion, errege izendatu nairik. Jon.6,15. Politikkerizko maltzurkeriak, edonundik, agiri ziran.

Beartsu ta apaltasun bidetik ibiltea baiño, beste bideren bat ez ete zan ohea izango? Indarraren bidez gauza arrigarriak egitea ez ete zan egokiago izango...? Era onetan ez etc ariñago suspertuko Isrraeldar erritarrak...? Era onetan ez ete zan jesusen apostuladutza, ariñago, zabalduko...? Erriaren urra ta txaloak hillaturik, ez ete zan bide errezagoa izango...?

Ta baita bere, gauza aundia ez cte titzake, torrearen gaillurretik plaza zahal batera salto egin ta aingeruen eskuetan, bigunki, artzea? Jaungoikoaren aintzarik aundienerako izango ete litzateke...? Lk.4,9-11. Esakera guzti onek gizonaren pentsabideak ez ete dira izango? Ebanjelioaren irakatsitik begiraturik, alderdi orretatik doazela dirudi. Jesus pentsabide orren, oroz goitik, egoan. Bere egikizuna ta jokabidea, askoz. gorago egozan.

Senideak eurak be, errian, aundi ta garaille ikusi nai eben ta eukan indarraz baliatzeko eskatzen eutsen. Baiña jokabide onetan Satanasen eskua ikusten eban. Aundikeria, arrokeria ta garaitz bidea billatzea, Jaungoikoa kentzea zan, Jesusek guri irakatsi ohea emon nai izan euskun ta mendira joan zan Aitari otoi egitera. Lk.6,12. "Egun areitan, Jesus mendira joan zan otoi egitera eta gau osoa Jaungoikoari otoitz egiten igaron eban."

Jesusen eginbearra, mundua salbetea, ain zan eginbear aundi ta maitekorra, ze, Satanasek ez eban nai, iñundik iñora, aren almen ta asmoak, ondo, negurtu barik iztea... Bildurraren tentaldia be, bizi bizirik, jarri eutsen, aurrez aurre, kinka larri batean. Gure antzera, Jesus be makaldu egin nai izan eban, bere eginbearrak azkeneraiño betetu ez egizan. Azken ordu eraginkorrean "bildura ta samiña asmetan asi zan... Eriotz naigabea asmetan eban bere ariman... Aita, zuk dana egin zeinke; kendu egizu nigandik edontzi au. Mrk.14,33-36.

Otoiaren bidez berak bear eban indarra lortu eban, bildurra menperatu ta munduaren salbamena kurutzean lortzeko.

"Ziltzaldiak geuk legez danetik izan zituan" geugaz, obeto, alkar ulertzeko ta olan, munduaren auleri ta makaltasuna ezaguturik, gugaz errukitu zeiten." Ebert. 4,15. Jesus ta gure artean alde au egon zan: Jesusek ez eutsen, iñoiz, itzi, bera menperatzen.

Isrraeldarrak euren denporan izan zituen tentaldiak, danak, oso osoan, menperatu zituan. jesusen jokabide onek guri argi aundia emoten deusku, ta orrez gaiñera, beti, otska daukagu, ni zuekin nago, ez zaitzeze bildurtu; onaren bidean ez egizue atzerarik egin ta nigaz batera, errez, menperatuko dozue munduko arrokeria ta txarkeria.

EZBARDINTSUNAK LEUNDU

"Jaunaren aurretik joango zara, Aren bideak atontzera eta Aren erriari osasun-bidea erakusteko." Jaun Bateatzaillea zan giza-seme au, igarleen artean aundiarena. Lege Zar ta Jesusek zabalduko eban Alkartasun Barri Onaren lokarria zan. Alegiñez ebillen Israeldarrei iragarthen, munduak ezagutu ez daben jaiotza arrigarriena aditzen emonez. Mt. 3,2.

Jesus, era onetan, asi jaken bere errikideei esaten. "Jaunaren Espiritua nire gaiñean; orregaitik gantzutu egin nau. Beartsuei Barri Ona emotera bialdu nau. Giltzapetuei askatasuna eta itsuei ikusmena iragartera. eta Jaunaren errukizko urtea iragartera." Ondoren, liburua itxi ta onan asi jaken berbetan: "Gaur bete da, orain, entzun dozuen idatzitako au." Lk.4.18-21.

Ez da arritzekoa, inguru aretan. alako irakatsiak ez onartzea. Zelako amesetak egin ditu gizon onek edo zer uste dau. Zorotzat artu eben. Euren arteko gizon langille batek, zelan egin leikezan, an, entzuniko gauzak, ezin eben sinistu. Danak ekien ba, Jose arotzaren semea zala, ta langille batek alako egintzarik ezin egin eikeala. Lk. 4,22-29.

Olantxe dira munduko jazoerak be; jakitun batek itz egiten ba-dau, jendea ba-doa entzutera, baiña baserritar bat irakatsi nausiak emotera doalata, dei egiten ba-dozu, iñor ez doa ari entzutera. Baserritar bat beste ez-jakin bateri irakasten asten ba-da, gizon orrek zer irakatsi leike esan oi dogu.

Jesusek irakatsi nai eban jakituria beste ezer baiño obea zan, baiña, sarri, giza griñak onartu nai ez dabena. Egizko anaitasuna irakastea zan ta ortarako biderik onena zein zan gizadiareki agertzea.

Beartsuak nai legez ezingo dira bizi, zorionaren itxaropena nundik datorren ezagutu ta euren biotzean uste on ori gorde ezik. Kristogan oiñarritu ta munduko norberekerizko ta aundikerizko kateiak apurtu bear dira ta egizko zuzenbideak artu ta bide orretatik jarraitu bear da. Jaungoikoaren jakituria onartu ta norberaren bear izanei clagokien eran jokatuta, Egilleak sorturiko ondasunak banatzen diranean, egizko anaitasun berbetea alkarren artean erabiii al izango dogu; bestelan, aikar atzipetutea ta lorra izango dira gizartean.

Mendixkak bardindu hear diralaren irudia erabili eban Jesusek: Jesusek kateiak apurtu bear dira iñoan, ta bion irakatsia Isaiasen esanekin alkartuta egoan.

Jesus, Mesias jaungoikoaren sema dan ezaugrri bat da, beartsuei Eban-jelioaren Barri Ona iragarrikokakela. Benetan, pozgarriak dira Jesusek,Joanek beregana bialduriko gizonei emondako erantzun au: " Beartsuei Ebanjelioa iragarriko jake." Beartsuentzat emongo zan, lenengo, zorion barria Jesusen jaiotz ostean izan zan: "lenengo, zorion barria Jesusen jaiotz ostean izan zan:

"Ez bildurtu, erri guztiarentzat poz aundia izango dan barri bat dakartzuet eta gaur, Salbatzaillea jaio jatzue Dabiden urian." Lk.2,10-11.

Artzain arek, jauna gurtukeran, utsik egin ez egien, Mesiasen ezaugarri bat emon eutsen: Ume bat oialetan batuta eta askan etzunda aurkituko dozue." Lk.2.12.

Beartsuek Jesus ezagutuko eben ezaren bidez, txirotasunaren bidez. Aska baten, oialetan batuta aurkituko dabe zeru ta lurreen Egillea. Sinezgaitza, baiña ortxe, oiñarritu eban Jesusek Ebanjelioaren irakatsia. Beartsuen askatasun Barri On au Mesiasen ezaugarria da. Ta gaurko elcizaren ezaugarri be bardin, auxe izan bear dau: Siismena ez da arroena, aundizaleena eta ordi-zaleena.

Txiroa ezari ta bear izanari lotuta dago. Zer da beraz, beartsuaren askatasun zoria...! Kristok ze eratako goratasuna emon nai dautso beartsuari...?

Gure sinismen argiak erakusten deuskunez, gizonak era guztietako jopukeri ta zapaltzetatik askatzera etorri zan Jesus. Itz baten esanez: "gizonaren norberekerian sorrera dauken zuzengabekeria ta gorrotoa kentzen."

Edozein gaiztakeri, lokarri, itsukeri ta zapalketeiatik askatzera dator Jesus. Bere seme-albak ezin ditu ikusi norberekeri ta zuzengabekeriaren menpean.

Bere aldiko gizarte politik egiturak aldatzeko ardurarik izan ete eban?

Gizonen erri egitura ta jokabideekin Jesus ez zala arduratu, sarri, erabili da miñean munduanr Baiña au, iñundik iñora, ez da egia, ta gaiñera, erritar jende artean nasteak sortuz, kalte aundiak egin dautsez Jesusen arlo eder. mundu barritzeari.

Jesusen Barri Ona zintzoa ta zuzena zan. Ta Jaungoikoaren erreinua munduan, jarri al izateko, emen, dagozen gaiztakerizko ez-bardintasunak kendu gin bear direla diño:

"Beartsuen deadarka dagonaren abotsa:

Aiondu egizue Jaunaren bidea,
zuzendu aren bide-zigorak,
sakon guztiak beteak izango dira barriro,
mendi ta muño guztiak beratuak;
okertua zuzendua izango da,
eta bide latzak bide lau izango dira.
Eta gizaki guztiak ikusiko dabe,
Jaungoikoagandiko salbamena." Lk. 3,4-6.

Jesusek, "igarlerik aundienak," jasoera onek ez ditu, bertan bera, izten. "Bizia aldatu dirautse guztiei." Jokabidea aldatu dozuela, ikusteko eran,

agertu zaitezte." Jainko seme izena eroatea ez da naikoa, egizuez ba, damu frutu egokiak." Frutu onik emoten ez daben zugatza, ebagia ta sutara jaurtia izango da." Lk.3,8-9.

Gogaldiaren aldaketa zer da? Erantzuera... garbia da. "Biurtu" Bizitza aldatu bear da. Zapalketaren ordezt, garbi, esan da: alkartasunean bata bestea seindu egizue... San Juanek jarten ditun adibideak, guztiz, egokiak dira. "Eta Jonek arei: Soingaiñeko bi daukezenak, emon dagiola bat ez-daukanari; jatekorik daukanak, bardin, egin dagiala. Lk. 3.11. Au da, argi ta garbi, Jaungoikoak bere seme-alaben artean, lurrean, ikusi nai dabena.

Zergariari be irakatsi eutson ta maitasunezko itz au emoten dautso: "Ez iñori eskatu, agindu jatzuen negurritik gora." Lk. 3,12-13. Gudalburuei be, gogor, dirautse zer egin bear daben: "Ez egin iñori gogorkeririk, ez egin guzurrezko salakuntzarik eta zuen gudari sariaz naikoa izan." Lk. 3,14.

Mesias anaitasunezko erreñua sortzen dator lurrera. Ta ereñu orretan sartu al izateko, bizitza barriztu egin bear da. Jon Bateatzailleak, Moises ta Igarleen irakatsiak, ondo, ezagutzen zituan: gure arteko dirutsa goraberak, atde aundi orrek, lenengo, konpontzen ez ba-ditugu, anaitasunatzaz berbarik ezin egin giñaike: Mendi bizkarrak bardindu bear ditue Aita baten seme-atabak. Au egitan, bidezkoa da.

ZAPALDUEN ASKATZAILLEA

Guztiak Mesias itxaroten eben. Baiña, ze eratako Mesias ete zan itxaroten ebena? Jesusek ogetamar urte egin zituan baserri baten Jose ta Mariaren menpean. Olako esangille zintzo ta leial bat itxaroten ete eben Judarrak...?

Jesus langille lez ezagutzen eben inguruetakoko lagun guztiak, baiña bere nortasuna agertzen bere asi zan. Bein batean, Jai egunez, bere erriko eleizan Isaiasen iragarkizun batzuk irakasten jarri zan: Jarraiko esaldi au berari buruz dala diño:

Jaunaren Espiritua nire gaiñean;
orregaitik gantzutu egin nau.
Beartsuei Barri Ona emotera bialdu nau;
giltzapekoei askatasuna
eta itsuei ikusmena iragartera;
zapalduei askatasuna emotera
eta Jaunaren errukizko urtea iragartera.

Liburua biribilduta, arduradunari biurtu eutsan, eta jazarri egin zan. sinagogan begi guztiak Ari begira-begira egozen. Lk.4,18-21.

Jesusek nai ebana, personea, bakarrik, biurtzea ez zan. Jesusek aldatzea nai ebana zan personea osoan, bere nortasun, pentsabide ta egiteekin. Ta bidezkoa danez, persona guztiak, era orretan, aldatu ezkeru, gizarteak aldatu egin bear eban, ta orain, emen, sortzen dan ondoren eder bat au da: era orretan aldaturiko gizarteak, persona bakoitzari zuzentasun bidea egiten laguntzen deutso.

Gure Ebanjelioaren oiñarria karidadea da; gure barruak, berez, eskatzen deuskuna, baiña, gure gaiztakeria dala-ta, sarri, betetu nai ez doguna. Alan bere, Jesusek, goi-maitasunaren aurka egozan egiturak, ausi egin bear zituan. Berak bere eredu, olantxe, jokatu eban; orroz goitik agertu eban maitasuna.

Moises ta igarleetan egiturak aldatu bear ori, garbi, egoan ta Jesus, onek osotzera, etorri zan. jesusen erri entzuleak be, idazti deunak, ondo, ezagutzen zituan. Alan be, askok eta askok, Jesus politikolari bat, itxaroten eben. Norberekeridun politikolari bat, euren erara jokatu ebana, ta era berean, eurak, ondo, bizi izateko asmoa euken beste askoren kontura.

Erromatarrak kanpora botatea nai ebenak ba ziran; ez erria, obeto, zuzendu ta eroatearren, eurak nasaiago ta aberastasunez, obeto, bizitza-gaitik baiño. Ikusten danez, ez asmo ederra ta gitxiago zuzena, euren anaien odola xurgatuz bizi nai izatea. Jesus bere ikuspegi ederragaz erria goratu naian ebillan, baiña eskriba ta pareiseoak erri zapaltzailleak ziran.

Erromatarrak beartsuekin ez eben euki zer ikusi aundirik. Oitzen dan lez, erri bat zapaltzen dabena, aren odola xurgatzera doa. Iñoren izerdiz bere

gosea kendu ta al ba-da aberastu. eskriba ta pariseoak erromatarrekin izan zituen burruka aldietan, Jesus ez zan judegu orren alde jarri, euren jokabidea be ez zan erriaren aldekoa izan, areen izerdiagaz baliatzekoa baiño.

Israelgo Jainko aginpide edo Teokraziak jartzen zituan politik egitura **7analtzailleak**. Ta Jesus postura orren aurka, gogor, jarri zan. Erria menperatu ta zapaltzen eben egituren aldaketa, zuzen zuen, billatu eban ta gogoz aren alde jokatu bere bai. Ta bere aldiko zapaltzailleen aurkako burruka ori, aurrera, eroatea ta sakontzea lortutea, garrantzi aundikoa da. Jesusek burruka au, aurrera eroateko izan eban gogoa, bere jarraitzaille zintzoena be, bardin, izan bear dau.

Jesus, Israelgo erria ikusirik, aldi ari on egiteko erara jarri zan, gu orain, geure erri ta inguru ontara egokitu bear gara, Jesus gure eredú ta gidari dalarik. Mundu larri onek gogo barri bat bear dau; ikusten ditugun arrokerietatik ta entzuten diran lapurkerietatik, gizadi mindua atera bear da.

JAUNGOIKOAK BEARTSUEI SINISTEN EUTSEN

Testamentu edo Itun Zarrean Israelgo erria jopu edo zapalduen bidez osotuta egoan Babiloniako erri-aldian egon ziranean, jende beartsu ta apalekin osotua izan zan.

Jesusen lenengo jarraitzailleak Juan Bateatzaillearen adiskide batzuk izan ziran: Andres, Juan, Pedro, Felipe ta Bartolome. Bakotxak bere antzeko lagunak billatu oi zituan lez, Jesusek be antzeko beartsuak aukeratu zituan, lurak ezagutu daben egitekorik aundiena, aurrera, atara al izateko.

Jesusen jakituria artu ta egiteak ikusirik, laster, adiskidetasun batek alkartu zituan ta euren asmoa anaitasunezko mundu barri bat sortzea zan maitasunean oiñarriturik.

"Egun areetan Jesus mendira joan zan otoi egitera, eta gau osoa Jaungoikoari otoiitz egiten igaro eban. Egundu zanean, bere ikasleei dei egin eutsen ta amabi aukeratu zituan areetatik. Lk.6,12-16.

Esku langilleak ziran guztiak Mateo izan ezik bakarrik. Gizon au erriko arazodun izan zan. Baiña Kristori jarraitzean, bere ogi-bidea galdu eban. Lk. 5,27-28. Era ontako gizona be bear zan, munduari argi egiteko ta asmo aundi bat gaitik emengo diru, aundikeri ta zaletasunak, bertan bera, izten ikasteko. Mateo, pozik, ibili zan Jesusen arloan, pozik jokatu eban bizitza barri ontan, ta azkenez, zan guztia emon eban munduko erreñu zuzentasunezko, egizko ta bakezkoaren izenean.

Gaiñerako beste apostoluak, euren lanak, bat batean, ez zituen itzi. Ebanjelioan ikusten dogunez, oraindiño, ainbat alditan, arrantzuan dabilnaz.

Gauza arrigarria dirudi Jesusen jokabide onek. Beartsuengan uste aundia eukan. Izan bere, berak gizonaren barrua ikusten ebanez, ondo, ekian, nork jarraituko eutsan gogoz ta leialtasunez. Ta orrez gaiñera, berak lagundu bear eutsen bere aukeratuei, zintzo ta leial, jarraituko eutsenei. Aundikeriak baiño zeiak, errezagoo entzun ta jarraituko eutsen ba Jesusen asmoei.

Aundikeri billa ez zan joan. Indartsuen ondoren ez zan ibili. Eginkizun aundi bat eukan esku artean, ta lan orretan nortzuk, ondoen, jokatuko eben ba-ekian. Ta naita ez-jakiñak izan, lanaren ziurtasuna beartsuengan ikusten eban.

Beste gauz eder bat be jokabide ontan, argi, agertzen da Jaungoikoaren egi, zuzentasun ta maitasunezko erreñua munduan jartea arrigarria dan ezkeroz, jesus berberaren laguntasuna, argiago ta indartusago, agertzen da gizon ez-jakin ta beartsuengan. Berak argitu bear zituan, berak emon bear eutsen adorea Israelgo aundiki, indartsu ta agintzailleen aurrean. Apostolu beartsu onek, era orretan, agertuko eben, euren lana Jaungoikoarena zala, euren jakituria munduz goitik etorrela gizadia salbetara.

ANAITASUN ERREIÑUAN SARTZEKO BALDINTZAK

Jesusek, bere jakituri barria zabaldu ta egiteen bidez sendoturik, Israel-darrak arrituta izten zituan itzez ta egitez. Au ez al da ba, arotzaren semea? Nundik nora ateraten dau indarra... alderdi batetik, arrituta egozen bere jakituri ain bereziagaz ta egite ain indartsuagaz, ta bestetik, euren nagusitasuna ta indarra, gal-zorian, ikusten eben ta zer egin? Israelgo nausiak, estu ta larri, aurkitzen ziran ba Jesusen Barri Onagaz.

Munduko nauskeriak ezagutu ezin eban erreñu barria onartzeko, nortzuk dira deituak...? Batzuk nauskeriak jota, beste asko ez-jakiñak, Barri ain aundia ulertu al izateko, ta bitzuan aurrean Jesus maitasunezko erreñua lurrean sortu nairik. Nortzuk dira erreñu barri ontara sartzeko deituak? Ta ze baldintza bear da egiaren, zuzentasunaren ta bakearen erreñuan sartzeko?

Egiz, Jesusi alderdi guztietara jarraitu eutsenak beartsuak ziran. "Lagun talde oneri erruki deusat, iru egun ba-dira nigaz dabizela eta ez dauke jatekorik... Ez ditut baraurik bialdu nai, bidean ondezik jarri ez daitezen." Mt.15,32. Emen, argi, agertzen da, Jesus nundik nora doan. Bere inguruan dabiltezan gosedunekin, errukitu egiten da.

Jesusek, sarri, esaten eutsen: "Zorionekoak beartsuek, zeruetako erreñua eurena da-ta." Lk.6,20. "Zorionekoak beartsuek negar egiten dabenak, nekepean bizi direnak." Mt.5,3,12.

Emen, arazo aundi ta sakona, gure aurrean agertzen jakuna. Zer esan nai dau Jaungoikozko esakera onek? Jesusek nor gaitik diño, zorionekoak? Zorionekoak beartsuek direla, zergaitik esaten dau? Jende beartsu askoren ezak eta nekeak, berak ez al zituan igaro eta bere gorputzean ezagutu? Zuzentasun, maitasun ta anaitasunezko erreñua sortzeko, ze eratako beartsuei deitzen deutse...?

Jesusen irakatsi au ulertzea, ez da gauza erreza. Jakintsuek ezin dabe ulertu berba onen adierazmena, ta Jesus poztu egiten dala dirudi. Ta txikiek, bakarrik, ulertu leikela. Gauza arrigarria, baiña begira Luka deunak zer diñoan: "Une aretan Jesus Espiritu Santuagan, pozez, bete zan eta auxe esan eban: Bedeinkatua, zu, Aita, zeru-lurren Jaun ori, gauz onek jakintsuei eta zurrei estaldu ta txikiei agertu dautsezuezelako. Bai, Aita, zuk orrelaxe nai izan dozu-ta." Lk. 10,21.

Jesusen mendi-goiko itzaldiak argituko al gaitu, erreñu barri au nortzuk eratu ta zuzendu bear daben ikusten. Ebanjelioari begiratuz, gure argitasun iturria bera da ta ementxe, aurkitu bear dogu jakituri ta uts eziñezko zuzenbidea. Jesus berberak agertu bear deuskuz, jainkozko batzar onek dituan oiñarriak ta aurrera egin al izateko bear ditun almenak. Zerutik etorri da, gaisorik, larri, egoan lurreko gizadia osatzera.

Ta ortarako, berak aukeratu zituan osakaiak, il-zorian, egoana, bizi barritu, sendatu eta salbatzeko.

"Zorionekoak gogozko txiroak -beartsuak- anaitasunezko erreñua eurena da-ta." Emen, diñoana, kontuan arturik, guazen munduko lantegietara. Geienak dira beartsuek, eguneko izerdiagaz eguneroko ogia jaten dabenak. Baiña zorionekoak ete dira...? Munduko gogoz begiraturik, asko eta asko, marmar, dabilnaz asarrez, dauken irabaz bideagaz ezin bizi direla-ta. Asko barriz, iñundik iñora, lanik billatu eziñik. Benetan pozgarria ete da munduan gosez ibiltea, ondasunak banakuntza oberik ez izatea, laterrien artean anaitasun geiagorik ez izatea, ta langilleak be erantzun ohea ez emotea...?

Baiña, au ez da, bakarrik, mingarria. Gorputz gosea ikaragarria dalarik, nortasun bako personearen bere Egillearengandik urrindu ta ukatzea larriagoa da. Ta ezin dau aurkitu zorionik ta bere lanik ezaren zoritxarpean, asarrea ta gorrotoa besterik ez dau bere barruan aurkitzen. Min dauka beregan, min gorrotozkoa. Zorionekoa ez da.

Nortzuk dira zorionekoak beartsuen artean...? Beartsuak gauz onek ezagutu bear ditu zoriontasun bidean, santu izan al dedin. Miseriaren zioak nundik datozen ikusi, anai erri bat sortzeko gogoa izan ta orrez gaiñera, Jaungoikoarenganako sinismen ta itxaropena izan. Zorionekoak kontzientzi oneko, ondo, zuzendutako beartsuek, Kristoren sinismena, bizi bizi, daukenak, anai erri bat sortu al izango dabe ta au izango da lan erria, zuzentasunez ta bakez, egoki, eregia.

"Zorionekoak zuzentasunaren gose ta egarri direnak, Jaungoikoak zuzentasuna lortzen lagunduko dautse-ta."

Bibliako zuzentasun berbeak bere berea dan esan-naia dauka, bakarra ta zintzoa. Lur ontan, ondo, izango ba-gara, Jaungoikoaren pentsabideagaz gure pentsabide ta jokabidea alkartzea nai ditu. Berezkoa, zuzen ta bearezkoa da Aita baten seme-alabak, bata bestearen zapaltzerik barik, azke ta egoki, bizi izatea. Au da Egillearen gogo bizia, gu zorionsu egin geinkezana.

Gau ta egun, miseripean bizi danak aiñean, iñork ez dau anaitasunaren bear izanik sentitzen. Epulonek ez eban sentidu Lazarorenganako anaitasunik ta ez errukirik; ondasunez beterik egoan ta amets usteletan, gozaro, bizi zan.

Baiña miseripean, etsita, bizi dan jendea, lorpean egonarren be, pozik, bizi dana, zuzentasun bizitza gizartera ekarteko, ez da egokia. Gosea, beti, zirika dago ta egarriak minberatu egiten gaitu geuregandik kendu ezin dogun peste baten antzera. Egillearen agindua danez, zuzentasuna billatzeak ez dauzku, iñoz, baketan itzi bear. Berezko legea da, anaikiro, bizi izatea.

Zuzentasunaren alde zoratu direnak, orrek anaitasun erriñuan sartzeko duin izango dira. Gau ta egun, eten barik, zuzentasun alde burrukan diar-

duenak, ta euren bizia, era ortan, urtzen dabenak, ondo, dakie 3 aungoikoaren guraria zein dan. Jesus munduko gaiztakeria kentzera etorri zan ta zuzentasuna zaintzearren kurutzatu eben. Kurutzatik ta egiaren aldezko burrukatik etorri bear dau gizadiaren anaitasuna. Zuzenbidezko burrukalari onekin dago Jaungoikoa, lurra garbitu ta indartzeko maitasunezko indarrez ta egizko jakituriz.

Zuzentasun ta anaitasun egarri barik, beste lurreko zoriontasunak, nai diruzkoak, nai indarrezkoak, euren sena, bertan bera, gaitzen dabe, biziari zor jakon oiñarria galdu dabelako euren kaltean.

Egizko zuzentasun ta gose ta egarriaren ezagaitik, Jesusen irakatsiaren esan-naia, oker, ulertzen dogu; Espiritu edo gogo usaiña, bakarrik, emoten deusagu ta ori Jaunaren mezua saltzea da.

"Zorionekoak errukiorrak, errukia jadetsiko dabeta." Mt.5,7. Arrokeria ta nauskeria alde batera itzi ta euren anaiekin on egiñez ta lagunduz alkartzen direnak, zorionekoak. Emen, dago gizontasuna ta bear izanak eskatzen daben jokabidea, eskua emon laguntzaz, negarrez dagoanari.

Arazo ain arduratsuaren aurrean, erruki konponketa bat egin nairik ez gabiltzaz. Buruko-min au olan baiño astun ta sakonagoa da. Bear izana daukanaren aldezko burrukan, bere bizi, oso-osoan, jarri dabenaren alde gagoz, Jesus egon zan era bardiñean. Bere inguruan ebiltzenekin, errukitu egiten zan ta jaten emoten eutsen. Errukia da gure beartsuenganako on egitearen sustraia, baña erruki onek gizartearen bizitza, egiz ta zuzentasunez, konpondutea eskatzen dau.

Miseriak munduan kentzea gauza aundia da, baiña, ez da gitxiago... ederragoa da oraindiño anaitasun erreñuan sartzen gaitun anaitasunezko zuzentasun bidea. Au da Aitak ontzat artzen daben egizko ta maitasunezko jokoa, anaiak anaiari zor deutson onginaia ta egiteetan agerturiko laguntza.

"Zorionekoak otzanak, lurraren jabe egingo dira-ta. Mt.5,4. Otzanak dira egizaleak; otzanak dira biotz zabalak. Buru zuzentasun ta biotz zabal-tasunaren bidez, gizadian on egiñez, gizoztearen gogoia irabaziko dabe. Gogorkeririk egin ez bizitzako egiteetan ta bakez zuzentasuna billatzen dabenak, otzanak dira. Norbere eretxi gogorak iñausi ta kirioen adarkadak menperatzen dituanak, besteei on egiñez, onak, zuzenak eta otzanak dira. Zuzengabekeriaz goiak, iñoz, artzen arduratzen ez direnak, otzanak dira. Anaitasun arteko gora-beraren bat sortzen danean, bildur barik, zuzentasun alde jokatzen dabenak, otzanak dha.

Kristoren jarraitzaileen artean gauz eder bi egiune baten alkartzen dira: otzantasuna ta sendotasuna. Ta onoinen eder bi onen emoilte Jaungoikoa bera da, ta gizona gizonaren alkartasun egille.

"Zorionekoak biotz garbiz, anaitasuna billatzen dabenak, Jaungoikoa ikusiko baabe-ta." Mt.5,8. Nortzuk ete dira jende bikain onek? Norbere

grinak menperatzen dakienak, nauskeri ta indarkeriari nagusi urteten izten ez dautsenak asmo bigaz ta maltzurkeriz jokutzen ez dabenak; besteen eskubideak eta lurra, lotsaz, ondo, zaitzen dituenak; orrek dira zeru ta lurren aurrean zorionekoak, lurrean, ondo, ikusiak ta Jaungoikoak sarituko dienak.

"Zorionekoak bake zaleak, orrei Jaungoikoak, bere seme esango dautseta." Gizon arrigarriak, benetan, munduko lokatz artean, bakearen jaube direnak, ta munduko arazoan artean egia, bakez, zabaltzen dabenak; munduari argi egiten dabiltz, ona zabaltzen dabe, ta gizadia bizi barritzen doaz.

"Zuzentasunetik bakea erneko da, eta zuzentasunaren frutuak zigurtasuna ta atsedena izango dira beti." Is, 32,17. On egiñak, berez, argi zuzena dakar ta gaiztakeria menperatzeko eskubidea dauka. Argitasun onen giroan bizi direnak, egia zabaltzen dabe ta argiar-en semeak, zuzentasunez, deituak izango dira eta bake egileak. Aita on baten semeak Aitaren maitasunetzko zuzentasuna daroe gizartera.

Baiña gorrotoa ta banatzea zabaltzen dabiltzeezenak, jaungoikoaren seme deituak ezin izan daitekez. Ta egite onen sustraiarik nagusia Aita bera ukatzea da itzez eta egitez. Norbera nagusi izan naiak daroa giza-semea edu orretara, ta nauskeri orrek bear dan onik eta bakerik ezin leike gizartera ekarri. Sarri, aitatzen da aurrearpedearen izena ta orren inguruan ustelkerizko nabarmenkeri aundiak agertzen dira, eta Aitak ez ditu semetzak artzen.

Zorionekoak politikari zintzo ta gizontsuak, erri guztiaren ona billatzen dabenak. Euren bizia urratu ta urtzen dabe beartsuaren alde, ez ustelkerizko zaratetan, ixillean ta zuzentasunez on egiten baiño. Jaungoikoak bere seme leialtzat artzen ditu, ta onen jokabidea, aurrera, joango da gizadiaren aurrerapen izenean.

"Zorionekoak zuzentasuna gaitik, aurrean, erabiliak, anaitasunetzko erreñua euren da-ta." Mt. 5,10. Onak dira Jesusen antzera jokutzen dabenak, ta Jesus legez jazarpenduak, norberekeriaren billa ez dabiltzaz, gizadiaren onaren billa baiño, ta sarritan, ez dira onartuak. Baiña euren egite onak, beartsuei, lanpetuei, errien eskubideei argi egiñez, beti, aurrera doaz.

Gure eginbearra egizkoa dan ala ez, jazarpenak agertzen dau. Egiz, zuzentasunaren alde bear egitera eskeiñi danak, norberekoien aldetik jazarpena eroan bear dau. Jesusen egizko jarraitzaileen ezaugarria da, izan bere, nekea ta lorra, emen, lurrean izatea. "Zaindu zuen buruak gizonakandik, auzi ebazleen eskuetan izitiko zaitue ta euren sinagogetan zigorkadak emongo deutzue -eta- inotzen Jesusek bere Apostoluei, eta neu nazala-ta, agintarien eta erregeen aurrera eroango zaitue, areen eta jentil¹ en aurrean autgor egin dagizuen." Emen, agertzen da, munduak onari eutson ikusi-eziña ta gorrotoa. Mt. 10,16-26.

Jesusek, ondo, ekian munduko gaiztakeriaren barri; emengo maltzurkeriak noraiño eldu eitekezan. Baiña alan bere, aurrera, egiteko indarra

emoten eutsen. "Zorionekoak izango zaree zuek, nigaitik iraindu ta aurean erabili zagiezenean, eta guzurrez zuen aurka nai dagiena esan dagizuenean." Mt. 5,11. Itxura baten gogorra ta biotz gabea dirudi irakatsi onek; baiña ondoren datorren betiko zorionatsun bakea ezin bardindu leiteke gizon gaiztoen burle ta samintasunekin.

Mundu onetan anaitasunezko erria sortzen ausartuten direnak; jazarpenduak, irainduak ta burlez, lotsatuta, aurean, erabiliak izango dira, gaizkillerik okerrenak ba-litzaz legez.

Jaungoikoak mundu onetan, beartsuak aukeratu zituan bere ordezko mezulari, sinismenean zintzoak izan ondoren, betiko zoriona izan egien geroko erreñu zorionsuan. Sant. 2,5. Gogorra da, era orretan, itsu itsuan, jokatu bearra; baiña ainbeste neke ta eriotzarik gogorrena jasan eban Jesus berbiztuak diño: zorionekoak jazarpenduak... ondoren datorren pozak ez dau amairik-eta betiko bizian.

San Paulok lenengo kristau batzarra gogoratuz, ondorengo au ausnartu eragiten deutse: "Begira bestela anaiok, deituak nortzuk izan zareen; giza negurriz, zuen artean ez dago jakitun askorik, ezta aaltsu askorik be, ezta aundiki askorik be. Bestetara baiño; gizarte zoroak aukeratu ditu Jaungoikoak, jakitunak lotsarazoteko; eta gizarteko zabor, ondar ezer eza dana aukeratu dau Jaungoikoak, zerbait dana ondatzeko. jaungoikoaren aurean iñork ez daukala zertan arroturik." I.Kor.1,26-29.

Beartsuak dira mundu zuzen bat sortzeko itxaropen bakarra.

Zurrei ta itxaropendun direnei, zabaltzen jakez zeru-erreñuko atea. Zuzentasun gose ta egarria daukenak elduko dira betiko poz lekura. Besteen miseriaz errukitzen direnak, aurkituko dabe errukiaren saria, ta munduko ezbearrak deseztuteko ardurea artzen dabenak, izango dabe ardurearen goitiko sari atsegingarria. Gizarteko burruketan, zintzo, jokatu dabenak, lortuko dabe azken gabeko zoria. Egizko bakearen alde burruka egin dabenak, iñoz, aspertu barik, betiko biziaren poza lortuko dabe. Jazarpenaren bildurrik barik, anaitasuna, sinismenean oiñarritua, munduan zabaltzen ibili direnak, zorionekoak izango dira betiraun guztian. Onek dira kristau jatorrak, on guztia merezi dabenak... Zorionekoak!!!

ANAITASUN ERREIÑUAN SARTZEKO GAIZTASUNAK...

Gizon guztien askatzaille Kristo da. Joputza guztietatik gizadia askatzera etorri zan. Ortarako, iñor ez dau, bertan bera, izten. Giza seme-alaba guztiei dei egiten deutse.

Guretariko bakoitzaren barruan dabilzan gogorapen, asmo ta biotzaren naiak, guztiak ikusten ditu. Mundu maltzur ta jakitunak darabilen izkuntza, euren asmoak estaldu nai agertzeko, guztia ikusten dau. "Mundu ontako jakitun eta zurrak" dana jakin nai dabe, baiña ezertan aldatu barik. Jesuen irakatsia euren erara jarteko maiña berezia dauke, baiña betiko bizirako ez dau ezer balio.

Giza semeen jakituri ta maltzurkeri guztiak ezagutzen dituan Jesusek diño: Diru-zalea dana, anaitasun erreñuan sartzea, oso, gauza zaila da. Lk. 18,24-25. Diru-zalekeri ta aberastasunak, izan bere, ondasunetara biotza kateipetu egiten dau. Irripar egiten deutso biotzak ondasun aurrean, ta ezerk, iñoz, ez deutsola uts egingo uste dau. Asmo ustelak dira, baiña dirua jarten dau bere jainko izuntzat. Norberekoikeria sartu jako biotzean ta ez dau nai Egilleagana menperatzerik.

Aurrerantzian, bere indarrez ezingo dau katei ori apurtu. Baiña Egilleak ezin ditu bere umeak, gaizki, ikusi t beti, gertu dago umearen gogorkeria bigundu nairik. Alan bere, Aitaren deiari uko egin ta norberaren ondo-egotea, jan ta edan atsegingarriak, jendearen txaloak, diru ondatze jokoak, geiago, billatzen dabilena, anaitasunezko erreñuan, gaitz, izango da sartzea. Lk.6,24-26.

Aberats zikoitzak eurentzat bakarrik, dirua batu nai dabenak Lk.12,16-21, edota Epulonen antzera, ugaritasunean bizi nai ebenak mai eder aundi ta mantel dotoreekin, Lazaroren antzeko beartsuekin arduratu nai ez dabenak, Kristok, gogor, artzen ditu. Lk. 16,19-31.

Jaungoikoa eta dirua ezin leitekez batera otseindu. Jesusek, argi, ikusten eban otseintza bikoti ezin au: "Ugezaba biren morroi, iñor ezin izan leiteke: izan be, edo batari gorroto izango deutso, eta bestea maite izango dau, edota, batari lotu egingo jako ta bestea ez dau ontzat artuko. Jaungoikoaren eta diabruaren morroi ezin izan zaitekeze." Lk. 16,13. Dirua, berez, ona da. Baiña Egilleak lureko ondasunak batzueentzat bakarrik, ez zituan sortu, bere seme-alaba guztientzat baiño. Munduaren edozein egaletan giza-semeak, gosez, iltzear egotea, ezer ta ikaragarriena da, ta giza gaiztakeriz ori jazo ezker, zezag bardindu ete lei ilte ain ikaragarria!!!

Ezbear aundi ori munduan ikusirik, Jesus anaitasun barri bat beartsuen artean sortzen asi zan. "Sasietan jasusi zan asia, itza entzun ebenak dira, baiña bidean doazela, bizitzako buruauste, aberastasun ta utsegiñak direlata, ito egiten dira." Ondasuna, aberastasuna, emen, ikusten danez Jaungoikoaren aurrez aurre jarten dira. Lk. 8,14.

Jesusek aberatsei atear izten deutsezenik, onek ez dau esan nai. Ordu onian, ondo etorria, anai legez bizi nai dabena. Emen, Jesusek billatzen dabena, gu guztion anaitasuna da.

Adibide on bat legez, Zakeoren jazoera jarri euskun Jesusek geure begien aurrean. Lk.19,1-10. Benetan jazoera ikusgarria ta maitasunez beteian izan zan. Jesusen deiera asmatu ebanean, bere ondasunen erdia beartsuei emon eutsen, ta atsipetuz, ostu eutsenei, lau bider geiago biurtu eutsen. Lk.19,8. Jesus berberak agertzen dau au esanez: Salbamena, gaur, eldu da etxe ontara, gizon au be Jaungoikoaren semea da-ta. Galduta egoana billatu ta salbatzera etorri nintzan ba." Lk.19,9. Gizonen alez egin ezin zana, Kristoren laguntzaz egin al izan da.

Kristori jarraitu nai izan eutson beste gazte baten jazoera be ba-daukagu. Bein baten, gazte bat urreratu zan Jesusengana galdezka: "Zeruetao erreinua lortzeko, zer *egin* bear dot, Jesuseri esan eutson... Jesusek gazteari, onan, erantzun eutsan: "Amar aginduak bete egizuz." Gazteak Jesuseri erantzun eutsan: Bete alegindu naz, aginduak beteten... Jesusek orduan, gazteari esan eutsan: Ondo egin dozu... Baiña gauz bat egin bear dozu: Daukazuzan ondasun guztiak beartsuei emon eta jarraitu egidazu." Gaztea aberatsa zan ta bere ondasunak beartsuei emotea gogor, egin jakon, ta burua makurturik aurrera joan zan.

Jesusek bere jarrai joan nai ebenei, garbi, esaten eutsen: burua nun, etzanik be nik ez daukat. Lk.9,58. "Azeriak euren gordelekuak daukez, eta zeruko egaztiak euren abiak: Gizasemeak barriz, ez dauka burua, nun, ezarri." Beste irakatsi zoragarri au be Jesusek emon euskun esanez: "Nigaz etorri nai dabena, bere burua ukatu ta bere kurutzea, egunero, artu dagiala ta jarraitu daiztela. Lk. 9,23.

Bidea marratuta dago. Bide-txigorra estua da. Anaitasunera daroan bide-txigorretik edota bestelan, norberekeriaen bide zabaletik joatea azke da Mt. 7,13-14. "Sartu zaitez ate estutik, ondamentira daroan atea aundia da-ta, eta zabala arako bidea, eta bertatik sartzen direnak asko dira. Bizitzara daroan atea, barriz, axe bai ate estua, baita arako bidea be; eta ate ori aurkitzen dabena gitxi dira." Inor ez da baztertuten. Bakoitza bere gogoko bidetik doa. Antza dagonez, batzuk bide estutik joaten oituta dagoz.

Arpegi biko maltzurak dira anaitasun erreinurako balio ez dabena, Kristok ezin ditu olakoak onartu. Itzez eta egitez bere eriotzaren bidez, garbi, agertu deusku. Bide zabaletik ibili ta txikietatik ibili ba-litzaz lez agertzen direnak, ezin ditu onartu. Gauza txikiak betetu... ta zuzentasunezko gauza aundiak betetu nai ez dituenak, ez ditu onartzen. Ta ortarako irudi eder bat jarri deusku gure begien aurrean: "bide erakusle itsuok! edariak iraztean, eltxoak artu ta ganbelua iruntsiten dozuena! Mt. 23,24.

Jesusek, ondo, ikusten eban munduko jokabidea ta jokera orri etorkion eran berba egiten eban. "Edontziak eta platerak, azalez, garbitzen dituzue,

baiña lapurretaz ta lukurreriz lortu dituzuenekin, barrua beterik daukazue." Mt.23,25. Ortu santuko illobien antzera; azalez ederrak dirudizue, baiña barniz ustelkeriz, itxurakeriz ta txarkeriz beterik zagoze." Mt 23,27-28.

Gauza bat esan da aurkakoa egiten dabenak, sarri, arro, bizi dira munduan, biziaren jaun ta jabe ba-litzaz legez, era ontako jendea, iñoz, ez da sinisgarri izan munduan ta zeruetako erreñuan askoz gitxiago... "Gauza guztiak jendeak ikustearren egiten dituenak, ez dira duin." Mt.23,25. Onek euren saria munduan artu dabe ta anaitasun erreñura eltzeko, betxu, geratzen dira. Jatorduetan tokirik goragarrienak billatzen dituenak, batzarretan tokirik onenak nai dituenak ta bidean zear joaneran, txaloak artu nai dituenak, ez dira anaitasun erreñuan sartzeko duin." Mt. 23,6-7.

Onek naikoa gozartu dabe mundu onetan; buru, biotz eta oin, ondo, sartuta egon dira lurreko gurarietara. Gerorantzara begiratzeko astirik ez dabe izan. Ori beartsuentzat itzi eben.

JAUNGOIKOAREN ERRI BARRIKO EGITURA BARRIAK

Aldi aretan, Israeldar asko egozen askatasuna itxaroten. Ta nundik nora lortu ete zeitekean itxaroten egozan.

Pariseo - erlejioso jende ikasiak, ez beartsu ta ez aberats ez zirenak, bien bitartekoak baiño, otoiak, erreguak, ospakizunak ta gurtze asko eginda, Jaungoikoaren erreñua sortu bear zala, sinistuta egozen. Oneen anaitasun erreñu barria sortzea, oso, merkea zan. Anaitasun erreñua ta euren jokabidea ez-bardiñak ziran.

Pariseoak euren burua erlejiozko ta zuzentasunezkotzat euken, ori dala-ta, erritar jendea baztertu egiten eben. Emen, agertzen danez, jende erezitsua zala dirudi.

Beste talde bat Saduzeotarrak ziran. jakituriz, ondo, orniduak, ta era berean, pariseotarren etsaiak. Gizarte maillan, pariseoak baiño altsuagoak ziran. Erlejo gaitan pariseoak baiño otzagoak ziran. Euren jokabidea munduko jakituri ta indarretan oiñarrituten zan, ta euren itxaropena politika giroan jarten eben. Munduan geiago sinistu ta itxaroten eben anaitasun erreñu on baten baiño.

Anavvin edo Jaungoikoaren beartsuek Jaungoikoaren eta Mesiasen itxaropenetan egozan, baiña Jaungoikoaren erreñua, nundik nora, ze eratarata, sortu zeitekean ez eben ikusten. Baiña gauza bat ikusten eben argi... Anaitasunezko erreñua ez indarkeri ta ez zapaltzetik ezin zeitekela etorri ta gizartean jarri. Beste era batekoa *izan* bear zan euren ustez... maitasun, zuzentasun ta alkartasunezko erreñua.

Eretxi bako jendeak, pariseotarren jokabidetan ta zadukeotarren politikerietan jarten eben euren ustea. Onek ez euken euren barruan olako jakituri larregirik ta erri tranpalariok egiten ebena, ondo, ikusten eben, naita gero, kaskarreko onak, goitik bera, etorri. Ardura bakoan kontua be, olan, izan oi da.

Israeldarren ustea ta gogoa zan, Erromatarren menpetik azke geratzea ta euren artean erri bat sortu, euren erriketa, agintari, lege ta gudarozteagaz beste edozein erri askatasundun baten antzera.

Jesusen asmoak baiña, beste era batekoak ziran. Jaungoikoaren erriak egitura bere-bereak ta barriak daukaz. Jesusen asmoa ezin zeitean lurreko lurтарren asmoekin alkartu. Lurтарren asmoa, sarri-askotan, zapaltzea da, ta Jesusena ostera, gizadiari askatasuna emotea.

Egia danez, Kondaira Zarrean, Jaungoikoaren erriak beren lur mugak, enda ta erakundea eukazan ta beste batzuen antzera asarreak eta gudak... Au arrigarria!! anaien erri barrian, ez da lur-mugarik, ez enda ez-bardiñik, ez politika asmorik, ez gizarte sail ez-bardiñik izango. Au gauza izugarria

zan aldi aretan, ta gaur ez gitxiago ainbeste urte igaro ondoren. Lurrak, lurkeria ta zapaltzea dauka ta goi gogoak askatasuna ta bakea.

Kondaira Zarrean Jaungoikoak ez eban nai bere erria beste errien antzekoa izaterik. Ta jesusek mundura etorkeran, onan, itz egin eban: "Ni ez naz etorri aurretikoa apurtzera, lengoa osotzera baiño." Jesusek bere erriari ez dautso laterri antzik emon nai. Anaitasunezko Erreñuaren indarra nai dau, ez diruarena, ez izkilluna ta ez indartsuen arrokerizko nausitza... Erri barri onek beren ezaugarria izan bear dau anaitasuna ta bakea.

Ta guzti onen ondoren, jendea irabazteko bidea ez-bardiña izan bear dau ta bere legeak anaikorrak...

Jesusek erri barriaren egitura barria baldintza biren bitartez, errez errez, agertzen deusku: "Munduaren gatza zaree zuek, munduaren argia zaree zuek." Mt.13,14. Gatza janariaren barruan egon bear dau, gozamina emon dagian." Argia iziotuta, goian, ipiñi bear da, etxeko guztiei argi egiteko. Mt. 5,15. Aurrerago Jesusek diño: "Anaitasun Erreñua urunagaz nastauta ta amasa guztia jagi eragiten daben txantxaduriaren antzekoa da." Mt.13,33.

Gauz guzti onek euren tokian egon bear dabe, euren frutua - emaitza emon al izateko. Ez gatzak, ez argiak, ez txantxadurak ez dabe ezertarako balio kaxatilla baten barruan, aparte, ipiñi ezker. Jaungoikoaren erri barria gizadiaren erdi erdian, ondo, sartuta egon bear dau, anaitasunaren gozotasuna guztiei emon al izateko; amasia jagi al izan dedin ta guztiak argi barriz argitu al izan dagizan.

Itun Zarreko aldi aretan, erri bat aukeratu bear zan, ta geldi geldika, erri ori landu, anaitasunezko bizitza egiten ikasi egian. Ortarako banandu egin bear zan, inguruko erriak asmo ortarako, urrin, egozan da. Orain, zentzun barri orretara eldu ondoren, Jaungoikoaren erri barria argitu ta osotuko dabe munduan zear. Laterri bat bakarrik, aparte, ez dabe sortzen. Kristoren batzar bakoitza txantxadura, argi ta maitasun izan bear dau, ta geldi geldika, borondate oneko gizon guztiengana urreratu.

Jaungoikoaren Erri Barriko agintarien eginkizunak be ez dira bardiñak.

Jesusek bardintza au, argi ta garbi, egiten dau: "Ba-dakizue, errietako agintariak erria euren menpean daukena eskubide osodun jaunak lez, eta aundiak erria nauskeriz erabiltzen dabena. Zuen artean barriz, ez da orrela izan bear, bestera baiño; zuen artean aundia izan nai dagiana, zuen serbitzari izan daitela; eta zuen artean lenen izan nai dagiana, zuen serbitzari izan daitela; giza semea be ez zan morroiak eukitera etorri, serbitzari izatera ta bere bizia askoren alde ordaintzat emotera baiño." Mt. 20,25-28.

Jaungoikoaren erri barrian, erriaren bizitza zuzenduteko, erantzunpendun lagunak dagoz: Jesusek Pedro ipiñi eban Eleizaren oiñarri legez, ta aren gaiñean jazoko dau Eleizea. "Nik, barriz, auxe dirautzut, Zu zara Pedro, eta arri orren gaiñean jazoko dot nire Eleiza eta lezako ateak ez dabe men-

peratuko. Zeuri emongo deutzudaz Zeru-erreñuetako giltzak, eta zuk lurrean lotu dagizuna, zeruetan be lotua izango da; eta zuk lurrean askatu dagizuna, zeruetan be askatua izango da." Mt.16,18-19. Apostoluei erantzupen berezia emoten deutse Ebanjelioa zabaltzeko ta Erriaren ibillaldia zuzentzeko. Mt. 28,19-20.

Aginpidea baiña, jauntxo izateko ez dautse emoten, ta arean gitxiago, bestiekin baliatu ta zapaltzeko. Jesusen aginduz aginpidea gizadia otseintzeko da.

Jesusek emon euskun eredua, argi, dago. Bera Maisu ta Jaun izanik, Apostoluei oiñak garbitzeko, belaunbiko jarri zan. Jon.13,3,4. Ta ori olan, egin ondoren, esan eutsen: "Ikasbidea emon deutzuet, neuk egin dodana, zuek be egin dagizuen." Jon.13,15.

Anaitasun Erreñuan bat bakarra da gure Maisua eta gure buruzagia; Kristo. Ta bat bakarra gure Aita zeruetan dagoana. Ta beraz, gu guztiok anaiak gara." Mt.23,8-10.

Egizko kristiñauen jokabide bakarra, besteak otseintzea da: "Besteak otxeintzen dituana, zuen artean aundiena ori da. Mt. 23,11.

MOISESEN TA IGARLEEN OIÑARRI GAIÑEAN

Ebanjelioak irakasten deuskunez, Jesus guztia barriztutera etorri zan. Jaungoikoaren Erri barria Itun Zarreko Erriaren jarraia da, Jesusek, argi, d'frauskunez... Ez uste izan Legea ta Igarleak kentzera etorri nazanik; ez naz kentzera etorri, betetera baiño." Mt.5,17.

Au, ondo, ulertzeak, garrantzi aundia dauka. Bi-milla urteko ikasketa osotzera dator Jesus. Mesiasen legeak eta Igarleen berbak, ondo, gogoan euki ezik, teillatu ederragaz etxe bat izango dogu, baiña oiñarri ta orma gabea.

Itun Zar barik, Kristoren maitasun berbak zentzunean aldatu ta ez antz ta ez indar barik izteko arriskuan gagoz ta goimaitasuna itxuragabetu ta ezainduta geratzeko arrizkuan dago, ta norbere bizitza estaltzeko besterik ez dau balio.

Bene-benetan, dirautzuet: Legeko "i" bat edo izpitxo bat galdu baiño lenago, ezereztuko dira zeru-lurrak, dana oso osorik bete arte." Mt. 5,18. Arek dira oiñarri sendoak ta kristau anaitasuna euren gain eregi bear da.

Ori dala-ta, Itun Zarreko aldi aretan Igarleak ezetziten zituen antzeko jokabideak, gure artean daukaguzen bitartean, kristau maitasunari buruz ezin ezer esan geinke.

Au larria, baiña Itun Zarrean bizi ziranen antzera, toki askotan bizi da jendea. Ejiptoko joputzan bizi diran erri asko dagoz, ta arean, estu ta larriago gosezko eriotzaren menpean. Beste batzuek aurreratuagoak igarleen aldian lez bizi dira. Ainbeste urte igaro Ondoren, gizadiaren anaitasuna ikustera ezin gara eldu. Beste ardua nabarmen batzuk agiri dira; atsegin, nauskeri ta norkeriak gizona itsututen dabenak, lurrean, onena dana oinpean zapal-durik.

URKO-LAGUNA OTSEINTZEKO JARRERA BARRIA

Jesusek argibide barri bat dakar mundu onetara. Itun Zarreko Jainko erriak ze jokabide artu bear daben adierazotera dator: "Bestiekin, beti, egin, eurek zuekin egitea nai zendukena. Au da Moises eta igarleak agintzen dabenaren laburpena." Mt.7,12.

Kristoren maitasunaren irakatsia, askoz, sakonagoa da. Moises ta igarleak baiño geiago eskatzen dau.

Urko-Iagunari buruzko Jesusen irakatsa, zerbait ikusi, ikasi ta gizartean zabaldu daigun.

Lenengo ikusi dagigun gizonari zor jakon lotzea. Moisesek bestien bizia, deduz, artzea agindu eban. Mt.5,21. Jesusek geiago eskatzen dau. Bestien-ganako dedu edo lotsea sakonagoa izan bear dau. Ori dala-ta, Jesusek anai arteko iraiñei itzaltasun aundia emoten deutse: "Nik, barriz, auxe dirautzuet: Bere anaiaren aurka asarretu daitena, errudun izango da auzitegian; eta bere anaiari "Kirten ori" esan dagiana, errudun izango da batzarrean; eta "donge ori" esan dagiana, lezako sutarako errudun izango da." Aita baten seme-alaba garanez, Jesusek ez dau nai gorrotorik gure artean.

Munduan dagon ondasunik aundiena maitasuna da, izan bere,... Ara zer diñoan Jesusek: "Beraz, zure oparia altaran eskeintzean, zure anaiak zure aurka zerbait ba-daukala, gogoratzen ba-dozu, an, itzi egizu zure oparia, eta zoaz, lenengo, zure anaiaz adiskidetzeraz; gero, barrero, etorrita, eskeiñi egizu zure oparia." Mt. 5,23-24.

Moisesen legea, emen, asko sakontzen da; ta benetan, garrantzi aundikoa da. Jesusen berbak entzun zituan San Joanez, argi ta garbi, diño: "Anaiari gorrotoa deutson edonork, gizaitzaillea da." Jon. 3,15.

Onez gaiñera, ain zuzen be, edozein personari zor jakon dedu edo lotsea dala-ta, Jesusek andrazkoenganako lotzea, azpimarratuta izten dau. "Entzun dozue esandako au: Ez egin ezkontza naasterik. Nik, barriz, auxe dirautzuet: Emakumea lizunkeriz begiratzen dauan edonork, bere biotzean aretzaz ezkontza loitu egin dau." Mt. 5,27-28.

TXARRA ONAGAZ MENPERATU

Anaien arteko ezta-baidetan, Moisesek negurri zeatza eskatzen eban. "Begi ordain, begi; agin ordain, agin." Mt. 538. Jesusek alan bere, irakatsi obea emongo deusku. San Pablok geroago agertuko deuskunez: Txarra onagaz menperatu." Err. 12,21.

Anaitasuna nagusi aterateko bide egokia da. "Nik, barriz, auxe diño-tzuet: Ez egin gogorrik gaiztakeriari; eta eskumako matraillean jo zagizanari, eskein egiozu bestea be: jantzia zuri kentzearren, auzitegira eroan nai zagizanari, emon egiozu soin-gañekoa be; eta milla oinkadako bidea ibilten beartu zagizanagaz, egizuz aregaz bi milla oinkada. Eskatu dagitzun edonori, emon egiozu; eta zerbait ordaiñez emon dagiozula gura dauanari, ez egiozu ukatu." Mt. 5,39-42.

Norbekoi batek ulertzeko ez da irakatsi erreza ta gitxiago, alan bere, gozoa. Ama batek orixe egiten dau bere umiekin. Onek bear ba-da, erreze, ulertu leikee, sakontasun aundiko maitasun egintza au. Jesusen irakatsiak, beti, ez dira berbatik berbara artu bearrekoak, Jesusek jo ebenean, ez eban beste matraillarik ipini. Era onetan berba egin eutsen. "Oker berba egin ba dot, esan egidazue okerra; zuzen berba egin ba-dot, barriz, zergaitik, joten nozue." Jon.18,23. Txarkeria onagaz menpeatzea da garrantzi aundikoa. Ta era ortako jokaera bakoitzean norberak ikusten dau on egiñaren ondorio bakezkoa ta maitasun egintzaren bakezko ezta.

Gandik ainbeste maite eban bere erriaren askatasun bidean, bakezko egintzaz jokatu eban, ta ain zuzen be, bere asmoa lortzeko, ondo, laguntzen eutsen. E.U. Laterri Batuetan baltzen eskubideak lortzeko, Luther King'ek bakezko jokabidea erabili eban ta ain zuzen bere, itz onetan oiñarrituta egoan; "Ekíntza, Zuzentasuna, Bakea."

Gauza zailla da benetan, gaitza gaitzagaz ta txarra txarragaz menperatzea. Txarto eginda dagon *indartsuen* gogorkeria beste alderdiko zapalduen gogorkeriaz, iñoz, ez da al izango ezer argitzerik.

Gogorkeriak, zoritxarrez, gizonaren buru-gabekeria dala-ta, gogorkeriak sortzen ditu, gizarte ez-bardintasunik dakarz ta ondamen mingarriak ditu ondoren.

Jesusek jokabide barri bat dakar mundura. Ta naita, gizonentzat uler gaitza izan, jakituri barri au da, bakarrik, gizonaren askatasunerako duin dana. Egiz, gure izateari bagiratu ta gogorkeriari gogorkeriz ez erantzuteko, gizontasuna ta biotz sendotasuna bear dira.

Baiña berezkoa danez, alderdi guztietatik golpe artzen ikasten, ez da egon bear. Au berezkoa da, gizona ez da ortarako jaioa ta. Iñork ez dauka iñor zapaltzeko eskubiderik ta garrantzitsua dana da, oso osoan, zuzentasunaren alde jokatzea, nai-ta egurra etorri gaiñetik. Munduan bear ba-da,

ezagutu ezin dan eginkizun eder bat da, zuzentasunaren aurka dabillenari ez laguntzea, nai-ta *legepean* aginduta egon, ta jazarpena etorteko arriskoa izan, esana ez egitearren. Al dan guztia, anaitasunez, egitea da giza-lege jatorra ta batez bere, Jaungoikozko agindua ta Jesusek emon euskun eredia bere bizitzan eta Kurutzan.

On egir7aren indarra, berez, doa giza nortasunaren barruan sartzen ta era orretan, indartu dan gizon taldea, onaren aldeko burrukan, etsairik gogorrenak baiño indartsuagoa da.

ETSAIAK MAITATZEA

Jesusek esana da: "Ni ez naz etorri Itun Zarra deuseztutera, osotutera baiñao". Itun Zarreko irakatsia izan zan, Jaungoikoaren jakituria munduaren onerako ta gizonak gizartean maitasun ta alkar laguntasun geiago izan egien.

Jesusek Itun Zarrari buruz, ondutearen alde emon eban irakatsirik nagusia da. Etsaiak maiatatzea ez da ume bateri onu edo kontseju on bat emotea; orrez goitik daga. Kristiñauak zeruko zoriona Aitaren etxean lortu al izateko, baldintza bat da. "Maite egizue zuen arerioak; egizue otoitz aurrean zarabillezenen alde; bere eguzkia on eta gaiztoen gaiñera egiñarazoten daben zeruko zuen Aitaren seme izan zaitezen. Izan be, milita zaituenak maite ba-dozue, ze sari izango dozue...? Zergabatzailleak eurak be ez dabe ba ori egiten?

Gizon legez, ezin dot maitatu esatea, ez da naikoa. Jesusek sortu eban anaitasun erreñuan sartuta dagon kristiñauak, Jaungoikoagandik artzen dau, gorrotoa zapaldu ta etsaiak maiatzeko indarra.

Zapaltze ta gorrotozko mundu larri onetan, gauzarik ederrena da, etsaiak daukan onagaz alkartu ta etsaikeriari indarra emon nai deutson diabruarekin burruka egin, jesusek be kurutzeagaz menperatu zituan etsaikeri ta diabrukeri guztiak gizadiaren alde bizia emonagaz.

Era ontako maitasunak ez dauka zapaltzerik. Munduko gizon ospetsuenak, olan, jokatu eben Belengo Salbatzailleari jarraituz, ta maitatzen dabena, on guztia nai dau beren maiasunaren alde; zapaltzaillea maitatzen dabena, on guztia nai dau, zapalketa ta ilketa bideak itzi ta gizontasunaren onbidera biurtu dedilla. Au da munduko egitekorik ederrena; maitasunaren bidez bakea ekarri.

"Billatu egizue lenen, Jaungoikoaren Erreñua ta Aren zuzentasuna, eta gauza guztiak, gaiñezka, emengo jatzuez. Mt. 6,33. Munduko txarkeri guztia, zapaltzeak, gorrotoak, lapurretak, iñoren erria zapaldu ta lapurretan bereganatzea, ta guzurrez, bere menpean oinperaturik eukitea ikusirik, anaitasunez, antolatu zaiteze ta gaiñerako gauzak, berez, etorriko dira euren lekuetara. Zapalduaren aldetik. gorrotoa urrindu bedi; baiña zapaltzailleak daukan ankerkeria, kendu begi bere leptotik buru argiz ta zuzentasunez, ta ondoren etorriko dira anaitasuna ta bakea.

Kristoren oiñarrizko laguntegi batek lanean asi ta bereala ikusi eban euren lanaren astindu aldi barria. Anaitasunak ta zintzotasunak bere frutuak emon ditu. Alkarkidetasuna zan gauzarik ederrena lanari ondoren obe ta ugariak emonerazoz.

Eredu eder onek atsegingarriak dira bizitzan; baiña, geienetan, gizartean beste era batzuetara jokatzen da, adabazaiñez erropak konpontzen diran antzera, mesede kaskar batzuk egiñaz. Baiña au, geure burua atsipetuteko,

uskeri bat besterik ez da. Lan ta arazoak, aurrera, aterateko, norbere bizia eskeindu bear da lagunarte anaitasunezko lanaren alde.

Lantegi batza orreri Kristoren espiritua ezarri bear deutsagu, alkartasunak irauñ al izan dagian, bestelan, laster agertuko da norbe ^ekeria us-telkerizko errezoñ baltzenekin.

Dana dakigula uste izaten da, sarri askotan, baiña egiñek ez dira, urrin, izaten, arazoak, beste era batera joan bear ebeia adierazoten. Ikuspegi aundirik ez daukagu ta biotza bera be oso txikia. Ta olan, txikikeri asko egiten ditugu. Geure geureari bagiratu ta orren morroi jarten gara, ta norkeriak, laster, menperatu oi dau gizona ta ondamendira croan. Era onetan jokatukeran, Jesusek nai dituan asmobideetatik, urrin, gagoz." Izan zateze bikaiñak, zeruetako Aita danez.: Mt. 54,8.

Zenbat irakatsi eder emon nai ete deusku itz bikain eder onek. Ez zaitze izan estuak, kaskarrak, norberekoñak, zapaltzailleak, diru-zaleak... Ortik ez dator asarrea, lapurreta ta ikusi-eziña baiño. Munduko ondasun guztien goitik Aita baten seme izatearen anaitasuna jarri bear dozue. Ori da Egilleak guri bere seme legez, ipiñi euskun elburua. Gero, gizonak bere txarkeriz apurtu eban alkartasuna ta geroago, Jesusek bere odolaz indar-barritu eban giza-diaren anaitasuna. Ta gu Jesusen maitasun orren jarraitzaille izan bear gara.

KRISTIÑAUEN AGINDU BAKARRA

Jesusen mendiko itzaldi ospetsuari buruz, pentsaketa aldi bat egin dogu. Jesusen eskabideak, egiz, guztiz sakonak izan ziran. Isrraeldarrak arrituta geratzen ziran bere jakituriagaz; baiña eurei, gogor egiten jaken ta on-irakasle ain zuzena ezin ikusi, alan bere, ta kurutzan josi eben.

Baiña il aurreko gabeak, bere zorigaitz guztia, gori gori, ikusten ebanean, ta judear etsaiak, gorrotoz beterik, txakur amorratuen antzera, ebilkiozanean, agindu barri bat emoten deuskula dirausku: "Agindu barri bat damotzuet; alkar maite dagizuela. Nik maite izan zaituedanez, zuek be alkar maite dagizuela." Jon. 13,34. Ta gero, barrero diño: Auxe da nire agindua: Alkar maite dagizuela, nik zuek maite izan zaituedanez." Jon. 15,12. Ta irugarrenez, barrero, diño: Auxe agintze deutzuet: Alkar maite dagiela." Jon 15,17.

Iltamuan dagon gurasoak, umeai emoten deuten kontsejua baiño sarkorragoa, barru-min ta zartada aundiago emoten dau. Munduan iñork egin ezin leiken baiño bizitza zuzenagoa egin... munduko jakituriak emon leiken jakituria baiño, amai barik ohea gizarteari emon, ta euren artean irakasten ziarduanean, aren jakituriz arrituta esaten ebenak, baiña nor da au, iñork ez dau onek lez barbarik egiten da... Orain gorrotoz beterik, ezin dabe ikusi... ta Jesusek ordu itzal orretan diño: alkar maite egizue, neuk maite zaituedan lez."

Jesusen apostoluek ta beste kristiñau ikasle askok, ondo, ikasi eben Jesusen barri au, ta odolez izenpetu eben euren ikasi, lana ta bizia, ta egiz, ondo, betetu eben Maisuaren agindua.

AGINDUA SARRIA DALA JESUSEK ZERGAITIK DIÑO...?

Jesusen guraria au da; Berak gu maite izan ginduanez, guk alkar maite izatea. Garbi dago, berak zer egin eban ta emen, ez dago atzipenik. Gizonak lanak nai ditu ta egiteen bidez irakatsia sendatu eta berbea ziurtu. Gizonaren itz utsetan, iñork ez dau uste onik izaten. Ori dala-ta, zerutar aginduak dira: "Zure urko laguna zeure burua lez maite egizu."

Denpora barrietan, Jesusen aldian baiña agindua bikaiñago biurtzen dala dirudi: Urko laguna zeure burua baiño geiago maite izan egizu. Eziña dirudin egintza au, jesusen jokabidezko ereduaz, ondo, argituta geratzen da. Jesusen jokabidea, beti, izan zan zintzoa. Ainbeste maite eban gizadia!!! Azkeneraiño bereak maite izan zituan. Emon leiteken maitasun ezaugarri z undiena, emon euskun. Lagunen alde bere bizia emon eban, ta ze eratarra gaiñera, bera biziaren jaubea izanik...!!! Zentzundun jende ona arrituta dago munduan... jazoera ori zelan izan eitekean. Erantzuera bat dago bakarrik gizonen iztegian. Maite ginduzen ta azkeneraiño maite izan ginduzen... Ta Paulo deunak diñoanez: Kristo zuen biotzetan sinisten bizi izan dedin eta maitasunean susterrak eginda, sendo egon zaitezen, orrela santu guztiekaz batera, asmo au dan zabala, luzea, garaia ta sakona ulertu aal izan dagizuen, eta jakintza guztiaren gaiñetik dagoan Kristoren maitasuna ezagutu aal dagizuen. Jaungoikoaren betetasun guztiaz beteak izan zaitezen." Ef. 3.17-19.

Emen agertzen dan maitasun arrigarriari begiraturik, bata besteari egiten jakozan egintza txikietako maitasuna ez da naikoa. Bestien alde egiten dan denbora alditxo ez da naikoa. Onuak emon ta limosnatxoak egitea ez da naikoa. Guk gauza aunditzet artzen ditugu egintzak, oso, urrin dagoz, Jesusen maitasun aundiarengandik.

Sarritan, besteei on egiñez, gure izatea, lana, on egitea, arriskuan, ipinten daben laguntasunei buruz gabiltzaz. Benetan, anaitasun lanean bizia murriztu egiten da, nai dala geldi geldika, nai dala otsean. Baiña era ontako lanak urko-lagunaren bizia, aurrera, ateraten dabe. Egintza ederra da anaiengana serbitze zoragarri au gizonen artean. Ezer ez dago ederragorik.

Jon deunak, garbi esan deusku: Jaungoikoaren maitasuna zelakoa dan ezagutu dogu: arek bere bizia gure alde emon eban eta. "Izan be, Jaungoikoak mundua, bere seme bakarra emoteraiño, maite izan dau: Beronegan sinistu dagian iñortxo be galdu ez daiten, betiko bizitza izan dagian baiño" Jon.3,16.

Jesusen maitasun au aundia ta berezia dan ezkeroz, Jesus ezagutzen ez dabenak, ezin, iñundik iñora, onartu leike. Euren buru, gogo ta indarrak ikusirik, ezin konturatu dira, gizon batek zelan, orrenbeste maite izan leiken, norbere izatea, osoan, iñoren alde makurturik. Ta olako pentsalariak, Jesusen

jarraitzaillea, zerbait kaskeauta ikusten dau. Baiña kaskeatuak, munduan jazo dan egite itzal ta zoragarriena onartu nai ez dabenak dira.

Agindu barriak *ez* dauka ertzik; gizonen almenez goitik dago. Ori dala-ta, munduan gizontasuna lurra jota dabil, sarri askotan, ta gizadia minduta negarrez. Argi barri onek argitu bei lurra, anaitasuna izan dedin gizar-tean.

Munduaren elburua Jaungoikoa dala ikusten dabenak; anaitasuna alkar maitatzea dala lurrean dogun arazorik aundi-ena, argi, konturatzen dira.

Nire anaiak Kristo berbera dira. Maitasun aginduaren bigarren arrimena au da: Len, Jaungoikoaren ta urko-lagunarenganako maitasunatzaz itz egiten zan. Gauz bi ezbar-diñak ziran; alde batetik, jaungoiko gure Egillea, ta bestetik, gizona, gure anaia, ta maitasun bi bere ez-bar-diñak, Egilleari zor jakona ta anaiari zor jakona. Orain, jaungoikoa gizon egin da. Gauza arrigarria da baiña, lagun bakoitzarengan dago Jesus berberak adierazo deuskunez: "Oneri egiten deutsezun mesedea, neuri egiten deustezue."

Jesus, beraz, guretariko bakoitzaren barruan dago. Geugaz bizi da. Guztia arrigarria da, baiña, egitan, pozgarria. Jesusen babespean bizi garala jakitea. Baiña Jesus, batez bere, beartsuekin bizi da. Aren ardurea, bizi bizirik, daroa beregan." Beartusei egiten deutsezuen laguntasun guztia, neuri egiten deustezue."

"Eta txolat bete ur otz besterik ezean, txikitxo oneitariko bateri, ikasle dalako, edaten emon dagianak, benetan, dirautzut; ez dau betiko saria galduko." Mt. 18,5., Emen, Jesusek, gu on egiñaz, gure artean alkartzen garanean, beragaz bat egiten gaitu. Lagun bakoitza maite dau, ta batez bere, a beartsua, a egarri dan umea... ta ongille orrentzat sari nagusia izango da...

Gose edo egarri diraben artean, an, daukagu Jesus itxaroten. Etxerik gabeko sendietan, an, bizi da Kristo. Munduko semeak billotsik, Kristo dira. Lagun eta erri zapalduetan, an, dago deika Jesus. Errukia nai dau ume areen alde, ta zuzentasuna nai dau gaiztakeriz zapalduta dagon erriaren alde. Neguko oiñeztarrizko egun baltzetan, tellatu apurtupeetan, Kristo, an, dago lorik egin eziñik. naigabea dagon toki guztietan, zoritxarpeko lagun guztiekin an, dago arekin bat eginda. Ez osagillerik ta ez osakairik ez dagon etxe zarretan, an, dago Kristo lagun arengan gaisorik. Esaniko guzti onen sendagarritzat, ara, zer diñoan Matero Ebangelariak. "Gose izan nitzan eta jaten emon zeunsten-eta; egarri izan nintzan eta edaten emon zeunsten; arrotz nintzan eta etxedan artu ninduzuen; billotsik nengoan eta jantzi egin ninduzuen; gaisorik eta ikustaldia egin zeunsten' giltzapean eta ikustera etorri zintzakidezan." Mt. 25,35-36.

Nekepean dagozanen artean dago Kristo. Baserritar nekepetu ta duba antzean lurrak landuten, dituenengan, an, dago Kristo. Illeetan lanari ordaiñik ez dau etxeetan, an, dago Kristo, arekin batera bizitza-kurutzea eroaten.

Jaungoikoa aurkitu nai ba-dogu, bera dagon tokietara ioan bear gara; gaisoaren gana, beartsuarengana naiz lapurren eskuetan jausi danarengana. Ikusi nai ezta, sarri, aurrera, goaz, baiña, Kristo, an, dago minduta. Lk. 10.29-32.

Odeietan edo or, nonbaiteko goia[detan aurkitu nai genduke Kristo; baiña, emen berton, gizartean ta gizonetan daukagu: Ona emen, bere itz argiak: "Nire anai txikienen alde egiten dozuena, egiz, dirautzuet, niri egiten deustazue. Ta lagun onei egin barik izten dozuena, niri egin barik izten dozue.

"Orrela, anaien aurka pekatu egiñik eta areen barru makala zauriturik, Kristoren aurka egiten dozu pekatu." Kor.8,12.

Kristoren personea gauza saindua da ta ezbearpean dagoana, zaindu-bearrekoa.

Jaungoikoa ezagutu ta onartu eziñik gabiltzaz munduan. Jesusek emendik alde baiño leen, bere bialduak itzi zituan lurtean, Isrraelen asi eban Salbamen lana jarraituteko esanez: "Zoaze mundu guztira ta zabaldu Ebanjelioa." Arazoa aundia zan ta gizadiak gaiñera bere gogoa lurrari ezarrita eukan; lurra izan bere, ametszkoa ta erakarkorra da gizonentzat.

Baiña Jaungoikoaren gogoa ementxe, betetu bear zan. Ta munduaren salbamen ta egite orren asiera Golgota mendian odolez garbituta ta indartuta egoan. Apostoluen eginkizuna aundia ta zailla zan ta Jesusek, onan, poztu zituan. "Bene benetan, dirautzuet: nik bialdu dagidana onartu dagianak, neu onartzen nau." Jon.13,20.

Kristoren jarraitzaileak jazarpenduten dituanak, Kristo berbera jazarpenduten dau. Ap. Egiñak.9,4-5. "Saulo Saulo, zergaitik narabilzu aurrean? "Zuk aurrean narabilzun Jesus naz *ni*, esan eutsan Jaunak; gogor jatzu akuluari ostikaka ekitea."

Ebanjelioaren irakatsia sakona da. Munduari, dardara eragiten deustoa, munduko jakituriaren artean ain berezia danak. Emendik aurrera, iñork ezin esan al izango dau, guzurrez izan ezik: Jaungoikoa maite dot, baiña ez urko-laguna. "Jaungoikoa maite dabela esan baiña, anaia baztertzen dabena, guzurtia da." I.Jon.4,20. Zergaitik? Errezoi edo zioa, argi, dago. Jaungoikoa lagun guztietan dago, ta iñor ez dau, bertan bera, izten. Anaia gorroto dabena, Kristo gorroto dau; anaia baztertzen dabena, Kristo baztertzen dau.

"Bere anaia maite ez dabena, Jaungoikoa ez dau ezagutzen, Jaungoikoa maitasuna da-ta." I Jon. 4,8. Bere anaia maite ez dabena, illik dago. Ta bere anaia arbuiatuten dabena, iltzaille bat da." I Jon. 14,15. Egiz, berba gogorrak dira, baiña maitasun onetan oiñarritu eban Jaungoikoak gure sinismena eta bizia.

Kristo eta Jaungoikoa gauza bat direla kristiñauak onartzen dabe, baiña Kristo ta gizonen arteko batasuna onartzea, zail egiten jake. Jesusek, guk

jarraitzaillea, zerbait kaskeauta ikusten dau. Baiña kaskeatuak, munduan jazo dan egite itzal ta zoragarriena onartu nai ez dabenak dira.

Agindu barriak ez dauka ertzik; gizonen almenez goitik dago. Ori dala-ta, munduan gizontasuna lurra jota dabil, sarri askotan, ta gizadia minduta negarrez. Argi barri onek argitu bei lurra, anaitasuna izan dedin gizartean.

Munduaren elburua Jaungoikoa dala ikusten dabenak; anaitasuna alkar maitatzea dala lurrean dogun arazorik aundiena, argi, konturatzen dira.

Nire anaiak Kristo berbera dira. Maitasun aginduaren bigarren arrimena au da: Len, Jaungoikoaren ta urko-lagunarenganako maitasunatzaz itz egiten zan. Gauz bi ezbaridiñak ziran; alde batetik, jaungoiko gure Egillea, ta bestetik, gizona, gure anaia, ta maitasun bi bere ez-bardiñak, Egilleari zor jakona ta anaiari zor jakona. Orain, jaungoikoa gizon egin da. Gauza arrigarria da baiña, lagun bakoitzarengan dago Jesus berberak adierazo deuskunez: "Oneri egiten deutsezun mesedea, neuri egiten deustezue."

Jesus, beraz, guretariko bakoitzaren barruan dago. Geugaz bizi da. Guztia arrigarria da, baiña, egitan, pozgarria. Jesusen babespean bizi garala jakitea. Baiña Jesus, batez bere, beartsuekin bizi da. Aren ardurea, bizi bizirik, daroa beregan." Beartusei egiten deutsezuen laguntasun guztia, neuri egiten deustezue."

"Eta txolat bete ur otz besterik ezean, txikitxo oneitariko bateri, ikasle dalako, edaten emon dagianak, benetan, dirautzut; ez dau betiko saria galduko." Mt. 18,5., Emen, Jesusek, gu on egiñaz, gure artean alkartzen garanean, beragaz bat egiten gaitu. Lagun bakoitza maite dau, ta batez bere, a beartsua, a egarri dan umea... ta ongille orrentzat sari nagusia izango da...

Gose edo egarri diraben artean, an, daukagu Jesus itxaroten. Etxerik gabeko sendietan, an, bizi da Kristo. Munduko semeak billotsik, Kristo dira. Lagun eta erri zapalduetan, an, dago deika Jesus. Errukia nai dau ume areen alde, ta zuzentasuna nai dau gaiztakeriz zapalduta dagon erriaren alde. Neguko oiñeztarrizko egun baltzetan, tellatu apurtupeatan, Kristo, an, dago lorik egin eziñik. naigabea dagon toki guztietan, zoritxarpeko lagun guztiekin an, dago arekin bat eginda. Ez osagillerik ta ez osakairik ez dagon etxe zarretan, an, dago Kristo lagun arengan gaisorik. Esaniko guzti onen sendagarritzat, ara, zer diñoan Matero Ebangelariak. "Gose izan nitzan eta jaten emon zeunsten-eta; egarri izan nintzan eta edaten emon zeunsten; arrotz nintzan eta etxedan artu ninduzuen; billotsik nengoan eta jantzi egin ninduzuen; gaisorik eta ikustaldia egin zeunsten' giltzapean eta ikustera etorri zintzakidezan." Mt. 25,35-36.

Nekepean dagozanen artean dago Kristo. Baserritar nekepetu ta duba antzean lurrak landuten, dituenengan, an, dago Kristo. Illeetan lansari ordaiñik ez dau etxeetan, an, dago Kristo, arekin batera bizitza-kurutzea eroaten.

Jaungoikoa aurkitu nai ba-dogu, bera dagon tokietara joan bear gara; gaisoarengana, beartsuarengana naiz lapurren eskuetan jausi danarengana. Ikusi nai ezta, sarri, aurrera, goaz, baina, Kristo, an, dago minduta. Lk. 10.29-32.

Odeietan edo or, nonbaiteko goialdetan aurkitu nai genduke Kristo; baiña, emen berton, gizartean ta gizonetan daukagu: Ona emen, bere itz argiak: "Nire anai txikienen alde egiten dozuena, egiz, dirautzuet, niri egiten deustazue. Ta lagun onei egin barik izten dozuena, niri egin barik izten dozue.

"Ot rela, anaïen aurka pekatu egiñik eta areen barru makala zauriturik, Kristoren aurka egiten dozu pekatu." Kor.8,12.

Kristoren personea gauza saindua da ta ezbearpean dagoana, zaindu-bearrekoa.

Jaungoikoa ezagutu ta onartu eziñik gabiltzaz munduan. Jesusek emendik alde baiño leen, bere bialduak itzi zituan lurtean, Israaïelen asi eban Salbamen lana jarraituteko esanez: "Zoaze mundu guztira ta zabaldu Ebanjelioa." Arazoa aundia zan ta gizadiak gaiñera bere gogoa lurrari ezarrita eukan; lurra izan bere, ametsezkoa ta erakarkorra da gizonentzat.

Baiña Jaungoikoaren gogoa ementxe, betetu bear zan. Ta munduaren salbamen ta egite orren asiera Golgota mendian odolez garbituta ta indartuta egoan. Apostoluen eginkizuna aundia ta zailla zan ta Jesusek, onan, poztu zituan. "Bene benetan, dirautzuet: nik bialdu dagidana onartu dagianak, neu onartzen nau." Jon.13,20.

Kristoren jarraitzailleak jazarpenduten dituanak, Kristo berbera jazarpenduten dau. Ap. Egiñak.9,4-5. "Saulo Saulo, zergaitik narabilzu aurrean? "Zuk aurrean narabilzun Jesus naz ni, esan eutsan Jaunak; gogor jatzu akuluari ostikaka ekitea."

Ebanjelioaren irakatsia sakona da. Munduari, dardara eragiten deutso, munduko jakituriaren artean ain berezia danak. Emendik aurrera, iñork ezin esan al izango dau, guzurrez izan ezik: Jaungoikoa maite dot, baiña ez urko-laguna. "Jaungoikoa maite dabela esan baiña, anaia baztertzen dabena, guzurtia da." I.Jon.4,20. Zergaitik? Errezoi edo zioa, argi, dago. Jaungoikoa lagun guztietan dago, ta iñor ez dau, bertan bera, izten. Anaia gorroto dabena, Kristo gorroto dau; anaia baztertzen dabena Kristo baztertzen dau.

"Bere anaia maite ez dabena, Jaungoikoa ez dau ezagutzen, Jaungoikoa maitasuna da-ta." I Jon. 4,8. Bere anaia maite ez dabena, illik dago. Ta bere anaia arbuiatuten dabena, iltzaille bat da." I Jon. ~~Egiz~~, berba gogorrik dira, baiña maitasun onetan oiñarritu eban Jaungoikoak gure sinismena eta bizia.

Kristo eta Jaungoikoa gauza bat direla kristiñauak onartzen dabe, baiña Kristo ta gizonen arteko batasuna onartzea, zail egiten jake. Jesusek, guk

urko-lagunari egindako laguntza, berari egindakotzat lez artzen dau ta betiko saria eskeintzen deutso. Jaungoikoaren semeak emen, alkartzen gaitu ba irurok: Jesus bera, urko-laguna ta onen laguntzafillea: ni: zu: bera: gu, on egiten daben guztia beartsuaren aurrean.

Guretariko bat izatera etorri zan eta gure artean biziko zala esan eban, munduak diruauan arte guztian. Mt. 28,20.

MAITASUNA JAUNGOIKOAGANDIK DATOR

Kristau maitasun eskabidetan, goixura, eldu gara; ta bera ba-da, guzti au lortzea, eziña dala uste izango dogu. Lunar begiekin begiratu ezker, alantxe, da izan bere. Gure indarrez goitik dago edozein izkuntza, enda ta norbere zapaltzaillea maitatzea. Ibaña, bakarrik, ez gagoz; munduko txikieriez goitik dago Jesus guri laguntzen. Gure indarrez ezin doguna, Jaunaren laguntzaz egin giñaike, Jaungoikoarentzat ez dago ba ezer eziñik.

Anaitasun erreñu barria sortzera etorri zan Jesus. Mundua anaitasunik ezaren lainoan egoan. Maitasuna izan zan sorlea, baiña biztanleak usakataxak urten eutsen mozolo antzera jokaturen ebelarik, gu be bide erdian gabiltzaz, onerako ezin zuzpaturik. Norberekeriaren ustelkeripean sartuta gagoz ta ats txarra dauka sasipeko ur ustelaren antzera. Ta gizadiari ez deuto askatasunez, aurrera, egiten izten. Baiña Kristogan txertatuta, anaitasunaren frutuak emon al izango ditugu. Jon. 15,1-8. "Ni benetako matsondoa naz eta nire Aita maastzaiña da. Nigan fruturik ez dakarren edozein maats-aien, ebagi egiten dau, frutua dakarrena barriz, iñausi egiten dau, frutu geiago emon dagian. Iraun egizue nigan, nik zuekan lez. Ni matsondoa naz; zuek aienak. Nik beragan lez, neugan itxaroten dabenak, frutua ugari dakar." Emen, daukagu laguntzaille nagusia; iñoz, bertan bera, izten ez gaituana.

Anaitasuna Jaungoikoa aurkitzeko bide egoki ta zuzen-zuzena da. Baiña Aitarenganako maitasuna ta itzalpena bear ditugu urko-laguna maitatu al izan dagigun. Munduko izen politak ez dira naiko, egizko ta zuzentasunezko bitza gizartean izan al dedin. Lapurkeri aundienak, errez, egiten dira Jaungoiko maitasun ta bildur santu barik. Norberak nai dabena maitatzea ta besteak baztertzea norberekeri aundia da ta gizartearen ondamendia.

Jaungoiko erriaren edestiak, garbi, agertzen deusku lege ta zigorrak ez direla naiko anaitasunean bizi izateko. Utsa norberekerizko gizonaren naimenean dago; urko-laguna maitatzeko ta aren bitza, gora, jasoteko, biotz ori argal dago ta beste bere antzeko batengana ba-doa laguntza billa, bien artean, errezago, porrot, egingo dabe ta beartuek ugaritu ta gizartea miseri-bideratu... Ori dala-ta, Jesusek dei egiten deusku, bere kurutzeko biotz indarra eskeñiaz.

"Guztiz maiteok: alkar maite dagigun, maitasuna Jaungoikoagandik dator eta; maitasuna daben edonor, Jaunagandik jaio da, eta orrelakoak Jaungoikoa ezagutu egiten dau." 1. Jon. 4,7. Jaungoikoak, mundua sorkeran, ez eban nai aundiki, norkeri ta gaiñerako zorginkeririk; lurra bere seme-alaba guztientzako egin eban. Au guzti au zuentzat da, ta zuek nigaz bizi izateko zorientasunean batiraun guztian.

Ta azken aldi onetan, Jesus gure barruetan sartzen da, Aitaren asmo eder areek betetuteko duin izan gaitzen ta gizarte obeago bat egiñez, anaitasuna izan dedin lurraren gaiñean.

Anaia maitau bear dot esatea, gauza aundia da, baiña gure egiteko aundiena da, egi ta zuzentasunezko bizitza egiñaren poza barruan asmetea; ez norberekerizko gure irabaziak gaitik, Jaungoiko berak egin ta gero, arduraz, barriztu gaitualako baiño. Bera da maatsondo ta gu aienak gara. Ta aienak juzgatuz ondotik artzen dau bizia ta indarra.

Jesusek, ondo, ikusten eban, berak lurretik aldekeran, gizadian bere jarraitzailleak ze tajuten geratzen ziran ta errukitu egin zan; ta era onetan berba egin eutsen." Ez zaituet umezurtz itziko, etorriko naiatzue barrio." Ardura aundiz artu eban Jesusek Salbamenaren arloa, ta barriro, esan eutsen: "Eta nik Aitari eskatuko deusat eta beste Poz-emoille bat emongo deutzue." Jon I4,I6.

"Beraz, egiaren menpera etorririk, zuen biotzak, benetako maitasunerako garbitu dituzuen ezkerro, biotz batez maite egizue alkar gartsu: Ez zaree, barriro, azi ustelkorretik jaio-ta, ezin usteldu daitekenetik baiño, Jaungoiko berba bizi ta betikoaz." Pedro. I,22-23. Jaungoikoaren laguntza guztia eskeinuta daukagu ta kurutzian maitasunarren il ta berbiztu zanaren itzak ezin utsik emon leikigu.

Pablo deunak diño: "Gogo deunaren bitartez emon deuskun maitasunez, gure biotzak beterik dagoz." Err. 5,5. "Ta Gogo Deunaren frutua maitasuna da." Gal. 5,22. Batikanoko Batzarrak diñoanez; kristiñauak Gogo Deuna artzen dau, agindu barria betetuteko gai izan dedin. Pablo Deunak beregan asmau eban Kristoren maitasunaren indarra. "Arrezkero, ez naz bizi ni; Kristo bizi da nigan. Eta orain aragitan bizi nazanarren, Jaungoikoaren semearen sinistean bizi naz; ni maite izan ninduanaren eta bere burua kurutzean nigaitik emon ebanaren sinismenean." Ga1.2,20. "Niretzat bizi Kristo da diño." Fil. 2,21.

Pablo deunari anaiak otseinduteko, bultz eragiten eutson Jesusen indarrak. Jesuseri jarraituz, indarra ta poza artu zituan ta guztia zan uskeria ta ezer-eza aren ondoan. Ori dala-ta, bizi barriz beterik iñoan: "Nire bizia Kristo da." Fil.2,21. Anaiak otseindutera, oso osoan, eroan eban Kristoren indarrak. Jesus sinistea ta sinismeneko egintzak adore aundia emoten deutse giza bizitzari, ta Jesusek nai eban, maitasunez sinismen egintzak egitea.

Kristau sinismena, gogoz, artzen ba-dogu, ta maitasunez indartu, iñork ez ezerk ez gaitu on egiten geldieraziko. Berez, izango dogu, geroago ta geiago, onbidean jokatzeko gogoa ta orrez gaiñera, poza izango da gure barruan; bardin bageko poza, ez lurrek ta ez aberastasunek emon ezin leikiguen poza.

Alkartasunean, maitasunez, ospatzen d an sinismenak, beste gauz eder bat ba dau, bildurra kentzen dau ta aurrerantz egiteko gogoa ugaritzen dau. Jaungoikoa gugaz ba dago, gure aurka nor egon leiteke...?

Kristoren maitasunetik nork bananduko gaitu? Oiñazeak, gaiztasunak, jazarpenak, jantzirik ezak, arriskuak edota eriotzeak...? Gauz guzti onetan, maite izan ginduzan Jesukristoren bidez geiago, indartuta geratzen gara.

Jaungoikoaren maitasunetik ezerk ezin gaituala banatu, ziur nago. Ez eriotzak, ez biziak, ez oraingo ta ez geroko ezerk... ta ez beste munduko izakik, Jesukristo gure Jaunagan dagon Jaungoiko maitasunetik ezin banatu gaitue. Err. 8,31-39.

Lenengo kristiñau batzarreen indar, poz ta maitasuna Jaungoikoagandik etorkioen, ta egiz, gaurko kristiñau erriak daukan poz ta maitasunaren adibide pozgarri bat besterik ez da. Jaungoikoa ebillen arekin erri barri bat sortzen ta gaur bere, Jaungoikoa dabil gure inguruan gure bizia ta gure sinismena indartzen. "Jaungoikoa berberak alkar maitatzen irakatsi eutsen." 1 Tes. 4,9. Ta guri be, munduko burruka negargarri onetan, nork irakatsi leikigu alkar maitatzen Jaungoiko berberak izan ezik...?

JAZARPENDUA, IRAINDUA TA ESPETXERATUA

Zeru goitik begiraturik gizadiaren egoera, benetan, larria zan. Ondamua, ikusi eziña, gorrotoa ta eten barik, batién bestien, beti, gudetán alkar ilten. Jesusek maitasun mezua ekarren Aitagandik lurrera ta maitasunez bizi izan zan geure antzeko egiñik, ta anaitasun mundu barri bat eratu nai izan eban. ¡Ta au izan zan Jesus Kurutzera eroan eban okerkeri aundia...!

Egun guztietan beartsuen artean sartuta, maitasun ta zuzentasunaren aldez itz egiten ebilla, baiña agintari ta indartsuei ez jakezan atsegin ...ta euren asmo maltzurretarako, ondo, ez jatorkien lez, laster, Aberriaren goraberetako, kontuzko gizon lez artu eban.

Orain ikusiko dogu nauskerien kontua, euren buruak zuritzeko, aginpidietan eurenak egiten, nasaiago ibili al izateko, zertzuk asmakizun ateraten zituen plazara. Entzute txardun erri txiki bateko ume legez agertzen dabe." Nazaretetik ezer onik urten daiteke gero.! Jon.1,46. Ta baita bere, destaiñez, dirautse: "zu be Galileakoa zara ala? Jon. 7,52. Ta alderdi guztietatik, ondo, ikutu barik ez iztearren diñue: "Zelan ete dakiz onek liburu santuak, iñun, ikasi barik.? Jon. 7,15.

Arotz baten semea, agintarien baimen barik, beartsuei irakatsiak emoten astea, arrisku aundiko gauzea zan. Ta indartsuek, beti, bildurtzen ziran, beartsuen artean zerbait egiteko arduratzen ziran. Munduak egin oi dabenez, zelatariak, laster, bialdu zituen, aren ingurua zaintzeko asmotan. Pariseotarren legeren batzuk bazterten zituala ikusi eban. Baiña, danez goitik, gogorrena au zan: aberats ta indartsuek zerbait barregarrituta geratzen ziranarren, gogor, jokutzen eban bere ekintzetan. Ta au ikusirik, baserri aldeko jendeak, atsegiñez, artu esaten ebana, ta gogo geiagoz jarraitzen eutsen.

Jesusek bere aurrean eukazan txiroak ta aberatsak, ta berari entzunda, iñor ez zan atzipetuta geratu. Beartsuek lagun bat eukela, laster, konturatu ziran. Ta indartsuek be euren jokera ta legeak arriskuen egozela ikusi eban. Pariseotarren ustez, gora-bera onek egoera barregarri ta arrisku aundikoa sortu eikean. Jesus, tolez bako gizon onek, ze eratako jendeari itz egiten eutson, ez eban ezagutzen. "Legea ezagutzen ez daben lagun taldekoak, barriz, madarikatu batzuk dira." Jon. Pariseoen ustez, jende beartsue burubakoa ta ez-jakiña da, ta gauz larregi esan ezkerro, dana oker ulertzen dabe. Ta indarrez, gora gora, jaiki ta laterriaren aurrerapide guztia ondatzeko gertu dagoz.

¡Erria atzipetu ez egian, euren artean dagon gizon ori bota egin bear zan.! Israelgo jaunén artean, Jesus erriaren ondamendi izateko arriskura eldu da. Pariseotarrak uste eban, Jesus dala-ta, erriak legeenganako itzaltasuna galdu egiten ebana. Beartsuengandik asi ta aundiki ta aberatsak, lege guztien oiñarria, maitasuna izan bear zala, ez eutsen, ondo, erizten.

Beti beartsuen alde ikusten eben. Ta aundizkientzat, ziur ziur, zoratuta egoan... ta aurrera egiten itzi ezkeru, ta *erria*, gora gora, jaiki, gero *ezingo* zan bere negurrira ekarri.

Au dala-ta, "erriaren ona gaitik," Jesus iltea erabagi eben.

Israelgo jaun ta agintariei ez jakezan gogoko Jesusen egiteak ta izu-garrizko zabalkundea egin eben beraen aurka. Euren jokabide usteletan, burua galduta aurkitzen eben, ta osoan, luna jota aurkitu orduko, Jesuseri entzute txarra ematea erabagi eben: "Zer, zorabiatu egin zaitue ala."? Egia berbera dana gaitik, guzurtia zala zabaldu eben." Pariseoak Pilatoren aurrean batuta, auxe esan eutsoen: "Jauna, gogoan, dogu, guzurti arek, oraindiño bizi zala. auxe esan ebala: Irugarren egunean biztu egingo naz" Mt. 27,62-63. Gaizkille bat da ta deabrua daroa barruan. Jon. 7,20. Obenlari aundi bat da, iñoen. Judarrak, itsu izandakoari, bariro, dei egin eta auxe esan eutsoen: "Emon egiozu aintza Jaungoikoari. Guk ba-dakigu gizon ori pe-kataria dana." Jon. 9,24. Bere itzekin Jaungoikoa irainduten daben, obenlari bat da. "Ez ete dogu ba, guk zuzen esaten, zu samaritarra zarala ta deabrua daukazula."? Jon. 8,48. Era guztietako zalakuntzak egin eutsezan isrraeldar agintari ta aundizkiak.

Ta era onetan, ekin ta ekin, errían nastea sartzea lortu eben. Laguntaldeak Aretzaz zurru-murrua erabillen. "Zintzoa da" iñoen batzuk. Beste batzuek barriz, "Ez, erria naasten diardu." Alan be, judarrakanako bildurrez iñok ez eban aretzaz berbarik, agirian, egiten." Jon. 7,12-13. Izen txarraren ta bildurraren zabalkundea bere frutuak emoten asi zan. Judarren bildur zirelako esan eben ori itsuaren gurasoak; izan be, judarrak orduko alkatuta egozen, norbaitek Jesus Kristotzat artzen ba-eban, alakoa sinagogatik kanpora botateko. Orrexegaitik esan eben itsuaren gurasoak: "Ba dauko sasoie, berari itandu egiozue." Jon. 9,22-23.

Jesusek itz egikera, jendea aldra bitan, banatu zan. "Laguntalde arteko askoak auxe iñoen: "Profeta da au benetan." "Kristoa da au" iñoen beste batzuek. Beste batzuek barriz, auxe iñoen: "Galileatik etortekoa ete da ba Kristoa...? Jon. 7,40-41. Areitariko askok auxe iñoen: "Deabrua dauka orrek; ori zoratuta dago. Zergaitik entzuten dautsazue." Beste batzuk, barriz, auxe iñoen: "Berkok ez dira deabruarenak. Edegi ete daike, gero, deabruak itsuen begirik.? Jon. 10,20-21.

Izen txarra izatearen zabalkundeak ez eban, osoan, ondo, urten. Ainbat bidar arrika egin nai eutsen. Abraan baiño lenagokoa zala bera esan eutsoen: "Orduan, areek arriak artu zituen Jesusi jaurtiteko, baiña, jesus gorde ta jaunaren etxetik urten egin zan. Jn.8,59; 10,31. Beste batzuetan, espetxera eroan nai izan eben; "Jesusi eltzea nai izan eben, baiña iñork ez eutsan eskurik ezarri. Jauretzeko zaintzailleak, abadeburu ta pariseokarrena biurtu ziran. Onak auxe esan eutsen: "Zegaitik ez dozue ekarri"? Zatintzailleak auxe erantzun eben. "Gizon orrek lez ez dau egundo gizonak berba egin."

Jon. 7,44-46. Beti, txarto, urteten eutsen euren asmoetan. Erriaren bildurra euken.

Bein baten, espexera eroateko asmoz, ertzain bat urreratu jakon ta ez zan ausartu eskurik botaten, ta gogoz eta pozik, ostera, autortu eban Jesusek, beti, egia zabaldu ebala Isrraeldarren artean. Ta nagusien agindua beteten ez zan ausartu... Buruzagiak barriz, kontuek eskatuz... zergaitik ez dozue ekarri espexera iñotzen...

Beste aldi zoragarri baten, zaintzailleak, abadeburu ta pariseokana biurtu ziran. oneek auxe esan eutsen: "Zergaitik ez dozue ekarri." Zaintzailleak auxe erantzun eben: "Gizon orrek lez ez dau egundo gizonek berba egin." Jon. 7,45-46.

Amenazu edo semakuntza guztien gaiñetik, erritar jendea ondoren ebilkion. Orduan abadeburuak eta pariseuak batzarra egin eben ta auxe iñoen: Zer egin dogu.? Orrela jarraitzen izten ba-deutsagu, guztiak sinistuko dabe orregan: eta erromarrak, etorrita, ondatu egingo ditue gure Toki Santua ta gure erria." Jon 11,47-50. Egun aretatik Jesus iltea erabagi eben. Jon. 11,53. Ta espexean sartzeko billa ebilkiozan. Abadeburu ta pariseoak agindu au emon eben... Jesus, nun, egon zeitekean jakin egianak, agertu egiala, Ari eltzeko." Jon. 11,57.

¡Eriotz epaia bakarra zan.! Abadeburu, pariseu ta abarrek uste ebenez, eurak ziran, bakarrik, mundua konpondu eikeanak ta konpondu bear ebena. Jesus, beti, munduaren onaren billa ibili zan, ta munduaren onagaitik il bear dala diñue. Gaur egunean be, olako egitada gaizto asko egin dira. Gizonik zintzoenak, erria maite izan dabena il izan ditue, eurek, askatasunez, nasai nasai, bizi izateko. Euren erako erriaren eskubideak zaintzen dituela uste izanik.

Jesusen eriotz epaia emonda egun batzuetara, iñungo zemakuntza, bildur barik, Jesus Jerusalemenera joan zanean, kantua eta goraka, laguntzen joan ziran. "Jesus Jerusalemenera etorrela jakin ebenean, palma-adarrak artuta, bidera urten jakozan deadarka: "Hosanna" ...Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena; Isrraelgo Erregea.! Astakume bat aurkiturik, Jesus aren gaiñean jarri zan, idatzita dagoanez: "Ez bildurtu Siongo alaba ori; or datorkizu zure Erregea, astakume baten gaiñean jarrita." Jesusen ikasleak ez eben, orduan, ori ulertzen; baiña, Jesus goratua izan zanean, orduantxe konturatu ziran ori Aretzaz idatzita egoala ta orixe zala Ari egin izan eutsoena. Lazaro illobitik deitu ta illen artetik biztu ebanean, jesusegaz egon izan zirenak, eurak egiten eben autor. Mirari a jesusek egin izan ebala entzun izan ebelako, laguntaldeak be bidera urten eutson. Jon. 12,12-18.

Ori dala-ta, jakiña ba, agintariak asarre bizian jarri ziran.: "Ikusten dozuenez, ezer ez dogu aurreratzen, euren artean iñoen." "Begira, mundu guztia doa bere ondoren." Jon. 12,19.

"Ordu aretan, jesus azpikeriz eskuak ezarteko ta eriotza emoteko erabagia artu eben. Jaiegunean ez, baiña, iñoen, errían matxiñadaren bat sortu ez daiten." Mt. 26,4-5. "Jendearen bildurra euken ba." Lk. 22,2.

Lenengo ziria sartu eutsona, bere lagunetariko bat izan zan, Judas Iskariote; onek ez eukan argibide zuzenik, bere barruko lur ardurekin ikusten eban Erreñu Barria. Ta Jesus bide ortatik ez joata ikusirik, esku bete diru gaitik bere lagun Jesus saldu eban.

Judasegaz alkar artuta, larri ta gabaz, gudari talde aundiagaz, matxin-zale baten antzera espetxeratu eben. "Jesusek berbetan zifarduala, Judas, amabietako bat, eldu zan, gizatalde aundia lagun ebala, ezpata ta makillekin, abadeburu ta erriko zaarren izenean. Saldu bear ebanak, ezaugarri au emon eutsen: "Nik laztandu dagidana, axe da; lotu egizue. Eta bereala, Jeusegana urreratu ta, "Agur, Rabi," eta laztan bat emon eutsazan: "Adiskide, zertara etorri zara.?" Orduan, areek, aurreratuta, Jesusi eskuak ezarririk, lotu egin eben. Orduan, Jesusegaz egoan batek, eskua luzatu, ezpatea zorrotik atera eta abadeburuaren morroiari zartada bat emonik, belarria moztu eutsan. Orduan Jesusek auxe dírauto: "Sartu ezpata ori bere tokian: ezpatea darabillen guztiak, ezpataz ilgo diraéta." Mt. 26,47-55.

Estu ta larri, ba-lehiltzez antzera, arin arin, epai irainkor bat egin, oiñazetu ta iltzaille bat ba-litz legez, eriotzako epaia emon eutsoen.

Jesus lotu ebenak Kaifas abade nagusiaren aurrera, eroan eben, idazlari ta pariseoak batuta egozen lekura. Pedrok urrindik jarraitzen eutsan, abade nagusiaren jauregiraiño, eta barruan sarturik, morroiekin jezarrí zan, azkena ikusteko.

Abadeburuak eta batzar osoak Jesusen aurka guzurrezko testigantza bila ziarduen Ari eriotzea emoteko asmotan, baiña guzurrezko autorle asko etorriarren, ez eben ezer aurkitzen. Azkenez, guzurrezko autorle bi etorri ziran, eta auxe esan eben: Onek auxe esan eban: Jaunaren etxea lurrera eratxi daiket nik, eta iru egunean, barríro, jaso." Orduan abade nagusiak, zutunduta, auxe esan eutsen: "Jaungoiko biziaren izenean agintzen dautzut: Esan egiguzu Kristo, Jaungoikoaren semea zaran." "Zeuk esan dozu, erantzun eutsan Jesusek. Eta auxe be ba-dirautzuet: aurrerantzian giza semea Guztialdunaren eskumaldean jezarríta ta zeruko laiño gaiñean etorten ikusiko dozue." Orduan, abade nagusiak, bere jantziak urraturik, auxe esan eban: "Bírao egin dau.! Zertarako testigurik onezkero.? Oraintxe entzun dozue bíraoa. Zer deritxazue.? Areek auxe erantzun eben: "Eriotzarako errudun da."

Orduan, arpegira txistua jaurtiten eta jotén asi jakozan; eta beste batzuk matraillakoak emoten, esanez: "Igarri egiguzu, Kristo; nok jo zaitu." Mt. 26,57-68.

Jesus, geien, mindu ebana, zíur zíur, ordu aretan, bere lagunak, bertan bera, iztea izan zan. "Baiña guzti au, igarleak idatzitakoa bete zedin, jazo

zan. orduan, ikasle guztiak Jesus, bertan bera itzi ta iges eben." Mt. 26,56. Ainbeste maite eban Pedrok, bere burua arriskuan ikusirik, Jesus ez ebalá ezagutzen esan eban. Ta iru bider emon eban ezetza Pedrok bildurrez beterik. Mt. 26,69-75. Ta Jerusalengo jende talde beartsua, Jesus bost egun aurretik, gora goraka, erabili eban; orain, pariseoak pustuta, Jesusen aurka jarri ziran, kurutzean ilteko eskatzen. "Pilatok auxe dirautse: Zer egingo deusat ba Kristo deritxon Jesus oni."? Eta guztiak batera: Kurutzera ori!" Orduan, Pilatok, ezer aurreratu bearrean, geroago ta naste aundiagoa sortzen zala ikusirik, ura artu ta lagun taldearen aurrean eskuak garbitu zituan, esanez: "Nik ez dot errurik zintzo onen odolaz. Zeuek ikusiko dozue." Eta erri guztiak auxe erantzun eban: "Geure gaiñera ta geure semeen gaiñera orren odola." Mt. 27,22-25.

Ez jakiñean bizi diran beartsuek, arat onat, erabiltea erreza da. Begiak itsuei argitzen ebillen Jesus, errezoiz il nai eben.

Jesus ilteko ipiñi eben irain zerrenda, interesgarria izan zan. Abadeburu ta pariseuon errezoiak, banan banan, ikusiko ditugu. Lenengo, asmau eben errezoiz ustela izan zan; Eleiza nagusia apurtutea nai ebalá: "Onek auxe esan eban: Jaunaren etxea lurrera eratxi daiket nik, eta irugarren *egunean* barriro, jaso." Jesusek esana izan zan, ni il egingo nabe ta irugarren egunean berbiztuko naz. Mt. 26,61.

Bigarren errezoia izan zan, Jesus biraolaria zala... "Orduan, abade nagusiak, bere jantziak urraturik, auxe esan eban: "Birao egin dau. Zertarako testigurik onezkero...? Oraintxe entzun dozue biraoa." Jesusek esana izan zan: Aurreratzean giza semea Guztialdunaren eskumaldean jazarrita ta zeruko laiñu gaiñean etorten ikusiko dozue." Au izan zan judarren eretziz biraoa. Mt. 26,64-65.

Irugarren errezoia zan, gaizkillea zala. Pilatok jendearengana urten ta galdera au egin eutsen: "Zer daukazue gizon onen aurka.? Au gaiztoa ez ba-litz - erantzun eutsoen arek -, ez geuzkizun ekarriko." Jon. 18,28-30. Ona emen, egia; zuzentasuna ta anaitasuna irakasten ibili dana, ta orain bost egun. gora goraka erabili ebena, orain gaizkifletzat artuta, iltea eskatzen dabe.

Laugarren errezoia izan zan, erri nastatzaillea zala. Erromako agintarien aurka jarri, politika aundiekeriak nai izan ta errege izandatzea nai ebalá.

"Gure erria naasten artu dogu au, Zesarrentzako zergak galerazoten eta bera Kristo Errege dala esaten." Pilatok itaun au egin eutsan: "Judarren erregea zara zu.? "Zeuk diñozu erantzun eutsan Jesusek. Pilatok abadeburuari ta lagun taldeari auxe esan eutsen: "Ez dausatz gizon oni errurik aurkitzen." Areek osterá, gogorrago, ziarduen esaten: "Erria naasten diardu, Galileatik eta onaiño, Judea guztian zear irakasten." Lk.23,2-5; 23,14. Jon. 19,12. Erodeseke barriz, zoroa zala-ta, gaiztetsi eban. "Baiña Erodeseke bere zaintzailleekin, Jesus iguindu ta beronen lepotik irri ta barre egin ondoren, jesusi soingaiñeko eder bat jantzierazo eta Pilatori bialdu eutsan." Lk. 23,11.

Ona emen, gizonen egitadeak Jesus il aurrean ta guztiori izan zan mundua salbetako ta Jesusek, aurrezaz, esan eban lez: "ni ilgo nabe ta irugarren egunean berbiztuko naz" bete zedin. Ta onegaz Jesusek agertu eban, biziaren jaubea zala, gure salbatzaille ta gure Jaun eta Jaungoikoa.

Jesusek guzti au ba ekian. Egizko maitasuna billatzeak, eriotza ekarriko eutsala, ondo, ekian.

Arrezkero, Jesus, bere ikasleai, argi ta garbi, esaten asi jaken; Berak Jerusalemenera joan eta Lege-batzarreko abadeburu ta idazlarien aldetik neke asko eroan bear izango zituela, baita eriotzea be, ta irugarren egunean, biztu egingo zala. Mt. 16,2I. "Egun baten, Gallean zear alkarregaz joizala, Jesusek auxe esan eutsen: "Giza-semea gizonen eskuetan itzia izango da. Arek, zearo, atsekabetu ziran." Mt. 17,22-23; Jerusalemenera igoten ziarduela, Jesusek amabi ikasleak, isillean, artu ta auxe esan eutsen: "Begira: Jerusalemenera igoten diardugu, eta Giza-semea abadeburu ta idazlarien eskuetan itzia izango da; eriotz epaia emon ta jentillen eskuetan itziko dabe, iraindu ta Kurutzian josi dagien; baiña irugarren egunean biztu egingo da." Mt.

Espetxeratu eben gabeen, biotza zabalen zabal egiñik, maitasun agindua emon eban, baiña ez ginduzan atzipetu nai, berak, argi, ikusten ebana, guri, garbi, agertu euskun. Aginduak bete nai dituenak ta zintzoak izan nai dabenak, gogor, irainduak izango zirela, luzaroan, azaldu eutsen. Munduan zintzoak eroan bearke eben kurutzia, beraren antzera, argi, ikusten eben. Ta bere kurutzia ta bere jarraitzailleena, alkartuta, eroan zituan golgota mendira, ta antxe, odolez busti ta indartuta itzi zituan kristau leial askoren bizitzak.

Norberekeriz bizi direnei oster, munduko jendearen anaitasunak ez eutsela ardurarik emoten, ondo, ekian, ta jazarpentuteko, beti, gertu egongo zirela. "Begira; ardiak otso artera lez bialtzen zaituet. Sugea baizen zurrak izan zaitez, ba, eta usoak baizen leunak." "Zaindu zuen buruak gizonakandik, auzi-ebazleen eskuetan itziko zaitue ta euren sinagogetan zigorkadak emongo deutzue; ta neu nazala-ta, agintarien ta erregeen aurrera eroango zaitue, aren eta jentillen aurrean, autor egin dagizuen: Salatu zagiezen barriz, ez arduratu zelan edo zer esango dozu, esan bear dozuena, une aretantxe, emongo jatzue."

Jesus eta Apostoluen jarraitzaillei be, bardin jazoko jake; salatuko ditue: "Eriotz ordua etorriko da, zuetariko edonor il, ta orretan, Jaungoikoa gurtzen diarduela, uste izango dabe." Jesus ilkeran, orixe uste izan eben pariseo azal-uts arek. Ta gure aldian, nai dala bake denporan, ta batez bere, guda aldietan zenbat salatze egin ziran ta egiten dira... Nork zenbatu ete lei orren ondorengo odol guztia? "Abelen odola deka egoan Jaungoikoaren aurrean."

ITUN BARRIKO ODOLA

Biziaren sorlea kurutzean odolustu ta il zan. "Jesusegana eltzean, barriz, ilda aurkitu eben ezkerro, ez eutsezan belaunak ausi; baiña gudarietariko batek, lantza bategaz, Baietza zulatu eutsan, eta bat batean, odola ta ura urten ziran." Jon. 19,33-34.

Il aurreko gabeen zer jasan bearko eban, argi, ikusi ta bere barruan, zirika zerbait sentitzen ebalarik, berbetaldi argitsuak erabili zituan bere Apostoluekin jazo bear ebanari buruz, gizon areen barruak indartuz. Ta apañaren azkenean... arritu zaitez mundua...! bera gure janaritzat geratu zan, munduak dirauan arte guztirako. Emen, urtu zituan bere ontasun guztiak gizadi osoaren alde. Zenbat eta gorroto geiago etsaiaren aldetik agertzen zan, bere aldetik maitasun geiago, garbi garbi, eskeintzen euskun.

"Gero ogia arturik eta eskerrak emonez, zatitu eta emon egin eutsen, esanez; "Au, neure gorputza da, zuen alde eskeñiko dana; au, neure gomutan egizue." Baiña bere eskeintza arrigarriago agertu nai eban, geure erara, obeto, ikusi gengian bere gureganako maitasun guztia kurutzeko odolarte oparoan. "Era berean, egin eban edontziaz be, apalondoan: "Edontzi au, Alkartasun barria da nire odoletan, zuen alde ixuriko dana." Lk.22,19-20.

Urrengo egunean jazo bear eban jazotekoak.! Iñor baiño ohea izan zana, iñork ez legez berba egiten ebana, iñork egin ez zituan egiteak ta egin bere egin ezin zituan, len goraka, aupatu eban erriak, orain txarkeriz mozkortuta ba-lego legez, kurutzera ori diñue gorrotoz beterik, ta an, ixuri eban odol guztia biotz zabalagaz.

Moises Sinaf menditik aldatz barrenera jatsi zanean, egiune bat egin zan Jaungoiko ta bere erriaren artean, ta egiune ori odolez izenpetu zan. "Orduan, Moisesek idatzita jarri zituan Jaunaren itz guztiak, eta biaramonian, goizian goiz jagi ta mendi barreanean aldara bat egin eban, eta Israaelgo amabi erri aldeen izenean, amabi gomuta-arri jaso zituan... Gero, Jaunari erre-opariak, zekorrak eta bake-opariak eskeñi egioezela agindu eutsen Israaelgo seme arteko gazte batzuei. Moisesek odolaren erdia artu eta ontzietara sartu eban ta beste erdia altara gaiñera ixuri. Eta, alkartasun-liburua arturik, erriari irakurri eutsan. Eta erriak auxe erantzun eban: "Jaunak agintzen daben guztia, beteko dogu, baita Aren esana egin bere." Orduan, Moisesek odola artu ta erria txipristindu egin eban esanez: Auxe da Alkartasunaren odola. Jaunak agindu daben guztiaren gaiñean, zuekin egiten daben Alkartasuna." Ur. 24,4-8.

Jaungoikoaren ta erriaren arteko egiunea izenpetutea, aberearen odola altara ta erriaren gain botatea izan zan. Kristo barriz, geroko ondasunen Abadeburu agerturik, giza eskuz egiña ez dan edo bardin dana, lur onetan egiña ez dan Txabola obe ta bikaiñangoan zear, Etxe Santuan, bein betiko sartu zan; ez ostera, akerren eta zekorren odolagaz, bere odolaz baiño, betiko

eraspena osoturik. Zikiñak, akerren ta zekorren odolaz eta beiaren autsaz txipriztinduta, aragi garbiketarako santutu egiten ba-dira, askozaz geiago garbituko dau gure barrua egintza illetatik, Jaungoiko bizia eskeintzeko, betiko Espirituaz bere buru garbia Jaungoikoari eskeiñi eutsanak." Eber, 9,11-14.

Egüne aundiak, odolez, izenpetu izan dira Moisesen aldi. Kristoren lege barrian... alde aundi bat dago bien bitartean. Lege Zarrean abereen odola erabili zan; Lege Barrian ostera, Jaungoiko gizonduaren odola, Jesus Jaungoiko, era berean, dalako guretzat zorionean.

Moisesek, aldi aretan, argi agertu eutsan Isrraelgo erriari, Jaungoiko ta erri arteko egiunea zer zan. Jaungoikoak amar agindu emon eutsozan Isrraelgo erriari Moisesen bidez. Ta Jesusek munduari, era onetan, itz egin eutson: "Agindu barri bat damotzuet: Alkar maite egizue." Izan bere, maitasunak txarkeri guztia menperatzen dau ta urko-laguna, gora, jaso.

Pablo doneak agertzen deuskunez, alde aundia dago bitzuan artean. "Baiña egiteko ohea artu dau gure abadeburuak, agintzari obeetan sendotutako alkartasun bikaiñagoaren bitarteko dan ezkerero." Ebr. 8,6.

Egiz, Jaungoikoari gogo onez, eskeiñita egoan abereen odola, baiña Moisesen legea beteerezoteko indarrik ez eukan. Baiña Kristoren odolak Jaungoikozko odola danez, ertzik gabeko indarrak daukaz ta giza-izate guztia aldatu leike, gure izate, gaiso ta uts guztiak bere menpe daukaz alguztidun indarpean.

"Jaungoikoak areei asarre egiñik, auxe dirautse: Begira: ba-datoz egunak diño Jaunak; eta alkartasun barri bat egingo dot Isrrael etxeagaz eta Judaren etxeagaz; ez, ostera, Ejiptotik areen gurasoak aterateko, eskutik eldu neutsen egunean, arekin egin neban lakoa nire alkartasunean areek, zintzo, iraun ez eben ezkerero. Neuk be, bertan bera, itzi nituan -diño Jaunak- egun areen ostean. Isrraelen etxeagaz nik egingo dodan Alkartasuna: Nire legeak adimenean ezarriko deusdedaz, eta biotzean idatziko. Eta neu izango naz areen Jaungoiko, eta areek neure morroi: Eta iñok ez dautso bere lagunurkoari, ezta bere anaiari be irakatsiko," ezagutu egizu Jauna" ezanez: guztiak, eurerarik txikienak eta nagusienak, ezagutu nabe-ta; gaiztakerietaz errukitu egingo naz; ta areen pekatuak ez ditut barriz, gogora ekarriko-ta. Alkartasun "barria" esatean, lengoa zaartuta itzi eban. Zimeldutakoa ta zaartutakoa barriz, ondatzeko zorian dago." Eber. 8,8-13.

Lege idatziaren gora-berako itun bt egin eban Moisesek. Gauza egokia ta bidezkoa gizarteko arazoak konpondu egin al izateko. Gizonak ba, beti, jakituriz jokatu bear dau... Kristok, sakonago, jokatu eban: Biotzak aldatzen dituan ituna egin eban: "Eta itxaropen onek ez dau marrorik egiten: Espiritu Santuak emon deuskun Jaungoikoaganako maitasuna gure biotzetan ixurrita dago-ta." Err. 5.5. Norberekeria apurtzen daben maitasunaren ituna egin

eban..." Eta aren pekatuak kendu dagidazanean, auxe izango da nire alkartasuna arekin." Maitasuna, bata-besteaganako biotz-zabaltasuna.

Anaitasun gogoia emoten dabean Ituna egin eban Kristok. "Alkartasun barri bat iragarriko be Berak egin gaitu, ez gero Alkartasun Barriko izkiarena, Espitibarena baiño. Izkiak il egiten dau; barruko espirituak barriz, biztu." Kor. 3,6.

Kristok eriotzaren bidez, benetan, agertu euskun bere gureganako maitasuna. Origaitik Kristoren odoiaren indarrez, Jaungoikoarengana urreratu giñaikez bildur barik. "Berak estalkian zear edo bardin dana, bere aragian zear, bide barri ta bizi baten antzera, sarrera bat edegi deuskun ezker, eta Jaungoikoaren etxean Abade aundia daukagun ezker, urreratu gakiozan biotz zinizoz sinismen bete-betez, biotzak txar guztitik garbitu, eta gorputza ur utsez txukunduta."

Moisesen aldian, jaungoikoak Israelgo erriagaz egin eban ituna, Berak nai izan ebalako, egin al eikean ta egin eban. Ta gero, bigarren aldi barrian, jesusek bere odolez erosi zituan lurralde guztietako erri, laterri, enda ta izkuntza guztietako seme-alabak Aita Jaungoikoarentzat. "Eta kanta barri bat abestu eben: Liburua artzeko ta aren ezaugarriak askatzeko gai zara, illa izan zintzazan ezker. jatorri, izkera, enda ta erri guztitik zeure odolez erosi zenduzan Jaungoikoarentzat-ta."

Jesusen eriotz ta Berbiztuerak eratu eben Pazko Barria. Urteera Barria... Transitus Domini... Jauna igaro da emendik, mundu guztiko lagunene biotzak euren norberekerietatik garbituz, kateiak urratuz, obenak parkatuz; ta beti, askatu ta askatzen jarraituko dau azken egunera eldu arte. Pazko Barria orixe da. Jaungoikoaren erri barriaren asiera, jarraipena ta ardatza.

Jesus euren artetik igaro zan gomutan, Israeldarrak Pazko aparria ospatzen dabean eran, kristau erri, Jesusen jarraitzaileak, Pazko opari berezia ospatu bear dabe, munduko esker opari bardin gabea, Meza Deuná. Espetxera eroango eben gabea, Jesusek ogi ta ardaa bere gorputz ta odol biurtu zituan, guri, bardin, egiteko aginduz. Emen, agertzen dira judeguen gorrotoa ta Kristoren maitasuna, aurrez aurre: Judarrak gorrotoz ilten ta Kristo odolez parkatzen, zer egiten eben ezekielako.

Gure Pazko opari... Meza deunak, erria Jaungoikoagaz bat eginda dagoala adierazoten deusku. Gure Egille ta gure arteko alkartasuna barriztu egiten ditugu, Kristoren eriotzaren bidez gure utsegiteen parkamena jadesten dogu, ta Kristoren Berbiztueraren bidez, gure betiko bizitzaren itxaropena indartu ta poztuten gara.

Kristoren oparia, eriotzea, "bein bakarrik, egin eban. Eber. 7,27. Baiña guk Jesusen aginduz, sarri, ospatzen dogu Meza Santua ta onen bidez agertzen dogu Kristoren eriotzearen indarra. Meza Santuen alkartzen direnak, Jaungoikoak erriagaz egin eban. Eber. 7,27. Baiña guk Jesusen aginduz, sarri,

oSpitzen dogu Meza Santua ta onen bidez agertzen dogu Kristoren erio-
tzearen indarra. Meza Santuen alkartzen direnak, Jaungoikoak erriagaz egin
eban itunean alkartzen dira la Kristoren opariagaz bat egiten dira.

Poztu zaitez kristau erria... Anaien erri barria lortzeko, Kristo il zan.
Ta arrezkero, anaien erri barria jasoteko indarra damozku Meza deunak.

Mezearen ezaugarria alkartasuna da. Kristo guztientzat il eta berbiztu
zan, ta Meza alkartasunean orixe gogoratzen dogu. Israeldarrak Pazkoa
ospatukeran bildotsa jaten eben, ta orain, Pazko Bildotsa Kristo berbera da.
Kristogaz alkartzen ez ba gara ta aren aragitik jaten ez ba-dogu, anai bi-
zitarik ezin euki geinke..." Nire aragia jan ta nire odola edaten dabena,
nigan bizi da ta ni arengan." Jon. 6r56. "Bizi dan Aitak bialdu ninduanez,
eta ni Aitaren bidez bizi nazanez, ni jan nagiana be, neure bidez bizi izango
da." Jon. 6,57.

Egiz, arrigarria da au, baina Jesusek bere bizia damozku janari. Ta Jesus
artzen dabon guztiak anai arteko bazkaria egiten dabe. Borondate oneko
guztiak bere batasunean alkartzen ditu. Parterik artzen ez dabena, makal
dago; eta Kristok eskatzen dabon maitasunaz, ezin bizi daiteke. 1 Kor. 11,30.

Jakituriz ezin ikasi geinkena da, sinismenez onartzen dogu, Kristo aldarako
maian beregana urreratzeko deika daukagula, ta Jaunartzeko Ikurton-Sakra-
mentu au anai maitanez gaiñera, geure anaiaiaz. Kristo dago ba Sakramentu
orretan eta Kristo gure anaietan.

Mezea Jesusek gureganako euki eban maitasunaren ezaugarri bizi bizia
da. Danetan ongilla izan zan, ta emen daukagu maitasuna, opaka, dariola,
guri lagundu nairik Aitaren etxera eldu artean.

Jesusek azkenengo egin eban egiteko arrigarria izan zan, eriotza gogor
hten bidez odola gizadiaren alde ixuritea. Guretzat: Mezea da, anaiekin
daukagun eginbearra azkeneraiño betetea; egitura zapaltzailleak aldatutea;
alkartasuna guztien artean sortzea, ta Kristok egin eban lez, besteen alde
bizia emotea.

Jaunartzea anaitasuna da. Iñork, iñoz, ez dau ainbeste maite izan bere
bizia iñorengaitik emoten dabonak aiña, Jesusek bere bizia kurutzean emon
eban, ta orain, Meza Santuan, bere izatea geure janaritzat damozku. Or, dago
egizko anaitasuna. Meza Santura elduko dira ba, sinistu ta anaitasunean bizi
nai dabonak Kristogaz batean.

Zoritarrez, munduan, sarri, anaitasunik ez da agertzen. Egin bear dan
onik ez da egiten ta Meza deunaren muiña guzurtauta izten da anaiak
zapaltzearen bitartezr..

Atzerritar bidalarien batzar bat dirudi. Izkuntza ezbarðiñak dituen ezker-
o, alkar ez dira ulertzen. Bakoitza bere aldetik doa norbere arazo ta arduetan.

KRISTOGAZ BERBIZTUAK

Jesusek esan cban: "Ni lurretik gora jasoia izan naitenean, guztiak neugana ekarriko ditut." Jon. 12,32. Bcne benetan, dirautzuet; galgaraua lurrera jausi ta ilten ez ba da, bera, bakarrik, geratzen da; ilten ba-da barriz, frutua ugari dakar. Anaitasunezko erreñuaren misterioaz, bardin, jazoten da. Bere bizia maite dabenak, galdu egiten dau; mundu onetan bere bizia iguintzen dabenak, betiko bizitzarako gordeko dau." Jon. 12, 24-25.

Emen esandako guztia, Jesusegan betctu zan. Zan guztia emon eban naigabe ta samintasun artean, ezer be gorde bagarik, ta bere bizitz osoaren eskeintza legez, biotza ezpatatz zulaturik, azken bizitza ur tanta odolaz nastauta emon eban. Ta orduante, itz arrigarri onek lurbira osoan zabaldu ziran. "Dana betetu dar"

Amai barik onena zanagaz, ori jazo an. Ta aren frutua ugaria izan da gizaldien gizaldietan mundu zabalean: anaiasuna ekarri eban mundura.

Jesusek bere bialduei, aurrezaz,esan eutsen: ni il egingo nabe, baiña, barriro, irugarren egunean berbiztu egingo naz... Areek ez eutsen ulertzen ta itz onekin arrituta egozen. Baiña, "Jaungoikoak berbiztu eban. Eriotzako indarpetik askatu eban." "Egiñak. 2,24. Emen, jausi zan munduko norberrecria; Jesusen berbiztuera menperatuta geratu da ta gizonak on egin legike gizadian, anaitasuna zabaltzen." "Guztiak Adanengandik il diranez, Kristogan biztuko dira guztiak." 1 Kor. 15,22.

Judarren nauskeri ta gogorkeriak harik, Jesusen apaltasunak urten eban garailari. Origaitik, berbiztuera bcartsuen itxaropen pozgarria dar Indartsuen nauskeriak harik, heartsuen maitasunak urten eban garailari.

Jesusen herhiztuera da gure sinismenaren oiñarria; ta sinismenak damozku gure arteko anaitasuna Jaungoikoagan... ta ori dala-ta, darabilgun burruka garaitzaren itxaropena, ezin galdu geinke. Geroago ta indartsuago izan bear dan, herhiztuaren indarra la poztasuna amaibakoak dira-ta.

" Jesusek bere criotz eta herhiztuera irabaziriko bizitza barriagaz alkar-tuca da Bateoa. Ala ez al daki ^gu. Jesukristorentzat hateatuak izan gareanok. Arcn eriotzarako izan garana bateatuak'? Izan be, hateoaren bidez, Kristogaz Iurperatuak izan gara: Kristo illen artetik Aitarcn aintzarako, barriro, biztu zanez, guk be bizikera barri bat bizi daigun.

Aren eriotzaren antzera, Aregaz mcntu eginda, txertatuta ba-gagoz, Aren biztuera be, bardin, jazoko jakur Ondo, dakigu gure gizaki zarra Aregaz batera kurutzatua izan dana: gugan pekatuaren gorputza austuta gero, pekatuaren morroi bein be, izan ez gaitez... Il dana, pekatutik askatuta geratzen da.

Eta gu Kristogaz il ba-gara, bizi be Aregaz bizi izango garela, sinistu dogu eta ba-dakigu. Kristo illen artetik biztu dan ezkeru, barriro, ilterik ez

dauka; aurrerantzean eriotzak ez dauka arengan eskubiderik. Il, bein, betiko' egin zan pekatuarentzat. Bizi Jaungoikoarentzat bizi da. Bardin zuek be: gogoratu egizue, bateoaz pekatuarentzat ilda zagozela, eta Jaungoikoarentzat bizi zareela Jesukristo Gure Jaunagan." Err. 6,3 -11.

Kristo Adan barria da. Idatzita dagoanez: Lenengo gizona, Adan, arima bizidun egiña izan zan; azken Adan (Jesukristo) barriz, espiritu bizkortzaille." 1 Kor. 15,45. Adanen nabarkeri zarra Kurutzan il eban ta "sortze barri bateri" bizi emon eutsan. "Beraz, norbait Kristogan ba-dago, izaki barria da; zarra zana, igaro da; barriztu egin da guztia." 2 Kor. 5,17. Gizon barri bat da Jaungoikoaren antzera egi, zuzentasun ta deuntasunean sortuta.

Kristogan berbiztu direneen bizitzaren barri, lenengo kristiñauengan, obeto, ikusi al izango dogu. Aren sinismen ta leialtasuna, indartsu, dagoz gaurko munduari argi egiten.

KRISTOREN ANAIEN LENENGO GIZA LORRATZAK

Jesusen bcrbiztueraz arrituta, Aren jarraitzailleak, arin, ugaritu ziran. "Eta esan dana, benetan, artu ebenak, bateatuak izan ziran; eta egun aretan iru millaren bat lagun geitu jakezan." Egiñak 4,4. "Eta Jaunagan sinistedun barriak, gezi, ta geiagi, etozan, gizon eta emakuma." Egiñak 5,14. "Jaungoikoaren itza zabaltzen joan, eta ikasle-sailla, eurrez, geitzen zan Jerusalem; baita abadetariko asko be sinismenaren esaneko egin ziran." Egiñak 6.7.

Jesukristo sinistu ta maitasun bidean alkarrerri on egiten bizi direnekin osotuta dago Jaungoikoaren erri barria. Jaungoikoa maitasuna da, bcre egiteak agertzen deuskunez... ta aren jarraitzailleak be maitasuna, on egitea dabe ezaugarri. "Gure anaiak maite izan ditualako, eriotzatik bizitzara aldatuak izan garala, ba-dakigu.

Lenengo kristiñau arek, ondo, asmetan eben euren zoria, bizitza barria, lengo pekatu bidea itzita, jainko iaguntasuna asmetan eben, ta ondo ikusten eben, aurrera, joiezela askatasunezko bizitza barrian." Beraz, norbait Kristogan ba-dago, izaki barri da; zarra zana, igaro da; barriztu eginda guztia." 2 Kor. 5,17. Lengo bizitza norkerizkoa, zapalckerizkoa ta ederkerizkoa, eurentzat ustela zan.

Jesusen irakatsi bardin gabeak ta Bateoaren indarrak danak maitatzera bultz eragiten eutsen, bata bestea serbitzera, kurutzeko maitasun odola irakiten egoan euren biotzetan, beti, on egitera deika.

Fededun guztiak, euren artean, bat egiten ziran ta euren asmo guztia bakoitzaren ondasunekin beartsuei laguntzea zan. Bateoak ta Jaungoikoaren itzak emoten eutsen alkartasun indar au, norkeri gaiztoa kendu ta maitasunaren laguntza gizartean zabaltzeko. Bateoak anai legez biurtzen zituan Kristogan ta on egitea zan euren gogo guztia.

APOSTOLUEN EGIÑEN LIBURUAK DIRAUSKU

"Fededun guztiak, barri, bat izan eta guztia alkarreentzat euken. Eta ogasunak saldurik, ordaiña guztien artean banatzen eben, bakoitzaren berrizari egokionez. Eta egunero, gogo batez jauretxera joaten ziran, eta etxeetan ogia zatiturik, alaitsu ta gogo bakunez, batera, jaten eben; Jaungoikoa gogoraturik eta erriaren ederra irabazirik. Eta salbatuak izan bear zirenak, Jaunak, egunean egunean, ugaritzen zituan. Egiñak 2, 44-47.

Sinismendun taldeak sinismen bat, arima bat eukan; iñork ez zituan bere ondasunak beretzat, bakarrik, artzen, ta dana guztientzako euken. Era orretan, erriaren aurrean guztiak eder ziran. Gitxiagorako be ez zan. ori eginda, bata bestearen bizitzari ziurtasun bat emoten eutsen. " "Ddrorik areen artean bat be ez egoan; jabe guztiak euren landa ta etxeak saldurik, ordaiña ekarri ta Apostoluen *oiñetan* jarten ebelako; eta andik bakoitzari bear aiña *emoten* jakon." Egiñak 4,34-35.

Jaungoikoak argituta, Moisesek bere aldian, agindu eder bat emon eutsen: Euren artean ez eitela gosekillik izan, Au elburu legez jarri eutsen. Benetan, pentsabide ederra ta jokabide zuzena izan zan. "Zure ondoan beartsurik egon ez daiten. Izan be, zure Jainko Jaunak bedeinkatu egingo zaitu, oiñordekotzat emongo deutzun turrean." Dt. 15,4. Bakoitzak bere hear izanen eran ondanak izan egiazala, zan Moisesen gogo. Erri artzaiña zan ta artzain legez erria, ondo, ikusi nai eban." Jaunak Moisesi itz egin eta auxe esan eutsan: Guzti onen artean bananduko dozu lurra oiñordetzat, izen kopuruari dagokionez: asko direnei, atal aundigoa; gitxi direnei, atal txikiagoa. Bakoitzari izen kopuruaren negurrietara emongo jako oiñordetza. Baiña lur banatzea zotzetan egingo da, oiñordetza guraso-leiñu bakotzeko izenari dagokionez." Zenbakiak.26.52-55.

Benetan eredu ederra. Lenengo kristiñau arek elburu onek, oso osoan, betetan zituen. Baiña, ondasun gora-bera aretan agertu danez, jakituri ta maitasun aundiko sustrai hat jarten dautse lureko ondasunei; jabetasuna danen artekoa izan dedillar Au, aunditasunik zintzo ta aundienaren emaitza-frutua da.

Itzez eta miñez, sarri, ez da egizko maitasunik agertzen, maitasunak egizkoa izateko, sakonagoa izan hear dau, egiteen bidez agertzen dan maitasuna. "Semetxook, ez daigun berbaz eta miñez maitatu, egiñez eta benetan baiño." 1 Jon. 3,18. Anaitasunaren egite goragarriena ta zintzoena gauzak alkartasunean eukitea da. Baiña jokabide onek frutu onak emon al izan dagizan, ez aginduzkoa ta ez goitik berakoa, norbere gogozko alkartasun jabctasuna izan bear dau.

Alkartasunean ondasunak euki ta lan egiteak alkartu ta orrez goitik, anaitu be egitcn gaitu. Bakarreko pillatzeak ostera, zekendu egin oi dau pentsabidea ta biotza tximurtu.

Bigarren gizaldi erdian Justino deunak diño...: "Len, bakarreko ondasun ta diru goseak zirikatzen eban; orain, gure ondasunak pillo baten jarten ditugu ta beartsu guztiek parte artzen dabe ondasun aretan.

Urte batzuk geroago, Tertulianok aldi artako kristiñauen erazo aldi ta iraiñetan, era onetara, bere burua zaintzen eban: "Gure sendietako ondasunak anaitasunean erabil ten ditugu. Gogoz ta arimaz alkartuta bizi garenok, ezpai barik, bestien artean gure ondasunak banatzen ditugu. Gure artean guztia alkartasunckoa da."

Alkarren artean ondasunak banatu ta era orretan bizi izateak, maitasuna agertzen eban ta zenbat eta geiago, bata-besteari lagundu, anaitasuna indartsuago egiten zan ta olan, aurrera, jarraitzeko poza emoten eban. Ta orrez gaiñera, anaitasun ederragoaren azia zan.

Alkartasunean euken guztiak ta alkartasunean egiten eben guztiak, lurreko asmocetik gorako ezaugarri bat artzen eban. Jaungoikoak bedeinkaturik, santutasun usaiña artzen eban, ta alkartasun giroa apurtzea, zerbait Jaungoikoaren aurka jokatzea lez artzen zan.

Apostoluen Egiñetako liburuak bostgarren azalpenean kesu au agertzen deusku.

Ananias izeneko gizon batek, bere emazte Sajaragaz itunduta, landa bat saldu eban; eta emazteak ba-ekiala, saldu-ordaiñetatik zerbait ostendu egin eban; eta enparaua ekarririk, Apostoluen oiñetan jarri eban. Baiña Pedrok auxe san eutsan: "Ananias, zelan artu dautzu Satanasek biotza, Espiritu Santuari guzurra esanaz, landa-saritik zati bat gorde dozu-ta.? Saldu orduko ez zenduan zeurea ala? eta salduta gero be, zeure eskuan ez zenduan? Zergaitik erabagi dozu bada. orrelakorik zure biotzean? Ez deutsezu gizoneri guzurrik esan. Jaungoikoari baiño." A. Egiñak. 5,4. Baiña norbere gogoz alkartasunean ipinten zan gauzea goratuta geratzen zan; santutasun ezaugarria artzen eban eta areri ikutsea, uts aundi legez artzen zan. Alkartasunezko gauze tan, anaiari atzipetuz ikutzea, Jaungoikoa atzipetutea zan.

Pablo deunak bere idazkietan beste jazoera garrantzizko bat esaten deusku.

Greziko erri baten, Korintzon, Mezea esan aurretik, kristiñauak alkartasun batzar bat egiten eben aparti gozo bategaz. Bakoitzak eroaten zituan janari ta edariak pillo baten ipinten zituen, guztiak alkartasunean jateko. Alkartasuncko batzar orregaz gertatuten ziran Meza Zantua ospatuteko.

Baiña geldi geldika, kristau gogo ona galtzen joan zan. Ta euretariko batzuek, aundiustetsuagoak, ta eukitsuago zirenak, beti, aurretik eltzen ziran, ta euren partea jaten eben beartsuagoei itxaron barik. Tamalezko kontua da baiña, diruak, beti, menperatzen dau gizonaren biotza arrokerizko griñetara ta norkerietara, ta euren janariak, bakarrik, artzen asi ziran.

Ori dala-ta, Pablo deunak reto edo zemai au bota eutsen: "Zuei ardura au eskatzean, ezin onartu daikedaz zuen batzarraldiak - oberako izan bearran, kaltegarriako jatzuez - eta. Lenengo ta bein, zuen batzarraldietan alderdikeriak direla entzun dot, eta zelanbait sinistu egiten dot. Bearrezko da zuen artean alderdikeriak izan daitezana be, zuen zintzoak zeintzuk diran agertu daitezana. Eta alkargana batzen zarenean, ez dozue Jaunaren aparria egiten: bakotxak jateko, bere aparria dakar-eta. Olan, bat gosarik geratzen da, eta bestea mozkortu egiten da. Ez ete daukazuez etxeak jan-edanak egiteko? Edo-ta, Jaungoikoaren Eleizea loitzen dozue, ta orrela lotsarazo ezer ez daukenak? Zer esango dautzuet? Goratu egingo ete zaituet? Orretan ez beintzat." 1 Kor. 11, 17.

Santiagoren idazkian be beste errenbesteko jazoerea aurkitzen da:

"Ene maiteok: ez egizue Jesukristo Gure Jaun goragarriaren-sinismena norkerietan naastu. Zuen batzarrean gizon bat urrczko eraztunaz eta jantzi ederrez sartu ba-dadi, eta beste beartsu bat be jantzi loiekin, eta zuek jantzi ederduna daroanari begiratuta," Jezarri emen edo "esan ba-zengioe, eta beartsuari: "Zagoz, zutunik, or," ez ete zeunkee zuen barruan bereizkeririk egingo eta ez zeunkee bururakizun gaiztoz epaituko.?"

"Entzun ene anai maiteaok: Ez al-ebazan Jaungoikoak munduaren ezaz beartsu zirenak aukeratu, sinismenean aberasteko ta Bera maite dabenei eskeinitako erreñuaren jabegei egiteko.? Zuek barriz, beartsue iraindu egiten dozue. Ez al dira aberatsak estutzen eta auzitara eroaten zaituenak.? Ez al dira eurak zuek daroazuen Izen ederra biraotzen dabena.? Baiña idatzita dagoen Erreiñuko lege au, zure lagun -urkoa zeure buzua lez maite izango dozu, betetuten ba-dozue, ondo, egiten dozue. Norkerietan ba-diarduzue, ostera, pekatu egiten dozue, eta Legeak zigortu egingo zaitue, lege - ausletzat artzen zaituela." Sant. 2 1-9.

Emen agertzen da, Jesus nundik nora doan, nortzuekin errukitzen ta zer nai eban egitea lenengo kristiñauen batzarretan. Kristau batzar aretan, dirua dala-ta, goratasun berezirik ezin egon eitekean aberatsaren alde. Danak, bardin, ziran kristau batzar aretan.

LANIK EGIN NAI EZ DABENAK, EZ DAGIELA JAN

Ondasun guztiak gizartea, osoan, serbitzeko dira. Jaungoikoak esan ebanetik, zuentzat da lur guztia; landu egizue. Lagun guztiak dauke eskubidea ondasun orretan parte izateko, ta bardin, eginbearra guztien onerako, lurra landuteko aorako lez lanerako, bardin' beartzen gaitu lurraren sorleak.

Baiña ondasunak alkartu ta bata-besteari, erabide ontan, lagundu nai eben jende maltzurak be agertu ziran.

SAN PABLO, OSO, GOGORRA DA JENDE ALPER ORREKIN

Era okerrez bizi dan edozein anaigandik eta gugandik artu dozuezan irakatsiai jarraitzen ez deutesen edonorgandik, alde egin dagizueta, eskatzen deutzuegu Jesukristo gure Jaunaren izenean.

Ondo, dakizue zelan izan bear dozuen gure antzeko, ez gara zuen artean alperkerietan bizi izan-eta; iñoren ogirik be ez genduan, utsean, fan, bestera, baiño; gau ta egun arduraz eta neketan egin genduan lan, zuetariko iñori nekegarri izan ez genkiozan. Ez, barriz, onetarako eskubiderik ez gendualako, gu lez ibilteko eredua emon nai izan gendualako baiño. Eta lan egin nai ez dabenak, ez dagiala jan girautzuen zuen artean egon gintzezan artean. ízan be, batzuk zuen artean nagikeritan bizi direla entzun dogu, ezer egiteke, dana jakin naiez. Orrelakoei auxe agintzen ta eskatzen deutsegu Jesukristo Jaunagan; baketan lan egiñik, jan dagiela curen ogia." 2 Tes. 3,6-12.

LANAREN EGINBEARRA SARRI, AITATUTEN DAU

Eta zuen arazoetan bizitza baketsua eta lankorra eroaten alegindu zaiteze, zuen eskuz lan egiñik, arduraz, eskatu deutzuegunez: Elizatik kanpora dagozanen begietan, zintzotasunez, bizi zaitezen ta ezeren bearrik izan ez dagizuen. 1 Tes. 4, 11-12.

Leen, ostuten ebanak, ezbegi aurrerantzean ostu; esku lan egokiren bat egin begi ostera, bear izanean dagonari emoteko euki dagian." Ef. 4,28. Pablo berbera, orretan, eredu izan jaken, gastuak ordaintzeko, bere eskuz lan egiñez: "Geure eskuz lan egiñik nekatu gara. Guri irain egin, eta guk onetsi; gu aurrean erabili, ta guk, ondo, eroan." Kor. 4,12. Irugarren aldiz nago zuekana joateko, eta ez nakizue nekegarri izango; zuen ondasunen billa ez nabil-ta, zuen billa baiño. Izan be, ez dira semeak gurasoentzat batu bear dabenak, gurasoak semeentzat baiño." 2, Kor. 12,14.

Pablo deunak diño: "Lan egin nai ez dabenak, ez begi jan." Lan egin nai ez dabenari buruz diño ta ez lan egin ezin dabenari buruz.

Oiñarrizko kristau batzar areetan ardurarik aundienetariko bat zan gaisoei, alargunei ta umezurtzei laguntzea. Lagun beartsu onei laguntzeko, erakunde berarizko bat sortu eben.

"Egun areetan, ikasleak geitzen zirela-ta, gerkerrak ebertainen aurka mormoxioetan asi ziran eguneroko janari-banaketan arein emakume alargunei jaramonik egiten ez eutselako. Beraz, amabi apostoluak, ikasle guztiak baturik, auxe esan eutsen: "Ez da egoki mai-arduregaitik Jaungoikoaren itza guk iztea. Beraz, anaiok, aukeratu egizue zuen artean zazpi gizonezko, izen oneko ta Espiritu Santuz ta senez beteak, ardura ori areen gain jarri dagigun. Guk barriz, otoiari ta itz-irakasteari ekingo deutsagu. Eta eritzi ori ontzat artu eben Batzarreko guztiak:" Egiñak. 6, 1-6. Alkarasunezko batzar aretan beartsuei laguntzea, eginkizunik aundienetarikoa zan.

Errialde aberatsenak errialde beartsuenetako anaiei lagundu bear eutsen: "Jerusalengo santuen alde egiten zan diru batzerr buruz barriz, Galaziako elizari agindu neutzen eraz, egizue zuek be. Astearen lenengo egun guztietan zuetariko bakotxak bere etxean al dagiana batu ta gorde dagiala: ni, orra, joan naitenean, diru batzerik egin ez daiten. Eta ni, orra, eldu naitenean, zuek aukeratu dagizuezan lagunak, Jerusalenera bialduko dodaz idazkietan zuen laguntza eroan dagien. Eta neu be, joan nadin, egoki, ba-dadi, neugaz joango dira." 1 Kor. 16,1-4.

Batzarrean, obeto, bizi zan bateri, Jerusalengo pobrientzat laguntza eskatuz, Pablo deunak diñotso: "Besteak bigun bizi ta zuek estu, ori ez guztiak bardin baiño." 2 Kor. 8,13.

Jaungoikoak argi eginda, irakatsi eben Apostoluak bizibideari buruzko jakituri mamintsu au.

LENENGO KRISTIÑAU BATZARRAREN ESPIRITU EDO GOGOA

Lenengo kristiñau batzarrak eukan gogoa, Apostoluen kartetan agertzen zan. Ta ortarako puntu ederrak dira, jarraian datozen aipamen onek: 1 Tes. 4,5; Erro, 12 tik 14 ra; Ef. 4 ti 6 ra; Kio. 3 ta 4. 1. Kor. 13. Santiagoren karta: San Pcdroren lenengo karta ta Jon deunaren lenengo karta.

Orain, ona emen, Pablo deunaren onu edo kontseju on batzUk. Emen, arek lenengo kristiñaukek ze gogoz bizi eben anaitasuna agerizen eben.

Tcsalonikako kristiñauai dirautse: "Goi-maitasunari buruz barriz, ez dozue gure idazkien bearrik alkar zelan maite izan bear dozuen, Jaungoikoak berak irakatsi deutzue-ta: Goi-maitasun ori, Mazedonia osoan anai-arreba guztiekin egiten dozuena da." 1 Tes. 4.9-10. "Zuen artean, bakean, bizi izan zaitezeta. Biurriei asarre egin dagiezueta be eskatzen deutzuegu, anaioi; koldarrak adoretu; makalak, ondo, eroan dagizuezeta. Bestiei iñork ez dagiola txarrik, txarrez, ordaindu bestera baiño; alkarri ta guztiei, beti, on egiozue. Pozik, egon, beti, eta otoitz egizue gelditu bagerik." Ts, 5, 13-17.

ERROMAKO ANAIEI

"Zuen maitasuna zintzoa izan dedilla. Iguindu gaiztakeria, eta onuzaleak izan zaiteze; anai arteko maitasunez maite egizue alkar, alkarri lenengo tokia emonez. Nagikeri bagarik, arduratsu izan zaiteze, gogo beroz Jaunaren menpean geroko itxaropenaren pozez; atsekabea, ondo, eroan, ekin otoiari, santuen, kristauen bearrizenak arindu eta areek txera onez artu.

Bedeinkatu egizuez aurrean zarabillezenak: bedeinkatu, hai, madarikatu bearrean.

Poztu direnekin poztu zaiteze, negar egiten dabenekin negar egizue. Benetako alkartasunez bizi zaiteze, aundikerizko asmo bagarik, txikien antzeko egiñik; zuen buruak ez egizuez jakintsu egin.

Kalte orde z kalterik ez iñori biurtu; alegiñak egizuez, ona dana egiteko gizon guztien aurrean.

Iñundik iñora al ba-da, zuen aldetik beintzat, guztiekin batean bizi izan zaiteze." Err. 12,9-18.

Ez zagiezela gaiztakeriak azpiratu, bestera baiño; zuek azpiratu gaiztakeria on egiñez. Err. 12,21.

KOL,OSATARREI

Alkar, ondo, eroarsik eta parkaturik alkarren arteko asarrerik ba-litz, Jaunak parkatu eutzuenez, zeuok be parkatu egiozue alkarri, danaren gainetik barriz, maitasunez jantzi zaiteze, zindokuntza osoaren lokarria da-ta. Zuen biotzetan Kristoren bakea izan declina nagusi, orretarakoxe izan ziñen deituak eta, gorputzez bat egiteko.

ANAI MAITASUNA ZELAKOA IZAN BEAR DABEN; AGERTZEN DAUTSE KORINTIOTAR KRISTIÑAUEI

Maitasuna eroapen aundikoa da. Maitasunak ez dau ikusi eziñik, ez aundiusterik, ez arrokeririk, ez asko-nairik; maitasuna ez da berekoia, ez da asarretzen; ez dau bidegabekerietan gorrotorik artzen; egian dau bere poza. Guztia alde onera botaten dau, guztia itxaroten dau; guztia, ondo, eroaten dau. Maitasuna, iñoiz, ez da ilten. 1 Kor. 3,4-8.

Orain irurok irauten dabe: sinismenak, itxaropenak ta maitasunak; baiña eurotariko nagusiena maitasuna da. 1 Kor. 13, 1.

LENENGO KRISTIÑAUEN BATASUNA

Jesusek il aurreko otoitz dardagarrian, bere jarraitzaileetara alde, era ontan erregutzen eutsen Aitari: "Guztiok bat izan daitezela, Zu, Aita nigan ta ni zugan bat gareanez; eurok be bat izan daitezela gugan, zeuk bialdu nozula, munduak sinistu dagian." Jon. 17,21-22.

Lenengo kristiñauak, olantxe, egin eben. "Sinistuten ebenak, biotz bat ta espiritu - *gogo* bat bera ziran." Egiñak. 4,32r

Ezeren kezka barik, gorputz bat osotuten ebeia, barru barrutik, sinistuten eben.

"Gu guztiok be espiritu bat bakarraz hateatuak izan gara, gorputz bakarra egiteko, eta guztiok, nai judarrak izan, nai gerkarrik, naiz jopuak, naiz askatuak, Espiritu beretik edan dogu." 1 Kor. 1.13. Kristorekin bat eginda gagozen ezkerok, guztiok persona bakar bat gara." Gai. 3,28.

"Ogia bat dan ezkerok, guztiok gorputz bakarra egiten dogu, ogi bakar orretatik artzen dogu guztiok eta... 1 Kor. 10,17.

"Gorputz bat eta espiritu bat bakarra da. Aren deiak zabaldu eutzuen itxaropena be, bat bakarra danez, Jauna bat bakarra da, bat sinismena, bat bateoa; bat da guztion Jaungoikoa ta Aita, guztion gainean dagoana, guztien bidez diarduana ta guztiokan bizi dana." Ef. 4.4-6.

Kristo da danen burua. "Bestetara bai, ostera; egiari eutsita, azi gaitezen danetan maitasunez, gure buru dan kristogana eldurik." Ef. 4,15. Gorputz osoa eleiza da. "Zuekaitik nigan nekeak eroan nitualako, orain, poztu egiten naz, eta Kristoren gorputza dan Eieizearen aide Kristoren nekeei palta jakena, neure aragian betetan dot." Kol. 1.23. Ta kristiñau bakotxa gorputz orren zati bat da. "Bere gorputzaren atai gara ta." Ef. 5,30.

"Izan be, gorputz baten atalak asko dira, baiña atal guztiak ez dabe egiteko-berbera. Orreia ba, asko garanok, gorputz bat egiten dogu Kristogan; baiña atal bakotxa beste atalen laguntzarako dago." Err. 12.4-5.

Lagun guztiak ez dabe zeregin bardiña egin bear. Guztiok ez dogu balio gauza berbera ta gauza guztiak egiteko. Baiña guztiok bata-besteari iaguntzeko gertu egon bear gara, gorputzaren atal bakotxa beste ataien iaguntzarako gertu dagoan iez. 1 Kor. 12,14-30.

Kristo buru daia, kristiñauak osotuten daben gorputz oni, Kristo osoa deritxo edota Kristoren gorputz mistikoa. 1 Kor. 12,27.

Maitasun ederra, ederragorik ez dago munduan. Kristiñauen bata-besteaganako maitasunaren bidez, Kristo osoa azten joan bear dau. Efr 4,16.

Gogoz eta gogor jokatu bear dogu: "Guztiok sinistu eta Jaungoikoaren Semearen ezagueraz bat eginda, gizon eldu ta Kristoren adin beteko biurtu gaitezen arte." Ef. 4,14.

Ondasunez, jakituriz, diruz ta laguntzaz bat eginda bizitzea, Kristo osoaren gorputza egitea da. Kristo osoa izan dedin ba, gu geure artean alkartzen gara.

Kristoren alde guk emon geinkezan testigantzarik on ta indartsuenak maitasuna ta alkartasuna dira.

Jesusek esan eban: "Nire ikasle zareena, onetantxe, ezagutuko dabe: zuek alkar maite izatean." Jon. 13,35. Eta aldi aretan, olantxe, izan zan Apostoluen Egiñetan agertzen danez; "Eta egun oro gogo batez Jauretxera joaten ziran; eta etxeetan ogia zatiturik, alaitu ta gogo bakunez batera jaten eben, Kaungoikoa goraturik eta erriaren ederra irabazirik." Egiñak 2.46-47.

Era onetan jokaturik, naita jazarpenak, nunnaitik etorri, Kristoren usai gozoa zabaltzen eben ta sinismendunak ugaritu egiten ziren. Egiñak. 16,5.

ANAITASUN OSOA

Gizonaren bizia burrukea da lurrean, baiña kristiñauentzat burruka ori eztizko biurtzen da sinismenaren bidez. Kristo berberagaz batera daroa ta Jesusen jakituri orrek gure iluntasunak argitu ta pozez, indartzen dau bizia, ta zenbat eta burruka aundiagoa egin, zoriontasuna aundiagoa emoten dau.

Eriotz ostean beste poz eder bat izango da emen lurrean, egiñiko bizitzan, beartsuei lagundu izatea. Ara, oneri buruz, zer diñoan Mateo deunak: "Gose nintzan ta jaten emon zeunsten, egarri izan nintzan eta edaten emon zeunsten; arrotz nintzan eta etxean artu ninduzuen billoizik nengoa eta jantzi egin ninduzuen; gaisorik eta ikustaldia egin zeunsten; giltzapean eta ikustera etorri zintzakidazen. Mt. 25, 35-36. Munduan, onaren alde egindako azterketa aundia izango da. Gogo zaletasunak eta aitzakiak ez dabe ezer balio izango.

Bakarka, bestiekin zer ikusi barik, ez gara gaizkatuko. Geure buru ta biotzak agintzen daben eran, jakituriz ta maitasunez alkarasunean jokatu lurrean ta maitasunean biziko gara zeru ederrean. An, ez da bata-besteagandik banatuta bizi izaterik izango. Ango zoriona alkartasunean izango da, gorpuz ta arima, osoan, berbizturik, antxe, bakarrik, ezagutu leiken zoriontasun ederrean. Buruzko ta gogozko salbamena, bakarrik, ez da izango. Lur onetan, on egiten ibili ziran gorpuz ta gogoa, alkarrekin gaizkatuko dira euren ondasun guztiekin batera. Onerako alkarrekin burruka egin, alkarrekin izan bear dabe zorioneko anaítasunean.

Txarkerizko egitura zapaltzailleak, munduan, arro arro, itxura baten, nauskerietan ebiltzeanak, menperatuak izango dira. Munduan on egin dan guztia, zeruan on egin dabenekin biziko da betiraun guztian. Sendi alkartasunak, laguntasunak, eroapenez eroandako neke ta samintasunak, adiskidetasunak, beartsuei egindako mesedeak, danak zeruan biziko dira.

Zeruko zoriontasuna ain gizatiarra izango danez, gaizkatu dan gizadi guztia partekide izango da zorion aretan.

Kristok, an, itxaroten gaitu. Bera, lenengo, juen zan lekue gertutera. "Nire Aitaren etxean bizitoki asko dagoz; ezezkoan, esango neuskizuen; zuei toki bat gertatzera nota-ta. Eta joanda, tokia gertatu dagitzuedanean, atzera etorrita, neugaz artuko zaituet, ni egon naiten tokian, zuek be egon zaitezen." Jon. 14,2-3. Gure anai nagusia da. "Aurretiaz ezagutu dituenak, bere semearen irudiaren antzeko egin zaitezen be, aurretiaz aukeratu zituan, anai askoren leen-semea Berbera izan zedin." Err. 8,29. Berarekin batean, gu zoriontsuak izatea nai dau. Zuek be, illun, zagoze orain; baiña barriro, ikusiko zaituet, eta poztu egingo da zuen biotza, eta zuen poz ori iñortxok be ez dautzue kendu al izango. Egun aretan ez daustazue itaunik egingo. Benetan dirautzuet; Aitari neure izenean eskatu dagiozuena, emon egingo dautzue, zuen poza bete betea izan dedin." Jon. 16,22.

Zerua Kristoren gorputz mistikoa da. Emen, lurrean, geldi geldika, Kristoren gorputz oso egiten goaz. "Apostoluen eta Igarleen oiñari gainean jasoak, giltzarri Jesukristo berbera dala, onexengan doa jasoez etxegintza guztia, Jaunaren etxe santu izateko. Zuek be, Espirituaren eragiñez, etxeari lotuta zagoze, Jaungoikoaren bizi leku izan zaitezten." Kor. 3,9-16.

Zeruan antziñako agintza, ondo, betetuten da. "Ni zuen Jaungoiko izango naz ta zuek izango zaree nire erria." Jaungoikoa izango da gure bizitzaren ardatza, ta olan, guztiok elduko gara anai barria izatera bizitza eder baten.

San Juanek, era onetan, agertzen deusku gure betiko bizia Agerpena edo Apokalipsis liburuan: "Ortzi barri bat eta lur barri bat ikusi nituan, lengo ortzia ta lengo lurra igaro egin ziran eta; itsasorik barriz, onezkero ez dago. Eta uri santua, Jerusalem barria, ikusi neban, Jaungoikoaren izenean zerutik jatziten zala, emazte apaindua senarrarentzat lez. Eta aulkitik berbots au entzun neban; ona emen, Jaungoikoaren bizitokia gizonen artean ta bere bizitokia areen artean jasoko dau, ta Aren erri izango dira, eta arekin dagon Jaungoikoa bera izango da areen Jaungoiko. Begi maiko guztiak legortuko dautsez, eta ez da aurrerantzean eriotzarik izango, ez negarrik, ez garrazirik, ez miñik; lengoak igaro dira-ta." Aok. 21,1-4.

"Onezkero ez dira gose izango, eta egarri be, ez ta guzkiak edo sargoriak ez dauz nekatuko; aulki erdian dagon bildotsak larratu ta bizitzeko ur-iturrietara eroango ditu; ta aren begietatik edozein maiko Jaungoikoak kendu egingo dautse." Apk. 7,16-17.

Eta aulkian jezarrita egoanak auxe esan eban: "Begira, nik gauza guztiak barritu egingo ditut." Ta ure bere bai; "Idatzi egizu, berba onek berba zintzo ta egiazkoak dira." Au esan eutsan: "Eginda dago: Ni alfa ta omega naz, asiera ta azkena. Egarri izan daitenari, nik ur bizia darion iturritik, utsean, emongo deusat edaten. Gauzok irabazi dagizanak, artuko ditu oiñordeko-tasuntzat, ta Jaungoiko izango nakio, ta seme izango jat." Apk. 21, 5-7.

An, ez da barriro, madarikapenik izango, ta Jaungoikoaren Bildotsaren aulkiak, an, egongo dira, ta Jaungoikoaren morroiak gurtu egingo dabe, baita Aren arpegia ikusiko dabe, ta Aren izena bekokian eroango dabe.

Arrezkero, an, ez da gaurik izango, ezta argi-zuziren nazi eguzki argiaren bearrik be ez da izango, Jaungoiko Jaunak egingo dautse argi-ta; gizaldiz gizaldi errege izango dira. Apk. 22,3-5.

AZKEN GOGAETA

Gaurko kristiañauak zergaitik ez darabilgu, anai legez, bizi izatea...? Azken zati au kristiañau gogaketeen ondorena da. Beti, gitxi gora-bera, puntu bardiñera eldu gara.

Munduan ez dago maitasunik, beartsuak Ebanjelioaren aurrean, erantzupendun izatera eltzen ez diran bitartean.

Ain zeia dan erantzuera au, oso sakona da.

Beartsuen erantzupenik eza, zertan agertzen da? Ta nork dauka errua? Munduan zergaitik ez dago maitasunik?

Lenengo erantzueraren argibidetzat errezoï onek agertu geinkez.

Jende zeïak gitxiagotzat dauke euren burua ta lar parkatzen oituta dagoz.

Ez-jakintzat geure burua arturik, gauza aundirik ezin egin geinkela uste dogonean, Jesusen irakatsiaren, aurrez aur, jarten gara. Zerbait egiteko bildur gara. Ondo oldoztu ta geurez erabagiak artzen, ez gara ausartzen.

Indartsuen jokerea ostera, bestera da. Arek zur ibili ziran, beartsuak azpian, eukiten. Ezer ezak direla-ta, ezin leikiela pausurik, aurrera, egin, sinistu eragin eutsen.

Baiña, len, ikusita daukagunez, Jaungoïkoak jende beartsua maite dau. Beartsuengan dauka bere itxaropen guztia. Beartsu batek zuzentasunaren alde iñork baiño gose-egarri aundiagoak daukaz ta ortxe, beartsuen artean dago egizko maitasunaren aria.

Jaungoïkoa, gauza aundiak egin nai dituanean, beartsuengana doa ta arekin egiten ditu gauzarik aundienak. Ebanjelioa jende beartsuarena da, liburu santuan idatzita dagoanez. "Beartsuei iragarriko jake Ebanjelioa". Beartsuak Jaungoïkoaren itxaropena dira, ta orren artean osotu bear dau, batez bere, Jaungoïkoaren Erreiñua'

BEARTSUEN MUNDUA BANATUTA DAGO

Indartsuen beste eden bat au be ba-da. Jende zeia euren artean alkartasunera eldu ez daitezen milla matrikula asmetan ditue. Anaien arteko gorrotoa zirikatzen da, jendea itsutuz ta alderdikeriak euren artean jarriaz. Ta bein, azi baltz ori baserri ta beartsuen artean sartu ezkeru, ¡geu gara ba mutillak! inguruak sakabanatzen. Bata bestearen aurkalanik aski egiten dogu. Gozaro gabiltzaz bate-besteari aginka.

Ta bien bitartean indartsuak, beartsuen alkartasunik ezaz, euren norkerietarako, poliki poliki, baliatzen dira.

Norberekoi indartsuen zirikadak indar geiago dauke jende beartsuaren alkartasun gogoak baiño.

INDARTSUENGAN DAUKAGUN OSTEA, IÑOZ, EZ DA GALTZEN

Naita, sarritan, atzipetu nai izan ba-gaitue be, ez gara esnatzen ta ez dogu bear ez dan bidea, nundik nora, doan ikusten, kaskar gogorrekoak gara.

Líburu santuak diñoanez barriz, betik gora etorri bear dau salbamena, zeietatik asi ta aundietara. Beartsuetatik asita, gora goraka, mundua salbau al izango da-ba.

Kristogan eta berbiztuengan uste izateko ordua eldu da.

Jende zeiazen ez-jakiña dala-ta, anaitasunak, munduan, ez dau bear dan aurrerapenik egiten.

Emen, daukaguz uts aundi batzuk. Gure arazoak, bear dan eran, ez ditugu ezagutzen. Egizko kristautasunaren muiña ez dogu ikusi ta onartzen. Ta azkenez, irugarren, Jaungoiko egiazkoa ezin dogu onartu.

Beartsuen biziera larria, nekez beterikoa, izerdiz bustia, buruko miñez samindua, ta lorrez, goitik bera, ondo, josia, ezin dogu ezagutu. Ta mundu zabalean danen bizia, zuzentasunez, obeto, eraturteko bidea be ezin dogu billatu. Ta onez gaiñera, guregan daroagun itxaropenaren argi ta indarra be ezin ditugu billatu ta onartu.

Gure balioak onartu ta geure kontura pentsetan asteko garaia da. Beti, iñoren kontura ta goikerien menpean barik, geure kontu ta sailla sortzeko be ordu egokia da. Almenik ba-daukagu, geurez, zeozer egiteko ordua da.

Jaungoikoak Nazaretoko Andra Mariagan jarri eban bere ustea. Ta onen inguruan Jose ta arrantzaliak izan zituan lagun. Onen eskuetan itzi eban, lurrak ezagutu daben arazorik aundiena. Testamentu Zarreko "Jaunaren beartsuak" lakoak izan bear dogu.

Areen jakintza ez zan munduko arrapatariena lakoa, dana iruntzi naian, dana norbere etxean pillatu naian; areek zerutiko jakituriaz, batak bestea-rena, lotsaz, artzen ikasi eben ta batak besteri laguntzen.

ZUZENTASUN GOSE EGARRIRIK EZ DAUKAGU

Gauza ederra da munduko arazoak, zuzentasunez, etsita eroatea, ondo artuta betetutea. Eroapena lora ederra da arrokeri ta zistrinkerian aldean, baiña etsipenaren etsipenez nortasuna galtzea, ez da egokia; egitura eta errezoiei eurei zor jaken gatza ta indarra emon bear jakez, bestelan gure biziak bere jitte galtzen dau, ta olan, bizia gozatu bearrean, indargetu ta galdu egiten dogu.

Eskuak kurutzatuta, bakean, bizi gara. Baiña zelako bakea!! Goitik bera jota, ixilik, egon eragiten daben bakea! Ori goikeriz zapaltzea da. Gaiztasunetan gizonak, zuzentasunez, ots egin bear dau biziaren egia aurrera joan dedin. Guzurrak ezigaitzak lez izatea nai dau, baiña egiak dei egiten dau bizi-modua, *aurrera*, *atera* bear danean.

Arazorik ez-ba-lego legez, geldi egon, burrukarik egin barik, Jaungoikoaren Itzarengandik ez eban urten. Kristo ez zan egon geldi, Kristo ez zan ixilik, egon... Zuzentasunari buruz jardun eban Kristok, kurutzera eldu arte... Jesusen guraria zan, egi, zuzentasun ta ortik ondoren, datorren bake erreñua... ez zapalketatik datorren nauskeria ta gosea.

Jesusek mundu barri bat egitea nai dau ta gizonak dira ortarako auke-ratuak. Ainbeste txarkeri ezin dau ikusi, ainbeste negarren karrazia deika dago Jaungoikoaren aurrean. Suspertu ta aurrera ba gizonak, mundu barriari atea zabalduz, eta gizadia egiaren bidez poztuz.

BIBLIAKO TXIROTASUNIK EZ DAUKAGU

Txirotasunik aundienian asko bizi dira mundu zabalean. Miseria ez da Jaungoikoak nai daben itza bere seme-alabentzat lur onen gaiñean. Jaungoikoak nai daben txirotasuna ori ez da. Miseria ez-bear aundi bat da, ta orren aurka burruka eginbearra daukagu geure almen guztiekin, mundutik gosea ta orren ondorenak kendu arte.

Kristo andra beartsu baten semea zan. Beartsua iz an zan, baiña ez materi txirotasuna maite ebalako. Txiroa izan zan maitasunez. Maitasunak ba guztiok alkartzen gaitu, bardintasuna emoten deusku, zuzengabekerien aurrean ezikaitza izateagaitik.

Egilleak lurraren sorreran, guztia egin eban gizadi osoarentzat, iñor ez eban baztertu lurreko ondasunetatik eta iñor be ez eban, ondasunak norberenganatzeko, aukeratu. Gizonen norberia agertu zan ondasunak pillatzen ta ogasun parte geiene giza-seme gitxiren eskuetan pillatu ziran. Ta era orretan sortu zan gosea gizadiko jendetza geienaren artean. Jaungoikoa zoritxardunen alde jarri zan, eurekin bat egin ta laguntzeko. "Beartsu egín zan, bere txirotasunak gu aberats biurtzeko".

Kristoren espiriturik ez daukanak, munduko aberastasunak nai ditu, ta ostera, Kristoren gogo daukanak, Ebanjelioko txirotasuna maite dau.

Emen, ikusten dogunez, Bibliako txirotasuna mundu-zabalean norbereriaren aurka dago. Ta norbereriaren kateiak urratu ta baztertu dituanak esan lei, gizontsu bizi naz; Ebanjelioko txirotasunaz bizi naz.

Era onetan, norberizko kateiak apurtu ondoren, beartsuei laguntzeko duin izango naz ta eurekin batera lurreko frutuak banatu ai izango ditut.

Orain ulertuko dogu, Bibliako txirotasuna zer dan... Ondasun guztiak alkarrekin alkarren artean banatzea ta bata-besteari on egiñez, anaitasun ederrean bizi.

Zerbait galtzeko bildurra daukagunean, beartsuari laguntzera jarten gara, zorioneko edo zoritxarreko bildur au norbereriaren asiera biurtzen da. Ta ostera, kristau txirotasun gogo sendoak, bildurra bota egiten dau ta guztia alkarrekin egitea da beretzat egitekorik aundi ta ederrena ta bizitza ontan bearezkoena.

Berez, gizon argalkeri, norberki ta bildurrak ondasun pillatzera daroe gizonaren biotza; ta Ebanjeliko txirotasuna ostera, ondasun ugaritzeari uko egitea da, danekien ondo, egotea ta aurrerapidea nai dau. Danak miseritik urten ta gizontsu bizi izatea.

BIBLIAKO APALTASUNIK EZ DAUKAGU

Apala ta totoa ez dira bardiñak. Apalak dauka bere izena ta izatea ta totoak bere izen ta izana daukaz. Beti, ixilik, eta norberekoien jopu izatea, ez da apalaren zeregiña. Apala beste gauza bat da; egizalea da apala. Zuzentasunaren izenean lan egin ta nekea bere lepo gain artzen dabena... ori apala da.

Andra Maria andra apala izan zan, Jaungoikoaren ama izatea onartuz. "Ona emen, zure mirabea, egin bedi nigan zure borondatea". "Norkeri barik egin bear dana egitea apaltasuna da. Kristo, egin zitun egite arrigarriekin, apaltasun eredu izan zan. Ta larkerien ta norkerien aurrean ez zan ixiltzen.

Ebanjelioko apaltasuna, egite ta zuzentasun utsa danez, jopukeri ta zapaltzearen, aurrez aurre, egon da beti. Bakotxak bere eginkizunak, zentzunez, betetea, apaltasuna da.

Kristiñauen artean apaltasuna da, bata-besteari lagundu bear deustela ezagutzea ta ondoren eginkizun ori betetea. Ta apala izatez da baita bere, mundu ontako bizitzan Jaungoikoa ta anaiak bear ditugula ezagutzea, alkar onartuaz... norberekerietatik urtetea ta geure zuzendari nagusi Jaungoikoa artzea, apaltasun oiñarri nagusia da.

Bakotxak al daben eran, besteei laguntzea apaltasuna da ta urko-lagunak be laguntza ori onartuaz, apaltasuna agertzen dabe.

Beartsuen erakunde bateko zuzendari nai ez izateak, arrokeriaren kutsua daroa, apaltasunik-eza da.

Norbera aundizat eukitea, arrokri aundia da. Or, ez dago apaltasun izpirik. Norbere burua dan baiño gitxiagotzat euki ta miñean ori, sarri, erabilteak be ez dau apaltasun larregirik agertzen.

Jauntxo izan nai dabenak, bere gurarietan aize putsak daroaz eta ez dauka apaltasunik.

Apala izatea zer dan jakin ta apaltasunean bizi nai dabenak, anaitasun giroko bizitza ederra izango dau ta norberari dagokion eran bizitza egingo dau. Dan baiño, ez geiago ta ez gitxiagotzat bere burua artzen dabenak, ziurtasun aundia dauka ta gizartearentzat izaki mesedegarria izango da. Persona apala da.

BEARTSUEN ITXAROPENA. AGURRA.

Munduko uts aundi bat izan da, lurreko arazoetan beartsuek parterik ez izatea. Beti, beartsuak izan dira.

Baiña bene-benetan, gizadiak, zuzentasun bidean aurrerantzarik egin ba-dau, beartsuen abots eta ekiña gaitik izan da. Biziaren joan etorrian aundiki ta indartsuak ez eutsen aurrerapide aundirik emon gizarte bizitzari, alkartasun ta anaitasun bizitzari.

Anaitasunezko mundua sortzeko sasoi ederrean gagoz Kristori begiratzuz ta aren gogoa gizartean ugarituz. Jaungoikoaren aitatasuna onartzen dogunean, egizko anaitasuna izango da lurrean.

Jaungoikoak beartsuei egindako deia, argi, agertzen da. Guri be dei egiten deusku: Nire erriaren miseria neure begien aurrean daukat. Ez bildur izan. Ni zuekin egongo naz".